



BOOKTEGI

Martin Luteroren biografia eta bereizgarri psikologikoak

MIKEL HARANBURU OIHARBIDE – NEKANE BALLUERKA LASA – ARANTXA GOROSTIAGA MANTEROLA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MIKEL HARANBURU OIHARBIDE
NEKANE BALLUERKA LASA
ARANTXA GOROSTIAGA MANTEROLA

Martin Luteroen biografia eta bereizgarri psikologikoak

AURKIBIDEA

Martin Lutero, jaiotzatik komentura sartu bitartean

Haurtzaroa

Ikasketak

Komentura sartu zenetik ezkondu bitartean (1505-1525)

Nobizio bizi

Apaiztu eta teologia ikasketak

Wittenberg-en ikasle eta irakasle

Erromarako bidaia

Teologian doktore eta fraide bizi zorrotza

Gizon zuzena fedetik bizi da

Induljentzien salmenta

Bizitza lanpetua: administratu, idatzi eta irakatsi

Tesiak

Staupitz eta Kaetano

Miltitz eta Eck. Leipzig-eko eztabaida

Melanchthon

Errenazimentua eta Luteroen eskumikua

Luteroen pentsamendua

Hutten-go Urliko eta Sickingen-go Francisco

Worms-eko dieta, Wartburgoko gaztelua, Zwickau-ko profetak eta Testamentu Berriaren itzulpena

Luteroen idatziak, musika eta Nurenberg-eko Dieta

Protestanteen arteko zatiketak, Carlstadt, Müntzer Alemaniako estatua eta Nekazarien matxinada

Lutero eta Erasmo

Ezkontza ondorengo bizitza

Lutero eta Catalina

Politika praktikoa

Espirako dieta, Marburgoko konferentzia eta Augsburgoko dieta

Esmalkaldako Liga. Nurenberg-eko bakea. Agricola. Kontzilioa. Felipe Landgravearen bigamia

Zwinglio eta Felipe Landgravea

Ratisbonako Dieta eta Worms-eko eztabaida

Luteroren bizitzako azken hilabeteak eta heriotza

Luteroren anti-judaismoa

Lutero eta kapitalismoa

Martin Luteroren bereizgarri psikologikoak

Nortasun erlijiosoak. Fedea eta grazia nagusi

Luteroren nahaste mentala

Nahaste obsesibo-kompulsiboa

Barne-herstura eta depresioa

Espektro Emozionaleko Nahastea

Ondorioak

Bibliografia

Martin Lutero, jaiotzatik komentura sartu bitartean

Haurtzaroa

Alemaniko Möhra izeneko herrixkan bizi izan ziren Luteroren arbasoak; XVI. mendearen lehen herenean 59 familia bizi ziren herrixka horretan. Hangoa zen Luteroren aitonetako bat: aitaren aldetiko aitona: Henrike Luder. Han jaio zen Luteroren aita: Hans Luder. Familiako anaia zaharrena zen Hans eta Möhra-n (Turingian) ohitura zenez, familiako anaia gazteenak jaso zuen baserria herentzian. Herritar gehienak nekazariak eta lur-jabeak ziren. Kobre mehatzak ere baziren han.

Hans Luder Margarita Ziegler-ekin ezkondu zen eta Mansfeld-ko konderriko Eisleben herrian (*Turingia*) jarri zen bizitzen; kobre eta zilar meatzetan lan egiten zuen; kobre meatzetako lanetik bizi zen Eislebengo jende gehiena. Hans eta Margaritak herri horretan eman zuten bizitza osoa. Mansfeld eskualdea Europako zilar eta kobre ekoizle handienetakoa zen garai horretan (Smith, 1911; García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Hans Luteroren eta Margarita Ziegler-en seme zaharrena zen Martin, anaia zaharrago bat hila zelako; 1483ko azaroaren 10ean jaio zen Martin Eisleben-en. Jaio eta hurrengo egunean bataiatu zuten Eisleben-go San Pedro parrokian eta Martin izena jarri zioten, santu horren eguna zelako. Martinen ondoren, haren hiru arreba eta anaia gaztea jaio ziren. Jakob izeneko anaia gaztearekin harreman estua izan zuen Martinek. Martinek ez zuen bere aita nekazari moduan ezagutu, baina nekazarien semea zela esaten zuen; alabaina, Martin ez zen nekazarien oso lagun agertu bere bizitzan zehar. Ia bizitza osoa bere jaioterritik at pasatuta gero, Eisleben hil zen hirurogeita bi urte zituela (Smith, 1911; Roper, 2010).

Mendixkez inguraturik zegoen Mansfeld eta mendixka horietako batean kondeen gaztelua zegoen. Albertotarrak (Alberto kondearen adarrekoak) gazteluaren aurrealdean bizi ziren eta eliza katolikoan jarraituko zuten. Ernestotarrak (Ernesto kondearen jatorrikoak) gazteluaren atzealdean bizi ziren eta luterotar bihurtuko ziren. Meatzaritzaren aitzindariak ziren konde horiek (García-Villoslada, 1973).

Martinen aita langilea eta borondatetsua zen, baina asko kostatzen zitzaion bere amorrua eta haserrea kontrolatzea. Kementsua, goranahia eta lehiakorra zen. Meatzari soil izatetik meatzari-buru izatera pasatu zen; hasieran besteentzat lan egiten zuen, baina bere

gaitasunetan oinarritu, bere ardurak hartu eta beretzat lan egiten hasi zen. Kobre meatzeen elkarte ustiatzaile bateko akziodun izatera eta zazpi fundizio ustiatzera heldu zen. Indar eta interes asko uztartu behar ziren meatzaritza negozioan: kondeen, beste ustiatzaileen, meatzarien eta kapitalisten interesak. Interes horiek legearekin uztartzeko lege kontuetan aditua izan behar zen; hori dela eta, Hans-ek nahi zuen bere seme Martinek zuzenbidea ikastea. Hans gizon arduratsua zen eta Mansfeld-eko kuadrunbiro izendatu zuten; udal administrazioaz arduratzen ziren lau kuadrunbiroak.

XVI. mendeko lehen erdian indarra galtzen joan zen meatzaritza Mansfeld-en: 1508an berrogei bat fundizio-maisu zeuden; 1536an, erdira jaitsi ziren; 1560rako meatzari industria gainbehera etorria zegoen. Martin Lutero meatzeen salerosketaren monopolioaren kontra agertu zen eta esaten zuen merkataritzako zenbait praktika kristauak ez zirela, baina prest zegoen oinarritzko tasa bat onartzeko maileguen errendimendu gisara (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luteroren ama Eisenach-eko familia burges batekoa zen, Lindemann familiakoa; apala eta elizkoa zen; hainbat sineskeria zituen eta, besteak beste, sorginetan sinesten zuen; gogor lan egin beharra egokitu zitzaion. Martinen aita meatzetara joaten zen bitartean, ama etxean gelditzen zen haurrekin. Martin Luteroren esanetan, gurasoek bizitza oso gogorra izan zuten, eta aitaren ahaleginei esker heldu zen izan zena izatera. Martin akademikoki prestatzeko erabakia Lindemann-tarren tradizio akademikotik etor zitekeen. Hans-ek ere, berak izan ez zuen heziketa eman nahi zion semeari (Abellán, 1990; Roper, 2010).

Martinen guraso biak ziren zorrotzak eta gogorrak haurrekin; zigor fisiko gogorrak jaso zituen Martinek haurtzaroan, bai etxean, bai eskolan. Aitak egun batez oso gogor zigortu zuen Martin eta, gerora, asko kostatu zitzaion berriro ere semearen bihotza bereganatzea; hala ere, Martinek ez zuen gorde aitaren oroitzapen oso txarrik. Amak ere egun batez odoletan uzteraino zigortu zuen semea, intxaur ale bat osteagatik (Smith, 1911).

Luterok harreman handirik ez zuen eduki anai-arrebekin eta ez zien gutunik idatzi haiei, 13 urterekin etxea utzi zuenetik. Gerora, aitaren ondasunen banaketa zela eta arazoren batzuk izan bazituzten ere, harreman nahiko onak izan zituen Martinek bere senideekin; bere ilobetako batzuk zaindu ere egin zituen.

Ikasketak

Mansfeld-en 1489tik 1495era bitartean egon zen Lutero eta han ikasi zuen irakurtzen, idazten eta abesten. Latina ere ikasi zuen han. Hiru taldetan banatuta ikasten zuten hurrek. Tabulistek taula bat erabiltzen zuten latineko silabak irakurtzen eta idazten ikasteko; otoitzak, hamar aginduak, sinesmen artikulak eta abesti batzuk ikasten zituzten. Donatistek latineko gramatika ikasten zuten, *Donatus minor* metodoa erabiliz. Alexandristek latinaren prosodia eta sintaxia ikasten zituzten, Alejandro de Villedieu-ren *Doctrinale Puerorum* tratatuaren bidez. Irakasleak zorrotzak ziren eta sarri zigortzen zuten ikaslea deklinabideak edo aditzak behar bezala ikasten ez bazituen. Ikasle bizkorretako bat *Lupus* (otsoa) izendatzen zen, eta beste ikasleen hutsegiteak apuntatzea zen haren eginkizuna; *Lupus*ak ikasleren bat alemanez hizketan harrapatzen bazuen, haren berri eman behar izaten zion irakasleari eta irakasleak zigortu egingo zuen. Ikaslerik atzeratuenak (*Asinus*-ak) asta-burua eramaten zuen lepotik zintzilik. Luterok gerora esango zuen haurrak jo, zigortu eta, aldi berean, maitatu egin behar direla. (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911; Roper, 2010).

1496tik 1497ra bitartean Magdeburgoko Bizitza Komuneko Anaien ikastetxean ikasi zuen Luterok. Elba ibaiaren ertzean zegoen Magdeburgo, Mansfeld-eko iparraldean. Hiri aberatsa zen, eliza asko zituena. Gurasoek ahalegin ekonomiko bat egin behar zuten Luteroren ikasketak ordaintzeko, baina prest zeuden beharrezkoa zena egiteko semeak gizarte maila igozearren. Meatzetako inspektore zen Hans Reinicke-ren semearekin batera joan zen Lutero Magdeburgora. Reinicke-k meatzeen negozioen munduan bizitza arrakastatsua izan zuen eta horrelako zerbait nahi zuen Hans Luder-ek bere semearentzat. Martin eta Reinicke elkarren lagun izan ziren bigarrena hil arte (1538). Lutero Magdeburgon zegoela hasi zen monasterioko bizitzan pentsatzen; han ezagutu zuen Anhalt-eko printzea, Merseburg-eko gotzainaren anaia, eskale moduan, hezur eta azaletan, frantziskotarren kaputxarekin eta bizkarrean zakua zuela ibiltzen zena, eta handik gutxira hil zena. Magdeburgon Bizitza Komuneko Anaien irakaspenei jarraituz, klase orduetatik kanpo pietatezko ariketak egiten zituen Luterok (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911; Erikson, 1958; Abellán, 1990; Roper, 2010).

1498tik 1501era bitartean Eisenach-eko San Jorge eskolan ikasi zuen Luterok. Hamabost urte zituen Eisenachera joan zenean. Han egin zituen Luterok hiru urteko ikasketa

humanistak. Lau mila bizilagun inguru zituen Eisenachek eta Wartburg-eko gazteluaren babesean zegoen. Hiri horrek Magdeburgoren ospe eta mailarik ez bazuen ere, hangoa zen Luteroren ama, eta haren familia errespetatua zen Eisenachen. Amaren senitarteko asko legegizonak, doktoreak eta administrariak ziren eta, horren eraginez, Martinek unibertsitate ikasketak aukeratu zituen. Eisenachen Luteroren amonaren anaiak (Conrado Hutter-ek) sakristau lanak egiten zituen eta harekin harremana izan zuen Martinek; geroago, sakristau hori ere gonbidatu zuen Luterok bere meza berriko ospakizunera. Lutero bi familitan egon zen bizitzen Eisenachen: batetik, Heinrich Schalbe izeneko Luterotarren lagun baten etxean egon zen; bestetik, italiar jatorriko familia batean (Kuntz Cotta-ren familian) ere bizi izan zen; Kuntz Cotta aberatsa zen eta Ursula Schalbe-rekin ezkondua zegoen. Ursula Cotta edo Ursula Schalbe Schalbetarren ahaidea zen; amaren senitartekoak ziren Schalbetarrak. Cotta familian nahiko eroso egon zen, Ursulak estimatzen baitzituen Luteroren musikalitatea eta pietatea.

Eisenachen ugari ziren elizak, monasterioak eta liburuak, baina industria gutxi zegoen. Eisenachen latinaren gramatika eta erretorika ikasi zituen eta poesia irakurri zuen Luterok; eskale moduan ere ibili zen, Jainkoaren izenean abesten eta ogia eskatzen. Luterok harreman iraunkorra izan zuen Eisenach-eko Wigand Guldenäpf irakaslearekin eta Santa Mariako bikario zen Johannes Braun-ekin. Schalbe-tarren bidez izan zuen Johann Hilten fraide frantziskotarraren berri. Luterotarrek pentsatzen zuten Hilten-ek auresan zuela Lutero Jainkoak bidalitako gizona zela. Hilten-ek aurreikusi zuen norbaitek aita sainduaren kontrako eraso bat egingo zuela 1516 inguruan. Luterok pentsatu zuen profezia hori berari zegokiola eta iragarpen hori aipatuko zuen Melanchthon-ek 1530eko Augsburgoko Konfesioaren Apologian (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911; Roper, 2010).

1499 urtean Korinto-ko itsas-golkoko Lepanto hiria (gaur egun Naupakto) bereganatu zuen Beyacid II.a sultanak. Gainera, Bosniatik zehar sartutako gudaroste turkiarrak Hungariako eta Veneziako lurraldeak mehatxatu zituzten. 1500 urtean Alejandro VI.a Aita Santuak bulda bat atera zuen, turkiarren kontrako gerrarako; bere legatuak bidali zituen lurralde guztietara, jubileua predikatu eta turkoen kontrako gerrarako dirua bil zezaten. Erfurt-en izugarritzko harrera egin zioten Aita Santuaren legatuari: hiriaren sarreratik Santa Mariako kolegiataraino prozesioan joan ziren magistratuak, kardinalak eta unibertsitateko arduradun eta irakasleak (García-Villoslada, 1973).

Eisenacheko egonaldia 1501eko udan amaitu zuenean, Erfurt-eko unibertsitatera bidali zuten Martin ikastera; izan ere, aitaren egoera ekonomikoak hobera egin zuen eta Erfurt Eisenachetik hurbil zegoen. Erfurtetik Mansfeld-era 75 kilometro zeuden. 1392an fundatutako Unibertsitateko horretako arte fakultatean ikasi zuen 1501etik 1505era bitartean. Erfurten ugari ziren komentu-elizak, elizak eta kolegiatak. Humanista talde indartsua zeukan Erfurteko Unibertsitateak, Lutero haiengana gehiegi hurbildu ez bazen ere. Lutero abokatu ospetsu izatera hel zedila nahi zuen haren aitak, eta horretarako Erfurt toki ezin hobea zen. Erfurteko Unibertsitateko matrikula liburuan *Martinus ludher ex mansfelt* izenez agertzen da Lutero (Roper, 2010). Ikasturte hasieran adar pare bat, txerri-hortzak eta asta-belarriak jantzi behar zituzten hasi-berriek, atzean utzi beharreko ohitura txarren adierazle gisara. Ikasleak kolegiotan bizi izaten ziren, goizean oso goiz (lauretan) jaikitzen ziren eta iluntzean oso azkar (zortzietan) oheratzen ziren; eguneroko eginkizunak ziren mezarara joatea, errezatzea eta otorduetan Eskritura Sakratuak entzutea. Kolegio horietan emakumerik ez zen sartzen, errektorearen baimen berezirik gabe (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Ikasturte akademikoak bi seihileko zituen. Udako seihilekoa: apirilean hasten zena; neguko seihilekoa: urrian hasten zena. Silogismoak trebeki erabiltzen ikasten zuten eta, horretarako, goizetik iluntzera arteko eztabaida publikoak egiten zituzten errektorearen eta Arte Fakultateko maisu guztien aurrean. Hiru seihileko egitean, azterketa bat egin eta batxiler titulua lor zezaketen. Azterketan sartzen ziren gaiak honako hauek ziren: gramatika, logika, psikologia, kosmografia, erretorika.

Erfurteko ikasketek eskolastika ukitua zuten. Aristoteles zen autoritate nagusia, baina, Aristotelesen filosofia ikuspegi askotatik azter zitezkeen: Erfurt-eko unibertsitatean Ockham-go Gilermoren nominalismoak eta bide berriak (*via moderna*) indar handia zuten. XIV. mendean bi joera nabarmendu ziren filosofian:

Tomas Akinokoa-ren eta Duns Scoto-ren *bide zaharra*: Aristotelesen teorietan oinarritzen ziren eta unibertsalak errealak zirela defendatzen zuten: errealitatea ulertzeko erabiltzen ziren kontzeptu orokorrek (unibertsalek) errealitate bat adierazten zuten; gizateriaren unibertsalaren errealitatea zegoelako bakarrik egon zitezkeen gizaki indibidualak; gauzak, zirenak ziren, unibertsal baten adibide partikularrak zirelako.

Nominalisten (Ockham-eko Gilermo, Riminiko Gregorio, Pierre d'Ailly) *bide berria*. Bide Berriaren ordezkarietzat, errealitatearen hautemate sentikorrek ez zuten errealitate

unibertsalaren berri ematen; pentsamendu abstraktura eramaten zuen; unibertsalak ez ziren entitate errealak; kontzeptu orokorrak abstrakzioen emaitza ziren, eta ez zuten errealitate askerik; zentzuek hautematen zutena eta errealak zena gizaki indibiduala zen; unibertsalak objektu partikular anitzen etiketak ziren; hautemateen anizkoitzasunetik kontzeptu orokorretara pasatzea arrazoiaren ekintzaren emaitza zen, ez besterik. Gizabanakoak errealak ziren, baina gizateria ez zen berez errealitate bat, giza espiritutik at izaerarik ez zuelako; kontzeptu (nomen) soil bat zen, espirituak pentsatutakoa eta itunetan oinarritua. Errealitate unibertsalak hitz soiltzat (nomina) hartzen zituzten. XV. mendearen erdiaz geroztik nominalismoa indartsu finkatu zen Erfurten. Luterok Ockham-en jarraitzailetzat zuen bere burua: "*Occam-en jarraitzaile naiz...*") (Roper, 2010).

Aristotelesen eta Ockham-en jarraitzaileak ziren Erfurteko irakasle entzutetsuenak. Zientzia naturalak Aristotelesen autoritatearen arabera irakasten ziren, esperimenterik egin gabe. Baina, Luterok ez zuen gogoko Aristotelesen etika, arima gorputzarekin batera hiltzen dela defendatzen baitzuen Estagirako filosofoak. Nahiago zuen Zizeron-en filosofia. Hala ere, gazteei irakasteko Aristotelesen logika, erretorika eta poetika erabil zitezkeela esaten zuen. Luterok musika, gramatika, erretorika, dialektika, logika, astronomia, etika eta metafisika ikasi zituen, Akinoko Tomas, Alberto Magno, Avizena eta Averroes-en ikuspegitik (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luterok Biblian oinarritu zuen bere teologia. Erfurt-en ikasle zela ikusi zuen Luterok lehenengo aldiz Biblia; Jorge Roerer-ek 1540an zioenez, unibertsitateko liburutegian Samuel-en liburuko pasarte bat irakurri zuen; ez zen erraza ikasleentzat liburutegira sartzea, arte-maisu izan bitartean ezin zirelako han sartu; hala ere, badirudi Lutero liburutegira sartu zela eta Biblia eskuartean izan zuela (García-Villoslada, 1973).

1502ko irailaren 29an arteetako batxilerreko azterketa gainditu zuen Luterok eta 57 ikasleren artean hogeita hamargarren geratu zen. 1505eko urtarrilaren 5ean arteetako masterraren (magister artium) eratzuna eta irakasteko lizentziaren (licentia docendi) birreta beltza lortu zituen (17 ikasletik bigarren geratu zen). Bestalde, Lutero hiltzeko zorian egon zen 1504an Mansfeld-era familia bisitatzera zihoala bere ezpataz zauritu zenean; ezpata hankan sartu zitzaion eta odoljarrio handia izan zuen. Lagun batekin zihoan eta hark sendagile baten laguntza eskatu zuen. Konbaleszentzia garaian lauda jotzen ikasi zuen Martinek.

Magister artium lortzean, zuka hitz egiten hasi zitzaion aita: ordura arte *du* forma erabiltzen zuen; orduan hasi zen *Ihr* forma erabiltzen. Urte berean, Erfurteko Zuzenbideko fakultatean izena eman zuen. 1505eko uztailaren 2an, Unibertsitatean Zuzenbide ikasketak egiten hasi zen Lutero, aitak nahi zuen moduan; garai horretan aste batzuk libre eduki zituen Lutero eta lagun bat gaixotu eta hil egin zitzaion. Gertaera horrek benetan hunkitu zuen Lutero eta malenkoniak harrapatu zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Handik denbora gutxira, etxera bisita bat egin ostean Erfurtera bidean zihoala, Stotternheim herriaren inguruan, tximistekin esperientzia traumatiko bat izan zuen Lutero; izu-ikara eraso bat izan zuen. Martinen usteetako bat zen deabruak eragiten zituela tximistak. Egoera horretan Santa Anari, meatzarien zaindariari, agindu zion, heriotzatik askatzen bazuen, fraide bihurtuko zela (Bainton, 1950; Erikson, 1958). Bi aste beranduago, 1505eko uztailaren 17an, 21 urte zituela, Zuzenbide ikasketak utzi eta San Agustinen ordena eremutarraren Kongregazio Eraberrituan sartu zen Lutero, aitaren amorratorako eta lagunaren harridurarako. Lutero zioenez, erabaki hori ez zuen askeki eta bere gogoz hartu, baizik eta bat-bateko heriotzaren izuak eramanda. Hans Luder-ek bere semearekiko zituen asmoak bertan behera etorri ziren (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010; Hausrath, 1904).

Komentura sartu zenetik ezkondu bitartean (1505-1525)

Nobizio bizitza

Bekatuaren zentzu zorrotza zuen Martinek eta Jainkoarekin etengabe berradiskidetu beharra sentitzen zuen. Etxean izan zuen diziplina zorrotzak, Anhalt-eko printze eskalearen esperientziak eta lagunak zirkuluak komentuko bizitzara bultzatzen zuten. Erfurt-en bizi zuen giroa oso klerikala zen. Erfurt hiri boteretsu xamarra zen eta lege propioen arabera funtzionatu nahi zuen, hiri inperial askeen moduan, baina Magdeburgoko artzapezpikuaren eta Saxoniaren mendean jarraitzen zuen. 1509an tirabira gogorak izan ziren Magdeburgoren babesa nahi zuten agintarien eta Saxoniaren aldeko herritarren artean; 1516an Saxoniaren aldeko agintariak nagusitu ziren.

1505eko uztailaren 17an sartu zen Martin Lutero agustindarren komentuan; bezperan, musikaz eta abestiz girotutako afari batean lagunak agurtu zituen. Bazituen aukeran beste monasterioak ere, baina Erfurteko komentuen artean ospe handia zuen agustindarren monasterioak. Erfurteko monasterioari ospea eman ziotenen artean dago Andreas Zacharias, Konstantzako kontzilioan (1411-18) Jan Hus-i eraso zion teologoa (1415ean Hus heretikotzat hartu eta erre egin zuten). Erfurteko agustindarren komentuak berrogeita hamar fraide inguru zituen; horietako asko unibertsitateko irakasleak ziren. Aste batzuetako froga-aldia jarri zioten Luterori; denbora horretan apopiloen etxean bizi izan zen, gogoeta egin zuen eta Agustindarrek bere bizitzaz, ohiturez eta osasunaz egindako galderei erantzun zien. Lehen froga-aldia gaindituta, urtebeteko froga-aldirako onartu zuten Lutero komentuan. Ilea moztu ondoren, tunika zuria eta kapa beltza jarri zizkioten. Erfurt-en izurritea agertu zenean komentuan zegoen Lutero, baina ordurako bazuen izurriteak beste tokietan eragindako triskantzen berri. Monasterioak liburutegi eder bat zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Monasterioan izango zituen eginkizunen eta diziplinaren berri eman zion prioreak Luterori eta Fr. Juan Greffenstein nobiziaduko maisuaren zaindaritzapean jarri zuen. Gelan honako gauza hauek zituen: lastaira bat, aulki bat, mahaitxo bat, kandela bat eta liburu batzuk. Luterok monasteriotik eman zion aitari fraide izateko erabakiaren berri; aita asko haserretu zen semearen erabakiaren aurrean, Martinek zuzenbidea ikas zezan nahi baitzuen; berriro ere *du-*

ka hitz egiten hasi zitzaion. Luterok ez zuen amore eman eta bere erabakiari eutsi zion. Aitak egoskor jarraitu zuen, arik eta izurriteak bi seme eraman zizkion arte; horrek bihotza bigundu zion Hans-i eta semeari baimena eman zion komentuan jarraitzeko. Luterok esan zuen aitaren eta amaren borondatearen kontra bihurtu zela fraide, salbamena zuela helburu eta arau guztiak zehazki bete zituela (Smith, 1911; Erikson, 1958; Roper, 2010).

Egunaren buruan zazpi aldiz koruan erreztatu behar zuten fraideek: Egunsentia baino lehen matutietarako jaikitzen ziren; Aita Gurea erreztatu eta matutien ofizioa abesten zuten. Gero, areto kapitularrean antifona eta errezo batzuk erreztatzen zituzten. Ondoren Bibliako atal bat irakurri, lurrean ahozpepe jarri eta hutsegiteak aitortzen zituzten, batez ere ostiraletan. Prioreak zigorra ezarri ostean, berriro ere geletara itzultzen ziren. Seiak aldera prima eta tertziako laudeak abestu eta komunitateko meza entzuten zuten. Ez zuten gosaltzen. Hamabiak aldera, bazkal aurretik, erreztatzen zuten sexta. Jangelan isilik egoten ziren, otordu garaian, irakurgairen bat entzunez. Bazkal ostean gelara joaten ziren lo egin, irakurri, idatzi eta erreztatzen. Ondoren, Nona eta bezperak erreztatzen zituzten koruan. Arratsaldeko seietan bazkariaren antzeko afaria egiten zen. Amaitzeko, elizara joan eta Completorium abesten zuten, urte garai bakoitzari zegokion Ama Birjinaren antifonarekin. Urteko egunen erdietan egunean otordu bakarra egiten zuten, eguerdiko ordubiak aldera, eta barau egunetan ez zuten jaten haragirik, gurinik (burrarik), gaztarik edo arrautzarik.

Ordu asko ematen zituen Luterok Juan Greffenstein-ek emandako Biblia irakurtzen; etengabe irakurtzen zituen gogoko zituen pasarteak, horietako asko buruz ikasteraino. Martin astero aitortzen zen, baina haren kontzientziari eskrupuluek erasotzen zioten eta alhadurek asko sufriarazten zioten. Edozer gauza bekatu iruditzen zitzaion. Baina, prioreari eta Greffenstein maisuari iruditzen zitzairen benetako bokazioa zeukala Luterok eta hura profesio erlijiosoan onartzea erabaki zuten. Nobizio-aldia 1506ko irailean amaitu zuen Martinek (García-Villoslada, 1973).

Agustindarren ordena ez zen beste ordena batzuk bezain zorrotza diziplina kontuetan, baina Erfurt-eko agustindarren artean obserbanteak ziren nagusi eta garrantzi handia ematen zieten obedientzia, kastitate eta pobreziako botoei. Giro horren eraginez, Martinek diziplina-arau zorrotzak ezarri zizkion bere buruari eta bizitza aszetikoa eramateagatik nabarmendu zen lagunen artean (Erikson, 1958). Baraua eta bijilia egiteaz gain, hotza pasatu behar zuten eta lan gogorrak egin behar zituzten. Nobiziatu urtean moratoria moduko bat bizi izan zuen Luterok:

tentaziorik eta alhadurarik ez zuen sentitu. Kanpoko mundutik aldendua eta zentzuen kinadetatik isolatua egon zen. Lasai egon zen, kantekin, errezoekin eta aitortzekin okupatua zegoelako. Isiltasunean egoten ikasi behar zuten nobizioek; maisuarekin keinu bidez hitz egiten zuten; solasaldi pribatuetarako baimen berezia behar zuten; barrerik ezin zuten egin. Bakarrik egoteko denbora gutxi izaten zuten. Luterok komentuan mistizismo igurtzi bat hartu zuen, tradizio eskolastikoari jarraitu bazion ere (Erikson, 1958; Roper, 2010; Smith, 1911).

Urtebeteko nobizio-aldiaren ostean, profesio erlijiosoa egin zuen Luterok. Tontsura egin zioten, hots, ile zirkulu bat kendu zioten buru gaineko atzealdean; gerrikodun sotana eta kaputxa jantzi zituen (Roper, 2010). Promesa egin zuen txirotasunean, kastitatean eta obedientzian biziko zela, heriotzara arte, San Agustinen erregelaren arabera. Bere burua menderatzeko barau eta otoitz ugari egin zituen Martinek, baina bizitza aszetiko horren azpian beldurra, mesfidantza eta zalantzak gordetzen ziren. Luterok ez zuen Jainkoarengan konfiantzarik: Jainkoa gorrotatzen zuen eta haren kontra irainak jaurtikitzeko gogoia zuen. Ondorioz, erruduntasun sentimenduaz gainezkatua zegoen Lutero. Kristo epailari moduan ikusten zuen eta harekin adiskidetu zuen bitartekaria Maria zen. Gerora baztertu egingo zuen Luterok Mariaren bitartekaritza hori; Luterok zioenez, bizitza aszetiko horrekin luzaz jarraitu izan balu, bere burua martiri bihurtuko zukeen. Luterok esaten zuen ebanjelio berria aurkitu aurretik bere burua gogor zigortu zuela, otoitzen, barauen eta sakrifizioen bidez; ardua handiz bete zituela komentuko arauak eta Aita Santuaren legeak eta bere osasuna arriskuan jartzeraino iritsi zela (García-Villoslada, 1973; Strohl, 1962; Roper, 2010).

Apaiztu eta teologia ikasketak

Luterok berehala egin zuen gorantz komentuko hierarkian. 1506ko abendu inguruan subdiakono eta 1507ko otsail inguruan diakono izendatu zuten. 1507ko Aste Santuan, presbitero izendatu zuten, 23 urte zituela. Meza berriaren ospakizunerako gonbita egin zien Martinek bere aitari, Eisenach-eko Wigand Guldenapf irakasleari, Eisenach-eko erretoreari eta Conrad Hutter sakristauari. John Braun Eisenach-eko erretoreari idatzitako gutuna da kontserbatzen den Luteroren lehen gutuna; 1507ko apirilaren 22an idatzia da; Erfurt-en izango zen abade-ordenatze zeremoniara gonbidatu zuen. Bere aitari ongi zetorkiolako aukeratu zuen meza berria ospatzeko data. Hogei zaldun lagun zituela joan zen Luteroren aita ospakizunera eta monasterioko sukalderako 20 dukat (hogei gulden) eman zituen; ordurako Luteroren aita negozio gizon ezagun bihurtua zegoen. Meza ematen ari zela, kanona erreztatzerakoan, Jainkoarekin zuzenki hitz egiten ari zela konturatuta, erabat asalatu zen Martin Lutero, izu-ikarak harrapatu zuen eta zeremonia bertan behera uzteko zorian egon zen, baina prioreak eragotzi egin zion. 1537an kontatu zuen istorioaren arabera, *Zuri, Jainko betiereko eta egiazko hori* hitzek sortu zioten izu-ikara (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Meza osteko otorduan Martinek komentuko bizitzaren alde hitz egin zuen eta aitari galdetu zion zergatik mindu zuen bera komentura sartzeak. Aitak Martini esan zion deabruaren jukutriak izan zitezkeela tximistaren gertakaria eta haren ostean monasterioan sartzea; fraideei oroitarazi zien gurasoek esandakoa egitea agintzen zuela Jainkoak; komentuko agintariei leporatu zien Martin ez behartu izana gurasoei obeditzera. Hans-ek pentsatzen zuen deabruak iruzur zezakeela sinestuna: Jainkoaren agerpena zela uste izan eta, bitartean, deabruaren agerpena izatea. Gerora askotan oroitu zuen Martinek aitaren hitz horiek, baina garai hartan pentsatzen zuen ekintza onen bidez ezabatuko zituela hitz horien aztarnak. Luterok tirabirak sentitu zituen, lurreko eta zeruko aitak agindutakoa bete nahirik (Smith, 1911; Strohl, 1962; Erikson, 1958; García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Aitak aurreikusi zuen Martinek zelibatua ezingo zuela eraman eta ezingo zuela bere haserrea gainditu, Luterotarrek haserrekortasuna baretzeko arazoak zituztelako (Erikson, 1958). Jainkoa adiskide izan nahi zuen, baina hura beti haserreturik zegoela iruditzen zitzaion Luterori. 1530ean Jeronimo Weller-i idatzi zionez, meza berria ospatu ostean tristura jabetu zen bere buruaz, eta tristura hori ezin izaten zuen gainetik kendu. Salbamena bere ahaleginez lortzen

eta grazia egoeran egoten saiatzen zen, baina ezin zuen lizunkeria uxatu eta beti bekatuan zegoela iruditzen zitzaion. Etengabe bere bekatuak aitortu beharra sentitzen zuen eta orduak ematen zituen horretan. Bekatu larriak iruditzen zitzaizkion komentuko arau-hauste arruntak. Kontzientziaren alhadurak erasaten zion etengabe eta barrua jaten zion; beti bere buruari galdezka ari zen, bekatu guztiak aitortu ote zituen edo behar beste damutu ote zen. Jainkoari zion beldurrean oinarritutako erlijioa bizi zuen, ez Jainkoarekiko maitasunean oinarritutakoa. Haren kezka bakarra bere arima salbatzea zen. Barne-herstura zorrotza jasan zuen bolada horretan. Aitortza orokorrek ez zioten bakerik ekartzen. Kristoren izena ez zuen entzun nahi izaten, hura bere alde jartzeko behar adina ekintza on ez zituela egin pentsatzen baitzuen. Jainkoa bere alde jartzeko zer egin ote zezakeen pentsatzen egoten zen Lutero komentuan (García-Villoslada, 1973).

Luteroren ideien aldaketa sakona Staupitzi esker gertatu zen. 1505etik 1509ra bitarteko krisialdia Staupitzi esker gainditu zuen Lutero. Staupitz 1469an jaioa zen. Leipzig eta Kolonian ikasi ondoren, San Agustinen ordenan sartu zen eta 1500ean teologiako doktoretza lortu zuen Tubingan. Staupitz Munich-eko komentuko priore zela, Saxoniako Frederikok dei egin zion Wittenberg-eko unibertsitate berria antola zezan eta Teologia Fakultateko lehen dekanu izendatu zuen (Smith, 1911). Bibliaren eta San Pabloren irakurle sutsua zen Staupitz.

Luterok Jainko epailari eta zigortzailearen irudia zeukan buruan. Haren kezka nagusiak Jainkoaren maitasunaren galera eta judizioaren beldurra ziren; harentzat ezinezkoa zen Jainkoaren legea behar bezala betetzea; Lutero etsi egiten zuen eta etsipen horretan Jainkoa gorrotatzen zuen, hura beti haserre zegoela iruditzen baitzitzaion; erruduntasun krisialdiak izaten zituenean, Staupitz doktoreari eskatzen zion laguntza. Staupitzek esaten zion Jainkoak maite zuela eta gauza handietarako erabiliko zuela; esaten zion Jainkoa ez zegoela Martinekin haserretua; aitzitik, Martin zegoela Jainkoarekin haserretua. Kristoren eta gizakiaren arimaren arteko batasun mistikoan sinesten zuen Staupitzek. Staupitzek Luteroi gomendatu zion Eskritura Santuak sakonki ikasteko. Staupitzi eta Bibliari esker gainditu zuen Lutero bekatuaren obsesioa eta Jainko izugarriaren irudia. Lutero eta Staupitzek alde batetik prestakuntza eskolastikoa jaso zuten eta bestetik, teologia biblikoari dagokionez, Agustin eta Pabloren inspirazioa jaso zuten. Staupitz aitaren irudi modukoa izan zen Luteroentzat. Staupitzek eta Lutero pentsatzen zuten gizakia ezin zela bekatutik askatu eta ezin salba zitekeela ekintzen bidez (Strohl, 1962; Roper, 2010; García-Villoslada, 1973).

Wittenberg-en ikasle eta irakasle

Frederiko Jakintsua 1486an aukeratu zuten Saxoniako Hautesle; hark Wittenberg aukeratu zuen lurraldearen hiriburu. Saxonia Ernestotarreko Frederiko Jakintsuak 1502ko abuztuaren 24an fundatu zuten Wittenberg-eko unibertsitatea. Luterok ez zuen Wittenberg oso gogoko, baina 1508ko urrian Staupitzek eskatu zion Wittenberg-eko unibertsitatera joateko, teologiako ikasketekin jarraitu eta Aristotelesen etika irakastera. Juan Staupitz zen agustindarren probintzia alemanaren bikario orokorra eta Wittenberg-eko Teologia Fakultateko dekanu. 1508tik 1509ra bitartean Wittenberg-eko Santu Guztien komentuan egon zen Lutero; han ugari ziren erlikiak eta induljentziak. Agustindarrek garrantzi handia ematen zioten Biblia irakurtzeari eta haientzat liburu arrunta zen Bibliaren Bulgata bertsioa. Martinek ez zuen batere gogoko Aristotelesen filosofia, baina arretaz irakurri zituen Biblia eta San Agustinen lanak; nahiago zuen teologia ikasi eta Biblia irakurri. 1509ko maiatzaren 9an lortu zuten Bibliako Batxilerraren maila Teologiako Fakultatean (Abellán, 1990; García Villoslada, 1973; Smith, 1911). Garai horretarako jadanik, Jainkoaren justiziaz eta teologiaz gogoeta apur bat eginda zegoen Lutero; pentsatzen zuen justizia eta santutasuna ez datozkigula gure ekintzetatik, fedetik baizik, Jainkoak emandako dohainak baitira; ekintza onak Jainkoak emandako justiziaren emaitza direla eta gure itxaropena Jainkoarengan jarri behar dugula, ez geuregan (Strohl, 1962).

Luterok berak eman zuen bere gaztaroan izan zituen krisi erlijiosoaren berri. Jainkoa ez zuen irudikatzen izaki errukitsu moduan. Jainkoak onartzen zuela sumatu nahi zuen, baina bekatua besterik ez zuen ikusten beregan. Saiatu zen bere herstura sakrifizio bidez gainditzeko, baina ez zuen lortu. Ezin zuen gaintitu hezurretaraino sartua zuen tristura. Azkenean, San Pablo eta San Agustinen irakurketari esker gaintitu zuen barne-herstura. 1508-1509ko egun batez Wittenberg-eko dorre txikiko gelan zegoela, lasaitasunezko eta bakezko bizipen bat izan zuen, ziurtasuna ematen ziona. San Pablok erromatarrei idatzitako gutuna irakurtzen ari zela, esaldi honekin egin zuen topo: pertsona zuzena bere sinesmenetik bizi da; gizakia ez dute bere obrek salbatzen, baizik Jainkoarengan eta Salbatzailearengan sinesteak. Hor egin zuen topo Lutero bere teologiako puntu nagusiarekin: gizakia ez da inolaz ere gai bere burua salbatzeko; sinesmenak salbatzen du; sinesmenean dago bitzita osoaren giltzarria. Irakurketa horren arabera, gizakia ez du justifikatzen Jainkoaren haserreak, haren graziak baizik. Gizakia ez dute

justifikatzen haren karitatezko ekintzek, barauak eta sakrifizioek (Elton, 1964; Smith, 1911; García Villoslada, 1973).

Wittenberg-en irakasle moduan urtebete pasa ondoren, 1509ko irailean, Erfurtera itzultzeko eskatu zioten Luterori eta han egon zen ia bi urtez, Agustinen sententzietan oinarritutako Pedro Lombardoren sententziak irakasten. Erfurt hiri dinamikoa zen ekonomia aldetik, baina han ez zen tirabirarik falta. Alde batetik, artisauek eta gremiotako langileak zeuden, gero eta txiroagoak zirenak; bestetik, merkatari eta industrialak zeuden. Zergak handitzen zihoazen eta bizimodua garestitzen. 1510ean Unibertsitatearen egoitza nagusiar eraso zioten, liburutegia desegin zuten eta ikasleek alde egin zuten. Garai horretan pasatu zen Lutero nominalismotik agustinismora. Lutero, Hiponako Agustinen idazlanetan oinarrituta, aldendu egin zen beren iritziak arrazoizko argudioetan oinarritzen zituztenetatik. Beren teoriak Jainkoaren hitzean oinarritzen zituztenengana hurbildu zen. Alde batetik, hebreeraren oinarriak ikasten hasi zen, Biblia sakonki ikasteko asmoz. Bestetik, grekoa ikasteari ekin zion, Testamentu Berria irakurtzeko (García-Villoslada, 1973).

Lutero berriro ere Wittenbergera itzuli zen 1511n, plaza iraunkorarekin (Smith, 1911). Hiriaren alde batean agustindarren monasterioa zegoen eta bestean, Hauteslearen gaztelua. Hirian mespretxatu egiten zituzten eslaviarren eta juduen gutxiengoa. Garai horretan ez ziren oraindik amaitu Wittenberg-eko unibertsitateko eraikuntza lanak. Wittenberg-eko unibertsitateko irakasle gehienak agustindarrak eta frantziskotarrak ziren. Frederiko printzeak santuen erlikia anitz zituen, urrezkoak eta zilarrezkoak. Erlikia horien katalogoa Lucas Cranach Zaharrak egin zuen, Frederikoren aginduz; gaztelu-elizan erakusten ziren eta erromes ugari etortzen zen induljentziak irabaztera. Frederiko printzearen pintorea zen Cranach eta gazteluan zeukan estudioa, baina sendagaien eta ardoen salerosketatik dirua atera zuen eta hiriko gizon aberatsenetakoa bihurtu zen (Oberman, 1992; Roper, 2010).

Erromarako bidaia

1345eko izurritearen ondorioz fraide agustindar asko hil ziren eta horrek agustindarren komentuko bizitzaren gainbehera ekarri zuen. Egoera aldatzeko Obserbantiaren Kongregazioak (Erreformatuak) sortu ziren. 1432an, Enrique Zolterrek eskatuta, Alemaniako Obserbantiaren Kongregazioak eratu ziren. Bost komentuk Henrike Zolterren joera erreformatzaile eta obserbantea jarraitzen zuten 1437an. 1460an Andres Proles-ek ordezkatu zuen Zolter eta Alemaniako agustindarren bikario orokor izendatu zuten; Proles-en eraginez, komentu asko obserbanteekin lerrokatu ziren. Proles hiltzean (1503), Staupitz izendatu zuten bikario orokor. Staupitz saiatu zen Alemaniako agustindarren komentu guztiak elkartzen, baina monasterio batzuek pentsatzen zuten elkartze horrek obserbanteen baloreak desagerraraziko zituela; horregatik, obserbantiaren kide ziren komentu batzuk priore orokorraren eta bikarioaren kontra jarri ziren. 1510. urte aldera zatiketa bat egon zen Erfurteko agustindarren artean: obserbanteek edo erreformatuek ez zuten onartzen Alemaniako beste komentu agustindarrekin elkartzea; horrela, elkartzearen kontrako zazpi komentu Nurenberg-en elkartu ziren eta erabaki zuten bi ordezkari aukeratzea komentu obserbanteentzat autonomia gehiago lortzearen. Ordezkarietako bat Lutero zen eta bestea, Johannes Nathin. Magdeburgoko gotzainari beren kasua agertu zioten, baina ez zuten ezer lortu. Orduan, Erromara jo zuten, Erromako kuriako prokuradore orokorrarekin biltzera, komentu obserbanteen pribilegioak finka zitzaiz eta hiru urtez behin kapitulu bat ospatzeko baimena eman diezaioten. Lutero gogo onez ekin zion Erromarako bidaiari, han bekatu guztien barkamena lortzeko itzaropenez. Erromara joateko, 35 egun inguru eman zituzten bidean, egunean 40 kilometro eginez. Bidaiako uraren eta ardoaren kalitate txarraz kexatu ziren, baina ospitale txukunak ere ikusi zituzten Italian. Erroman ur zikina zegoela jakinda, frutak jaten zituzten hidratatzeko. Erroman hilabete inguru eta itzuleran beste 35 egun inguru eman zituzten. Erromako negoziaketak porrotean amaitu ziren eta Erfurt-eko monasterioak ezin izango zuen bere praktika obserbanteekin jarraitu; ordenako bikarioa zen Staupitzen esanera jarraitu beharko zuten. Bidaiaren dataz ezer ziurrik ez badago ere, pentsatzen da 1510eko urriaren eta 1511ko martxoaren artean joan zela Erromara Lutero, Julio II.a Aita Santu zela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Staupitzen arerioek, Erromaren erantzuna ikusita, Egidio de Viterbo-ri, agustindar eremutarren jeneralari idatzi zioten, bide juridikoa irekita utz zezan. Staupitz elkartu zen komentu

obserbanteen ordezkariekin; Simon Kaiser eta Juan Nathin egoskor mantendu ziren, beren jarreretan, baina Staupitzek amore eman zuen eta albora utzi zituen bere asmoak. Erfurt-eko komentuko gehiengoak Juan Nathin teologoaren jarrerari eutsi zion. Lutero, hasieran obserbanteen alde egon bazen ere, gerora Erfurt-eko obserbanteen kontra jarri zen eta Staupitz-en aldera pasatu zen. Staupitzek Luteroengan ikusten zuen bere jarraitzailea. Staupitzi esker egin zuen Lutero aurrera Wittenberg-eko Unibertsitatean eta agustindarren kongregazioan (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Erroman elizak, erlikiak eta monasterioak ikusi zituen Lutero, aitortza orokorra egin zuen eta Lateran-go San Juan basilikako *Scala Sancta*ko 28 eskailera-mailak belauniko igo zituen, maila bakoitzean aitagure bat esanez, ekintza horren bidez purgatoriotik arima bat ateratzen zela esaten baitzen; Aita Santuak hainbat urteko induljentzia ematen zuen belauniko igotako eskailera-maila bakoitzeko. Lutero bere senitartekoak askatu nahi zituen purgatoriotik eta esaten zuen min pixka bat ematen ziola bere gurasoak oraindik bizirik egoteak, hilak egon izan balira pozik askatuko zituzkeelako purgatoriotik. Lutero eskandalatua gelditu zen, Erromako kleroaren azalkeria, sentsualitatea eta arranditsutasuna ikusita. Berak meza bat ematerako sei-zazpi ematen zituzten hango apaizek, horrela diru gehiago irabazten baitzuten. Luteroentzat gogorra izan zen apaizak meza hain arinki ematen ikustea, berak hainbesteko ardura jartzen zuenean hitzak sinesmen osoz esaten. Keinu zatarrak egiten zituzten apaizek eta latinik ez zekiten. Garai hartan Erromak berrogei mila bizilagun inguru zituen; hango kale asko oso narrasak eta hondakinez beteak ziren (Smith, 1911; Erikson, 1958; Roper, 2010).

Lutero teologia dogmatikoan izandako aldaketa ez zuen Erroman ikusitakoak eragin. Garai horretan Lutero ez zuen pentsatzen Eliza erreformatu behar zuenik. Kuriaren eta Elizaren kontra esandakoak beranduagoko kontuak ziren. Hark Erromaren kontrako jarrera hartzearen motiboak ez dira aurkitu behar han ikusitako kuriaren bizioetan eta desordenuetan. Erromara joan baino lehen ere irakurriak zituen Baptista Mantuanus-ek kuriaren kontra esandakoak. Erromaren kontrako gauza anitz entzunak bazituen ere, bazekien martiri askoren odola isuri zela han. Erroman ikusitako gauza askok aztoratu zuten Lutero, baina Aita Santuarengan eta Elizan sinesten jarraitu zuen. 1530 urte aldera Erromako bidaiaz hitz egin zuen Lutero. Eliza eta katonba ugari ikusi zituela eta han meza batzuk eman zituela esaten zuen (García-Villoslada, 1973).

Teologian doktore eta fraide bizitza zorrotza

Luterok fraide-bizitza zorrotza eraman zuen arren, bekatari sentitzen jarraitzen zuen eta ez zuen pentsatzen Jainkoa berarekin asebetarik egongo zenik. Iruditzen zitzaion Jainkoak ez zuela gogoko eta haren grazia ez zela beregana iristen. Larritasun handiz bizi zituen Luterok Jainko zorrotzarekiko harremanak. Luterorentzat, bekatariak zigortzen dituen Jainkoak justifikatzen zuen gizakia; gorroto zuen Jainko hura eta haren kontra irainak jaurtikitzen zituen modu obsesiboan. **Luterok komentuan izaten zituen alhadurak Jainkoarekiko jarrera anbibalenteak eraginak ziren.** Luterok likiskeria erasoak aipatzen zituenean, ez zen soilki haragikeriazko desirei buruz ari, etsipen erlijioso ere aipatu nahi zuen; hor sartzen zituen berekoikeria, harrokeria, haserrea, gorrotoa eta bekaitza ere (Roper, 2010).

1511n berriro Wittenberg-era itzuli zenean, beste krisialdi bat izan zuen Luterok; krisialdi horrek teologian eta dogman eragina izango zuen. Aszetismo-arauak errespetatzeak eta merituak lortzen ahalegintzeak ez zion laguntzen Jaungoikoaren gogoko izaten. Luterok pentsatzen zuen giza natura sustraietatik usteldua zegoela; ekintzarik onenak egiten zituenean ere, arima ez zela aske ongia egiteko; gizakiaren likiskeria ez zela bataioarekin ezabatzen. Iruditzen zitzaion Erfurteko senideak harroak zirela eta bere santutasunaren ideia puztua zutela; ahantzi egiten zuten Jainkoaren justizia eta meritu nahiz bertuteen bidez salbatu nahi zuten.

Salmoak eta Pauloren gutunak luzaz irakurri ondoren ulertu zuen Luterok Jainkoaren justizia sinesmenetik datorren justizia pasiboa dela; gizakia Jainkoaren graziak justifikatzen duela; gizakiaren justifikazioa ez datorrela norberarengandik, kanpotik baizik; fede hutsaz justifikatzen dela gizakia; justifikazioa Jainkoaren dohaina dela eta gizakiaren esku-hartze aktiborik gabe gertatzen dela. Monasterioko Dorreko Esperientzia bizi izan zuenean eta Jainkoak fedez justifikatzen zuela ikusi zuenean berpiztua sentitu zen Lutero; paradisuko ateak ireki zitzaizkiola iruditu zitzaion. Antzera sentitu zen Lutero San Agustin-en *Espirituaz eta letraz* liburua irakurri zuenean. Ordura arte zorrotza eta justizia zalea zen Jainkoa bat-batean aita errukitsu bihurtu zen Luterorentzat. Luterok berak geroago (1537ko sermoi batean) aitortu zuen hogeita hamar urte bete bitartean ez zituela berezi Moisesen legea eta Kristoren grazia (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Staupitzek bere jarraitzaile izateko aukeratu zuen Lutero eta 1511ko irailean doktoretza egitera bultzatu zuen; Jainkoak gizon argien beharra zuela esan zion. Laster hautatu zuten Wittenberg-eko komentuko priore-orde eta ikasketa-zuzendari. Predikatzen ere hasi zen: bere komentuan latinez predikatzen zuen eta herriaren aurrean, alemanez; Lutero predikatzeari garrantzi handia eman zion bizitza osoan zehar; sakramentu balioa ematen zion predikatzeari (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1512ko urriaren 4an Teologia irakasteko baimena eman zioten Luterori, eta hark agindu zuen Erromako Elizari obedituko ziola. Garai hartako unibertsitateetan alde handirik ez zegoen teologiako lizentzia eta doktoregoaren artean; lizentziak ematen zuen irakasteko baimena eta lizentziaren koroatze festa modukoa bat zen doktoretza. Doktoretzako eskupekoak eta oturuntza ordaintzeko dirua Saxoniako Frederikok eman zion Luterori (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Doktoretza saioak 1512ko urriaren 18an eta 19an egin ziren. Lehen egunean Lutero eztabaida eskolastiko bat izan zuten, Carlstadt-en zuzendaritzapean eta ikasle, batxiler eta irakasleen aurrean. Lutero galderei erantzun ondoren, zin egin zuen Elizaren dotrinari atxikiko zitzaiola eta begirunea eta obediencia izango ziela dekanuari eta beste irakasleei. Gero, urrezko erantzuna eta Doktoretzako birreta jarri zizkioten eta hitzaldi bat eman zuen. Monasterioan oturuntza bat egin ondoren, herrian zehar prozesio bat egin zuten. Frederiko printzeak Luterori eman zion Eskritura sakratuetako katedra 1513ko urriaren 6an, Staupitzek horrela eskatuta. Erfurteko fraide askori ez zitzaion batere gustatu Lutero Wittenberg-en jarraitu izana Erfurten hasitako ikasketak (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Biblia azaltzen jardun zen Lutero irakaslea 1515etik 1544ra bitartean. Bibliaren zati hauek azaldu zituen: Erromatarrei, Galaziarrei eta Hebrearrei idatzitako gutunak, 1515etik 1518ra bitartean; Salmoak, 1513tik 1535era bitartean; Deuteronomioa, profeta txikiak eta Eklesiastes, 1523tik 1526ra; San Juan-en lehen gutuna, Tito eta Filemon-i gutunak eta Isaias, 1527tik 1544ra; Timoteori lehen gutuna, 1528an; Kantarik ederrena, 1530etik 1531ra; Hasiera, 1535etik 1545era (García-Villoslada, 1973).

Efurteko obserbanteak Wittenbergeko espirituaren arerioak ziren. Lutero bortizki erasotzen zien beren ekintzez fidatzen ziren justizarioei. Justizario horiek benetako justizia eta santutasuna nondik zetozen ez zekitela esaten zuen. Gogor kritikatzten zituen arauak betetzeagatik salbatu nahi zuten Erfurteko fraideak. Luteroentzat hipokritak ziren, beren barau, otoitz eta elizkizunen bidez salbatuko zirela pentsatzen zutenak (García-Villoslada, 1973).

Gizon zuzena fedetik bizi da

Luteroren garaiko pertsona berritzaile askok (Lefèvre d'Étaples, Erasmo, Avila-ko Juan) San Pabloren bidea jarraitzen zuten. Luterok berak ere eskuratu zituen Lefèvre d'Étaples-ek argitaratutako San Pabloren gutunak. San Agustinen eta San Pabloren idatzietan oinarrituta, Luterok defendatzen zuen gizakia Jainkoaren graziak salbatzen eta justifikatzen zuela, eta ez gizakiaren indarrek eta ahaleginek. Gizakiaren baitan dena usteldua zegoela esaten zuen; ekintza onak egitean ere bekatua egiten zuela gizakiak; santuak ere barnetik bekatariak zirela eta haien justifikazioa kanpotik zetorrela; gizakiaren ekintza guztiak txarrak zirela, baita graziaren eraginez egiten zirenak edo santuek egindakoak ere; esaten zuen gizakia ez zutela bere merituek salbatzen, soilik fedeak salbatzen zuela; gizakia ez zuela salbatzen justizia aktiboak, justizia pasiboak baizik; hipokritak zirela barnetik zuzenak eta kanpotik bekatariak zirela pentsatzen zutenak (García-Villoslada, 1973).

Luterok garbi bereizten zituen gizakiaren ahaleginez lortutako justizia eta Jainkoarengandik datorren justizia. Benetan zorakeria iruditzen zitzaion gizakiak bere ahalmenez Jainkoa maita zezakeela edo legea bete zezakeela pentsatzea. Egin ahalak eginda, Luterok ulertu zuen Jainkoaren justizia ebanjelioan agertu zela eta gizon zuzena fedetik bizi zela; Jainkoak emandako justiziatik bizi zela gizaki zuzena; gizakiaren merituei begiratu gabe, Jainkoaren justizia pasiboak bihurtzen gaituela zuzen. Ebanjelioko Jainkoa ez dela Jainko eskatzailea, Jainko emailea baizik; Jesukristok gurutzean ordaindu zuela gizakien bekatuen zorra. Aurkikuntza horren aurrean, ordura arte gorroto zuen Jainkoaren justizia, aurrerantzean maitagarria iruditu zitzaion eta kolpetik berpiztua sentitu zen Lutero.

1515eko apirilaren 29an Obserbantiaren Kongregazio agustindarra Gothan bildu zen Staupitz bikario orokorraren zuzendaritzapean. Luterok gogor eraso zien obserbante zorrotzei. Gothako kapituluaren ostean, Eisleben-en jazotako gertaera bat kontatu zuen Luterok: Santa Anaren monasterio agustindarra inauguratzera joan ziren Staupitz bikario orokorra eta Martin Lutero, eskualdeko bikarioa. Corpus Christiko jaia ospatzen ari zirela, prozesioan Sakramentua eskuetan zuela zihoan Staupitz eta hura ikustean izu-ikarak harrapatu zuen Lutero, izerditan blai jarri zen eta hilko zela pentsatu zuen; Kristoren presentziak izutu zuen, meza berrian gertatu zitzaion moduan. Lutero alhaduraz beteta Staupitzengana aitortzera joaten zenean, Staupitzek esaten zion ez zuela benetako bekaturik; Kristok benetako bekatuak barkatzen

dituela. Staupitzen aholkuek eta Gersonen idatziek alhadura askotatik askatu zuten Lutero. Ondorioz, Luterok Staupitz defendatu zuen bere aitzindari moduan

Erreformaren hasiera Erromatarrei egindako gutunaren komentarioetan aurkitu behar da. 1515eko maiatzean hasi zen Lutero San Pablok Erromatarrei egindako gutuna komentatzen (Denifle, 1904). Komentario horietarako gida nagusi moduan Lefèvre d' Étapes (Jacobus Faber Stapulensis) humanista frantsesak 1512an argitaratutako San Pablaren gutunari buruzko testua erabili zuen Lutero. Erasmoren Testamentu Berriaren itzulpena eta oharrak 1516ko martxoan agertu ziren eta haiek ere erabili zituen Lutero. Komentario horietan gauza askotaz hitz egiten zen: teologia, moralak, induljentziak, gotzainak, printzeak eta gauza praktikoak (Smith, 1911). Lutero 1515ean zioen ez zirela santuen ekintzak predikatu behar eta ez zitzaizela gizakiei aholkatu behar haien antzeko ekintzak egiteko. Ez zuen ezer entzun nahi barauaz, bijiliaz, penitentziaz, martiriez. 1516ko udazkenean amaitu zituen Erromatarrei egindako gutunaren ikasgaiak eta Galaziarrei idatzitako gutuna komentatzen hasi zen. 1517tik 1518ra bitartean *Erromatarrei egindako gutunaren komentarioa* argitaratu zuen eta galaziarrei egindako gutuna azaldu zuen (García-Villoslada, 1973).

Garai horretan Luteroen ikasle zen Günther-ek defendatu zituen teologia eskolastikoaren kontrako 95 tesiak; defendatzen zuen sinesmenak soilik justifikatzen gaituela; ekintzetan oinarritzen ez den fedeak bakarrik egiten gaituela garbiak eta duinak; grazia gabe egiten den guztia bekatua dela, baita ekintza onak ere; apaizaren egitekoa Jesukristoren grazia agertzea zela, eta ez legea irakastea; grazia lortzeko sakramentua hartu ez, baizik sinetsi egin behar zela; jakintsuen ekintza onak, bertuteen antza izanik ere, bizioak zirela. Baina Lutero ez zekien ziur sinesmena zuten guztiak justifikatzen ote ziren; hebrearrei idatzitako gutuna komentatzean esaten zuen ezinezkoa zela Kristorengan sinesten zuena hiltzea; kristauak beti ziur egon behar zuela salbatuko zela; Kristori esker norbere bekatuak barkatuak izan zirela (García-Villoslada, 1973).

Harremanetarako zuen gaitasunari esker atera zuen Lutero Erreforma aurrera. Gaitasun intelektualez baino areago nagusitzen zen Lutero energiaren eta konbikzioaren intentsitateaz. Staupitz-ek eragin handia izan zuen Luteroengan. Hark babestu zituenak Luteroen lagun izan ziren. 1515ean Lutero distrituko bikario bihurtu zenean, Johannes Lang aukeratu zuen Erfurteko priore. Wenzeslaus Linck, berriz, Wittenbergeko monasterioko priore aukeratu zuten. Espalatino, Printze Hauteslearen aholkularia, Luteroen lagun handia izan zen. Oso

lagunak izan zituen Luterok Carlstadt, Schurft eta Amsdorf ere. Wittenberg-en via antiqua eta via modernaren arteko orientazio intelektual bat proposatzen zen, baina 1516an Lang-ek esaten zuen Bibliari eta Elizako Gurasoei buruzko klaseetara ikasle ugari joaten zela; aldiz, eskolastikako klaseetara 2-3 lagun bakarrik joaten zirela (Roper, 2010).

Ebanjelioa eta San Agustinen idatziak irakurri zituelako eta Staupitz-ekin izan zituen harremanei esker, aldatu egin ziren justifikazioari buruz Luterok zituen ideiak. San Agustinek sinesmenean zentratzen zuen bere teologia eta Luterorentzat San Agustin zen teologorik handiena. Luteroren ideia asko San Agustinen gan inspiratzen ziren. Luterok Jainko anker bati zion beldurra uxatzen saiatu zen Staupitz; Jainko zigortzailean arreta jarri ordez, gizakiengatik gurutzean bizia eman zuen Kristoren maitasunean arreta jartzen erakutsi zion Martini. Staupitzek esaten zion Itun Berriko Jainkoak Itun Zaharrekoak baino bihotz xamurragoa zuela. Luterok ez zuen sinesten bere indarrez salba zitekeenik; beraz, ebanjelioa irakurtzeak irteera bat ireki zion: gizakiaren justifikazioa ez zetorren haren ekintzetatik, ebanjelioak zioena sinestetik baizik (Erikson, 1958).

Induljentzien salmenta

Induljentzien praktika gurutzaden garaitik zetorren. Alexander Haleskoak merituen altxorra eta induljentzien altxorra bereizi zituen; Kristoren eta santuen merituak biltzen ziren altxor horietan; Elizak Kristoren eta santuen merituen irabaziaz pilatzen zituen eta gordailu horretako merituen buldak saltzen zizkien zigorretatik aske gelditu nahi zutenei. Aita Santuak ahalmena zuen meritu horiek banatzeko, Klemente VI.ak 1343an lege kanonikoan ezarritakoaren arabera. Absoluizioaren bidez edozein bekatu barka zitekeen, baina zigor tenporala barkatzeko purgatoriotik pasatu behar zen edo aitorleak jarritako penitentzia bete behar zen. Induljentzia bidez ordezkari zitekeen zigor hori, bekatuaren ondorioz jasotako zigor tenporala garbitzeko balio baitzuten induljentziak. Horrela, purgatorioan egin beharreko denbora laburtu zitekeen induljentzien bidez.

Hainbat Aita Santuk (Juan VIII.ak, Leon IX.ak eta Urbano II.ak) induljentziak banatuz errekrutatzen zituzten gurutzadetako soldaduak; beste batzuek (Leon IV.ak) zerua agintzen zieten musulmanen kontrako gerran hiltzen zirenei; baziren (Bonifazio VIII.a) Erromarako erromesaldia egiten zutenei induljentzia osoa agintzen zietenak ere (Smith, 1911). Monasterioak edo elizak eraiki eta fundatzeko edo beste proiektuetarako erabiltzen zuen Eliza katolikoak induljentzietatik ateratako dirua. Induljentziak ez ziren gurutzadetako edo katedralak eraikitzeko bakarrik erabiltzen; induljentziak ziren Aita Santuaren aberastasunen iturrietako bat ere. Eliza katolikoarentzat induljentziak bekatuen zigorrak barkatzeko balio zuten, baina Luteroarentzat bekatuaren ondorenak sinesmenaz bakarrik garbi zitezkeen, eta ez ekintza onez, bekatuak aitortuz edo induljentziak ordainduz (Smith, 1911; Olsen, 2012).

Albert Brandenburgokoa Magdeburgoko artzapezpiku, Alemaniako primatu eta inperioko Hautesle aukeratu zuten 1514ko martxoaren 9an, osoko induljentziak banatzetik zetorren diruari esker. 10.000 dukat ordaindu behar izan zizkion Erromako kuriari. Diru hori San Pedro katedralaren eraikuntzara bideratu zen eta horren truke, Leon X.ak baimena eman zion Albert-i bere lurraldean induljentziak saltzeko. Induljentzien salmentatik lortutako diruaren erdia izendapenaren gastuetara zuzendu zuen eta beste erdia Aita Santuari igorri zion (Abellán, 1990).

Brandenburgoko lurraldeak eta bi Saxonietakoak mugakideak ziren. Saxonia albertotarreko Jorgek eta Saxonia ernestotarreko Frederikok beren lurraldeetan induljentziak predikatzea

debekatu zutenean, mugako herri batzuetatik Brandenburgora joaten hasi zen jendea, induljentziak erostera (Elton, 1964; García-Villoslada, 1973). Horrelako jokaeren ondorioz jarri zen Lutero Aita Santuaren kontra, nahiz eta aurretik ere bere ikasleen aurrean induljenzien kontra agertua zen (Oberman, 1992). Luteroren esanetan, benetan damu denak ez du induljentziarik bilatzen; bere gain hartzen du gurutzea; induljentziaz baliatzen denak zigorra ekiditen ikasten du bekatua ekiditen baino gehiago (Brecht, 1985).

Brandenburgoko Albert-ek 1517ko urtarrilean Juan Tetzel fraide dominikarra aukeratu zuen induljentziak predikatzeke, hilean 300 florinen truke; agindu zuen inork ez ziezaiola eragotzi induljenzien salmenta. Albert-ek induljentziak irabazteko *Instructio summaria* argibideak zehaztu zituen: damua, aitortza, elizak bisitatzea, norberaren zegokion tasa ordaintzea. 1517ko apirilean hasi zen Tetzel Leon X.ak ateratako induljentzia osoa predikatzen. Induljenzien bidez purgatorioko sufrikarioak nola ekidin zitezkeen predikatzen zuen Tetzel-ek (Smith, 1911); esaten zuen purgatorioko sua ekidin zezaketela bekatariek, damutu beharrik gabe, penitentziarik egin gabe edo absoluziorik gabe; esaten zuen edozein bekatu barka zitekeela diruaren truke; etorkizuneko bekatuentzat ere induljentziak saltzen zituela; txanponak kaxa ukitzen zuen unean bertan arima purgatoriotik askatzen zela. Jende asko joaten zen Wittenberg-etik Tetzel-ek predikatzen zuen herrietara, induljentzia irabazteko asmoz.

Luterok gehiago baloratzen zituen pietatezko eta maitasunezko ekintzak induljentziak baino; Kristok Ebanjelioa aldarrikitzeke esan zuen, ez induljentziak predikatzeke. Tetzelen Instrukzioak Luteroren eskuetara heldu zirenean, 1517ko urriaren 31n, protesta gutun bat bidali zion Luterok Brandenburgoko Albert-i, tesien eskuizkribuarekin batera (Roper, 2010). Artzapezpikuari esaten zion erretira zezala *Instructio Summaria* eta predikatzeke beste modu bat ezar zezala; bere ardurapeko arimak heriotzaren bidean utzi zituela eta haien kontuak eman beharko zituela. Induljentziak predikatzen zituztenek esandako astakeriak gogorarazten zizkion artzapezpikuari. Esaten zion lurraldean zehar zabaldu zutela Aita Santuaren induljentzia, Erromako San Pedro berreraikitzeke; atsekabea ematen ziola induljentziari emandako esanahi faltsuak. Post datan esaten zion bidaltzen zizkion tesiak irakurtzeke.

Bizitza lanpetua: administratu, idatzi eta irakatsi

1515eko maiatzean Lutero distrituko agustindarren bikario izendatu zutenetik, Teologiako irakasle eta Agustindarren bikario moduan sinatzen zituen gutunak. 1516ko urriaren 26an Wittenberg-etik Erfurteko priore John Lang-i idatzitako gutunean idazkari pare bat behar zituela esaten zuen Lutero; izan ere, hainbat eginkizun zituen: gutunak idatzi, jatorduetan irakurri, ikasketa-buru, komentuan eta parrokiari sermoiak egin, ordenako distrituko bikario lanak, Leitzkau-ko arrain-haztegietako negozioa kudeatu, Herzberg-eko fraideen abokatu lana egin Torgauko auzitegian, San Pablaren eta Salmoen irakasle laguntzaile, ikastaroak eman, meza eman. Lutero zioen Galaziarrei egindako gutuna komentatzen hasi behar zuela biharamunean, baina beldur zela izurriteak ez ote zion jarraitzen utziko; izurritearen ondorioz jende asko ari zela hiltzen; izurriteak indar gehiago hartzen bazuen, fraideak beste lurralde batzuetara bidaliko zituela; berak obedientziagatik jarraitzen zuela han; heriotzari beldurra baziola, baina ez zuela espero Jainkoak beldur horretatik askatuko zuenik (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010; Smith, 1911; Greiner, 1956).

Jainkoaren justiziak sortzen zion erruduntasunari eta izuari ihes egiteko ahaleginean, denboraldi batez Pariseko Unibertsitateko kantzilerra zen Juan Gerson teologo mistikoaren lanak irakurri zituen Lutero eta horrek atsedendaldi bat eman zion. Gersonek esaten zuen bekatu guztiak ez zirela astunak; ez zela hain larria ordu jakinetan ez erreztatzea, eskapulariorik ez eramatea eta Aita Santuaren arauen bat ez betetzea (García-Villoslada, 1973).

Juan Tauler mistikoak (1300-61) eta *Theologia deutsch*-ek (hamalaugarren mendeko testu bat zen) ere eragin sakona izan zuen Luteroengan. Lutero testu hori defendatu zuen Eck-en erasoaren aurrean. Eck-ek zion liburu horrek eta Johannes Tauler-en idatziek ez zutela Elizako Gurasoen lanek zuten autoritatetik. Taulerrek alemanez predikatzen zuen, Lutero bezala. Alemanez idatzitako testuak iraintzea leporatu zion Lutero Eck-i. Lutero esaten zuen Bibliatik eta San Agustinen idatzietatik adina ikasi zuela *Theologia deutsch* liburutik. Liburu horrek zion kristauak bere borondatea Jainkoaren borondatearen mendean jarri behar zuela; Jainkoaren espirituaren mendean egon behar zuela gizakiaren borondateak; kristauaren borondatea Jainkoaren borondatearekin elkartzen zenean, Jainkotiar bihurtzen zela; kristauak bere buruari uko egin behar ziola; ahalegintzeari utzi eta Jainkoaren maitasunera ireki behar zuela. Konfiantza osoa zuen Jainkoaren errukian eta kanpoko ekintzei ez zien balorerik ematen. Jainkoaren ezagutza arrazionala gutxietsi egiten zuen. 1516ko abenduaren 15ean idatzitako gutunean Lutero Espalatinori esaten zion ez zuela ikusi Tauler-ena baino teologia osasungarriagorik, Ebanjelioarekin hura baino adosago zegoenik. Luterozentzat eskolastiko

guztiena baino teologia sendoagoa zen Taulerrena. Bibliaren eta San Agustinen ondoren, Tauler zen Luterori gehien irakatsi zion irakaslea (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Frederiko Hauteslea lurralde sakratuetan erromes ibilia zen eta erlikia bilduma handia zuen. Wittenberg-eko Gaztelu-Elizan gordetzen zituen objektu sakratuak. Bost mila erlikiatik gora zituen, purgatorioko urte mordo bat ordezkatzeko balio zutenak. Gainera, urtero milaka meza ematen ziren eliza saxoietan, Frederiko-ren arimaren alde. Luterok gaitzetsi egiten zituen praktika horiek guztiak, superstiziosoak iruditzen zitzaizkiolako. Hautesleak Staupitz gotzain izendatu nahi zuen, baina Luterok pentsatzen zuen Staupitz-ek ez zuela izendapena onartu behar. Azkenean, Staupitz-ek ez zuen onartu izendapena eta laster galdu zituen printzearen faboreak. Luterok Staupitzen alde egin zuen 1517ko azaroan Wittenberg-etik printzeari bidalitako gutunean. Gutun hori alemanez idatzi zuen, eta ez latinez, ordura artekoak bezala; gutunean printzeari esaten zion Staupitzek beti egin zuela hark esandakoa. Gainera, esaten zion beste zergarik ez jartzeko, zerga horrek jendearen aurrean zuen ospea murriztuko zuela eta (Smith, 1911). Espalatinok Luterori gutunez esan zion bikario orokorra zen Staupitz gotzain izendatu nahi zuela printzeak. 1516ko ekainaren 8an idatzitako gutunean Luterok Espalatinori esaten zion Frederiko Jakintsua argia zela munduko gauzetarako, baina Jainkoaren eta arimen salbamenerako gaietan itsua zela. Garai batean gotzain izatea gauza handia zela, baina orain ez zuela halako osperik, izan ere, gotzain izateak sabelkeriazko eta lasakeriazko bizitza bat eramatea esan nahi baitzuen, Sodoman eta Erroman egiten zen bezala.

Luterok asko idatzi zuen eta inprimategiari esker asko hedatu ziren haren idatziak. Emazteak liburuetatik diru apurren bat eskura zezakeela esaten bazion ere, berak ez zuen onartzen bere liburuengatik ezer kobratzerik, ez baitzitzaion egokia iruditzen sinesmen kontuekin negozioa egitea. Inprimatzaile batzuek nahiko diru irabazi zuten Luterori esker, haren liburuak ondo saltzen zirelako (Friedenthal, 1970). Liburuetan hainbat irudi, grabatu eta karikatura sartzen zituen, lelo eta satirekin batera. Irudi batzuk Luterok berak diseinatu zituen, baina sarri sartzen zituen Lucas Cranach Zaharrak egindako irudiak, horien bidez ederki adarra jotzen ziolako Aita Santuari. Sarri erabiltzen zuen hizkuntza truskila ere, gorozkiak, puzkerrak eta genitalak aipatuz (Hausrath, 1904). Luterok sarritan ezizenak erabiltzen zituen bere etsaiei dei egiteko: Jeronimo Aleander lehoia, Eck tentela, Alveld astoa, Hieronymus Emser ahuntza, Hieronymus Dünkersheim idia, Teo Aita Santua otsoa, Dam txerria, Thomas Murner katua, Lovaina edo Koloniako astoak (García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Tesiak

Aldaketa garaiak ziren Elizaren baitan. Juan Francisco de la Mirandolak elizgizonen erreforma eskatzen zuen. 1517ko apirilaren 18an Luterok bere lagun Juan Lang-i esaten zion San Agustinen teologia nagusi zela Wittenberg-eko unibertsitatean; Aristotelesen teoriak erortzen ari zirela eta Lonbardoren Sententziak aspergarriak gertatzen zitzaizkiela ikasleei. Ikasleak bildu nahi izanez gero, Biblia edo San Agustin azaldu behar zirela. Lutero eta haren jarraitzaileek zioten gizakiaren borondatea ez zela aske; graziarik gabe, mendekoa zela; justuak kondenatu egiten zirela eta bekatariek salbatu (García-Villoslada, 1973).

Bi joera teologiko bereiz zitezkeen XVI. mendearen hasieran: literalistena eta espiritualistena. Literalistek, San Jeronimoren eta Erasmoren ildotik, zentzu literalean interpretatzen zituzten Eskriturak. Espiritualistentzat eta Luteroentzat, Eskritura Sakratuen espiritua eta barne-zentzua ziren garrantzitsuak. Luterok San Jeronimoren aurretik jartzen zuen Agustin; esaten zuen jakinduria kristaua edukitzeko ez dela nahikoa grekoa eta hebreera ezagutzea; sinesmena ezinbestekoa zela. San Jeronimok hizkuntza asko jakin arren eta Agustinen bat bakarra ezagutua arren, Jeronimo ez zela Agustinen parera heltzen. Erasmok besterik pentsatzen bazuen ere, Luteroentzat sinesmenak bakarrik balio zuen. (García-Villoslada, 1973). 1516ko urriaren 19an Espalatinori idatzitako gutunean Luterok zioen Erasmok hobeto ulertuko zukeela San Pablok esandakoa, San Agustinek pelagianoen kontra esanak (*Espirituaz eta letraz*) irakurri izan balitu (García-Villoslada, 1973).

Luterok Erromaren kontra bere bizitzan izan zuen etsaitasuna 1517 eta 1520 arteko urteetan garatu zen, batez ere. Erromako San Pedroren basilika eraikitzeke dirua behar zuten Julio II.ak eta Leon X.ak; horretarako, induljentziak saltzeari ekin zioten. 1517ko urrian Luteroen ikasle zen Franz Günter-ek teologia eskolastikoaren kontrako 97 tesi idatzi zituen, teologia ikasteko Aristoteles ez zela beharrezkoa defendatuz. (Abellán, 1990). Garai haietan ohitura arrunta zen gai bati buruzko ikuspegi bat defendatu nahi zuten jakitunek beren tesiak elizako atean zintzilikatzea. Historia aldetik frogatua ez badago ere, legendak dio horixe egin zuela Luterok 1517ko urriaren 31n, Santu Guztien egunaren bezperan: induljentziei buruzko 95 tesi iltzatu zituen Wittenberg-eko gazteluko elizaren atean. Tesiak induljentzien kontrako aldarrikapen moduan idatzi zituen Luterok, induljentziek ziurtasun faltsu bat ematen baitzieten bekatariei. Tesiak Aristotelesen etikaren eta teologia eskolastikoaren eta pelagiarraren (Ockham, Eskoto, Biel, D'Ailly...) kontrakoak ziren. Tesiak ezagutarazi zituenean, bere izena aldatu zuen Luterok;

ordura arte aitaren deitura erabili zuen: Luder; ordutik aurrera, Luther deitura erabiltzen hasi zen.

Luterok saiatu zen Erfurteko unibertsitatean Aristoteles baztertu eta San Agustinen teologia nagusi jartzen (Elton, 1964); John Lang-i 1517ko maiatzaren 18an idatzitako gutunean esaten zion Aristoteles bere tronutik erortzen ari zela eta San Agustinen teologia aurrerapen azkarra egiten ari zela beren unibertsitatean (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Nurenberg-en eta Wittenberg-en harrera ona izan zuten tesi horiek, baina Erfurten ez. 1518an erabaki zen Wittenberg-eko Unibertsitatean Aristotelesen arabera emango zela filosofia, baina tomisten eta eskotisten komentario eskolastikorik gabe; gainera, autore klasiko gehiago irakurriko zituzten beren jatorrizko hizkuntzan.

Erreformaren hasierako eguntzat hartzen dute lurralde protestanteek 1517ko urriaren 31koa. Luterok ez zuen bere tesiak hedatzeko asmorik hasieran. Juan Lang-i ezagutarazi zizkion tesiak 1517ko azaroaren 11n, baina bere asmoa ondorioei buruzko haren iritzia ezagutzea zen. 1518ko martxoaren 5ean gutun bat idatzi zion Luterok Nurenberg-eko Christoph Scheurl-i, tesiak hedatu izana deitoratuz; Scheurl-i esaten zion haren bi gutun jaso zituela, bata alemanez eta bestea latinez, eta Albrecht Durer-en opari bat ere bai; esaten zion ez zuela nahi izan tesiak jende artean zabaltzerik. Lagun gutxi batzuei bakarrik bidali nahi izan zizkiela tesiak, azter zitzaten; onartzen ez bazituzten baztertzeko edo, onartuz gero, argitara zitzaten; damutua zegoela tesiak idatzi izanaz. Puntu batzuetan oraindik ziur ez zegoela zion. Ez dirudi Luterori gehiegi gustatzen zitzaizkionik 95 tesi horiek; horregatik, eraberritu eta alemanez argitaratu zituen 1518ko apirilean, *Indulgentzia eta graziari buruzko tratatu* moduan (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luteroren tesiak oso ezagunak bihurtu ziren eta onartuak izan ziren, batez ere humanisten zirkuluetan. Tesiak itzuli eta inprimatu egin zituzten eta teologoei ez ezik, jendeari ere banatu zitzaizkien. Bi hilabetetan Alemania osora eta beste lurraldeetara hedatu ziren tesiak: Augsburgora, Hanburgora, Nurenberg-era, Alsaziara, Ingalaterrara. Luterok harreman onak zituen. Horrela, Staupitz-en eta Scheurl-en bidez jarri zen harremanean Nurenberg-eko humanistekin eta politikoekin. Erasmusen bidez heldu zitzaizkion tesiak Tomas Morori.

Luteroren Tesien hasierako formulazioa ez zen tesiei zegokiena. Gainera, ez dago garbi Wittenberg-eko elizaren atean iltzatu zituztenik ere. Tesietako asko katoliko ortodoxoak ziren, baina baziren Elizaren altxor espiritualak ukatzen zutenak ere. Tetzal dominikoak Luteroren tesiak irakurri zituenean, Aita Santuaren autoritatea azpimarratzeari ekin zion eta horretarako,

Conrad Wimpina teologoak idatzitako ehun eta sei anti-tesi defendatu zituen. Antitesi horiek Wittenberg-era heldu zirenean, erre egin zituzten, Luteroren baimenik gabe. Tesiak argitaratu eta laster Luterok *Indulgentziaren eta graziaren sermoia* argitaratu zuen, 20 tesiren modura idatzita. Sermoi horrek arrakasta handia izan zuen, bi urteren buruan 25 aldiz argitaratu baitzen. Hor esaten zuen indulgentziak alferrikakoak eta kaltegarriak zirela eta inor ez zutela purgatoriotik askatzen. Tetzel-ek berehala eman zien erantzuna hogei tesi horiei. Luterok eta Tetzelek eztabaidan jarraitu zuten, Tetzel 1518an Leipzig-eko komentura erretiratu zen arte. 1519ko abuztuaren 11n hil zen Tetzel, Miltitz-ek berarekiko hartu zuen jarreragatik tristatuta (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1518ko otsailaren 15ean gutun bat idatzi zion Luterok George Espalatinori, bi galderari erantzunez. Galdera bat zen ea ekintza onak zerk motibatzen dituen. Luterok esaten zuen itxaropen gabeziak eta konfiantzak animatu behar zituela ekintza onak: norberarengan itxaropenik ezak eta Jainkoaren grazian konfiantzak. Beste galdera indulgentzien ahalmenari buruzkoa zen. Luterok esaten zion indulgentziak arimak iruzurtzeko zirela eta halakorik ez erosteko. Esaten zuen behartsuak baztertu eta indulgentziak erosten dituztenek gaitzespena merezi dutela.

Luteroren lehen asmoa Tesiei buruzko kontsulta egitea izan bazen ere, hark uste baino lehen argitaratu ziren tesiak alemanez eta latinez. 1518ko maiatzaren amaieran gutun bat idatzi zion Luterok Leon X.ari, tesiak azaltzeko tratatu bat egiten ari zela esanez. Luterok 95 tesiei buruzko azalpenak eman zituen *Resolutiones disputationum de indulgentiarum virtute* liburuxkan. Wittenberg-en amaitu zen argitalpena 1518ko abuztuaren erdi aldera eta Leon X. Aita Santuari eskaini zion liburuxka. Luterok zion ez zutela iritziz aldaraziko, ez Santo Tomasek, ez Guraso Santuek; kontzilio unibertsal batek bakarrik argitu zezakeela Eskrituran dagoen egia. Luterok Eliza ez uzteko borondatearen berri eman zuen; esaten zuen Aita Santuaren hitzak onartzeko prest zegoela (García-Villoslada, 1973). 1518ko abuztuaren 7an Erromara joateko deialdi bat etorri zitzaion Luterori Wittenberg-era (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Reuchlin (1455-1522), Melanchthon-en osaba irakaslea, hebreerari aditua eta liburu sakratu juduen defendatzaile sutsua izan zen; hebreeraren ikasketak sustatu zituen mendebaldean. Haren defendatzailea izan zen Hutten-go Ulricho (1488-1523), poeta, Luteroren aldekoa eta Aita Santuaren eta kleroaren etsaia. Dominikoak filosofia eskolastiko tradizionalaren defendatzaileak ziren. Koloniako dominikoek Enperadoreari eskatu zioten hebreerako liburuak ezabatzeko eta Reuchlin neurri horren kontra agertu zen. Orduan, Dominikoek Reuchlin

heretiko moduan epaitu nahi zuten. Reuchlin-ek ez zuen juduak jazartzerik nahi; pentsatzen zuen juduek Mesias baztertu zutela eta hortik zetorrela haien zoritxarra. Juduen arerioek (horien artean, Pfefferkorn judu konbertituak) haien liburu guztiak bildu eta erre nahi zituzten, Testamentu Zaharraren salbuespenarekin; horretarako, Enperadorearen babesla lortu zuen. Dominikarrak Mainzeko inkisizioaren alde jarri ziren; humanistak eta Lutero, berriz, Reuchlin-en alde. Reuchlin-en gramatikarekin ikasi zuen hebrearra Luterok Erfurt-en, Lang-en laguntzaz. Gai horri buruz gutunak idatzi zizkion Lutero bere lagun Spalt-eko George Burkhardt-i, Espalatino deituari: 1514ko otsailean idatzitako gutunean esaten zion Reuchlin-en idatzietan ez zegoela ezer arriskutsurik (Smith, 1911). Lutero Reuchlin-en alde bazegoen ere, baztertu egiten zuen humanismoak gizakiaren askatasunaz pentsatzen zuena; humanistek gizakiaren askatasuna eta berezko ontasuna aldarrikatzen zuten, baina Luterok gizakiez zuen ikuspegia ezkorragoa zen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Mainzko artzapezpikuaren salaketaren bidez jaso zuen Leon X.ak Luteroen berri. Artzapezpikuak bere kontseilariei, Magdeburgoko Unibertsitateko teologoei eta juristei bidali zizkien 95 tesiak. Kontseilariek, tesiak heretikoak zirela iritzita, esan zuten tesiak Erromara bidaltzeko. Artzapezpikuak Erromara bidali zituen tesiak. Sylvester Prierias dominikoak *Aita Santuaren Aginteari buruzko Martin Luteroen tesi harroxoaren kontrako elkarrizketa* argitaratu zuen Aita Santuaren izenean. Leon X.ak pentsatu zuen auzi hori ordena agustindarraren bikario orokorra zen Gabriel de la Volta agustindarren jeneralaren esku uztea. Voltak Staupitzi esan zion Lutero atzera egitera behartzeko. Staupitz-ek haren kontrako akusazioen berri eman zion Luteroi, baina Lutero erantzun zion Tauler-en teologiari jarraitu besterik ez zuela egin eta haren arabera, gizakiak Jesukristoz bakarrik fidatu behar zirela; ez zirela beren merituez eta ekintzez fidatu behar (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1518ko martxoaren 21ean John Lang-i idatzitako gutunean Lutero zion induljentzia saltzaileak sututa ari zirela pulpitutik Luteroen kontra predikatzen. Lutero berehala erreko zutela esaten ari zirela eta Heidelberg-era ez joateko aholkatzen ziotela. Lutero ziur zegoen Printzeak babestuko zuela eta ez zuela utziko bera Erromara eramana izan zedin. Tetzel-en *Positiones* tesien erretzea nola gertatu zen esaten zion; esaten zion berak ez zuela zerikusirik izan erretze horretan. Printzeak, Hiriko kontseiluak eta beretako inork jakin gabe egin zutela. Tetzel-en jarraitzaileak suturik zeudela, baina bera errugabea zela zion Lutero (Roper, 2010).

Staupitz eta Kaietano

1518ko martxoaren 31n idatzitako gutunean Luterok Staupitzi esaten zion Taulerren teologiarekin jarraitzen zuela; hark irakasten zuenez, gizakia Jesukristoz bakarrik fida daitekeela; ez otoitzez, ez merituez, ez ekintzez; Jainkoaren graziaz bakarrik fida daitekeela.

Staupitzek Heidelberg-era deitu zuen Alemaniako Kongregazioaren kapitulua. 1518ko apirilean elkartu ziren Heidelberg-en Alemaniako obserbantzako hainbat komentu agustindarretako ordezkariak, teologoak eta ikasleak. Luterok Heidelbergera joateko salbokonduktoa lortu zuen eta hara joan zen, Beyer ikaslearekin batera. Luterok idatzitako 40 tesiak defendatu behar zituen Beyer-ek. Kapitulu horretan Lang hautatu zuten distrituko bikario eta Staupitz berretsi zuten Alemaniar Kongregazioko bikario moduan. Staupitz-ek hala eskatuta, Luterok defendatu zuen justifikazioa sinesmenetik datorrela eta ez sakramentuetatik; gizakiaren justifikazio guztia Jainkoaren ekintza zela, Jainkoarena bakarrik. Jainkoaren legeak ez duela gizakia justifikatzen; legeak bekatua ugaltzen duela; legeak oztopoak jarri besterik ez duela egiten; gizakiaren lanek ere ez dutela laguntzen, gizon guztiak ustelduak daudelako; ekintza onak eta txarrak baliokideak direla, bekatuak zikintzen baititu bi ekintza motak. Heidelbergeko eztabaidari esker Luterok agustindarren artean bere teologia ezagutarazi zuen.

Heidelbergeko eztabaidak erakutsi zuen Luteroren teologia induljenzien kritika baino zerbait gehiago zela. Beste jarraitzaile batzuk ere bereganatu zituen Luterok: Wolfgang Capito eta Martin Bucer. Luteroren teoriak gizakiaren borondate askea ukatzen zuen eta filosofiak teologiarako baliorik ez zuela esaten zuen; arrazoiari begirune gutxi izan behar zitzaiola, emagaldua zelako. Heidelberg-etik baikor eta osasun onarekin itzuli zen Lutero.

Tetzel erretiratu ostean, berehala irten zen plazara Eck, Ingolstadt-eko unibertsitateko teologiako irakaslea eta humanista ospetsua. Ordura arte Lutero eta Eck lagunak izan baziren ere, Eck-ek Luteroren Tesiak irakurri zituenean, 95 tesien errefutazio bat idatzi zuen: *Obeliskoak*; liburu horretan heretikotzat jotzen zituen Tesiak eta Juan Husen ideiekin alderatzen zituen. Eck-ek esaten zuen Luterok Bohemiako Hus-en teoriak sustatu zituela. Luterok *Asteriskoak*, *Eck-en Obeliskoek kontra* idatziarekin erantzun zion. Carlstadt-ek Luteroren jarrera defendatu zuen. Eck-ek Carlstadt-ekin eztabaidatu nahi zuen teoria horiei buruz eta 12 tesi argitaratu zituen. Lutero tesi horiei buruz Eck-ekin eztabaidatzeko prestatu zen (Roper, 2010).

Printzeak ezkutuan erregaluak bidaltzen zizkiola ikusita, Lutero ziur sentitzen zen, bazekielako Frederiko printzeak babesten zuela. Bien arteko bitartekari lana Espalatinok egiten zuen, Frederikoren aholkularia eta liburuzaina baitzen Espalatinok. Wittenberg-eko irakasleak (Amsdorf, Carlstadt, Melanchthon), Nurenberg-eko Wenceslao Link, Wilibaldo Pirckheimer eta Alberto Dürer Luteroen alde jarri ziren; Erfurt-ekoak, berriz, Eck-en alde, Juan Lang-en salbuespenarekin (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1518an Lutero *Ebazpenak* idatzi eta Leon X.a Aita Santuari eskaini zion; liburu horretan induljentziei buruzko bere ikuspegia ematen zuen. 1518ko maiatzaren 30ean gutun bat idatzi zion Lutero *Staupitzi*, *Ebazpenak* liburua Leon X.ari bidaltzeko eskatuz. Apaltasunez idatzi zion Lutero Leon X.a Aita Santuari; esaten zion berari buruzko txosten txarrak hedatu zituztela eta Aita Santuaren aurrean bere izena zikintzen saiatu zirela, bera Aita Santuaren boterearen kontra jardun izan balitz bezala. Luteroen iritziz, predikariek pentsatzen zuten edozer gauza esan zitekeela, Aita Santuaren izenean; predikari horiek gezurra eta pozoia barreiatu zituzten. Luteroen iritziz arerioek ez zuten onartu berak bazuela autoritatea induljentzietan, errukiaz eta barkamenaz hitz egiteko, gai horietan doktore zelako. Aita Santuari esaten zion botere espiritualaren aldekoa zela eta haren babesa nahi zuela; etsaiek esaten zuten bezalako izan balitz, Saxoniako Hautesle Frederikok ez zukeela Wittenberg-eko Unibertsitatean edukiko; esaten zion Kristoren epaia jasoko zuela Aita Santuaren tronuaren bidez; behartsua zela, ezer galtzekorik ez zuela eta beldurrik ez zuela. Leon X.ari Luteroen *Ebazpenak* eta haren eskaintza heldu zitzaizkionean, prozesu kanoniko bat ireki zuten eta 1518ko ekainean Lutero agindu zioten Erromako kuriara agertzeko hirurogei egunen barruan, han bere dotrinaren berri emateko. Dei hori abuztuaren 7an jaso zuen Lutero. Aita Santuak gutun adeitsu bat bidali zion Luteroi, Erromara joateko gonbidapenarekin eta bidaiarako dirua eskainiz, han aitortza egiteko. Luteroen lagunek ikusi zuten egoera arriskutsua zela. Staupitz-ek esan zion gurutzea bakarrik espero zezakeela; defendatzaile gutxi zituela; Wittenberg utzi eta beregana joatea nahi zuela (Smith, 1911; García-Villoslada, 1973).

Aita Santuaren gutuna jaso bezain azkar idatzi zion Lutero Espalatinori, Saxoniako Frederikorengan baitzuen esperantza. Honela esaten zion Lutero Espalatinori abuztuaren 8ko gutunean: orduan zeukala inoiz baino gehiago Espalatinoren beharra, printzearen eta Enperadorearen laguntzaz lor zedin bere prozesua Alemanian egitea; lehenbailehen printzearen aholkua eta laguntza lor zitzala. Esaten zion entzun zuela Kaietano kardinalak Aita

Santuaren mandatua zuela Enperadorearengandik eta printzeengandik Lutero aldentzeko. Lagunei iruditzen zitzaiela Frederiko printzearen salbokondukto bat lortu behar zuela haren lurraldeetatik zehar ibitzeko. Baina, Frederiko printzeak ez zion salbokondultorik eman, pentsatzen baitzuen Lutero ez zuela Erromara joan beharrik izango eta Kaietanoren aurrean aurkeztu beharko zuela. Kaietanori ez zion halako asmo txarrik sumatu Frederikok; beraz, Enperadorea eta Aita Santua ez zirikatzea pentsatu zuen (García-Villoslada, 1973).

1518ko urriaren 14an Carlstadt-i idaztitako gutunean Lutero esaten zuen bere kausak itxura txarra hartu zuela egun horietan. Aita Santuaren legatuak ez zuela nahi eztabaida publikorik. Hark entzun nahi zuen bakarria hau zela: Lutero aitoren zezala erratua zegoela eta erretraktatu egiten zela. Baina, Lutero ez zuela horrelakorik egin nahi. Eztabaida gogorrena bi artikuluez izan zela: induljentziak ez zirela Kristo Salbatzailearen merituen altxorra eta Jaunaren mahai santura hurbildu nahi zuen gizakiak sinetsi egin behar zuela (García-Villoslada, 1973).

Kaietano kardinala, Aita Santuak Alemanian zuen legatua, Gaetan jaioa zen; Tomas del Vio zuen izena eta Letrango V. kontzilioan ezaguna bihurtu zen. Akinoko Tomas-en *Summa Theologica*-ren komentario bat idatzia zuen eta humanista zen. Leon X. Aita Santuak turkoen kontrako gurutzadan alemanen babesa ziurtatzeko bidali zuen Kaietano Alemaniara, baina Luteroen auziari ere laster heldu zion. Maximiliano I.a Enperadoreak gutun bat idatzi zion Aita Santuari 1518ko abuztuaren 5ean, Luteroen eztabaida erabaki zezan; Erromak erabakitzen zuena betearaziko zuen Enperadoreak. Aita Santuak Kaietanori esan zion Lutero dei egin eta hutsegiteez erretraktatuarazteko; hutsegiteak zuzentzen bazituen, Aita Santuaren barkamena emateko; aldiz, erretraktazioa egitera ukatzen bazen, preso hartu eta Erromara eraman zezatela. Kardinal legatuaren esanak betetzen ez bazituen, printzeei exiji ziezaiela heretikoa atxilotu eta eskumikatzea (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Agustindar ordenako jeneralari ere esan zion bere bitarteko guztiak erabiltzeko fraide hori atxilotzeko. Gabriel de la Voltak, Staupitzi eskatu ordez, Saxoniako agustindarren probintziala zen Gerardo Heckert-i eskatu zion Martin Lutero atxilotzeko (Campos y Fernández de Sevilla, 2017).

1518ko irailaren 25ean Wittenberg-eko irakasleek gutun bat bidali zioten Miltitz-i; gutunean eskatzen zioten Aita Santuari eska ziezaiola Luteroi epaia Alemanian egiteko, epailari inpartzialen aurrean, eta ez Erroman. Aita Santuari ere idatzi zioten esanez Lutero ezin zela Erroman aurkeztu, osasun txarra zuelako eta bidaiaren arriskuengatik (García-Villoslada, 1973). Bere aldetik, Frederiko printzeak Kaietanori esan zion Alemanian egin behar zela epaia,

susmagarriak ez ziren epailarien aurrean. Kaietanok esan zion Lutero Augsburgora berarengana joaten bazen, biguntasunez jokatuko zuela. Frederikok Luteroi aholkatu zion aurkez zedila kardinalaren aurrera.

Augsburgon biltzekoa zen dieta inperiala. Hiri handia eta boteretsua zen Augsburgoko. Bertan bizi zen Fuggertarren familia ere. Frederiko Jakintsuak botere politiko handia zeukan, haren sostengua garrantzitsua baitzen Maximiliano Enperadorearen semea zen Karlos Enperadore izendatu ahal izateko. Bestalde, Lutero jakinaren gainean zegoen Kaietanok Aita Santua eta Enperadorea elkartu nahi zituela Luteroen kontra. Lutero Saxoniako printzearen salbokonduktoarekin eta bi aholkularirekin heldu zen Augsburgora eta karmeldarren komentuan hartu zuen ostatu, han ez zegoelako agustindarren komenturik. Fugger-tarren gazteluan hartu zuen ostatu Tomas del Vío (Kaietano) kardinalak. (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). 1518ko urriaren 12an egin zuten elkarrizketan hiru gauza eskatu zizkion Kaietanok Luteroi: hutsegiteez damutu eta erretraktatzeko; hutsegite horiek berriro ez zituela errepikatuko agintzeko; Elizaren bakea aztoratuko zuen dotrinarik ez aldarrikatzeko aurrerantzean. Luterok esan zion Elizaren kontrako ezer ez zuela irakatsi. Lutero eta Kaietanok gai hauei buruz eztabaidatu zuten (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010):

Merituen altxorraren izaera eta sinesmena. Kaietanok esaten zuen Lutero ukatu egiten ziola Aita Santuari Kristoren eta santuen merituez baliatzeko gaitasuna. Lutero zion Kristok bere merituen bidez induljentzien altxorra eskuratzen bazuen, meritua eta altxorra ez zirela gauza bera; merituen bidez irabazitako zerbait zela altxorra. Induljentzien praktikak erakusten zuten sinestun batzuek besteengatik errezatzen zutela eta salbamena ahalegin kolektiboa zela. Lutero, aldiz, pentsatzen zuen kristauak bakarrik egiten ziola aurre Jainkoari; jarrera bakartia defendatzen zuen.

Kaietanorentzat, sakramentuak berez ziren balioudunak eta eraginkorrak; baina, Luteroarentzat, sakramentuek sinesmenaren beharra zuten eraginkorrak izateko; gizakia ez zuten sakramentuek justifikatzen, Kristoren hitzan duen sinesmenak baizik. Kaietanorentzat, sakramentuen ekintza ez zegoen sinesmenaren mendean, kristaua ez zegoelako ziur bere sinesmenaz.

Luteroarentzat Aita Santuen aurretik Jainkoaren hitza zegoen, haiek ez baitziren hutsezinak. Esandakoak ezeztatze eskatzen zion Kaietanok, baina Lutero esaten zion ez zituela ezeztatu nahi, Eskriturretan oinarrituta oker zegoela egiaztatzen ez zuten bitartean. Lutero zion ez zuela

Eliza erromatarraren dotrinaren kontra joan nahi; bere esanak azter zitzatela Aita Santuak eta Unibertsitateek. Staupitzek Kaietanori eskatu zion eman zezala baimena Luterok idatziz erantzun ahal izateko; hori onartu egin zuen Kaietanok. 1518ko urriaren 15ean erantzun idatzia eman zion Luterok kardinalari; esaten zion Jainkoari gizakiei baino lehen obeditu behar zaiola; Aita Santuaren autoritatea kontzilioaren mendean eta argudio hobeak dituen edozein kristau leialen mendean dagoela; Kaietanok esan zion ez zuela bere aurrean ikusi nahi erretraktatu bitartean.

Dietako azken bileran, urriaren 14an, Kaietanok eskatu zuen Staupitzek esku har zezala, Luteroren agintari moduan. Staupitzek jakin zuen agustindarren ordenako buru zen Gabriele dela Voltak Kaietanori agindu ziola Lutero atxilotu eta Erromara bidaltzeko. Orduan, Staupitzek boto agustindarretatik aske eta bere kontroletik at utzi zuen utzi zuen Lutero.

1518ko urriaren 17an Augsburgon idatzitako gutunean Luterok Kaietanori esaten zion Staupitz bikarioak apalki pentsatzeko eskatu ziola. Luterok zion aitortzen zuela errespetuz hitz egin zuela Aita Santuaz, baina ez zela behar bezain apala izan; sukartsuegia izan zela eta ez zuela gotzaina behar besteko adeitasunez tratatu; aurrerantzean kontu gehiagoz ibiliko zela eta ez zuela induljenziez hitz egingo; isilik egongo zela, induljenzia predikatzen zituztenak ere neurritsuak agertzen baziren.

Kaietanok ez zion erantzun Luterori. Luterori bere lagunek aholkatu zioten Augsburgoko uzteko eta urriaren 20-21eko gauan ihes egin zuen Augsburgotik. Nurenberg-en Alberto Dürer ezagutu zuen eta 26an Mansfeld-ko Albertorekin egon zen. Urriaren 31n heldu zen Wittenbergera. Garai horretan Lutero konbentzitua zegoen martiri izango zela eta bere burua Kristorein alderatzen zuen, martiri izatea bilatzen ez bazuen ere (Roper, 2010).

Kaietano kardinalak Dietako eztabaidaren berri eman zion Frederiko Hautesleari; Luterok ere gertatutako guztiaren berri eman zion printzeari, eta eskatu zion Erromara ez zezala bidali. Bi ikuspegiak ezberdinak ziren. Kaietanok gutun bat idatzi zion Saxoniako Hautesleari Lutero bere lurraldetik kanporatzeko edo Erromari entregatzeko esanez. Printzeak kardinalaren gutunaren kopia bat eman zion Luterori, gezurta zezan. 1518ko urriaren 31ren ostean argitaratu zituen Luterok Augsburgoko eztabaidako oharra, *Acta Augustana* moduan. 1518ko urriaren 16an apelazio bat idatzi zuen Luterok: *Gaizki informaturiko Aita Santuarengandik hobeto informatu behar zuen Aita Santuari*. Garai horretan oraindik nagusiki latinez idazten zuen Luterok, jende jakitunarentzat eta apaizentzat (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1518ko azaroaren 28an Luterok esan zuen Aita Santuak huts egin zezakeela eta haren kondena ez zuela onartzen; ez zela Erromara joango. Aita Santuari eskatu zion Kontzilio Orokor baterako deia egiteko. 1518ko azaroaren 29an, berriz, Frederiko Hautesleari idatzi zion gutun bat, esanez espero zuela hark ez zuela baimenik emango Erromara bidaltzeko, han ez zatekeelako seguru egongo. Erromara bidaliz gero, kristau errugabe bat heriotzara kondenatuko zukeela. Eskerrak ematen zizkion Hautesleari egindako mesedeengatik, haren ontasuna inoiz ez zuela ahantziko esanez.

Miltitz eta Eck. Leipzig-eko eztabaida

Luterok pentsatzen zuen Wittenberg-en egonik, arazoa sortzen ziola printzeari, enperadorearekin haserretzera eraman zezakeelako horrek; beraz, atzerrira joatea erabaki zuen; agurra egiteko asmoz lagunekin afari batean elkartu ere egin zen; orduan printzearen agindu bat heldu zitzaion, Wittenberg-etik ez mugitzeko aginduz. Unibertsitateko irakasleak ere Lutero babestearen alde agertu ziren. Luterok eskatzen zuen berak esandakoa beste unibertsitateek ere azter zezatela eta gai horiei buruzko eztabaida toki seguruan egin zedila (García-Villoslada, 1973).

Kaietanok Frederiko Hautesleari idatzi zion Lutero atxilotu eta Erromara bidaltzeko eskatuz. 1518ko abenduaren 8an Frederiko Printzeak Kaietano kardinalari erantzun zion, esanez ez zegoela seguru Lutero heretikoa zenik; esaten zion Lutero ez zela erretraktatzera behartu behar, ordura arte ez zelako demostratu haren dotrinak heretikoak zirenik; hura erbestera edo Erromara bidaltzea beren unibertsitatearen kalterako izango zela.

Kaietanok ikusi zuen zaila zela Lutero heretikotzat hartzea eta Leon X.a Aita Santuari eskatu zion ex cathedra finka zitzala eztabaida puntuak. Bulda batean induljentziei buruzko fraide batzuen hutsegiteak kondenatu zituen Aita Santuak eta fede-dogma hau ezarri zuen: Aita Santuak Kristoren eta santuen merituak administra ditzake eta eman ditzake induljentziak bizirik edo purgatorioan daudenentzat. Induljentziei buruzko Luteroren dotrina heretikoa bihurtu zen eta Aita Santuak Charles von Miltitz nuntzioa bidali zuen Alemaniara.

Miltitz Eisleben-era joan zen, Luteroren arazoa konpontzeko agustindarren laguntza eske; modu diplomatikoan konpondu nahi izan zuen arazoa eta Luteroekin elkarrizketatu zen Alteburg-en. Miltitz saiatu zen Luteroren eta Aita Santuaren artean bakeak egiten; Luterori eskatu zion Aita Santuari gutun bat idatz ziezaiola.

Luterok 1519ko urtarrilaren 6-7an Saxoniako Frederiko Hautesleari idatzi zion esanez adostasun batera heldu zirela eta alde biek uko egingo ziotela gai horretaz hitz egin eta idazteari; iraganean suharregia izan zela, baina irakaspen okerren kontra bakarrik joan zela; Aita Santuari idatziko ziola esanez eliza ez zuela iraindu nahi izan eta haren mendean apalki jarriko zela; idatzi baten bidez jendeari eskatuko ziola Erromako Elizarekiko esanekoa eta begirunetsua izateko; Espalatino maisuak proposatu zuela auzia Salzburgoko Artzapezpikuaren eta beste jakitun batzuen esku uztea. Bere aldetik, Miltitzek Aita Santuari idatziko ziola gaia

gotzain jakintsu baten esku uzteko eskatuz; gotzain horrek Luterori entzungo ziola eta zuzendu beharreko hutsegiteak zehaztuko zituela; esaten zion bera prest zegoela edozer zuzentzeko. Luterok berehala idatzi zion Aita Santuari, baina esan zion Erromako kuria Babilonia eta Sodoma baino ustelduago zegoela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Georg Burkhardt (Espalatino, 1484-1545) Spalt-en jaio zen eta eragin handia izan zuen Frederiko printzeak Luterorekiko zuen jarreran. Nurenberg, Erfurt eta Wittenberg-eko unibertsitateetan ikasi zuen. Frederiko III. Jakintsuak bere iloba Juan Frederikoren instruktore moduan hartu zuen eta bere idazkari eta liburuzain izendatu zuen. Gorteko kapilaua ere bazen. Espalatino, langile nekaezina izan zen, Hauteslearen esanetara. Luteroren ondoan egon zen unerik zailenetan ere. Harreman handia eduki zuten 1518n eta 1525 urteen artean. Luterori lagundu zion Augsburgoko Dietan eta Kaietano eta Miltitzekin negoziatzen. 1525ean Frederiko hil zenean, Altenburg-eko parrokiara joan zen. Bera arduratzen zen Printzearen gutunez. Espalatino zen Luteroren eta printzearen arteko bitartekaria. Luteroren lanen berri Hautesleari ematen zion. Espalatino Lutero baino errealistagoa zen eta sarritan frenatu nahi izan zuen Lutero, haren idatziak erasokorregiak iruditzen zitzaizkiolako. Luterok berriz "kortisau" deitzen zuen Espalatino. Luterok sarritan jo zuen Espalatinorengana, pentsioak eta faboreak eskatuz. Eliza luterotarraren antolamenduan eragin handia izan zuen. Alltenburg-en hil zen 1545ean (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Leon X.a konturatu zen Saxoniako Frederikok eragin handia zuela Alemaniako politikan eta enperadore izenda zezaketela; beraz lausenguen eta promesen bidez hura erakartzen saiatu zen; horrela, Printze Hautesleari Urrezko Arrosa ematea pentsatu zuen; sari horren truke, Frederikok Lutero atxilotu eta Erromara bidaliko zuela espero zuen. Aginte handia eman zion Aita Santuak Miltitz-i eta honek ikusi zuen Luterok lurralde haietan jarraitzaile asko zituela eta bitartekari lanak egiten hasi zen. 1518ko abenduaren 28an Miltitz Saxoniako Frederikoren gortera joan zen, hari Urrezko Arrosa emateko asmoz, Lutero bere lurraldeetatik jaurtikitzen bazuen; printzeak esan zion, Saxoniatik botatzen bazuen, Bohemiara joango zela Lutero eta han handiagoa izango zela matxinada arriskua; Miltitz prest agertu zen Luterorekin bildu eta bitartekari lana egiteko; Printzeari egokia iruditu zitzaion jarrera hori; Miltitz-ek Luterori esan zion erretiratzeko Aita Santuari zuzendutako irainak; Luterok erantzun zion pozik erretratatuko zela hutsegini zuela demostratzen bazion. Miltitz-ek onartu zuen gotzain aleman baten esku utziko zutela Luteroren dotrina Idatzi Sakratuetara egokitzen zen ala ez erabakitzea.

Luterok honela idatzi zion Juan Silvio Egran teologoari 1519ko otsailaren 2an: Miltitz bidali zutela bera Erromara eramateko, baina Luteroen aldeko horrenbeste jende ikusita, gaia Salzburgoko edo Treveris-ko gotzainaren esku uztea erabaki zutela; azkenean, bitartekaritza egiteko Treverisko artzapezpikua, Ricardo de Greiffenclau, aukeratu zutela Miltitz-ek eta Saxoniako printzeak; Kaietanok onartu zuela bitartekaria, baina Luterok esan zien berak ez zeukala haiekin elkartu beharrik; bere iritziak garbi zeudela argitaratutako lanetan eta laster edukiko zuela eztabaida publikoa Eck-ekin. Miltitz-ek gaizki esaka jardun zen Juan Tetzelen kontra; Erromara idatzi zuen Tetzelen zela Lutero eta Erromaren arteko liskarraren erruduna. Beste gauzen artean esan zuen Aita Santuak ez zuela begi onez ikusten Tetzelen egindako predikari-lana (García-Villoslada, 1973).

XVI. mendearen hasieran Alemaniak 20 milioi biztanle zituen. Erromatar-Germaniar Inperio Saindua printzerri, konderrri, hiri, abadia eta gotzaindegi ugarian banatua zegoen eta etengabeko tirabira zegoen joera zentralizatzaileraren eta indar zentrifugoen artean (Abellán, 1990). 1519ko urtarrilaren 12an hil zen Maximiliano I. Enperadorea; zazpi printze Hautesleek (Brandeburgo, Palatinado, Saxonia eta Bohemiako jaunak eta Kolonia, Maguntzia eta Treveris-ko artzapezpikuak) Enperadore berria aukeratu behar zuten bi hilabete barru. Karlos V.a, Frantziako Frantzisko I.a eta Ingalaterrako Henrike VIII.a ziren Erromatar Inperio Sakratuaren koroa bereganatzeko hautagai nagusiak, baina Printze Hautesleetak gehienek eta Fuggetarrek Karlos I.a hautatu nahi zuten enperadore. Hala ere, Printze guztien gogokoa ez zen Enperadorea hain indartsua izatea. Karlos I.aren agintea lurralde hauetara heltzen zen: Alemania, Austriako lurraldeak (Austria, Tirol, Estiria, Carintia, Carniola), Habsburgoko familiaren lurraldeak, Rin garaikoak, Herbehereak, Luxenburgoko, Borgoina, Franko Kondatua, Flandes, Aragoiko koroa, Nafarroa, Gaztela, Sizilia, Napoles eta Amerikan bereganaturiko lurraldeak.

Frantziako erregeari ez zitzaion interesatzen Karlos I.a Enperadore izatea eta bere burua jarri zuen hautagai moduan. Leon X.ak une batez Frederiko Jakintsuaren aldeko botoa ematea pentsatu zuen, baina gero Frantziako erregea aukeratu nahi izan zuen Enperadore, Karlos I.ak indar gehiegi har ez zezan; Aita Santuak nahi zuen Saxoniako Frederikok Francisco I.aren aldeko boza eman zezala, eta, hori lortzeko, harreman onak eduki behar zituen Saxoniako Printze Hautesleekin. Ondorioz, Erromako kuriak Luteroekiko jarrera aldatu egin zuen eta Luteroen prozesua luzatu egin zen.

1519ko ekainaren 28an Karlos V.a, Maximilianoren biloba eta Errege Katolikoaren biloba, hautatu zuten Enperadore Alemaniako printze Hautesleek. Luteroren erreforman oinarrituta, lurraldeen estatuek eta printzeriek indar handia hartu zuten; horregatik, Karlos I enperadoreak Saxoniako Frederikori agindu zion Alemaniarrak bertan epaituko zituztela, atzerriko tribunaletara joan beharrik gabe (García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1519ko abuztuaren 23an idatzitako gutunean hau idatzi zion Leon X.ak Luterori: Miltitz-ek esandakoaren arabera, hark (Luterok) ez zituela Aita Santua eta Erromako Eliza iraindu nahi izan, baizik induljentziei buruz erlijioso batek esandakoari erantzun nahi izan ziola; haiei gogor erasotzean, gehiegikerietan erori zela. Ikusten zuela Lutero damutua eta erretraktatzeko prest agertzen zela. Bera prest zegoela Luteroren erretraktazioa jasotzeko; baina, horretarako, Luterok Erromara joan behar zuela.

1519ko irailaren 25ean Saxoniako printzeari urrezko Arrosa ematera joan zen Miltitz Altenburg-era. Printzeak ordezkari batzuk bidali zituen Arrosa jasotzera eta ordainetan 200 florin eman zizkion Miltitz-i. Erromara itzuli aurretik, Luterorekin bilera arrunt bat egin zuen Miltitz-ek (García-Villoslada, 1973).

Enperadoreak arazo ugari zituen garai horretan: Gaztelako erregeak Frantziarekin zuen gatazka, Nafarroako erreinua zela eta. Alsazian eta Lorenan frantsesek eta Enperadoreak zuten gatazka. Karlosek menderatzen zuen Italia hegoaldearen eta frantsesek menderatzen zuten Italiako Ifarraldearen arteko gatazka. Hab burgo eta Valois-ko gatazka; Suleiman Magnifikoaren erasoaren arriskua; Herbehereetako anabaptista eta erreformazaleekiko gatazka. Espainian ere arazorik ez zitzaion falta: 1520an matxinada bat sortu zen Gaztelan: hiriek komuneroen liga eratu zuten eta uko egin zioten zergak ordaintzeari. 1521ean Gaztelako nobleziak komuneroak menderatu zituen. Espainian noblezia zen nagusi eta ofiziorik ez zen lantzen, gerrakoa izan ezik. Etekinik ez zioten ateratzen Gaztelako artileari, Amerikako oihal, urre eta zilarrari; beste lurralde batzuek (Alemania, Anberes, Ingalaterra) atera zuten etekina produktu horietatik, Espainian salerosketan zebiltzan merkatari asko alemanak, ingelesak eta italiarrak baitziren (Elton, 1964).

Luterok 1518ko urte amaieran Eck-en kontrako hamabi proposizio idatzi zituen eta 1519ko otsailaren 18an gutun bat bidali zion Eck-i, eztabaidarako data bat eskatuz. Leipzig aukeratu zuten eztabaidagune. Leipzig-eko unibertsitateak hasieran eragozpenak jarri zituen eztabaidarako, baina Saxoniako George Duke albertotarrak esan zuen unibertsitatearen

eginkizuna zela egia ezagutaraztea (Smith, 1911). 1519ko otsailaren 19an gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako George Dukeari. Esaten zion John Ecker Georgeri eskatu ziola eztabaida Leipzig-en egiten uzteko, bere unibertsitatean, Carlstadt-ekin. Eck-ek Carlstadt-ekin eztabaidatu nahi bazuen ere, Luterok zioen bera agertuko zela bere proposamenak defendatzera; Georgeri eskatzen zion eztabaida hori egiten uzteko. Luteroren etsai trebeenetakoa izan zen John Eck. Hogeita bost urtez elkarren etsai izan ziren biak. Luterorekin liskartu baino lehen, Erasmokin ere izan zituen gorabeherak Eck-ek, Testamentu Berriko grekoari buruzko Luteroren iritziagatik. Eck-ek liburu bat idatzi zuen Luteroren 95 tesien kontra eta bertan heretikotzat eta Husita fanatikotzat hartu zuen.

Lutero eztabaida hasi baino hiru egun lehenago heldu zen Leipzig-era, Melanchthon eta Carlstadt lagun zituela. 1519ko ekainaren 27an hasi zen Leipzig-eko eztabaida; bi aste pasatxo iraun zuen Ingolstadt eta Wittenberg irakasleen arteko eztabaidak. Entzuleen artean zegoen George Dukea. Eck-en alde agertu ziren Erfurt, Paris eta Leipzig-eko Unibertsitateko doktoreak; Luteroren alde atera ziren Wittenberg-eko unibertsitatekoak. Luterok inpresio sakona eragin zuen eta eztabaida oso garrantzitsua izan zen Erreformaren mugimendua jendearen artean ezagutarazteko (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Lutero altuera ertainekoa, ahots zorrotz eta argikoa, aurpegi alaikoa eta garai horretan argala zen. Eskrituren ezagutza sakona zuen. Solaskide atsegina zen, baina eztabaidetan garrantza eta harroxkoa zen. Eck altua zen eta gorputz sendo eta karratua zuen; oroimen onekoa, ahots ozen eta hizkera atseginekkoa; adimen azkarra falta zitzaion; astuna gerta zitekeen, argudio gehiegi pilatzen zituelako, iragazkitik pasa gabe. Eck-ek Heidelberg-eko unibertsitatean ikasi zuen. Aristoteles, Agustin eta Ockham-en lanak ezagutzen zituen eta humanista zen; ondo ezagutzen zituen grekoa, hebreera eta latina. Reuchlin-en babeslea zen eta esperientzia politikoa bazuen, lukurrerari buruzko eztabaidan parte hartu baitzuen Augsburgon 1514-15ean. Elizak debekatu egiten zuen arriskurik gabeko maileguetan interesak jasotzea; interesak kobratzea bekatua zen. Horregatik, Elizak gauzak horrela ikusten zituelako, maileguak uztearen praktika juduen artean kontzentratu zen. Elizaren debekuek zaildu egiten zituzten distantzia handitara egiten ziren salerosketak, horrek diruaren mugimendua eskatzen zuelako. XVI. mendeko ekonomia berriak dirua balore bihurtu zuen. Eck ehuneko bosteko interes tasaren alde agertu zen, arrazoizkoa iruditzen zitzaielako; arriskuak murriztu eta salerosketa globalak ahalbidetu behar ziren. Eck-ek produktu batzuen gaineko kontrol osoa defendatu zen. Fuggertarren eta garaiko

kapitalisten alboan kokatu zen Eck. Lutero, berriz, etika kapitalistaren etsai zen, meatzarien esperientziatik baitzeturren. Eck-ek eta Luterok, biek itzuli zuten alemanera Testamentu Berria. Eck-ek 1537an argitaratu zuen bere itzulpena. Eck-ek eta Luterok bazekiten inprimategia nola erabili, jendearengan eragiteko. Bazekiten gaiak idatziz nola agertu, jendearengan eragin gehiago izateko.

Borondate askeaz eztabaidatu zuten astebetetz Eck-ek eta Carlstadt-ek. Carlstadt altuera gutxikoa, oroimen kaxkarrekoa eta ahots lodikoa zen. Liburuetan oinarritzen zen azalpenak emateko eta hainbat liburu eraman zituen Leipzig-era. Eck-ek ez zeukan besteek idatzitakoari irakurri beharrik, oroimen oso ona zuelako; inprobisatuz hitz egiteko gaitasun handia zuen. Eck-ek borondate askea defendatzen zuen; harentzat, borondate askea ukatzea ordenu morala ezabatzea zen. Carlstadt-entzat, gizakiaren borondatea erabat gaiztoa zen; gizakiek ez zuten borondate askerik, ona aukeratzeko gai ez zirelako eta Jainkoaren graziaz fidatu behar zutelako.

Lutero irrikatan zegoen Eck-ekin eztabaidatzeko eta bigarren astean biek eztabaidatu zuten Aita Santuaren primatutzaz eta autoritateaz; Eck-ek esan zuen Aita Santuaren primatua Kristok ezarria zela eta Lutero husiten aliatua eta heretikoa zela. Erromako Elizaren primatuari zegokionez, Elizaren monarkiarekin ados zegoen Lutero, baina esaten zuen monarkia hori Kristo berarena zela, ez gizaki batena. Luterok zion Kristok ez zuela esan Eliza Pedoren eta haren jarraitzaileen gain eraikiko zuela, baizik fedearen harriaren gainean eraikiko zuela. Eliza harkaitz baten gainean eraikiko zuela esatean, harkaitz hori Kristo bera zela esan nahi zuen. Eck-ek defendatu zuen Erromaren primatua Jainkoarengandik zetorrela, Kristok berak aukeratu zuela Pedro elizaren errege. Hori konfirmatzeko Ambrosio, Zipriano, Agustin eta abarren testigantzak aipatu zituen.

Hirugarren astean Eck Luterorengan zentratu zen eta induljentziaz, purgatorioaz, penitentziaz eta barkamenaz hitz egin zuten. Luterok zioen berak ez zuela esaten induljentziak alferrikakoak zirenik, baizik haietaz abusatzea zela txarra (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Eck-ek berak nahi zuen tokira eraman zuen Lutero. Eck-ek bideratuta, Luterok esan zuen Aita Santuek eta kontzilio orokorrek huts egin zezaketela eta John Hus-en artikulua asko kristauak eta ebanjelikoak zirela; Biblia beste autoritaterik ez zegoela; Konstantzako kontzilioaren historia irakurtzean konturatu zela Hus-en proposamen asko ebanjelikoak eta ortodoxoak zirela. Luterok Konstantzako kontzilioaren autoritatea zalantzan jarri zuen, Hus-en kondena (1415)

kritikatu zuenean. Eck-ek esan zuen Bohemiako Juan Hus Luteroren ideia berberak defendatzeagatik kondenatu zutela, heretiko moduan, ehun urte lehenago. Luterok esan zuen bera ez zegoela Erromaren primatuaren kontra eta ez zela inoiz zismatikoa izango, baina primatu hori ez zela Jainkoaren zuzenbidekoa, Eskriturretan ez zegoelako.

Luterok iritzi hauek agertu ondoren, hainbat Husitek bere dotrina defendatzera animatu zuten Lutero (Smith, 1911). Baina, Alemaniarrek ez zuten Hus-ekiko sinpatia handirik, hark Txekiako nazionalismoa oroitarazten baitzien. George Dukearen aurretikoek Husiten kontra borrokatu behar izan zuten, beren dukerria eta Hautesle titulua irabazteko. Txekiako nazionalismoaren eta Bohemiako gatazkaren eraginez hainbat irakasle eta ikasle alemaniarrek Praga Unibertsitatea utzi eta Leipzig-eko Unibertsitatea eratu zuten 1409an. Leipzig-eko hiritarrak Eck-en alde agertu ziren eta Lutero kexatu egin zen Eck-ek berak baino tratu hobea izan zuelako. Eztabaida amaitu eta gero, Eck-ek Leipzigen jarraitu zuen egun batzuetan, baina Lutero eta haren lagunek uztailaren erdi aldera alde egin zuten handik. Luterok bere ideiak sakondu zituen Leipzigecko eztabaidan; debate horren ondoren, sormen intelektual handia erakutsi zuen.

Leipzig-eko eztabaidatik itzuli ostean, bi idatzi egin zituen Luterok: bata Erromako Aita Santuaz eta bestea, sinemenaz eta ekintzez. 1520ko maiatzean argitaratu zuen Alveld-ko Agustinek Luteroren kontrako liburu bat: *Super apostolica sede*; lan horretan Lutero heretikoa zela esaten zen, Erromako primatua Jainkoak ezarria ez zela defendatzeagatik. Lutero honako liburu honen bidez erantzun zion: *Erromako Aita Santuari buruz, Leipzig-eko romanista guztiz ospetsuaren kontra*. Esaten zuen eliza sinemenetik elikatzen zela eta gizarte espiritual bat zela; kristautasun espirituala zela benetako eliza bakarra; elizak ez zeukala lurrean bururik; gotzainak mezulari soilak zirela eta kristau denak berdinak direla; elizak ez zeukala Kristo beste bururik. Aita Santuaren autoritate erlijiosoaren kontra jo zuen; esaten zuen gotzain bat besteen gainetik jartzea, gizakien antolamendu bat besterik ez zela; gotzainek eta Aita Santuak ezin zezaketela eliza arautu (Smith, 1911; García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Erroman Luteroren auzia seriotan hartzen hasi ziren; Juan Eck-ek Leipzig-eko eztabaidaren txosten bat bidali zuen Erromara. Medicis-ko Juliok, geroago Klemente VII Aita Santua izango zenak, heldu zion arazoari. 1520ko otsailaren 1ean teologoen komisio bat eratu zen, Anconitatus eta Caietanus kardinalen presidentziaren pean. Gabriel della Volta, agustindarren

jenerala, saiatu zen Lutero bide zuzenera ekartzen, Staupitzen bidez, baina Staupitzek ez zion arazoari heldu eta 1520ko abuztuaren 28an dimititu egin zuen Eisleben-go kapituluan.

Wenceslao Link, Luteroen adiskidea, izendatu zuten Staupitz-en ondorengo bikario orokor. **Link Saxoniako Colditz-en jaio zen 1483an. 1511n teologian doktoratu zen. Wittenberg-en teologia irakasle izana zen Link eta Kongregazioaren kapitulu orokorra Wittenberg-era deitu zuen, 1522ko urtarrilean. Luterotarrak nagusitu ziren kapitulu horretan: ordenako fraideak eskean ibiltzea eragotzi zen; fraide bakoitzak erabaki behar zuen monasterioa utzi ala ez. Agintean egon zen urteetan Luteroen alde egin zuen Link-ek. 1525en Nurenberg-eko Santa Katalina abadiako kapilau bihurtu zen Link. Anabaptisten kontra borrokatu zen eta haurren bataioa defendatu zuen. 1547an hil zen (García-Villoslada, 1973).**

Ekintza onak izeneko liburua 1520ko ekainaren hasieran argitaratu zuen Lutero eta Saxoniako Juan-i eskaini zion. Sinesmenik gabe egindako ekintza onak egitea alferrikakoa zela zioen. San Pablok zioen moduan, fedetik ez datorrena edo fedez egiten ez dena, bekatua dela. Esaten zuen bera ez zegoela ekintza onen kontra, ekintza horiek fedeak ariman ereindako landareak zirelako eta zuhaitz onak ekintza onak ematen dituelako. Ekintza bat Jainkoaren atseginerako dela sentitzen badu gizakiak, orduan ekintza ona dela; baina, konfiantza hori ez badu, ez dela ona (García-Villoslada, 1973; Erromatarrak, 14, 23).

1520an Aita Santua antikristotzat zeukan Lutero. Ekainaren 7an Espalatinori idatzitako gutunean zioen Erroman denak zoro eta deabru bihurtzen ari zirela eta Karlos V.ari idatzi bat bidaltzeko asmoa zuela, Erromako kuriaren kontra. Pentsatzen zuen Aita Santuari ez ziola obedientziarik zor eta printzeei eta nobleei idatzi behar ziela Erromako kuriaren kontra jar zitezen.

Melanchthon

Wittenberg-eko unibertsitateak grekoa irakasteko Melanchthon hartu zuen 1518ko abuztuan, eta horrela bultzada bat eman zioten humanismoari. Espalatinok eta Printze Hautesleak bidali zuten Melanchthon Luterorengana. Luterok eskerrak eman zizkien, grekoko irakasle hain ona bidaltzearen. Luterok Felipe Melanchthon izan zuen lagunik onena. Melanchtonek Bibliaren exegesiaren esanera jarri zuen filologia klasikoa. 1518ko abuztuaren 31n idatzitako gutunean Luterok Espalatinori esaten zion Melanchthon-ek etorri eta handik lau egunetara diskurtso elokuate bat egin zuela eta entzule guztiak txunditu zituela. Ez zeukala hura laudatu beharrik, pertsona eta intelektual moduan inpresio oso ona egin ziolako. Melanchthonek irauten zuen bitartean ez zuela grekoko beste irakaslerik nahi. Hori bai, kezka ematen ziola hark jasotzen zuen soldata txikiak; beldur zela Leipzig-eko unibertsitatekoek irakasle hori kenduko ote zieten.

Melanchthon 1497an Bretten-en jaio eta 1560an Wittenberg-en hil zen. Oso gazterik, Wittenberg-eko unibertsitatean, lortu zituen doktoregoa eta hizkuntza grekoko katedra, bere osaba Johannes Reuchlin humanistaren eraginari esker. Eliza erreformatuaren egituraketan garrantzi handia izan zuen. Teologian lizentziatu zen 1519an eta Martin Luteroren lekua hartu zuen, hura Wartburg-eko gazteluan gordeta egon zenean. 1526an Teologiako katedra lortu zuen eta Alemaniako eliza erreformatuen konstituzioak bateratzen jardun zen. 1529an Espirako protesta sinatu zuen, printze luterotarrekin batera, Karlos V.ari tolerantzia erlijiosoa eskatuz. Luteroren ideiak finkatzeko asmoz, gogor lan egin zuen Melanchthon-ek, bai Augsburgoko Dietan, bai Augsburgoko Konfesioaren garapenean. Lutero baino moderatuagoa zen. Luterok Staupitzi esaten zion Melanchthon-ek bere ideia nagusiak garatu, sistematizatu eta argitu egiten zituela (Smith, 1911).

Errenazimentua eta Luteroren eskumikua

Erdi Aroko aristokraziarentzat herentzia kontua zen noblezia, baina burgesia berriarentzat noblezia diruz irabaz zitekeen, meritu kontua zen arrakasta, ez sehaska kontua. Italia iparraldean burgesia eta Berpizkundea loratu zirenean, pertsona eta pentsamendu-askatasuna bihurtu ziren interesgune nagusi. Banako pertsonen baloreak indartu ziren: norbanakoaren kontzientzia, norbere buruaren determinazioa eta berdintasuna (Erikson, 1958). Lurralde germanikoetako hirietan bazen burgesia emankor bat eta oinarriak finkatuak zeuden Errenazimendu aroan sartzeko; baina landa eskualdeetan indartsua zen feudalismoa, monasterioak ziren lur ederrenen jabe eta nekazariak elizaren bulda eta hamarrenen uztarriaren pean zeuden; sinestunen espirituak ere loturik zeuden Eliza Erromatarraren agintearen pean.

Erromak Luteroren kontra hasi zuen jazarpenak geldialdi bat izan zuen 1519. urtearen hasieratik. Leon Aita Santuak Staupitzi eskatu zion Lutero erretraktatzera bultzatzeko, baina Staupitzek bere postua utzi zuen, dominiko bihurtu zen eta Salzburgora erretiratu zen, Lang kardinalaren babesean. 1522ko ekainean Lutero Staupitz-i idatzi zion, esanez harritia zegoela hark ordena utzi zuelako; esaten zion Aita Santuaren erreinua desegin behar zuela. Azken gutuna 1523ko irailaren 17an idatzi zion Lutero Staupitzi; esaten zion haren faboreak galdu zituen arren, ez zuela ahanzten eta eskerronekoa zela harekiko, ebanjelioaren argia aurkitzen lagundu ziolako; Lutero haren seme moduan sinatu zuen gutuna, baina ez ziren adiskidetu. 1524ko abenduaren 28an hil zen Staupitz. Linck-ek Staupitzen azken sermoiak argitaratu zituen, baina Lutero ez zuen horretan esku-hartu. Hala ere, Lutero onartzen zuen zor intelektual eta emozional handia ziola Staupitzi (Smith, 1911; Roper, 2010).

1520an liburu gogorrak idatzi zituen Lutero Erromaren kontra eta Leon X.ak eskumikuz mehatxatu zuen. *Erromako Aita Santuari buruzko tratatua* (1520) Aita Santuaren autoritateari eraso zion Lutero. Eck unibertsitateetan zehar ibili zen Luteroren teoriak kritikatzeko eta Kolonia eta Lovainako unibertsitateak bere alde lerrokatu ziren. Ondoren, Erromara joan zen Beck eta han Leon Aita Santuari Lutero kondenatzeko eskatu zion; horretarako komisio bat eratu zuten, Kaietano, Eck eta beste batzuek osatua. Raphael Riario kardinalak Frederiko Hautesleari idatzi zion, 1520ko maiatzaren 20an, esanez Lutero zigortuko zutela, bere teorian atzera egiten ez bazuen. Frederiko Hautesleak erantzun zion epailari inpartzialen

esku utzi behar zela Luteroren dotrina epaitzea. Leon X. Aita Santuak Luteroren kontra *Exsurge Domine* bulda atera zuen 1520ko ekainaren 15ean, Luteroren 41 tesi heretikotzat joz (Abellán, 1990). Lutero eskomikatu egingo zuen hirurogei egunen barruan, tesi horiek atzera botatzen ez bazituen.

Luterok Aita Santuaren bulda eta zuzenbide kanonikoko hainbat liburu erre zituen; ondoren, esan zuen Aita Santuaren egoitza bera erre behar zela eta bere arima salbatu nahi zuenak Aita Santuaren erreinutik aldendu behar zuela. 1520ko urrian Karlos Enperadoreak dekretu bat atera zuen Luteroren eta Herbehereetako haren jarraitzaileen kontra. Urriaren 31n Frederiko Hauteslearekin elkartu zen Enperadorea Koloniako katedralean. Aleandro nuntzioa ere Koloniarara joan zen eta Saxoniako printzeari eskatu zion Luterorekin egin zezala bere aurrekoek Juan Hus-ekin egin zutena bera; zigor zezala edo atxiloturik entrega zezala; ez zezala babestu; haren liburuak erre zituzala. Frederikok erantzun zion arazoa larria zela eta hausnartu beharra zeukala erantzuna eman aurretik (García-Villoslada, 1973). Hautesleak Erasmori galdetu zion ea Lutero erratua zegoen. Erasmok esan zion bere ustez bi puntutan erratu zela Lutero: batetik, Aita Santuaren koroari eraso ziola eta, bestetik, fraideen sabelari eraso ziola. Erasmok bere iritzia eman zion; gai horren erabakia epailari inpartzialen esku uztea zen irtenbiderik onena. Nuntzioarekin berriro bildu zenean, Erasmok gomendatutakoa proposatu zuen Frederikok: ez zuen Lutero sostengatuko heretikoa zela frogatzen bazen, baina epailari jakintsu eta inpartzialek demostratu behar zituzten haren hutsegiteak, hura kondenatu aurretik. Enperadoreak 1520ko azaroaren 28an Frederikori esan zion Lutero eraman zezala Worms-en egitekoa zen Dietara, han pertsona jakintsuek epai zezaten. Baina, Aleandro nuntzioak ikusi zuen Aita Santuak jarritako bi hilabeteko epea pasatu zela eta Karlos Enperadorearen agindua atzera bota zuen abenduaren 17an (García-Villoslada, 1973).

Luteroren pentsamendua

Hus-en idatziak irakurtzean Luterok ikusi zuen hura bere aitzindaria izan zela gauza askotan. 1520ko otsailean Espalatinori Wittenberg-etik idatzitako gutunean Luterok zioen Jainkoaren Hitzak ez zuela aurrera egingo istilu, arrisku eta zurrunbilorik gabe. Lutero bera husita zela, Pablo eta Agustin izan ziren bezalaxe.

1520 eta 1521 urteetan aldaketa sakona gertatu zen Luteroren espiritualitatean. Eliza katolikoaren eraikuntza kolokan jarriko zuten hiru idazlan argitaratu zituen: *Nazio alemaniarreko noblezia kristauaren diskurtsoa*, *Elizaren gatibutza babiloniarri buruzko preludioa*, *Gizaki kristauaren askatasunari buruz*. Idazlan horietan Luterok bere pentsamenduaren muina agertu zuen:

Estatuarekiko harremana

1520ko abuztuaren 18an argitaratu zuen Luterok *Nazio alemaniarreko noblezia kristauari* izeneko lana. Nazio alemaneko noblezia kristauari zuzentzen zitzaion eta Estatu kristaua hobetzeko proposamen batzuk egin zituen. Erfurt-eko Juan Lang-ek liburu hori ez argitaratzeko aholkatu bazion ere, Luterok erantzun zion askatasunez idatzia zela eta jende askok gogokoa zuela. Staupitz-ek ere aholkatu zion denboraldi batez ezer ez argitaratzeko, baina gutuna jaso zuenerako 4000 kopia argitaratzen ari ziren. Hiru astetan agortu ziren ale denak eta azaroan bigarren argitalpena prestatu zuten (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Jeronimo Emser teologo humanistak *Nazio Germanikoko Noblezia Kristauari* izenburua zeraman liburuari eraso zion, dotrina katolikoa eta Aita Santuaren primatua defendatuz. Luterok berehala erantzun zion: *Leipzig-eko akerrari edo hirkoari*. Emser-ek beste foileto batekin erantzun zion: *Wittenberg-eko zezenari* (García-Villoslada, 1973).

Luterok elizaren erreformatzera gonbidatu zituen printze alemaniarrek; printzeei esaten zien Aita Santuari zergarik ez ordaintzeko eta Eliza lotzen zuten hormak hausteko; esaten zien Erroma zaleek hiru harresi eraiki zituztela, Aita Santuaren autoritatea munduari ezartzeko; harresi horiek hautsi behar zirela Eliza berorietan harrapatua zegoelako (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

- Lehenengo harresia: alde batetik, estatu espirituala (Aita Santua, gotzainak, apaizak eta fraideak) dago eta, bestetik, estatu mundutarra (printzeak, zaldunak, nekazariak) dago; botere

espirituala botere mundutarraren gainera dago. Botere espirituala ordena erlijiosoak duena da. Botere mundutarra jaunena, nekazariena eta artisauena da. Luterok zion Kristok ez zituela bi gorputz, gorputz bakarra baizik. Harresi horren aurrean, Luterok zion ezin direla bereizi botere espirituala eta botere mundutarra. Apaizgintza unibertsala defendatu zuen: apaiza eta laikoa ez dira bereizten; kristau guztiak dira apaiz; kristau guztiek dute Jainkoaren semeen duintasuna; kristau guztiek osatzen dute estatu espirituala; kristauen artean ez dago alde hierarkikorik, alde funtzionalak bakarrik daude; bataioak, ebanjelioak eta fedeak egiten gaituzte izaki espiritual eta bataio bera, ebanjelio bera eta sinesmen bera dute kristau guztiek; edozein gizaki jar liteke Jainkoarekin harremanean, apaiza izan beharrik gabe.

- Bigarren harresia: Elizako hierarkia da Eskrituren jabe bakarra; Eskrituren benetako interpretazioa Aita Santuak bakarrik egin dezake; baina, Luterorentzat inon ez da esaten Eskritura Sakratuak interpretatzeko gaitasuna Aita Santuak bakarrik duenik. Bigarren harresi horren aurrean Eskrituren azterketa librea defendatzen zuen Luterok eta esaten zuen sinestun guztiek uler ditzaketela Eskriturak; denok gara apaiz, denok sinesmen bera dugu; beraz, denok bereiz dezakegu zer den bidezkoa eta bidegabea.

- Hirugarren harresia: Eliza erromatarrentzat botere espirituala mundu honetako boterearen gainera dago; Erromak bakarrik interpreta ditzake Eskriturak eta Aita Santuak bakarrik dei dezake kontzilio bat. Baina, Luterok esaten zuen baieztapen horrek oinarri historikorik ez duela; Luterorentzat Bibliak gidatu behar zuen kristauaren bizitza, eta ez elizaren zuzenbide kanonikoak. Aita Santua Eskrituren kontra agertzen denean, kristauak Eskriturretan oinarritu eta haien arabera jokatu behar dute (Mt 18, 15-17). Aita Santuak bide okerra hartzen duenean eta komunitateak hura akusatu behar duenean, kontzilioan elkartu behar dute. Luteroren iritziz, Aita Santuaren gortearen tamaina haren ehuneneko batera murriztu beharra zegoen, alemanek Aita Santuari gehiago ordaintzen ziotelako Enperadoreari baino. Luteroren arabera, gotzain beharrik ez zegoen eta Erromarako erromesaldiak alferrikakoak ziren eta atzerritarrei eragotzi behar zitzaizkien Alemaniatik etekinak eramatea (García-Villoslada, 1973).

Luterok Erreformatarako aurkeztu zituen puntuetako batzuk aurkezten ditugu hemen: Printzeak ziren erreforma aurrera eraman zezaketen autoritate bakarrak; ez Enperadorea, Aita Santua edo gotzainak. Jainkoak printzeak jarri zituen herriak gobernatzeko; printze, noble edo hiriek debekatu egin behar zuten Erromari anatak ordaintzea; negozio sekularrak ez ziren Erromaren esku utzi behar; botere zibilarri utzi behar zitzaizkien. Aita Santuak ez zuen aginterik eduki behar

Enperadorearen gainean. Erromatik zetozen eskumikuak mespretxatu egin behar ziren. Aita Santuak ez zuen erreklamatu behar erreinurik. Aita Santuaren mendekoek haren ondasunetatik bizi behar zuten. Erromarako erromesaldiak desagertu egin behar zuten eta Aita Santuari ez zitzaion oinetan muinik eman behar. Klerigo eta fraileen ordenak murriztu egin behar ziren. Erretorea aukeratzeko eskubidea behar zuten komunitateek eta ezkontzeko eskubidea behar zuten apaizek. Eskaleek desagertu egin behar zuten: hiri bakoitzak bere behartsuak elikatu behar zituen. Kanpotarrei debekatu egin behar zitzairen amoina eskatzea, baita erromesak edo eskeko fraideak baziren ere. Unibertsitateetan Eskritura sakratuak gutxiegi irakasten ziren. Aristotelesen Fisika, Metafisika, Etika eta Arimari buruzko idatziak kendu behar ziren, arima gorputzarekin batera hiltzen dela irakasten baitzuten. Aristotelesen obra hauek irakatsi behar ziren: Logika, Poetika eta Erretorika.

Elizarekiko harremana

1520ko urrian jaso zuen Luterok eskumikuaz mehatxatzen zuen Aita Santuaren buldaren kopia ofiziala. Hirurogei egun ematen zizkion erretraktatzeko. 1520ko urriaren 6an *Elizaren gatibutza babiloniarrari buruzko preludioa* argitaratu zuen Luterok. Esaten zuen Aita Santuaren gatibu zela Eliza, Babilonia Israel-en gatibu izan zen modu berean. Thomas Murner-ek pentsatu zuen liburuxka hori alemanera itzultzea, irakurri orduko jendea izutua geldituko zelakoan. Baina, jendea ez zen izutu eta Luteroren teoriak oraindik gehiago hedatu ziren.

Elizaren gatibutza babiloniarrari buruzko preludioa izeneko liburua (1520) latinez idatzi zuen, teologo eta apaizei zuzenduta. Esaten zuen Elizak gatibu zeukala herri kristaua, sakramentuen bidez. Sinestunen bizitza askatzeko zazpi sakramentuen katea hautsi nahi izan zuen Luterok idatzi horren bidez. Luterok hasieratik hiru sakramentu bakarrik onartzen zituen: bataioa, penitentzia eta Eukaristia. Beste sakramentuak (sendotza, ezkontza, apaizgintza eta azken igurtzia) desagertu egin ziren. Bataioak ordezkaten zituen beste sakramentuak. Bataiatua zegoena salbatu egiten zen, bekatu asko egin arren; baina, justifikatzen zuena ez zen bataioa bera, Eskriturretan sinestea baizik. Luterorentzat etorkizuneko salbamenaz Jainkoak egindako promesaren zeinuak ziren sakramentuak eta sinesmena eskatzen zuten; behin bataiatu eta gero, sakramentu horrek betirako irauten zuen; sakramentuz behin bakarrik bataiatu arren, etengabe bataiatu behar zen sinesmenaren bidez; Bataioak guztiei banatzen zien Kristoren justizia; Bataioaren bidez justifikatzen zituen Jainkoak sinestunak; beraz, besteek justifikatzen zuten kristaua; kristauak ez zuen beretik ezer jartzen, jaso bakarrik egiten zuen. Gerora,

aitortza ere baztertu egin zuen Luterok, penitentziaren sakramentua bataiora itzultzea besterik ez baitzen harentzat (García-Villoslada, 1973; Elton, 1964; Roper, 2010).

Wolsey kardinalak Luteroren liburuak erre zituen eta Henrike VIII.a Luteroren kontra jarri zuen; Ingalaterrako erregeak edo Eduardo Lee teologoak *Zazpi sakramentuen defentsa, Martin Luteroren kontra* idatzi zuen 1521eko uztailan eta Leon X.a Aita Santuari eskaini zion liburua. Ordainetan, Aita Santuak fedearen ohorezko defendatzailearen titulua eman zion Henrike VIII.ari. Saxoniako Jorge dukeak alemanera itzularazi zuen liburu hori. Luterok 1522ko abuztuaren 6an *Contra Henricum Regem Angliae* izeneko panfletoa argitaratu zuen. Henrike VIII.ak Luterori eraso egitera bultzatu zituen printze eta teologo batzuk. Urte batzuk geroago Luterok Henrike VIII.ari ebanjelioaren kausa bultzatzeko laguntza eskatu zionean, Henrikek irainez erantzun zion. Ordainetan, Luterok ez zuen Henrike VIII.aren dibortzioa sostengatu.

Pertsona gidatzeko arauak

Gizaki kristauaren askatasunari buruz izeneko liburua alemanez eta latinez argitaratu zuen Luterok; horrela haren mezua herri xehearengana eta jende landuarengana iritsi zitekeen. Liburu horrek 18 argitalpen izan zituen bost urtetan. Liburu horren bidez kristaua sakoneko loturetatik askatzea lortu nahi izan zuen Luterok. Esaten zuen Jainkoaren graziatik datorrela justifikazioa, eta ez gizakiaren merituetatik; kristauari sinesmenak ematen diola askatasun espirituala. Kristauak behar duen guztia daukala sinesmenetik, eta ez daukala ekintza beharrik edo lege beharrik. Gizakia on bihurtzen dutenak ez direla ekintza onak; alderantziz, gizaki ona dela obra onak egiten dituenak. Era berean, esaten zuen, ez direla obra txarrak gizakia txar bihurtzen dutenak; aitzitik, gizaki txarra dela ekintza txarrak egiten dituenak. Luterok zion justifikatzeko nahikoa zirela grazia, fedea eta Eskriturak, eta ez zegoela Elizak ezarritako sakramentuen uztarriaren beharrik; ez zirela ekintza onak mespretxatu behar; ekintza onak egin behar zirela, baina gizakia haiek justifikatzen dutela pentsatu gabe (Smith, 1911).

Luterorentzat, fedea da gizakia kezka berekoietatik askatu eta lagun hurkoaren zerbitzura jartzen duena. Fedeari esker, Jainkoarentzat atsegingarri bihurtzen da gizakia: Jainkoari atsegin ematea beste asmorik ez du fededunak. Fedea duenak ekintza onak egingo ditu, fedea borondate onaren iturri agortezina baita. Maitasuna eta fedea elkarrekin doaz. Fedeak behar dugun guztia ematen digunez, sinestuna besteen zerbitzura jartzen da bere borondatez. Kristorentzat eta lagun hurkoarentzat bizi da kristaua. Grazia jasotzen duenak alaitasunez

egiten ditu ekintza onak, eta ez da hori gertatzen Jainkoa beldurratetik zerbitzatzen dutenekin. Benetako fedea duenarentzat legeak ez dira beharrezko (Strohl, 1962).

San Pablok honela dio Korintoarrei egindako 1. gutunaren 9. kapituluan: “*Denean aske naiz eta guztien mirabe bihurtu naiz*”. Bi baieztapen kontraesankor egin zituen Luterok San Pablori jarraiki: alde batetik, kristaua gizaki askea da eta ez dago inoren mendean; beste aldetik, kristaua guztien mendean dago. Benetako kristaua ez dago kanpoko gauzen mendean: ez onen eta ez txarren mendean; fede soilak justifikatzen du gizaki askea. Kristauak aske egon behar du aginte guztietatik, Eskritura Sakratuen mendean bakarrik egon behar du; ez du legearen mende egon behar, ekintza onak derrigorrean egin beharrean aurkitzen denaren gisara. Luterorentzat, Testamentu Zaharreko aginduak gizakia kondenatu egiten zuen eta Testamentu Berriko Ebanjelioak, askatu. Kristauaren bizitza Jainkoaren Hitzari lotua zegoen. Gizakia gorputzaren aldetik haragizkoa eta izaki zaharra da; arimaren aldetik, espirituala eta izaki berria da; askatasuna ematen duena arima da, Jainkoaren Hitzaren bidez.

Garai horretan Luterok salmoen komentarioa lantzen jarraitu zuen eta ikasleei azaldu ahala, inprimategira bidaltzen zituen komentarioak. *Operationes in Psalmos* deitu zituen azalpen edo komentario horiek eta Saxoniako Frederiko Hautesleari eskaini zizkion. Bestalde, printzeak Worms-eko Dieta prestatzen ari ziren eta han eztabaidatuko zen Luteroren auzia (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Hutten-go Urliko eta Sickingen-go Francisco

Hutten-go Urliko, Alemaniako poeta eta editorea, Luteroren sostengatzaile sendoenetako bat izan zen. Hamaika urtetik hamazazpi urtera bitartean Fuldako monasterioan bizi izan zen Ulrico, aitak behartuta. Hainbat unibertsitatetan ibili zen: Kolonia, Erfurt, Leipzig, Wittenberg, Oder-ko Frankfurt, Greifswald, Rostock, Viena, Pavia, Bolonia. Idazle-poeta borrokalaria zen, sifilisa jasaten zuena. Mainzeko Alberto Hauteslearen esanetara Francisco I.aren gortea bisitatu zuen eta hari sostengua eskaini zion, Enperadore izateko. Lutero eta Tetzl-en arteko eztabaida ez zitzaion gehiegi interesatzen, fraide arteko eztabaida iruditzen baitzitzaion. Hutten-ek esaten zuen Erromaren beharrik ez zutela, Alemanian bazituztelako primatuak eta gotzainak. Ulrich von Hutten-ek Luterori esan zion tinko eusteko, baina kontuz ibiltzeko etsaiekin; armen beharraz hitz egin zion. Hutten-go Ulrikok ezpata eta luma erabili zituen Alemania defendatzeko; garai horretan argitaratu zuen *Vadiscus, sive Trias Romana*. Vadiscus Italian egona zen eta Erromako kurian egiten ziren gaiztakeriak kontaktzen zituen. Hirukote erromatarren forman ematen zuen Erromako gaiztakerien berri. Hiru gauzek eusten zioten Erromako duintasunari: santuen erlikiek, Aita Santuaren autoritateak eta induljentzien trafikoak. Hiru gauza ekartzen zituzten Erromara zihoazeneak: poltsa hutsa, urdail hondatua eta kontzientzia gaiztotua. Hiru salerosgai motekin egiten zituzten tratuak erromatarrek: emakumeekin, elizako irabaziekin eta Kristorekin. Hiru gauzari zieten beldurra Erroman: kontzilio orokorrari, elizaren erreformari eta alemanek begiak irekitzeari. Hiru gauzek ematen zieten min erromatarrei: printze germaniarrak elkartzeak, herria eskolatzeak eta beren ustelkeria argitaratzeak. Hiru gauzek jar zezaketen Erroma egoera onean: gudaroste turkoak, kristau herriaren inpazientziak eta printze alemanen seriotasunak. Erromatarrek gutxien sinesten zituzten gauzak hauek ziren: infernuko zigorra, santuen komunioa eta arimaren hilezkortasuna (García-Villoslada, 1973).

Hutten-ek ez ezik, haren lagun Crotus Rubeanus-ek eta Germaniako nobleen gidari handia zen Sickingen-go Francisco-k (hiri estatuen zerbitzurako mertzenarioa) ere beren babesak eskaini zioten Luterori. Hutten-ek sinistarazi zion Sickingen-i Luteroren borroka zuzena zela. Von Hutten-ek eta Franz von Sickingen-ek Alemaniaren ospe nazionala berreskuratu nahi zuten. Hutten-go Ulriko-k laster ikusi zuen Martin Lutero, sinesmen soilaren defendatzaile izateaz gain, Erromaren kontrako iraultza erlijiosoaren buru zela; orduan otu zitzaion iraultza erlijioso hura iraultza politiko bihurtu eta Aita Santuaren mendetik Alemania askatzeko erabiltzea.

Luterorekin bat egin zuten Hutten-ek eta Sickingen-ek, askatasun espiritualak Alemaniaren askatasuna sendotuko zuela pentsatuz. Luterorengana hurbildu eta haren bidez matxinada hauspotzen saiatu ziren (García-Villoslada, 1973). 1520ko ekainaren 4an Maguntzia-tik idatzitako gutunean Von Hutten-ek Luterori esan zion beren gurasoen aberri menderatuaren askatasuna defendatu behar zutela. Luterok Espalatinori esan zion Schaumberg-eko Silbestreren eta Franz von Sickingen-en babesa bazuela. Frankoniako zaldun noblea zen Schaumberg-eko Silbestrek ere ehun zaldunen babesa eskaini zion Luterori 1520ko ekainaren 11n.

Sickingen-go Frantziskok aldaketa sozial eta erlijioso handiak nahi zituen eta prest zegoen printze erlijiosoek kontra borrokatzeko. Sickingen-go Frantzisko eta Hutten-go Ulricho zaldun-poeta Worms-eko dietaren garaian Lutero adoretzen saiatu ziren Ebernburg-eko gaztelutik. Luterorengana hurbildu ziren beren asmo iraultzaileetarako ongi zetorkielako. Sickingen zaldunen klase sozialekoa zen, baina zaldunek ez zeukaten orduan lehenago zeukaten botererik; aldiz, industriak eta merkataritza-burgesiak gora egin zuten. Hiriek indarra irabazi ahala, zaldunek galdu egin zuten eta haietako batzuk mertzenario bihurtu ziren; Hutten-en asmoa hiri libreak eta zaldunak elkartzea bazen ere, ez zuen asmo hori gauzatzea lortu. Sickingen-go Frantzisko 1522ko abuztuan Rhin-eko eta Suabiako zaldunen elkarteko buru bihurtu zen eta Treveris-ko artzapezpikuari eraso zion; Ricardo de Greiffenklau artzapezpikuak ongi defendatu zuen bere lurraldea, Palatinadoko Hauteslearen eta Hesseko landgrabearen laguntzarekin; Sickingen erail zuten eta Hutten-go Ulrichok Suitzako Basileara ihes egin zuen. Erasmorekin harremanean jartzen saiatu zen, baina hark ez zuen babestu. 1523ko urtarrilaren 19an Mulhouse-ra joan zen eta han fraide agustindarrek ostatu eman zioten. Ufnauko uharte txikian babestu zen, baina gaixotu egin zen eta sendagileek ez zuten ezer egiterik izan. 1523ko abuztuaren amaieran hil zen hogeita hamabost urte zituela (García-Villoslada, 1973).

Ebanjelioaren alde borroka egiteko boterearen sareetatik eliza askatu beharra zegoela pentsatzen zuen Luterok; horregatik, berehala erantzun zion Aita Santuaren buldari, honako idatzi honekin: *Antikristoaren bulda higuin garriaren kontra*. Huttengo Ulrichok ere panfleto bat idatzi zuen Aita Santuaren agiriaren kontra, Luteroen eta herri alemanaren askatasunaren kontrako tirania ekintza bat zelako. 1520ko abenduaren 10ean amaitu zen *Exsurge Domine* buldak Luterori erretraktatzeko emandako sei hilabeteko epea; Luterok eta haren ikasleek Aita Santuaren dekretuak, lege kanonikoa eta bulda sutara bota eta publikoki erre zituzten.

Erretako liburuen artean zeuden, besteak beste, Grazianoren, Gregorio IX.aren, Bonifazio VIII.aren eta Juan Eck-en liburuak. Liburu horiek erretzeko erabakia hartu zuten Leipzig-en Luteroren liburuak erre zituztela jakin zutenean; aurrez, 1520an, Lovainan Aleandrok eta kideek Luteroren liburuak erre zituzten. Gero Staupitzi idatzi zion Luterok esanez Aita Santuaren liburuak eta bulda erre zituela; esan zion bizitzako beste edozein ekintzekin baino asebetego zegoela ekintza horrekin. 1521eko urtarrilaren 3an eskomikatu zuen Aita Santuak Luterok, *Decet Romanum Pontificem* buldaren bidez. Buldarekin batera agindu bat bidali zion Mainzeko artzapezpikuari, Luteroren kontra joka zezan. Bulda hori argitaratu zenean, Luterok ikusi zuen Staupitz ez zitzaiola leial, Aita Santuaren esanetara jarri baitzen. Luterok Staupitzi esan zion bera harroegia izan zela, baina Staupitz apalegia izan zela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Worms-eko dieta, Wartburgoko gaztelua, Zwickau-ko profetak eta Testamentu Berriaren itzulpena

Inperioko Dietan Erromatar-Germaniar Inperio Sainduko estatuen ordezkariak biltzen ziren, Enperadorearen gidaritzapean gai hauetaz hitz egiteko: administrazio publikoaz, gerraz eta bakeaz, erreforma sozial eta politikoez, gastu ekonomikoez eta abarrez. Enperadorearen lehen dieta Nurenberg-en egiteko asmoa zuten, baina hiri horretan izurritea hedatua zegoenez, Karlosek erabaki zuen Dieta Worms-en egin behar zela, 1521eko urtarrilaren 6tik aurrera. Worms elizaz eta elizgizonez betea zegoen: zazpi parrokia, lau kolegiata eta hainbat komentu (agustindarrak, karmeldarrak, frantziskotarrak, dominikarrak, Ordena Teutonikoko zaldunak, kalonje erregularrak...).

Dietako kideak hiru kolegiotan banatu ziren: 1) Zazpi printze Hautesleak; 2) Beste printze, konde, duke, margrave eta prelatuak; 3) Hiri askeak. Kolegio bakoitzean hartutako akordioak biltzar orokorretan eztabaidatzen ziren eta estatu gehienek onartzen bazituzten, Enperadoreak berretsi egiten zituen eta inperio guztirako balioko zuten lege bihurtzen ziren (Smith, 1911; García Villoslada, 1973).

Karlosek Saxoniako Frederikori esan zion Lutero Worms-era eramateko, han jende adituak entzungo ziolako. Karlos V.a eta haren anaia Fernando 1520ko azaroaren amaierarako heldu ziren; urtarrilean Saxoniako Frederiko eta Hesse-ko landgravea heldu ziren. Aleandrok esan zuen amaitu zela Aita Santuak Luterori erretraktaziorako emandako epea; Karlos V.ak ere gauza bera pentsatzen zuen, baina printzeekin ongi konpondu beharra zeukan, gobernatzeko haien beharra zuelako. Saxoniako Frederikorekin harreman ona zuen Enperadoreak, hark Enperadore-hautaketan sostengatu zuelako (García-Villoslada, 1973).

1520ko abenduaren 21ean George Espalatinori idatzitako gutunean Lutero prest agertzen zen dietaren aurrera aurkezteko, nahiz eta bizitza galtzeko arriskua ikusten zuen. Ez zuen ihes egiteko edo erretraktatzeko asmorik. Luterok 1521eko urtarrilaren 25eko gutunean epaimahai inpartzial bat eta salbokondukto seguru bat eskatu zizkion Saxoniako Frederikori; gainera, esaten zion indarraren erabilpena eragozteko, oker zegoela frogatu arte. Esaten zion bera prest zegoela Worms-eko dietaren aurrean agertu eta epailari inpartzialen aurrean erantzuteko (Smith, 1911).

1521eko otsailaren 8an Wittenberg-etik gutun bat idatzi zion Luterok Staupitzi. Esaten zion Aita Santuaren epaiaren esanetara jartzea ordura arte sinetsitakoa eta erakutsitakoa gaitzestea zela; Kristo iraintzen zuela Leo Aita Santua epailari moduan jartzean; ez zela dardarka jartzeko garaia, baizik ozenki hitz egiteko garaia; asko tristetu zuela Staupitzen mendekotasunak; apaltasuna erakutsi ordez, harrotasuna erakutsi behar zuela (Smith, 1911).

1521eko otsailaren 13an, hausterre egunez, Jerome Aleanderrek, Aita Santuaren nuntzioak, hiru orduko hitzaldia eman zuen latinez: Luteroren heresiak aipatu zituen eta esan zuen hura kondenatu egin behar zela. Aleanderrek Luteroren proposamen heretikoak bidali zizkion Espalatinori, *Elizaren kaptibitate babiloniarrari buruz* liburutik hartuak; Luterok proposamen horietaz erretraktatu eta atzera egin behar zuela esaten zion. Aleandrok Dietari idatzi zion otsailaren 18an Luteroren zisma erauzteko eskatuz. 1521eko martxoaren 6an Enperadoreak Luterori agindu zion haren aurrean Worms-en ager zedila, Dietan bere liburu eta teoriak buruzko argibideak ematera. Salbokonduktua eman zion horretarako. 1521eko martxoaren 19an Luterok George Espalatinori idatzi zion jakin zuela zein artikulu bota behar zituen atzera, baina berak ez zuela ikusten atzera bota beharrekorik; horretarako bakarrik deitzen bazuten, ez zela joango; baina, gaizkile baten moduan kondenatu eta erailtzeko deitzen bazuten, ez zuela ihes egingo, eta Aita Santuaren jarraitzaileak bakarrik izango zirela bere odolaren erantzule (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1521eko apirilaren 2an irten zen Lutero Worms aldera, Juan Petzensteiner eta Amsdorf-eko Nikola lagun zituela; Wittenberg-eko hiriak 20 golden jarri zituen gastuetarako eta Christian Döring urreginak zalgurdi irekia jarri zuen. Bidean harrera ona egin zioten, Leipzig, Naumburg, Weimar eta Erfurten. Erfurt-en Unibertsitateko erretore zen Crotus Rubeanus humanista bidera irten zitzaion hainbat zaldun, irakasle eta ikaslerekin. Apirilaren 16an heldu zen Worms-era, ehun zaldunek babesten zutela, eta herritar ugari irten zen harrera egitera. San Juan-en ordenako zaldunen etxean hartu zuen ostatu (Smith, 1911). Dietaren aurreko lehen audientzia apirilaren 17an izan zuen Luterok, gotzainaren palazioko aretoan. Enperadorearen ofizialak (Eck-ek) esan zion galderei erantzun bakarrik egiteko; gaia epaitua zegoela eta ez zutela eztabaidatuko arrazoia norena zen. Galderak lehenik latinez eta ondoren alemanez egin zizkion. Mahai gainean zeuden Luteroren liburuak: latinez idatzitako hamar eta alemanez idatzitako hamabi (García-Villoslada, 1973); Luterori galdetu zioten liburu haiek bereak ziren ala ez eta haietan esaten zuenari eusten jarraitzen zuen ala hutsegiteak baztertzeko prest

zegoen. Luterok esan zuen idatzi haien egilea bera zela eta denbora behar zuela atzera egin ala ez pentsatzeko. Enperadorea eta haren aholkulariak kontsultatu ondoren, Eck-ek esan zion erabakia hartzeko egun bat gehiago emango ziola Enperadoreak (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Hurrengo egunean, apirilaren 18an, jendetza handia inguratu zen eta palazioko areto zabalago batean bildu ziren. Eck-ek galdetu zion ea liburuetan esaten zena defendatzen jarraitzen zuen ala zerbaitetaz erretraktatu behar zen. Luterok ahots apalez, lehenik latinez eta gero alemanez, esan zuen liburu guztiak ez zirela berdinak:

- Batzuetan pietateaz, fedez eta ohiturez edo moralaz hitz egiten zela modu simple eta ebanjelikoan, eta ez zela erretraktatuko esandakoaz, han esaten zena atzera botatzea adiskideek eta etsaiek onartutako egiak gaitzestea zelako.

- Bigarren motako liburuetan Aita Santuaren eta haren lagunen idolatria eta tiraniaren kontra mintzo zela eta liburu horietaz erretraktatuz gero, tirania indartu eta pietaterik eza hauspotuko zituela; Aita Santuek kontzientziak nahastu eta herrien ondasunak xahutu zituztela, batez ere Alemaniako nazio maitean.

- Hirugarren motako liburuetan Aita Santuaren abokatu eta babesle batzuen kontra idatzi zuela eta horretaz ere ez zela erretraktatuko, Erromaren tiraniaren aldekoek agindu ez zezaten, jende kristauaren kontra; onartzen zuela jende horren kontra zorrotzegi jokatu zuela, baina Kristoren dotrinaz hitz egiten zuela (Smith, 1911; Roper, 2010).

Luterok ez zuen Aita Santuan eta kontzilioetan sinesten, askotan hutsegín zutelako eta kontraesan asko zituztelako. Erretraktatu nahi zuen ala ez galdetu ziotenean, Luterok esan zuen ezin zela erretraktatu konbentzitzen ez zuten artean eta ez zuela nahi erretraktatu; ez zela zuzena kontzientiaren kontra joatea. Luterok eskatu zien han zeudenei frogá zezatela bera oker zegoela, prest zegoelako erretraktatzeko eta bera izango zelako bere liburuak sutara botatzen lehena. Kontzilioen autoritatea ukatzen zuela eta Eskrituren eta kontzientiaren autoritatea aldarrikatzen zuela. Esan zuen Eskriturek gidatzen zutela, bere kontzientzia Jainkoaren Hitzaren esanetara zegoela; Eskrituretan oinarrituta konbentzitzen ez bazuten, bereari eutsiko ziola, ez baitzuen sinesten Aita Santuaren eta kontzilioen hutsezintasunean. Ez zuen onartzen Eskriturak interpretatzeko elizaren gidaritzari jarraitu behar zionik. Luterok elizaren aginduetatik askatu zuen kontzientzia, eta Jainkoaren hitzaren morroi jarri zuen.

Jainkoaren Hitzaren esanahi objektiboaren barne-ezagutza zen Luterorentzat kontzientzia. Kontzientziak ez zuen hutsik egiten; Jainkoaren Hitzak gidatzen zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Eck-ek esan zuen aurretiko kontzilio batzuek gezurtatu zituztela Lutero defendatzen zituen teoriak eta bere idatziez erretraktatzeko eskatu zion. Kontzilioen autoritateari buruz eztabaidan hasi ziren Lutero eta Eck. Enperadoreak eztabaida eten zuen, eta esan zuen garbi zegoela ez zela damutuko. Eck-ek esaten zuen Eskrituretan babesten zela Lutero, baina Eskriturak bere irizpide propioen arabera interpretatzen zituela, heretiko guztiek bezala. Gainera, esaten zion haren heresia ez zela berria; errepikatu egiten zituela Hus-en eta Wiclif-en hutsegiteak. Ez pentsatzeko Eskritura Sakratuak berak bakarrik ulertzen zituenik (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Karlos Enperadorea, 1521eko apirilaren 19an, Lutero atxilotzearen alde agertu zen, bere aurretikoak beti leialak izan baitziren Erromako elizarekiko. Karlosek zion damutzen zela auzia hainbeste luzatzen utzi izanagatik; prest zegoela Luteroen kontra jotzeko, heretiko nabarmena zelako. Apirilaren 19ko arratsaldean sei printze Hautesleak bildu ziren Enperadorearen proposamena bozkatzeko. Martin Luteroen alde egin zuten Saxoniako Frederikok eta Luis Kondeak. Karlos V.aren alde egin zuten Mainzeko, Treverisko eta Koloniako artzapezpikuek eta Brandeburgoko Joakin I.ak (García-Villoslada, 1973).

1521eko apirilaren 20an idatzi batzuk agertu ziren, Hutten-en laguna zen Hermann von der Busche humanistak idatziak, esanez lauhun noble eta zortzi mila gudari prest zeudela Lutero babestu eta Mainzeko gotzainaren kontra borroka egiteko. Mainzeko kardinal artzapezpikua beldurtu egin zen eta bere anaia Brandeburgoko Joakin konbentzitu zuen Luterori beste aukera bat emateko. Karlosek hiru eguneko epea eman zion Luterori damutzeko (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Teologo luterotar eta katolikoek osatutako batzorde bat eratu zen, Treveris-ko artzapezpikuak zuzenduta. Kide hauek osatzen zuten batzordea: Brandeburgoko markesa, Brandeburgoko eta Augsburgoko gotzainak, Saxoniako Jorge dukea, Baden-go markesa, hirien ordezkariak eta pertsonaia jakintsu batzuk. 1521eko apirilaren 24an bildu ziren eta Luterori dei egin zioten. Schurpff, Amsdorf, Justo Jonas eta Jorge Espalatinorekin joan zen Lutero eta esan zuen ez zela erretraktatuko, bere kontzientziaren kontra ez joatearren. Batzarra amaitu eta Treverisko artzapezpikuak bere ganberara deitu zuen Lutero; hara joan ziren Lutero eta haren lagunak.

Eck-ek Luterori erretraktazioa eskatu zion, Elizaren kontzilioen arabera. Luterok erantzun zion ez zela kontzilioen mendean jarriko, kontzilioek kontraesanak zituztelako (García-Villoslada, 1973).

Luterok Enperadoreari laguntza eskatu zion, Aita Santuaren kontra joateko, baina Enperadorea Aita Santuarekin lerrokatu zen, haren kontra. 1521eko apirilaren 26an irten zen Lutero Worms-etik; apirilaren 28an Frankfurtetik gutun bat idatzi zion Lucas Granach artistari, esanez nonbait gorde beharko zuela, baina oraindik ez zekiela non gordeko zen, etsaiari ihes egin ahal izateko. 29an Grünberg-en zegoen eta maiatzaren 2an Eisenach-en sartu zen. Maiatzaren 4an Möhran senitarteko batzuk bisitatu eta Gotha aldera hartu zuen eta Altenstein-go gaztelutik pasatu berritan lau edo bost zaldun mozorrotuk bahitu eta Wartburg-eko gaztelura eramán zuten Lutero. Bahiketa Saxoniako Hautesleak gauzatu zuen; Lutero babestu nahi zuen, baina ez zuen nahi Enperadoreak jakiterik bahitzailea bera zela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Apirilaren 30ean Karlos V.ak adierazi zuen prest zegoela Aleandrok idatzitako Luteroren kontrako proskripzio ediktua izenpetzeko; sinatu aurretik Inperioko Estatuekin kontsultatu zuen Enperadoreak eta denek onartu zuten. Dieta maiatzaren 25ean amaitu zen eta Karlos V.ak maiatzaren 26an sinatu zuen ediktua. Ediktuak gaizkiletzat, heretikotzat eta iheslaritzat hartzen zuen Lutero; haren idatziak irakurtzea edo argitaratzea debekatu zuen, hura babestea debekatu zuen eta hura erailtzeko baimena eman zuen. Aita Santuaren nuntzioek Worms-eko ediktua aldarrikatu zuten. Lutero oso alai zegoen eta Worms-en gertatua Kristoren pasio eta berpizkunderekin alderatzen zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Frederiko Jakintsua Saxoniako Hauteslearen gaztelua zen Wartburg-ko gaztelua eta Eisenach-eko hegoaldean zegoen. Ia hutsik zegoen gaztelu hori; gortetik ez zegoen han; alkaide batek, zerbitzari batzuek eta kapilau batek zaintzen zuten. Luterori langela bat eta logela bat egokitu zizkieten. Gaztelu inguruan hegazti ugari ikus zitezkeen zuhaitzen artean. Luterok Jorge Zalduna goitizena hartu zuen, zaldunez jantzi zen, ilea eta bizarra luzatzen utzi zituen, eta lepoan urrezko katea eta gerrian ezpata zituela ibiltzen zen. Espalatino, Melanchthon eta Amsdorf-ekin harreman nahiko zuzena zuen, haiek jakinaren gainean baitzeuden non zegoen. Ehizean ibiltzeko aukera bazuen; ondo jan eta edaten zuen. Idorreria jasaten zuenez, libragarriak ematen zizkieten.

Luterok hamar hilabete eman zituen gaztelu horretan eta luze egin zitzaizkion. Esaten zuen Wartburgon eremutar eta anakoreta bakartia sentitzen zela. Derrigorrezko bakardadeak burua

astundu, tristetu eta edatera bultzatzen zuen; esaten zuen bakardadean bekatu gehiago egiten direla, deabruak bakarrik dagoenean erasotzen diolako gizakiari. Lutero deabruarekin obsesionatua bizi izan zen txikitatik eta Wittenberg-en zegoela maiz samar agertzen zitzaion deabrua ametsetan; horietako batean, txerri beltz baten moduan korrika ikusi zuen deabrua jardinean. Wartburgon egindako amets batean ohearen ondoan txakur bat ikusi zuen etzanda; heldu eta leihotik behera bota zuen; hurrengo egunean galdetu zuen gazteluan txakurrik bazegoen eta alkaideak ezetz esan zion; orduan Lutero pentzatu zuen deabrua izan zela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Espalatinoren eskuetan zegoen Lutero, haren bidez komunikatzen baitzen kanpoko munduarekin. 1521eko maiatzaren 14an Espalatinori gutun bat idatzi zion Lutero Wartburgotik, esanez hark bidalitako gutunari erantzunik ez ziola eman, inork jakin ez zezan non zegoen; esaten zion egun guztian alferkerian zegoela; Biblia Grekoa eta Hebertarra irakurtzen ari zela; ile eta bizar luzea utzi zituela eta ez zukeela ezagutuko; bi mutilek eta zaindari armatu batek zaintzen zutela; basoetan zehar ehizean ibiltzen zela, baina denbora gehien gelatxoan ematen zuela, Biblia ikasten eta idazten. Wartburgon deabruaren erasoak jasan zituela. Idorreria zuela, hemorroideak eta uzukiko urradurak izan zituela eta esertzean erditu berri baten antzeko minak sentitzen zituela (Oberman, 1992). 1521eko ekainaren 10ean Espalatinori idatzi zion Patmos-eko uhartetik idatzi izan balio bezala, Henricus Nesicus goitizena erabiliz; esaten zion grekoa eta hebertarra ikasten eta idazten ari zela, idorreriarekin eta Worms-en zuen sufrikarioarekin jarraitzen zuela eta zaindariak merezi baino hobeto tratatzen zuela (Roper, 2010).

Lutero Wartburg-eko gazteluan zegoen bitartean Melanchthonek hartu zuen Wittenberg-eko agintea, hura baitzen Lutero han garai horretan izan zuen lankiderik garrantzitsuena. *Loci communes* idazten ari zen Melanchthon: Erreformaren teologiaren sistematizazio lana. Garai horretan Gabriel Zwilling-en eragin handia jaso zuen Melanchthon-ek. 1521eko uztailaren 13an gutun bat idatzi zion Lutero Melanchthon-i Wartburgotik. Esaten zion gehiegi samurtzen zela bere (Luteroren) egoeragatik eta gehiegi goraipatzen zuela; berari buruzko ideia puztuegia zuela; beregatik errezatzeko eskatzen zion, bakardade horretan bekatuak egin zituelako, haragiaren tentaldiak zirela eta, idatzi gabe eta errezatu gabe hainbat egun zeramatzalako; esaten zion espiritu indartsua sentitu ordez, haragiaren berotasuna sentitzen zuela. Handik egun batzuetara Melanchthon-i idatzi zion eta bekatuak egitera bultzatu zuen; benetako grazia

predikatzeko eta bekatuak sutsuki egiteko esan zion Melanchthon-i. Kristok munduko bekatua kentzen duela eta harengandik ez zituela bekatuak aldentuko. 1521eko abuztuaren 15ean Espalatinori idatzi zion esanez aitortzari buruzko sermoiaren zatiak jaso zituela eta atsekabetua zegoela modu axolagabean argitaratu zituztelako: arreta gabe, nahastuta, tipografia eta paper txarrean. Esaten zuen nahiago zuela Carlstadt-ek modu zibilizatuagoan idatzi izan balu zelibatuaz. Esaten zuen printzeak bere nahiak ongi asebetetzen zituela: bi egunez ehizean ibili zela eta erbi batzuk ehizatu zituztela; erbi bat bere kolkoan gorde zuela, baina zakurrek aurkitu eta erahil egin zutela; sareen eta zakurren artean gai teologikoez gogoeta egin zuela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luteroren eta haren lagunen lanari esker, poliki-poliki antolatzen zihoan Kristoren Eliza, Erromako elizaren aurrez-aurre. 1520an Catarino-k Luteroren kontra Egia katolikoaren apologia argitaratu zuen. Luterok Worms-era joan aurretik liburu bat idatzi zuen Ambrosio Catarino-ren kontra. Lutero Wartburgon zegoela argitaratu zuten liburu hori; bertan, gogor eraso zien elizaren gehiegikeriei: kultu liturgikoa, barau eta abstinentziak, apaizen zelibatu, mezatako sakrifizioa. Antikristoaren erreinua bezala aurkezten zuen Luterok eliza (García-Villoslada, 1973).

Luterok bere alde zuen Wittenberg-eko unibertsitatea, baina ez Koloniakoa eta Parisekoa. Pariseko Unibertsitateak Luteroren iritziak (elizaren botereaz, sakramentuez, ekintza onez, botoez, penitentziaz, kontzilioen autoritateaz, purgatorioaz, borondate askeaz, kristauaren askatasunaz eta abarrez zituenak) gaitzetsi zituen. Melanchthon-ek defendatu zuen Lutero. Esaten zuen Luterok esandakoa gezurtatzeko Eskrituretara joan behar zela, baina Sorbonatarrek ez zutela hori egin; silogismoetan bakarrik mugitzen zirela haiek. Luterok Lovainako Teologia Fakultateari eraso zion eta laster jaso zuen Masson (Latomus) teologoak emandako erantzuna. Latomus-eri errespetu pixka bat bazion Luterok, Biblian oinarritzen zelako. Hala ere, Biblian eta Guraso Santuetan oinarritzen bazen ere, igurtzi eskolastiko handia zuen. Luterok Masson-en kontrako erantzuna idatzi zuen Wartburgon (García-Villoslada, 1973).

Mainzeko Hauteslea, Brandeburgoko Alberto, ez zen ausartu Worms-eko dekretua bere lurraldeetan aplikatzen. Luterok jakin zuen Alberto induljentziekin negoziatzen hasi zela berriro ere eta emakume batekin bizi zen apaiza bat espetxeratu zuela; 1521eko abenduaren 1ean gutun bat idatzi zion Mainzeko Albertori; esaten zion lehen bi gutun idatzi zizkiola latinez,

induljentziak zirela eta, eta orain hirugarren gutuna bidaltzen ziola alemanez. Gotzain moduan jokatzeko, ez otso moduan; induljentziarik ez predikatzeko, zerrikeria eta iruzurra zirelako; jendeari Kristo bakarrik predikatu behar zitzaioela; idoloak albora uzten ez bazituen, eraso egingo ziola, Aita Santuari egin zion moduan; herri xehea ez seduzitzeko, lapurretarik ez egiteko eta ez eragozteko apaizei ezkontzea; esaten zion, hamalau egun barru erantzun egokia ematen ez bazion, Halleko idoloari buruzko liburuxka argitaratuko zuela. Alberto Luterotarrengana hurbildu zen, bere aholkulariek eraginda. (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911).

Carlstadt-ek (Andres Bodenstein) hasieran ez zuen induljentzien kontra jokatu, Luterok egin zuen moduan, Santu Guztien fundazioaren hondamena ekarriko zuelakoan; baina, santuak gurtzearen kontra zegoen, Hauteslearen erlikien bildumak garrantzi handia bazuen ere Wittenberg-en. Carlstadt-ek asko miresten zuen Lutero hasiera batean, baina Leipzig-eko eztabaidan tirabirak sortzen hasi ziren. Eztabaida horretan Luterok eta Eck-ek erabakitzen zuten zertaz eztabaidatuko zuten, Carlstadt-i jaramon askorik egin gabe; Lutero eta Eck ziren arerio nagusiak. Carlstadt-ek lan asko egin zuen Wittenberg-en Erreforma finkatzen; hasieran oso zuhurra izan zen, eta Melanchthon-en entusiasmoa baretzen jardun zen; hartzen ziren erabakien ondorio ekonomiko eta legezkoak kontuan hartzen zituen. 1521eko maiatzean Danimarkara joan zen Carlstadt, Kristian II.ak deituta, hango eliza antolatzerara. Baina, Wittenberg-era etorri bezain azkar Luteroren teorien ondorioak aplikatzen hasi zen: lehenik boto monastikoei eraso zien eta irudi erlijiosoak kondenatu zituen; aitortzaren kontra, katolikoek mezaren kontra, barau eta bijilien kontra, hierarkia mota guztiei eraso zien. 1521eko azaroan *Testamentu Berriko Zeinuen Kultu eta Omenaldiari dagokionez* argitaratu zuen Carlstadt-ek eta Albrecht Dürer-i eskaini zion. 1521eko Gabonetan iragarri zuen Carlstadt-ek urte berritan komunioa bi formatan ospatuko zuela eta Frederiko printzeari aurre egin zion; komunioa hartu zuten askok ez zuten egin aurretiko baraurik. Carlstadt-ek 35 urte zituen eta 15 urteko neska batekin ezkondu zen, bere lankideen, hiriko kontseiluaren eta ikasleen aurrean. Lutero eta Carlstadt-en arteko harremana berdinen artekoa, horizontala izan zen; Lutero eta Melanchthon-en artekoa, berriz, irakasle eta ikaslearen artekoa bezalakoa (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Komentura sartu zenean, eta gerora ere, arauak betetzen zituen fraidea zen Lutero. Baina, 1521ean baztertu egin zituen obediencia-, kastitate- eta txirotasun-botoak. Agustindar moduan azken gutuna 1521eko irailaren 17an idatzi zuen. Aurrerantzean bere izen soilaz

sinatuko zituen gutunak, agustindarren abitua 1524ko urrira arte eraman bazuen ere. Luterok zioen botoak egiten zituztenak ez zirela kristauak; botoak ez zirela bizitzarako arau bihurtu behar; sinesmen soilak eta Kristoren obrek salbatzen zutela kristaua. Luterok ez zuen tentaldiei aurre egiten irakasten, tentaldietan erortzea justifikatzen zuen (García-Villoslada, 1973).

Leon X.a 1521eko abenduan hil zen eta Hadriano VI.a aukeratu zuten Aita Santu; honen asmoa eliza barneko ustelkeria borrokatzea eta zisma ekiditea zen. 1521eko abenduaren amaieran eraberritzaile suharrak heldu ziren Wittenberg-era. Gabriel Zwilling, alde batetik, meza Kristoren sakrifizio moduan hartzearen kontra eta meza pribatuaren kontra zegoen, Nicolas Amsdorf eta Justo Jonas lagun zituela; beste aldetik, esaten zuen boto monastikoak Ebanjelioaren kontrakoak zirela eta ezabatu egin behar zirela. Luterok ez zituen gogoko Zwilling eta Carlstadt-en berrikuntza liturgikoak, baina 1521eko azaroaren 1ean *De abroganda missa privata* argitaratu zuen; liburuxka horretan mezaren sakrifizio kontzeptua ezabatzen zuen eta Kristoren apaizgintza defendatzen zuen. Apaizgintza kristau guztiek zuten; denak ziren apaiz, Kristo bezala. Meza ez zen Jainkoari atsegingarri gertatzeko egiten zen sakrifizio bat, baizik Jainkoaren grazia moduan jasotzen zen sakramentu bat; mezak etengabe ematen jardun beharrik ez zegoen; beraz, meza emaileen kopuru handi baten beharrik ez zegoen; hainbeste aldare beharrik ere ez, purgatorioko arimengatik meza ordainduak emateko. Eukaristia Kristoren azken afariaren oroitzapen soilak zen; ez zitzaion Jainkoari ogi eta ardoaren sakrifiziorik eskaintzen; Eukaristian Kristori eskerrak ematen zitzaizkion, harengandik zerbait jaso zelako (García-Villoslada, 1973). Luterok Wartburgotik Melanchthoni esan zion aurrerantzean ez zuela meza pribaturik emango. Fraile agustindarrak komentutik ateratzera bultzatzen eta jende laikoarentzat meza bi espezieren pean ematera bultzatzen hasi zen Zwilling. Komentu Beltzeko hainbat fraidek komentua utzi zuten eta monasterioan jarraitzen zutenen kontra jartzen zituzten ikasleak. 1521eko abenduan berrogei ikasle ongi armatu kaleetan zehar ibili ziren, tutu eta danborrekin, monasterioetako fraileak mehatxatzen. Wittenbergera sekretuan itzuli beharra ikusi zuen Luterok. Wittenberg-en ikusi zuen Espalatinok debekatu egin zuela *De abroganda missa privata*-ren argitalpena eta gutun gogor bat idatzi zion (García-Villoslada, 1973).

Idatzi asko egin zituen eta Testamentu Berria itzuli zuen alemanera. Wartburgon zegoela, 1521eko azaroaren 19an argitaratu zuen *Eliz-oharrak*: jende arruntarentzat, sinestun guztiek

ulertzeko moduan idatzitako sermoiak; mezatan irakurtzen ziren gutun eta ebanjelioen azalpenak. Bere lagun eta babesle zuen Mansfeld-ko Alberto kondeari eskaini zion liburua.

Monasterioko botoei buruz liburua ere Wartburgoko gazteluan zegoela argitaratu zuen Luterok, 1521eko azaroaren 21ean; aitari bidali zion liburua eta egindako botoetatik askatu zela esan zion. Liburu horren sarrera aitari idatzitako gutun baten moduan idatzi zuen Luterok eta fraide bihurtzera eraman zuten arrazoiak gogoratzen zituen; bat-bateko heriotzaren beldurrak eramanda fraide izateko promes egin omen zuen, aitari esan gabe eta haren borondatearen kontra, baina berehala damutu zela botoez. Jainkoak nahi izan omen zuen Martinek unibertsitateetako jakinduria eta klaustroetako santutasuna bereganatzea. Esaten zuen aitaren borondatearen aurretik zegoela Jainkoa eta Jainkoaren Hitzaren zerbitzura zegoela. Kristok esan zuela ez zela beretzako gai aita eta ama beraren aurretik jartzen zituena. Lutero konturatu zen monasterioan sartzea eraman zuen ekaitza Jainkoaren seinale ez, baizik deabruaren amarrua izan zitekeela. Luterok zion monasteriotik ez zuela aita biologikoak askatu, Jainko aitak baizik; Jainkoak gehiago agintzen zuela Luteroengan aita naturalak baino. Liburu horretan (*Monasterioko botoei buruz*) demostratu nahi zuen boto monastikoak Jainkoaren hitzaren, fedearen, askatasun ebanjelikoaren eta karitatearen kontra doazela; sexu-instintua ezin dela ezabatu pertsonari kalterik egin gabe, salbuespenezko kasuetan izan ezik (Erikson, 1958). Emakume gazte bati, birjintasunaren grazia jaso ez badu, jatea, edatea edo lo egitea bezain ezinbestekoa zitzaiola senarra; emakumeen egitekoa haurrak izatea eta espeziea ugaltzea zela, eta ez birjintasuna; naturaren kontrakoa zela emakume bat monasterio batean itxita edukitzea, birjintasun botoarekin. Gizona ere ezin zitekeela emakumerik gabe utzi, jatea eta edatea bezain erroturik dagoelako naturan seme-alabak edukitzea. Ezkongabe izatea erabakitzen duten pertsona asko sentsualitatean eta bekatuan katramilatzen dela. 1521eko abuztuaren 1ean Melanchthon-i idatzitako gutunean Luterok esaten zuen San Pablok okertzat jo zuela apaizen ezkontza debekatzea (Smith, 1911; García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1521eko abenduaren 27an Zwickau-ko profetak (Nikolaus, Storch, Thomas Drechsel eta Markus Thomas Stübner) heldu ziren Wittenberg-era, Thomas Müntzer fanatikoa buru zutela. Profeta horiek aldarrikatzen zuten Jainkoak zuzenki hitz egiten ziela eta Espiritu Santuak inspiratzen zituela; gidarizat ez zirela Eskriturak hartu behar, barneko Hitza edo Espiritua baizik; Jainkoak bakoitzari esaten ziona zela garrantzitsua. Autoritate zibilek espetxean sartu zituzten asaldatzaile horietako batzuk, eta Müntzer-ek Bohemiara ihes egin zuen. Luterok

fanatiko eldarniatzaile deitu zituen profeta horiek. Wittenberg-en gelditu ziren jarraitzaile batzuek profetatzat zituzten beren buruak: Jainkoarekin hitz egiten eta etorkizuna irakurtzen zutela esaten zuten (Smith, 1911). Zwickau-ko profetak gizarte kristaua eraberritzeko programa aurrera eramaten hasi ziren, Tomas Müntzer-en eraginez eta Carlstadt erakarrita. Luterok Amsdorf-i idatzi zion esanez ez gelditzeko Zwickau-ko profeten inpresioaren pean. Melanchthon-i, berriz, idatzi zion esanez ez zuela onartzen profeta horien aurrean agertzen zuten herabetasuna. Lutero Wartburgon egon zen bitartean Melanchthon izan zen haren ordezkari, baina ez zen ausartu Zwickauko profeten dotrina gaitzestera; Frederiko printzeari idatzi zion Luterori deitzeko esanez. Wittenberg-eko erreforma zaleek Martin Luteroren prestigioa gidari bat behar zuten; hiriko lagunek eta magistratuek pentsatu zuten Luteroren presentzia ezinbestekoa zela eta dei egin zioten; hiriko kontseiluak Tomas Müntzer erbesteratu eta haren jarraitzaileak espetxean sartu zituen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luteroren iraultza erlijiosoa indarra hartzen zihoan heinean, Eliza ebanjelikoa antolatu behar zen. Baina predikari erradikalak arriskutsuak ziren eta Komentuko prioreak egoeraren berri eman zion Luterori eta Printzeari. Lutero, Jorge Zaldunaren identitatez mozorrotuta, 1521eko abenduaren 3an Amsdorf kalonjearen etxera joan eta han lagun batzuekin egon zen. Abenduaren 11n itzuli zen Wartburgora. Egun horietan Luterok bakerako deia egin zuen eta Frederiko Printzea lasaitzen saiatu zen. 1521eko abenduaren 18an gutun bat idatzi zion Luterok Lang agustindarrari; esaten zion Bazkoetara arte Wartburgon egon behar zuela, Testamentu Berria alemanera itzultzen, jende asko zegoelako horren zain. Gorputzez ongi aurkitu arren, tentaldi asko zituela (Roper, 2010).

Wartburg-eko egonaldian Luterok egin zuen lan nagusia Itun Berria alemanera itzultzea izan zen. 1521eko abenduaren 18an idatzitako gutunean Luterok John Lang-i esaten zion Testamentu Berria itzuli behar zuela alemanera. 1522ko urtarrilaren 13an Amsdorf-i esan zion Bazkoetara bitartean Biblia itzuliko zuela. Itzulpena egiteko Erasmok 1516an idatzitako testu grekoan oinarritu zen Lutero. Lutero, Bulgataz gain, aurrez alemanera itzultitako zatiak eta Erasmok 1519an ezarritako testu grekoa erabili zituen itzulpenerako. Hiru hilabete eskasetan egin zuen lan hori. Martxoaren 30ean Espalatinori esan zion Testamentu Berri osoa itzuli zuela. 1522ko irailaren 21ean argitaratu zuen Melchor Lotther-en argitaletxean izen honekin: *Das Newe Testament Deutzseh*. 3000 ale inguru argitaratu ziren eta abenduan atera zuten bigarren argitalpena. Bi hilabetetan 5000 ale saldu ziren. Lutero Wittenberg-era itzuli zenean,

Melanchthon helenistak itzulpenari ukitu batzuk ematen lagundu zion eta Lukas Cranach Zaharrak ilustrazioak egin zizkion. Lutero oso musika zalea zen eta garrantzi handia eman zion itzulpeneko hizkuntzaren musikalitateari. Esaldi laburrez idatzi zuen, ozenki irakurtzeko egokia zen bertsioa egin zuen; testuaren esanahiaren muinari begira idatzi zuen, eta helburu horrekin esaldi batzuetan aldaketa txikiak ere egin zituen. Luterorentzat Itun Berriko libururik kutunenak San Juanen ebanjelioa eta San Pablo eta San Pedroren gutunak ziren. Ez zitzaizkion baliotsuak iruditzen Ebanjelio sinoptikoak (San Mateo, San Markos eta San Lukasenak) (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Itun Berria argitaratu ostean, Itun Zaharraren itzulpenari ekin zioten. Itun zaharra itzultzeko denbora asko behar izan zuten, besteak beste, Lutero ez zuelako hebraiera behar bezala ezagutzen. Lehendik ere bazegoen Alemanian Bulgatatik itzultako bertsio bat. 1523rako Testamentu Zaharreko hainbat liburu itzuli zituzten, baina 1534ra arte ezin izan zituzten atal guztiak alemaneratu. Urte horretan argitaratu zuen Biblia osoa alemanez, Luteroen hitzaurre eta oharrekin eta hainbat grabaturekin. Lutero ez zituen esaldiak hitzez-hitz itzultzen; jatorrizkoan ez zeuden hitzak ere sartu zituen. Adibidez, gizakia fedeak justifikatzen duela zioen tokian fedeak soilik justifikatzen duela jarri zuen. Baina, batzuetan, itzulpen literala ere egiten zuen. Hizkuntza literarioa eta hizkuntza arrunta konbinatu zituen Lutero Biblia itzultzean. Hizkuntzaren aldetik, hainbat dialektotan zatitutako alemana bateratu zuen Lutero eta alemaniar guztiek uler zezaketen bertsio bat lortu zuen. Entzuteko liburua egin zuen, belarrietatik sartzeko modukoa. Itzulpen horiei esker germanismoaren defendatzaile eta alemanaren aita bihurtu zen (García-Villoslada, 1973).

1522ko urtarrilaren 6an agustindarren kapitulua elkartu zen Wittenberg-en eta erabaki zuen edonork utz zezakeela ordena, nahi izanez gero; eskean ibiltzea debekatu zuten eta hildakoengatik meza ematea ere bai. Urtarrilaren 10ean elizako aldareak hautsi zituzten eta sutara bota zituzten estatuak, pinturak, banderak, kandelak, gurutzeak. Melanchthonek, Wittenberg-eko irakaslerik prestatuena izanik ere, besteen argudioak sinesteko joera zuen. Lutero Wittenberg-era itzultzeko baimena eskatu zion Hautesleari, hango istiluak baretu ahal izateko, baina printzeak ez zuen onartu; istiluek jarraitu egin zuten eta George Dukeak kexua aurkeztu zuen Enperadorearen Kontseiluaren aurrean, Nurenberg-en. 1522ko otsailaren 1ean predikatzeko baimena kendu zieten Carlstadt-i eta Zwiling-i eta hiria uzteko agindua eman zieten (Smith, 1911).

Carlstadt-ek bere ibilbide ikonoklastarekin jarraitu zuen, armarik erabili gabe; poligamia onartzera heldu zen. Carlstadt eta Zwingliok jende laiko arruntaren eta apaizen arteko aldeak ezabatu nahi zituzten. Lutero eta Carlstadt-en arteko lehen tirabirak irudien rolari buruzkoak izan ziren. Carlstadt-ek irudiak lehenbailehen kentzea nahi zuen, baina Lutero ez zuen hori beharrezkoa ikusten; Luteroen arabera, juduen sinagoga dekoratu gabeen antzik ez zuten eduki behar elizek. Eukaristiari buruz ere ez zeuden ados: Zwingliok eta Calvinok ez zuten onartzen Kristoren presentzia erreala Eukaristian. “Hau nire gorputza da” esatean, Kristoren gorputzaren zeinua adierazten zen, ez Kristoren gorputza bera. Ez zitzairen iruditzen apaiza gai zenik ogia eta ardoa Kristoren gorputz eta odol bihurtzeko (Smith, 1911; Roper, 2010).

Lutero ez zituen berehala hautsi Carlstadt-ekiko harremanak eta ukatu egin zuen bera zela Carlstadt-en erbesteratzearen errudun; esan zuen irakasle lanagatik ordaintzen ziotela hari eta lan horiek utzi egin zituela; esan zuen, baita ere, sedizioa piztu zuela. Müntzer eta beste matxinoak erailtzean, berriro ere Wittenberg-era joan zen Carlstadt eta babeska eskatu zion Luteroi. Lutero irailaren 12an Printze Hautesleari eskatu zion Carlstadt-i uzteko Kemberg-en bizitzen, baina eskaera hori ez zuen onartu Hautesleak; orduan Carlstadt-ek ihes egin zuen eta Basel-go unibertsitatean irakasle izan zen (Smith, 1911).

Wittenberg-en ez ezik, Erfurten ere izan ziren iskanbilak. Juan Lang-ek fanatismoaz predikatzen zuen Luteroen dotrina Aita Santuaren kontra, apaizgintzaren kontra, monakotzaren kontra, apaizaren eta ekintza onen kontra. Denbora gutxian hirurogei apaizen etxeak, gotzainen agiriak eta hainbat liburutegi erre eta desegin zituzten Erfurten. Unibertsitateko irakasle humanista bat leihotik jaurtiki zuten. Irakasle batzuk ihes egin zuten eta hainbat ikasle beste unibertsitateetara joan ziren. Lang-ek abituak utzi zituen, ezkondu zen eta Erfurt-ko eliza antolatzeari ekin zion (García-Villoslada, 1973).

Lutero beldur zen iskanbila hura anarkian amaituko ote zen. Saxoniako Jorge ere aztoratuta zegoen eta Juan eta haren anaia Frederikorekin hitz egin zuen, praktika iraultzaile horiek ez zituztelako eragozten. Frederiko oso meza zalea zen eta Unibertsitateko irakasleen iritzia eskatu zuen: irakasle batzuek meza botiboak eta hilen mezak kentzea gomendatzen zuten; beste irakasle batzuek pentsatzen zuten ez zela ezer aldatu behar. Frederikok erabaki zuen dena modu tradizionalan egitea, beste unibertsitateen iritzia ezagutu arte. Baina Carlstadt, Zwilling eta kideek ez zioten jaramonik egin (García-Villoslada, 1973).

Luterok ikasle asko erakarri zituen Wittenberg-eko unibertsitatara, baina ikasleen diru-iturrietako bat zen eskaletza debekatzean, jaitsi egin zen ikasleen kopurua eta horrek kezkatu egin zuen Frederiko printzea. Elizgizonek eta unibertsitateek galdu egin zuten Bibliaren interpretazioaren giltza; meza pribatuaren kontrako erasoak elizgizonen karrera indargabetu zuen.

Wittenberg-eko egoerak bultzatuta *Martin Luteroren ohartarazpen egiatia kristau guztiei, matxinadaren kontra babesteko* liburua argitaratu zuen Luterok 1522ko urtarrilean. Printze Hautesleak bazekien Luteroren babesa izango zuela. Denbora gutxian aldaketa handia eman zuen Luterok. Urtarrilaren erdi aldera Carlstadt zoriondu zuen eta ez zuen meza pribatuaren desagerpena gaitzetsi. Otsailaren 20an hiriko kontseiluak, Hautesleari baimenik eskatu gabe, premiazko eskaera bat bidali zion Luterori, Wittenberg-era itzul zedin. 1522ko martxoaren 5ean, Luterok gutun bat idatzi zion Frederiko Saxoniako dukeari; esaten zion Wittenberg-era zihoala, printzeak eman ziezaiokeen baino babes handiagoarekin; negozio horretan ezpatak ezin zuela ezer egin; Jainkoak bakarrik esku har zezakeela; ordura arte asko egin zuela Luterorengatik, baina aurrerantzean ezer ez egiteko; printze moduan Enperadoreari obeditu behar ziola. Wittenbergera bidean Kessler-ekin topo egin zuen eta Kessler-ek Lutero honela deskribatu zuen: 41 urte zituela, potoloa zegoela, tente ibiltzen zela, atzerantz inklinatua, aurrerantz baino gehiago, aurpegia zerurantz altxatuta, bekain beltzak eta begi sakonak zituela eta begiek diz-diz egiten ziotela. Höfen-go Juanek, Dantiscus deituak, honela deskribatu zuen Lutero Pedro Tomicki gotzainari idatzitako gutun batean, 1523ko abuztuaren 8an: lau ordu pasatu zituztela hizketan; zorrotza, jakintsua eta hizlari ona zela, baina gaizki esaka, harrokerian eta etsaitasunean jardun zela Aita Santuaren, Enperadorearen eta printzeen kontra. Begi sarkorrak eta beldurgarriak zituela, pertsona deabruaren itxura ematen ziotenak. Dotore janzten zela. Ardo eta garagardo ugari edan zutela biek. Harroxkoa eta handiustea agertzen zela eta hizkera sutua, isekaria eta ironiaz tartekatua zuela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1522ko martxoaren 6an itzuli zen Lutero Wittenberg-era eta bere lagunekin egon ondoren, 1522ko martxoaren 9tik 16ra bitartean, Eskrituren botereari buruzko zortzi sermoi egin zituen, fanatikoak baretzeko asmoz. Esaten zuen bera zela lehen erreformatzailea, berari esan ziola Jainkoak lehenik hitz horiek predikatzeko. Esaten zuen legezkoak ziren gauza asko komenigarriak ez zirela. Alferrikakoak ziren edo beharrezkoak ez ziren ohitura asko toleratu

egin behar zirela. Auzokoari laguntzeko prest egoteak ekartzen zuela Kristau askatasuna, eta ez legetik aske izateak. Luterok zion berak ez zuela indarrrik erabili Aita Santuaren aldekoen kontra, Jainkoaren Hitza erabili zuela. Esaten zuen bere artegian otsoa sartu zela; Wittenbergen gertatuaren errudun moduan Zwickau-ko profetak, Carlstadt eta Zwilling jarri zituen; San Pablo aipatuz esaten zuen zilegi zen guztia ez zela komenigarria; gai erlijiosoetan berrikuntzak egiteko printzearen autoritateari jaramon egin behar zitzaiola; autoritate laikoari kasu egin behar zitzaiola, eta ez Aita Santuari.

Lutero beti agintarien alde lerrokatu zen, nahiz eta haien kritika garrantza sarritan egin. Esaten zuen kristautasunaren zutabeak fedea eta karitatea zirela eta eraberritze guztiak diziplina eta ordenaz egin behar zirela; meza pribatua baztertu behar zela, baina ez bortxaz; berak ez zuela inoiz ezer indarrez egin; bortxaz jardun izan balitz Alemania guztia odoletan utziko zukeela; askatasunez egin behar zirela gauzak: ezkondu, fraide edo monja bihurtu, haragia jan edo jateari utzi; dena libre zela, baina ez zela ezer indarrez ezarri behar; Jainkoak libre utzitakoa ez zela debekatu behar; irudiak ez zirela gurtu behar; irudien alde ez egoteak ez zuela esanahi ikonoklasta bihurtu behar zenik; ez zegoela ezinbestez komunioa norbere eskuez hartu beharrik edo komunioa bi espezieetan hartu beharrik; kanpoko errituek garrantzi gutxi zutela eta jakinduriak karitaterik gabe ez zuela batere balio.

Sermoi horien bidez artaldea lasaitu zuen Luterok. Zwilling erretraktatu egin zen eta Luteroen albora bildu zen, baina Carlstadt-i predikatzea eta argitaratzea debekatu zion Luterok. Zwilling-etaz berehala ahantzi zen Lutero, baina ez Carlstadt-ek. Luteroen kontra Erreforma desagitera zetorren deabruzat hartu zuen Carlstadt. Hasieran Luterok onartu zituen Carlstadt-ek proposatutako aldaketak: bi formatako komunioa eta meza alemanez, baina 1523an latinezko meza eta forma bakarreko komunioa ere berriro toleratu zituen. Wittenberg baketu ostean, Weimar-en, Erfurt-en eta beste hiri batzuetan arrakasta handiz predikatu zuen Luterok fanatismoaren kontra.

1523ko maiatzaren 2an Luterok kultu tradizionalaren kontra hitz egin zuen eta Frederikok amonestazio bat bidali zion. Frederiko III. Jakintsua bizi zen artean Luterok ez zituen ezabatu mezetako erritualaren zati batzuk (meza latinez ematea eta hostia altxatzea), mantendu egin zituen kanpoko zeremoniak (jantziak, apaizaren keinuak, kantuak eta musika), baina mezetatik kendu egin zituen sakrifizioari buruzko aipamenak; Jaunaren azken afariaren oroitzapen soila

bihurtu zen meza. Frederikoren jarraitzaileak, Juan-ek, baimena eman zion Luterori liturgia aldatu eta alemanez egiteko.

1522, 1523 eta 1524ko Luteroren gutun batzuk

1522ko martxoaren 30ean gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori; esaten zion Testamentu Berri osoa itzuli zuela eta Felipe eta biak itzulpena zuzentzen ari zirela. Espalatinoren beharra zeukala gauza batzuk izendatzeko termino zehatzak jakiteko. Harribitxien izenak eskatzen zizkion eta esaten zion ez zituela gorteko hitzak nahi, baizik jende arruntak erabiltzen zituenak.

1522ko apirilaren 14an idatzitako gutunean Luterok Espalatinori esaten zion fruitu onak ez direla arbola ona bihurtzen dutenak eta ekintza onak ez direla gizaki bat on bihurtzen dutenak, baizik arbola onak ematen dituela fruitu onak eta gizaki onak egiten dituela ekintza onak.

1522ko apirilaren 17an Luterok Altenburg-eko burgomaestreaki eta hiri kontseiluari aholkatzen zion fraile agustindar izandako Gabriel Zwilling har zezala Altenburg-eko predikari moduan. 1522ko apirilaren 17an idatzitako gutunean Luterok Zwilling-i aholkatu zion Altenburg-eko predikari lana onartzeko. Altenburg-eko hiri kontseiluak eskatu ziola artzain ebanjeliko bat gomendatzeko eta Zwilling-en izena eman zuela. Bere aldeko aukera egiten bazuten, baiezkoa emateko, jokaera txukuna izateko eta apaiza moduan janzteko.

1522ko uztailaren 4an gutun bat bidali zion Luterok Espalatinori. Esaten zion nahi zuela Felipek gramatika irakasteari utzi eta teologia irakastera dedikatzea. Ez zela egokia hura gramatika irakasten edukitzea, teologiaz ikasgai baliotsuak eman zitzakeenean. Nahiko irakasle bazituztela gramatika Felipek bezain ongi irakats zezaketenak, eta dirua hobeto gastatu behar zela.

1522ko azaroaren 3an Luterok Espalatinori bidalitako gutunean esaten zion Weimar-en eta Erfurt-en fedez eta maitasunaz bakarrik predikatu zuela. Testamentu Zaharraren itzulpenean Moises-en hirugarren libururaino (Levitikoraino) heldu zela.

1523ko apirilaren 8an idatzitako gutunean Luterok Wenzel Link-i esaten zion haren ezkontzara joango zela, Felipe, Hieronimus, Bugenhagen, Trappe, Lukas eta beste batzuekin, Linkek nahi bazuen. Esaten zion aurreko egunean bederatzi monjek utzi zutela Nimpschau-ko klaustroa.

1523ko ekainaren 18an hiru emakumeri (Hanna von Draxchwitz, Milia von Olsmitz eta Ursula von Feilitzin) idatzi zion Luterok, Luteroren liburuak irakurtzeagatik gortetik urrundu zituztelako. Amsdorf-ek eman zion gertaera horren berri Luterori eta eskatu zion kontsolamendu gutun bat bidaltzeko. Luterok esan zion bihotza lasai edukitzeko eta inoren gaitzik ez desiratzeko, Kristok garbituko eta askatuko baitzituen irain horretatik, harengan bihotza jartzen bazuten.

1523ko uztaietan gutun bat idatzi zion Luterok Holanda, Bravante eta Flandriako kristauei; esaten zion Johann van den Esschen eta Heinrich Vos fraile agustindar martiriak izan zirela lehenak Kristoren izena goraiatu zutelako espetxea eta lotsa jasaten eta Kristoren aitortzea odolez sinatzen.

1523ko irailaren 1ean gutun bat idatzi zion Luterok Bartime von Sternberg-i; esaten zion ez jarraitzeko hildako emazteagatik ekintza onak eta barauak egiten eta mezak ematen. Nahikoa zela behin edo beste errezatzea. Jainkoak ez zuela meza hildakoengatik jarri, bizientzako sakramentu moduan baizik. Esaten zion Jainkoaren baimenik gabe ezin zela bizientzako sakramentua hildakoentzako sakrifizio bihurtu.

1524ko urtarrilaren 19an gutun bat idatzi zion Luterok Lambert Thorn-i, Holandan erail zuten fraile agustindarrari. Esaten zuen Kristoren eskuetan zegoela eta bere sostengu beharrik ez zuela. Gatibuan egonda agintzen zuela, bortxa jasanda gailentzen zela. Luterok zion adore handia eman ziotela Johann, Heinrich eta Thorn-ek. Kristoren egia ezagutu ahal izan zuela eta haren grazia hiru martirietan loratua ikusi ahal izan zuela. Haiek jasandako espetxea eta sua bereak ere bazirela esaten zuen.

1524ko martxoaren 23an gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako Frederiko Hautesleari esanez ikasle asko zituztela Jainkoaren Hitza ezagutzeko irrikaz. Eskatu ziola Feliperi Eskritura Sainduak irakasteko, bera baino gaituagoa zelako horretarako, berak Bibliaren alemanezko itzulpena behar baitzuen; baina, Felipek esan ziola berak grekoa irakasteagatik jasotzen zuela soldata. Luterok zion berari esan ziotela Printzeari

eskatzeko Feliperi Jainkoaren Hitza azaltzegtik ordaindu behar zitzaioela soldata. Izan ere, goi mailako lanak oinarrizko lanak baino fruitu gehiago ematen zituela eta Felipe gai zela goi mailako lan horretarako.

1524ko maiatzaren 6an Luterok gutun bat idatzi zion Nicolas Gerbel-i eta esaten zion pozik zegoela Estrasburgon ebanjelioa nagusitzen ari zelako. Magdeburgo eta Bremen hartu zituela eta laster Brunswick hartuko zuela.

1524ko ekainaren 20an gutun bat idatzi zion Luterok Ekolampadiori, fraile biritza utzi izana goraiatuz. Esaten zion urrats garrantzitsua eman zuela, Erasmori gustatzen ez bazitzaion ere. Esaten zion klaustroa utzitako fraile eta monjek ordu asko kentzen zizkiotela, haientzat etxeak bilatu behar zituelako.

1525eko urtarrilaren 11n gutun bat idatzi zion Luterok John Brismann-i, Prusiako erreforma sustatzera Konisberg-era bidali zuenari. Esaten zion Carlstadt-ek pozoiz betetako idatzi batzuk egin zituela bere kontra. Carlstadt-ek ukatu egiten zuela Kristoren gorputza eta odola sakramentuan zeudenik. Luterok zion hari kontra egiteko prest zegoela, jende asko bide txarretik eraman zuelako. Esaten zion Erasmori erantzun behar ziola, tarte bat eduki bezain azkar. Müntzer-ek istilu arriskutsuak sortu zituela Muhlhausen-en eta han inguruan alderrai zebilela, non kokatu jakin gabe. Profetak ugaltzen ari zirela, benetako sinestunen aurrez-aurre. Aita Santuaren aldekoak pozik zeudela ebanjelisten zatiketa ikusita. Oso okupatua zegoela eta izterrean abzesu mingarri bat zuela.

1525eko urtarrilaren 17an idatzitako gutunean zorionak ematen zizkion Luterok Nurenbergeko Frederiko abatari, ezkondu zelako. Esaten zion zorionak berandu ematen zizkiola, gaixo egon zelako, liburuak argitaratu eta gutunak idatzi behar izan zituelako, etxeko eta Elizako lanak egin behar izan zituelako, lagunei lagundu behar izan zielako. Horretaz, aparte, Satanek eta etsaiek sortutako buruhaustek ere bazituela.

1526an liturgia germanoa eratu zuen Luterok, Carlstadt-en liturgiatik gutxi aldentzen zena. Carlstadt-ek idatzi bat argitaratu zuen Gungersheim teologo katolikoaren kontra; Luterok uste izan zuen bere kontra zihoala idatzi hori eta Carlstadt-i esan zion ez zezala bere kontra ezer

argitaratu. Carlstadt Segrenara erretiratu zen emazte eta haurrarekin; gero Orlamündeko erretore izendatu zuten eta han erreformak egin zituen. Luterok begitan hartua zeukan Carlstadt eta haren lanik ez zuten Wittenberg-en argitaratzen, baina Jenan argitaratzen zizkioten; orduan, Luterok Jenako inprimategia ixteko eskatu zion Saxoniako kantzilerrari. Luterok bere jokaeraren bidez Frederiko printzearen konfiantza lortu zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Saxonia ernestotarretik abiatu zen luteranismoa eta handik hedatu zen Frankonia, Suabia, Renania, Palatinado, Baden, Lurralde hanseatikoak, Prusia eta Pomerania-ra. Baina, ez zen nahikoa hedatzearekin; Elizako komunitatea antolatu ere egin behar zen, sinestunen apaizgintza unibertsalean oinarrituta. Apaiz ministeritzarako gaituak zeuden sinestun guztiak, baina komunitatea zen apaizak izendatu, kargutik kendu edo mailaz jaso zitzakeena; apaiza izateko ez zegoen Aita Santuaren ordenazioa jaso beharrik; bataiatu guztiak ziren apaiz; herri bakoitzeko komunitateak aukeratu behar zituen apaizak; komunitatearen esanera zegoen elizako karguen izendapena. 1523an Luterok defendatu zuen komunitateak eskubidea zuela bere predikariak aukeratzeko. Erreformaren abiapuntua Wittenberg-eko unibertsitatea eta udal-kontseilua ziren. Lurralde anitzetako gazteak etortzen ziren han ikastera. Wittenberg-eko eliza antolatzean, Luterok lankide izan zituen Melanchthon, Justo Jonas eta Amsdorf.

Printzeek ez zuten onartu elizaren behetik gorako egituratze hori; arazoak sortu ziren elizaren ondasunen administrazioari buruz eta porrot egin zuten eliza demokratikoa eraikitzeko Luteroren asmoek (García-Villoslada, 1973).

Aleandrok Erroman esan zuen Luteroren eragina Brabante, Flandes, Frisia eta Zelanda-ra heldu zela eta hiri asko ere kutsatuak zeudela: Augsburg, Estrasburgo, Nurenberg, Espira. Luteranismoari kontra egiten ziotenak hauek zirela: Habsburgotarrak, Saxonia albertotarreko Jorge, Baviera-ko Gilermo dukea, Treverisko artzapezpikua, Brandeburgoko Jokin Hauteslea, Greiffenklau-ko Rikardo (García-Villoslada, 1973).

Luteroren idatziak, musika eta Nurenberg-eko Dieta

Lutero hainbat tokitan ibili zen sermoiak botatzen eta eliza antolatzen: Borna, Altenburg, Eilenburg, Erfurt, Weimar, Zerbst, Zwickau. Gutun ugari jasotzen zituen hainbat tokitatik, elizako administrazioari buruz, Bibliaren interpretazioari buruz eta dogma edo kultu auziei buruz aholkua eskatuz. Lutero denei erantzuten saiatzen zen: printzeei eta zaldunei alemanez idazten zien; teologoei eta jakitunei, berriz, latinez. Lutero Testamentu Zaharreko profeten testuak (Ezekiel, Mikeas, Jeremias) erabili zituen gotzainen kontra hitz egiteko. Gotzainak eta elizako agintariak agintari zibilak baino gogorrago zigortu behar zirela esaten zuen, haien autoritatea Jainkoarengandik ez zetorrelako, bortxaz jokatzen zutelako eta arimaren hiltzaileak zirelako. Esaten zuen gotzainen ondasunak eta ohorea ezabatzen zituztenak benetako kristauak eta Jainkoaren seme-alaba maitatuak zirela (García-Villoslada, 1973).

Lutero 1522an eta 1523an hainbat liburuxka idatzi zituen gai teologikoei buruz; 1523ko martxoan argitaratu zuen *Autoritate sekularraz eta zenbateraino obeditu behar zaio autoritate hari*. Gizakiak bi taldetan banatu zituen Lutero: Jainkoaren erreinukoak eta munduko erreinukoak. Kristauak Jainkoaren erreinuko arauak eta munduko erreinukoak bete behar zituen. Kristorengan sinesten zutenak eta haren esanera zeudenak ziren Jainkoaren erreinukoak. Kristau ez ziren guztiek osatzen zuten munduko erreinua eta kristau ez zirenak derrigortzeko zen legea. Lutero zioen mundu osoa kristaua izanez gero, alferrikakoak zirela printzeak, erregeak, ezpatak eta zuzenbidea; pertsonak zuzenak ez zirelako jartzen zirela legeak; munduko erreinuaren kontra indar temporalek ezpata erabil zezaketela, baina Jainkoaren erreinuan beste masaila jarri behar zela. Sinestunek leialki obeditu behar zuten lege zibilak ezarritakoa, San Pablok (Erromatarra, 13,1) eta San Pedrok (1Pe 2,33) esaten zuten moduan; printzeei beti obeditu behar zitzaizkien; printzeen kontra ez zen gerrarik egin behar, ezta zuzengabeak zirenean ere; ordena publikoari zegokionean erabat printzearen mendeko agertu behar zuen sinestunak. Luteroren iritziz, agintarien dekretuak baztertzera mugatu behar zuen oposizioak; ezin zuen erresistentzia armaturik erabili. Baina, erlijio gaietan ez zitzaion printzeari obeditu behar, horretan botererik ez zuelako; kontzientziaren gainean aginterik ez zuen printzeak; magistratu zibilak ezin zuen heretikoa zigortu edo norbaiten fedea behartu. Printzeei buruzko iritzi txarra zuen Lutero; esaten zuen printze zuhur eta errukior gutxi zeudela; printzeak, orokorrean, zoroak eta zitalak zirela; Jainkoak printzeak erabiltzen zituela gaiztoak zigortzeko (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911).

Inkiszioa saiatu zen fraide heretikoak zigortzen. Erreformako lehen martiriak Johann van den Esschen eta Heinrich Vos fraide agustindarrak izan ziren; fraide horiek Eisleben-eko komentukoak ziren eta Amberes-era bidali zituzten. Bruselako udaletxearen aurrean errezituzten 1523ko uztailaren 10ean dotrina heretikoak hedatzeagatik eta ez erretraktatzeagatik. Herbehereetan Margarita, Karlos V.aren izeba, zegoen gobernadore moduan. Luterok alaitasunez ospatu zuen lehen martiri horien sakrifizioa. Laster idatzi ziren Holanda, Brabante eta Flandriako senideei Kristoren testigutza ematearren. Orduan sortu zuen Luterok bere lehen himnoa (García-Villoslada, 1973; Oberman, 1992).

Erreforma aurrera eramateko, monasterioak hustu ondoren, eskolak sortu eta gazteria prestatu beharra zeukan Luterok. Eskolastizismoa gainditu eta Bibliaren ezagutza hedatu nahi zuen, Justo Jonas, Lang, Melanchthon eta Espalatinoren antzeko jendearen laguntzaz. 1524an *Kristau eskolak sortu eta mantendu beharra* argitaratu zuen, eskola kristauak sortu eta mantentzeko asmoarekin. Eskola horietan latina, hebreera, grekoa, arteak, historia, matematikak eta musika irakatsiko ziren. Mutilak egunean bi orduz joango ziren eta neskek, ordubetez. Hiri handietan liburutegi onak jarri nahi zituen Luterok, honako gai hauei buruzko liburuekin: Eskritura sakratuak hainbat hizkuntzetan; poeta eta hizlari greko eta latinoen idazlanak; zuzenbideko eta medikuntzako lanak; arte liberalak. Liburutegietan ez ziren jarri behar komentuetako liburuak, fraideen sermoiak, Aristotelesen obrak (García-Villoslada, 1973).

Luteroren lan nagusia Biblia Alemanera itzultzea izan zen. Esan dugun moduan, Testamentu Berria 1521eko urtearen amaieratik 1522ko martxora bitartean itzuli zuen. Wartburgotik itzultzean Itun Zaharra itzultzeari ekin zion. Itun Zaharra itzultzeko hebertarra ongi ezagutzen zuen norbait behar zuen. Hasieran Melanchthon eta Amsdorf-en laguntza izan zuen; ondoren, Mateo Aurogallus eta Röser-ena; ordura arte egindako itzulpenez ere baliatu zen: itzulpen grekoak, latinoak, alemanak. Eskritura Sakratu guztien itzulpenak baziren alemanera eginak, baina dialekto-hizkuntza zerabilten eta Luterok alemaniera batua nahi zuen. Urte hauetan egin zuen itzulpena Luterok: 1522an, Pentateukoa; 1524an, liburu historikoak, Job-en liburuak, Salmoak, Salomonen esaldiak, Eclesiastes eta Kantarik Ederrena; 1526 eta 1530 urteen artean liburu solteak eta profetak; 1533an, Makabearrak; 1534an Biblia osoa itzulia eta argitaratua zegoen. Ondorengo urteetan argitalpen berriak atera ziren, berrikusiak eta zuzenduak. 1539an Bibliaren itzulpena erabat berrikusi zuen Luterok, honako kide hauen laguntzaz: Felipe

Melanchthon, grekoan aditua; Aurogallus eta Juan Forster, hebreeran adituak; Gaspar Cruciger exegeta, kaldearrean aditua; Justo Jonas, erretorikan aditua; Bugenhagen, latinean aditua; Jorge Röer, frogen irakurlea eta zuzentzailea. Itzulpena hobetzeko asmoz, alemaneko termino batzuen erabilerari buruzko galderak egin zizkien Luterok Alemaniako hainbat pertsona zaharrei; harakinari ere galdetu zizkion bildotsaren zatien izenak. Behin betiko argitalpena 1545ean egin zen.

Liburu kanoniko edo inspiratuak zeintzuk ziren erabakitzeko garaian bere irizpideak erabili zituen Luterok, ez elizarenak. Testamentu Berriari buruz honela zioen 1545eko hitzaurrean: Erromatarrei idatzitako gutuna da Testamentu Berriaren muina, ebanjelio guztitik argiena, kristau guztiek buruz jakin beharko luketena eta arimaren eguneroko janari izan behar lukeena; San Pabloren gutunak, batez ere Erromatarrei, Galaziarrei, Efesoarrei egindakoak eta San Pedroren lehen gutunak irakasten dute salbamenerako beharrezkoa den guztia, beste libururik irakurri gabe ere; Testamentu Berriari ez zituen atsegin Santiagoren gutuna eta Apokalipsia; Testamentu Zaharretik apokrifo moduan baztertzen zituen Judit, Salomon-en Jakinduria, Tobit, Ben Siraken Jakinduria, Baruk, Makabearrak, Ester-en liburuaren zatiak, Jonas. Salmoak goraiatu egiten zituen (Smith, 1911; García Villoslada, 1973).

Bibliaren bidez alemanentzat hizkuntza komun bat lantzen saiatu zen Lutero eta hor abantaila bat bazuen; alde batetik, Alemaniako idazle mistikoen eragina izan zuen. Bestetik, Alemaniako printze askok Saxoniako hizkera erabiltzen zuten. Maximilianok eta Frederiko Jakintsuak dialektoak konbinatu zituzten eta hizkuntza komun baterantz eraman zuten inperioa. Luterok Germaniako goi aldean eta behe aldean ulertzeko moduko alemana erabiltzen zuen eta eragin handia izan zuen aleman estandar modernoa sortzen (Smith, 1911).

Lutero musikazalea izan zen eta musika ongi menderatzen zuen; bizitza osoan izan zuen musikarako zaletasuna; Mansfeld-go koruan himnoak, antifonak eta otoitzak abesten zituen. Musika Jainkoaren oparia eta teologiaren hurbileko ariketa zela eta deabruak musikari ihes egiten ziola pentsatzen zuen. Musikak deabrua uxatu egiten zuen, bakea eta aldarte patxadatsua sortzen zituelako. Luterok musikaren bidez bere aldartearen hobetu nahi izaten zuen, malenkonia uxatu, katarsi bat lortu. Musikarako afizioa zutenak bertutez jantziak iruditzen zitzaizkion eta zaletasun hori ez zutenak, kirtanak eta ezjakinak. Etsaiak benetan etsai zituen Luterok, baina etsai musikariak ez zituen hain etsai, Bavierako dukeen kaperako maisu Luis Senfl-ekin gertatzen zitzaion moduan. Senfl Luteroen lankide izan zen, katolikoa izan arren.

Senflek musikari zion maitasunak Luteroren beldurrak ezabatzen zituen; Bavierako dukea laudatzen eta gurtzen zuen musika babesten zuelako (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Teologia eta musika elkarrekin zihoazen Luterorentzat. Kantatzea eta musika jotzea ariketa nobleak ziren harentzat. Haurretan Mansfeld-ko parrokian abesten zuen eta Erfurt-en lautea jotzen zuen. Heldutan, otordu ostean mahaian Alemaniako herri kantak abestea gustatzen zitzaion eta Liturgiako ereserkiak ere oso atsegin zituen. Lurralde batzuetan Tomas Müntzer-ek aurre hartu bazion ere, Luterori zor zaio kanta erlijioso latinoak kanta alemanez ordezkatzeko. Hizkuntza txekiarrean Juan Hus eta jarraitzaileek antzeko zerbait egin zuten ehun bat urte lehenago.

Lutero 1523 urtearen amaieran hasi zen himnoak biltzen eta idazten eta lagunei ere eskatu zien hori egiteko. 1524 urtearen amaiera aldera Espalatinori gutun bat idatzi zion Lutero eta esaten zion jendearentzat salmo germanikoak konposatu behar zituela, profeten eta elizako gurasoen antzera; horrela Jainkoaren Hitza haien artean biziko zela. Esaten zion salmoetako bat ereserki bihurtzeko, baina gorteko hitzak ez erabiltzeko, pertsonak ulertzeko moduko hitzak baizik. Ikertzaileek ez dakite zenbat ereserki konposatu zituen Lutero; batzuek diote, letra berriei antzinako melodiak jarri besterik ez zuela egin; lankideak izan zituen hainbat poeta eta musikari; berak melodiak aukeratu zituen, herri kantetatik eta gregorianoko himnoetatik; Salmoetan, Bibliako pasarte laburretan eta antzinako herri kantetan inspiratu zen testuak osatzeko. Bertsoak eta epitafioak ere idatzi zituen Lutero. Kanta espiritualen liburua ere atera zuen, John Walther-en laguntzaz. 1527ko abenduaren 21ean gutun bat idatzi zion Lutero Walther-i; hiru astez egon zen Walther Luteroren etxean elizako musika konposatzen. Lutero berak ere konposatu zituen himno germaniarrentzako melodiak: 1528an himnoen liburu bat eta 1543an beste bat argitaratu zituen. Himno batzuk, ereserki latino zaharretatik hartu zituen, baina gehienak Salmoetan eta Eskrituren beste zatietan oinarrituak ziren. Ereserki batzuen melodiak Alemaniako musika kulturaren zati bihurtu ziren.

Alemaniako autoritate nagusia Kontseilu Inperiala zen, eta haren buru, Austriako Fernando. Enperadoreak ezin zuen egin nahi zuena, printzeek exigentzia asko jartzen baitzizkioten. Saxoniako Jorgek ikusi zuenean Lutero berriro agertu zela, Worms-eko ediktua betetzera behartu nahi izan zituen bere lehengusuak, Saxoniako Frederiko eta Juan. Baina, Luteroren babesleak Nurenberg-eko Dietarako deia egin zuten.

Nurenbergeko Dietari 1522ko azaroaren 17an eman zitzaion hasiera. Erroman ere erreformak egiten hasi ziren, Hadriano VI.a Aita Santuak bultzatuta. Hadrianok pentsatzen zuen Erromako kuriaren gehiegikeriek desagerrarazten baziren, Luteroren jarrera aldatuko zela. Erromaren ordezkari moduan Franzisko Chierigati bidali zuten Nurenberg-eko Dietara; hark Dietaren aurrean agindu zuen zergatan bildutakoa ez zela Alemaniatik aterako eta turkoen kontrako gerrarako erabiliko zela. Hadriano VI.ak eskatzen zuen Dietak neurriak har zitzala Luteroren kontra; Dietako printze batzuk prest zeuden neurriak hartzeko, baina Saxoniako Hauteslearen ordezkariak proposatu zuten erabaki hori komisio batean hartu behar zela; komisio horretan Luterotar suhar batzuk sartu ziren eta 1523ko otsailaren 8an eman zuten erabakiaren berri: Hadriano VI.a Aita Santu izendatzeak poztu egiten zituen, baina Worms-eko ediktua Luterori aplikatzeak istiluak sortuko zituela iruditzen zitzaien; komisioak zioen Erromako kuriaren gehiegikeriek atsekabetu egiten zutela nazio germanikoa eta gehiegikeria horiek desagertu arte ez zela bakerik izango; erremediorik egokiena kontzilio kristau bat deitzea zela, nazio germanikoko leku egoki batean. Bien bitartean Saxoniako Frederiko Hautesleari eskatuko zioten Luterori eragotz ziezaiola argitaratzea eta predikatzea. Beraz, Worms-eko ediktua indarririk gabe geratzen zen (García-Villoslada, 1973).

Nurenberg-eko dietan erabaki zuten 1524ko urtarrilean Nurenberg-en beste dieta bat egingo zutela, aztertu gabeko auziez erabakiak hartzeko. Dietako kideek eta Aita Santuaren mandatariak nahi zuten fraideen eta apaizen ezkontzak ez ugaritzea, baina Luterok begi onez ikusten zituen ezkontza horiek eta 1523ko apirilaren 10an idatzi bat argitaratu zuen: *Birjinek nola utz ditzakete komentuak, Jainkoari obedituz*. Saxoniako Frederikok maiatzaren 25ean eman zion Luterori Dietan eta Kontseiluan erabakitakoaren berri: ez zezala ezer idatzi eta argitaratu, kontzilioan bildu aurretik. Luterok 1523ko maiatzaren 29an erantzun zion esanez pozik utziko ziokeela idazteari, baina etsaiek erasotzen ziotela. Hadriano VI-a 1523ko irailaren 14an hil zen eta haren ordezkari Klemente VII.a (Medicis-ko Julio kardinala) aukeratu zuten Aita Santu.

Nurenberg-eko dieta berria 1524ko urtarrilaren 14an bildu zen. Aita Santuak Lorenzo Campeggio bidali zuen nuntzio moduan. Dieta horretan Austriako Fernando artxidukea saiatu zen Dietako beste printzeen gainetik jartzen, baina ez zuen erabat lortu. Dietan erabaki zuten, batetik, Worms-eko ediktua beteko zela, ahal zutenean; bestetik, Aita Santuak kontzilio aske bat deituko zuela, Enperadorearekin ados jarrita, Alemaniako hiri batean. Nurenberg-eko

hirugarren dietak 1524ko azaroaren 11n kontzilio nazional bat egitea erabaki zuen, baina Erromako kuria laster jarri zen horren kontra. Karlos Enperadorea ere kontzilio horren kontra agertu zen (García-Villoslada, 1973).

Klemente VII.ak Campeggiori eman zizkion Alemaniako egoera aldaketak egiteko botereak. Ratisbonako Ligan 1524ko ekainaren 27tik uztailaren 7ra bitartean kardinal, duke, gotzain eta administradoreak artxidukearekin eta nuntzioarekin elkartu ziren eta erabaki zuten Worms-eko ediktua bete zedila, ebanjelioa elizaren irakaskuntzaren arabera interpreta zedila, mezatan berrikuntzarik ez zedila egin, apaiza eta erlijiosoek ezkontzak zigor zitezela, beren lurraldeko hiritarren seme-alabek ez zezatela ikas Wittenberg-eko Unibertsitatean eta Wittenberg-ko ikasleek ez zezatela beren lurraldeetan onurarik eduki. Gai erlijiosoak eztabaidatzeko Espirako batzarra deitu zuten, baina Aita Santuak eta Campeggio nuntzioak ez zuten onartu (García-Villoslada, 1973).

Klemente VII.ak gutun bana bidali zien Karlos V.ari, Frantziako erregeari eta Ingalaterrakoari, Alemanian erlijioak zuen arriskua handia zela eta. Aleandrok Saxoniako Hauteslea agintetik kentzea aholkatzen zuen. Fernando artxidukeak anaia Karlosi esaten zion Espirako batzarra ez baimentzeko, ez zitezen han hartu eliza guztiari zegozkion erabakiak. Karlos V.ak esan zuen berak ez zituela onartzen Nurenberg-eko erabakiak, batez ere Espirako batzarrari zegozkionak

Protestanteen arteko zatiketak, Carlstadt, Müntzer Alemaniako estatua eta Nekazarien matxinada

Hamaikagarren mendetik hamahirugarren mendera arte apostoluen txirotasunera itzuli nahi zuten hainbat mugimendu izan ziren Italian eta Frantzia hegoaldean. Eliza ofizialaren aberastasunak gaitzetsi eta lehen kristauak eraman zuten behartsuen bizitza motara itzultzen ziren: kataroak, albitarrak eta valdestarrak; baina, 1329an Juan XXII.a Aita Santuak txiroyen aldeko mugimenduak eragotzi zituen. Oxford-eko irakasle izan zen Wyclif ingelesak (1384an hila) agintari sekularrei eskatzen zien Elizaren ondasunez jabe zitezela; hil eta gero elizatik jaurtiki egin zuten. Juan Hus txekiarra (1415ean hila), Wyclif-en ikasle eta Pragako irakasle zen; Sigismundo Enperadoreak Konstantzara bidaiatzeko baimen bat eman zion, kontzilioko galderei erantzun ziezaien; baina, Hus espetxeratu egin zuten eta espetxean zazpi hilabetez eduki ondoren, heriotzera kondenatu zuten; 1415eko uztailaren 6an sutan erre zuten, heretikoa zelakoan. Luterok zioen, Hus heretikoa izatekotan, oraindik benetako kristaurik ez zela agertu lurrean. 1415ean kondenatu zituzten Konstantzako kontzilioan Hus eta Wyclif. Ez ziren ordea horiek izan zigortu bakarrak. Johannes von Wesel Erfurteko teologorik ospetsuena izan zen eta induljentiak iruzurtzat hartu zituen; 1479an, jadanik irakasle ez zenean, Inkisizioaren tribunalaren aurrera eraman zuten eta bizitza osoko espetxera kondenatu zuten (Oberman, 1992).

Carlstadt mistikoa zen eta muturreko jarrerak hartzen zituen. 1521ean Eskrituren interpretazio literalaren alde zegoen, Lutero bezala; baina, laster Zwickau-ko profeten jarrerara hurbildu eta iritiz aldatu zen, eta esaten zuen, zentzu literaletik haratago, kristauak zentzu sakonago eta espiritualagoa aurkitu behar zuela; idatzitako hitzak baino gehiago espirituaren ahotsak balio zuela. Eukaristian Kristo errealki presente zegoela ukatu egiten zuen.

Luterok esan zuen Carlstadt-en idazlanak ez zirela argitaratu behar Wittenberg-eko Unibertsitatearen baimenik gabe. Luterok 1524ko udan Turingiako hainbat herritan predikatu zuen elizak, irudiak eta aldareak suntsitzen zituztenen kontra eta Eukaristiaren sakramentua ukatzen zutenen kontra; abuztuaren 22an Jenan predikatu zuen eta Eukaristian Kristo errealki presente zegoela zalantzan jartzen zutenei eraso zien; elizetako irudiak kendu nahi zituztenei eraso zien. Carlstadt kexu zen, Luterok Thomas Müntzer-en jarraitzaileen artean kokatu zuelako. Luterok eta Carlstadt-ek elkarrekin gogor eztabaidatu zuten eta Luterok esan zion ez

ziola debekatuko bere liburuak argitaratzea. Carlstadt-en parrokia zen Orlamundera ere joan zen Lutero hitzaldia ematera, baina han ez zuten ongi hartu. Lutero Frederiko printzea konbentzitu zuen Carlstadt Saxoniatik kanporatzeko. 1524ko irailean, Saxoniatik alde egiteko esan zion Hautesleak Carlstadt-i. Carlstadt iheska ibili zen, Tauber, Estrasturgo, Zurich, Basilea eta Rothenburg-etik zehar; hainbat lan argitaratu zituen eta jarraitzaileak izan zituen Strasburgon, Basilean, Nurenberg, Magdeburgon, Zurich-en, Königsberg-en eta Herbehereetan. Carlstadt-ek herriko mugimenduetan oinarritutako Erreforma planteatzen zuen eta Lutero, printzeen politikan oinarriturikoa. Lutero esaten zuen Carlstadt deabruak hartua zegoela. Azkenean Frankfurt-en amaitu zuen, egoera oso txarrean eta Luteroi barkamena eta laguntza eskatu zion.

Lutero Eukaristiari buruzko iritzietan atzera egiteko eskatu zion eta hala egin zuen Carlstadt-ek: onartu zuen Kristoren gorputza benetan zegoela Eukaristian. Lutero Wittenberg-eko monasterioan babestu zuen Carlstadt, emaztea eta haurrarekin batera. Carlstadt-ek *Desenkusa* idatzi zuen eta Wittenberg-en argitaratu zuen, Luteroen hitzaurrearekin. Printze Hautesleak ez zion Carlstadt-i baimenik eman hirietan eta unibertsitate inguruetan bizitzeko. Urte batzutan bizitza erretiratua eraman zuen, nekazari eta dendari moduan; 1524an Carlstadt-ek benetako nekazari izan nahi zuen, bere kopetako izerditik bizi nahi zuen; ordura arte nekazarien bizkarretik bizi izan zela eta aurrerantzean haiengatik jasotakoa itzuli nahi zuela esaten zuen; jende behartsuaren askapena zeukala gogoan. Baina 1528ko abuztuaren 12an gutun bat idatzi zion Printze Hautesleari esanez Luteroen ideia batzuekin ez zegoela ados; Saxoniatik irteteko baimena eskatu zion printzeari, baina ez zuen lortu eta 1529an lurraldetik ihes egin zuen; Holstein-en, Frisian eta Zurich-en egon ondoren, Basilean hil zen izurriteaz, 1541eko abenduaren 24an (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Carlstadt-ek eta Müntzer-ek antzeko ikuspegi apokaliptikoa zuten, baina bortxaren erabilerarik zegokionez, ezberdinak ziren. Carlstadt bortxarik ez erabiltzearen aldekoa zen. Müntzerrek, berriz, uste zuen ezpataren eraginez ezarri nahi zuen Jainkoaren erreinua. Lutero berehala gaitzetsi zuen erreforma komunala, Müntzerren jarraitzaileek Allstedt-en, Mühlhausen-en eta Frankeshausen-en aldarrikatzen zutena. Lutero Carlstadt eta Müntzer-en arteko lotura nabarmentzen zuen eta bere burua jartzen zuen Erreformako heroi moduan, bera izan zelako Augsburgon eta Worms-en Aita Santuaren kontra borrokatu zena. Eraso gogorrenak Carlstadt-en kontra egin zituen, *Profeta zerutiarren aurka* liburuan ikus daitekeen moduan (García-

Villoslada, 1973; Roper, 2010). Luterok Müntzer-en eta Carlstadt-en jarraitzaileen gisara tratatu zituen anabaptistak. Anabaptista batzuek nekazarien gerran parte hartu zuten eta Müntzerren ideien jarraitzaileak ziren. Anabaptisten kontra jarri zen Lutero, deabruak haien ahotik hitz egiten zuela esanez. Luterok pentsatzen zuen anabaptistak heretiko moduan tratatu behar zirela, baina ez zirela erail behar, beren sinesmena zela eta. Melanchthon, aldiz, 1528ko Enperadorearen aginduekin bat etorri zen eta anabaptisten kontra sarraskiak egitera bultzatu zituen agintariak. Anabaptista hitzak birbataiatzailea nahi du esan. Anabaptista gehienek pentsatzen zuten haurren bataioa baliogabea zela eta sinestun helduen bataioa defendatzen zuten. Batzuek bataioaren desagertzea aldarrikatzen zuten. Luterok haur guztiak bataiatuak zituen eliza nahi zuen. Bataiatutako pertsonak elizaren kide bihurtzen ziren automatikoki. 1531n Fritz Erbe-k bere semea bataiatzeari uko egin zion eta horregatik espetxeratu egin zuten; 1540tik heriotzera bitartean (1548ra bitartean) Wartburgoko ziega batean eduki zuten. 1534an anabaptista talde batek agintea eskuratu zuen Münster-en eta Münster-ko gotzainak hiria setiatu zuen. Setioak urtebete iraun zuen eta hiria 1535ko ekainean erori zen. Matxinoen gidari bat, Jan van Leiden, torturatu eta erail zuten 1536ko urtarrilean (Roper, 2010).

Tomas Müntzer teologo mistikoak Filosofia ikasi zuen Leipzig-en eta Teologia Frankfurt-en. 1517ko udazkenean hilabete batzuk eman zituen Wittenberg-en eta orduan ezagutu zuen Carlstadt. Tauler eta Joaquin de Fiore-ren lanak irakurri zituen eta harremana izan zuen Nicolas Storch-ekin eta Bohemiako husitekin; Zwickau-ko parrokiaren egon zen denboraldi batez. Pragara joan zen 1521eko ekainean. Allstedt-eko erretore eta predikari izan zen 1523tik 1524ra. Leipzig-eko eztabaidan ezagutu zuen Lutero. Ez zuen onartzen Luteroren *Sola Fides*, *Sola Escripura*. Luterok Eskriturak aldarrikatzen zituen. Müntzer-ek Espiritua eta Jainkoaren inspirazio zuzena aldarrikatzen zituen; Bibliako hitzek sostengu-funtzioa bakarrik betetzen zuten; esaten zuen Eskritura Santuak bizigabeak zirela, espirituak barnetik elikatzen ez bazituen eta bihotzetan zizelkatzen ez baziren; gurutzerik eta sufrikariorik gabe Bibliak ez zuela ezertarako balio. Müntzer-ek pentsatzen zuen kristau guztiek berdinak izan behar zutela eta ondasunak denen artean banatu behar zituztela, beharren arabera; tiranoak desagertzean, bakea eta justizia nagusituko zirela. Müntzerrek gogor eraso zion Luterori eta hark bortxarekin eta erreboltarekin erlazionatu zuen Müntzer; esaten zuen irudiak hausten zituztenek erlazio gehiago zutela deabruarekin, espirituarekin baino.

Luterok Saxoniako printzeei gutuna idatzi zion, esanez Müntzer deabrua zela. Luterok zioen berak bere dotrina Leipzig, Worms eta Augsburgoko eztabaidatu zuela, baina Müntzer-ek ez zuela inon eztabaidatu; hura ez zegoela Espiritu Santuaren esanetara, baizik deabruaren esanetara. 1523ko abenduaren 26an gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori, Thomas Müntzer gogokoa ez zuela adieraziz. Ez zitzaion gustatzen haren profeta espiritua; Bibliaren arabekoak ez ziren adierazpenak egiten zituen. Luterorekin elkarriketatu nahian zebilen eta haren dotrina laudatzen zuen, baina hura birrintzen saiatzen zen. Müntzer Bohemiatik pasatu ondoren, Allstedt-en kokatu zen, eta sostengatzailez inguratuta hainbat aldaketa egin zituen: santuen irudiak hautsi zituen, haurren bataioa kendu zuen, Jainkoarekin komunikatzeari buruzko ametsak landu zituen, jabetza pribaturako eskubidea kolokan utzi zuen. Allstedt-en ematen zituen hitzaldietara hainbat herritatik biltzen zen jendea. Laster, ordea, agintariak Müntzerren jokabidea gaitzetsi zuten eta hark Mühlhausen-era ihes egin zuen.

Juan dukearekin, Hauteslearen anaiarekin, elkarriketatu zen Müntzer eta hura konbentzitzen saiatu zen, baina haren mesfidantzak ez zituen gainditu. Allstedtetik ihes egin zuen 1524ko abuztuaren 7an eta Mühlhausen-go hirira joan zen; handik zebilen Henrike Pfeiffer fraide zistertarra ere, jendea berotzen eta asaldatzen. Müntzer-ek zion autoritateei ez zitzaieela obeditu behar eta errentarik eta zergarik ez zela ordaindu behar. Pfeiffer eta Müntzer-ek Mühlhausengo elizetako eta monasterioetako ondasunak hartu zituzten eta erregimen berri bat ezarri nahi izan zuten, lege bakartzat Jainkoaren hitza zutela. Baina, hiriko kontseiluak kanporatu egin zituen irailaren 28an. Müntzer Alemania hegoaldeko hainbat hiritan zehar ibili zen, nekazariak borrokara bultzatzen. 1525eko hasieran Mühlhausen-era itzultzeko eskatu zioten eta han Jainkoaren erreinua ezartzen saiatu zen. Liturgia alemaniarra sortzen lan asko egin zuen Müntzer-ek; funtzio erlijiosoetan esku-hartzera bultzatzen zuen jendea. Luterok Müntzer-en eraberritze asko bereganatu zituen (García-Villoslada, 1973).

Alemaniko biztanleen hiru laurden nekazaritzatik bizi ziren (Abellán, 1990). Alemaniako lurrik gehiena printzeen, nobleen eta eliztarren esku zegoen, nahiz eta nekazari askeak ere bazeuden. Hamabosgarren mendean nekazarien matxinada ugari izan ziren Alemanian (Babieran, Alsazian, Renanian, Salzburgon, Karintian, Estrasburgon), baina XVI. mendearen hasieran nekazarien talde sozialak zapalduz jarraitzen zuten; beren lurren jabe ziren nekazariak gero eta zerga handiagoak ordaindu behar zituzten. Alemania hegoaldeko, Suitzako

eta Austriako nekazariak eskubide dezente zituzten; baina, meatzaritzaren eta merkatalgoaren gorakadaren ondorioz, prezioak altxatu eta nekazarien bizi-baldintzak txartu ziren.

Luteroren garaietan nekazariak errenta eta zerga ugari ordaindu behar zituzten. Gainera, herri-jabetza murrizten ari zen. Luterok esana zuen kristauen artean ondasun guztiak guztienak zirela, gizaki bakoitzaren ondasunak besteenak ere bazirela, eta ez zegoela ezer norberarena bakarrik zenik (Durant, 1957). Luteroren dotrinan oinarritu ziren Anabaptistak, hark askatasuna eta berdintasuna aldarrikatzen baitzituen. Luterok hasieran noblei esaten zien jendeak ez zuela luzaroago jasango haien tirania; ustiatzen zituen printzeen autoritatearen kontra altxatuko zirela nekazariak. Luterok kristauen askatasuna aldarrikatzen zuen eta nekazariak pentsatu zuten garai ona zela beren kexuak jaun feudalei agertzeko; herri kontseiluetan demokrazia gehiago nahi zuten eta gremioen kide izateko baldintza hertsatzaileak kendu nahi zituzten. Luteroren irakaspenek bultzatu zituen nekazariak printzeen eta elizaren kontra jaikitzea, Alemaniako hego-mendebaldean (Salzburgo, Turingia eta Saxonia).

Estatu Alemanek ez zeukaten autoritate zentralik; Enperadoreak berak ere ez zuen autoritate handirik. Alde batetik, Enperadorea aukeratzen zuten zazpi Hautesleak zeuden. Bestetik, laurogeitik gora hiri inperial zeuden. Printzeen eta hirien boterearen artean noble txikiak, inperioko zaldunak zeuden; beren lurralde txikietan eta gaztelu zaharretan agintzen zuten eta trebeak ziren armak erabiltzen. XVI. mendean merkatalgoak, industriak, enpresa finantzarioek, inprimategiek, meatzeek, artisauek eta hiriek garapen handia izan zuten Alemanian. Italia eta Frantzia gainbehera zihoazen. Elizako agintariak eta monasterioak saiatzen ziren beren eskubideak indartzen eta zergak ezartzen. Printze alemanak, berriz, Erreformaren aurretik ere hasiak ziren elizaren administrazioan esku-hartzen; horrela, Ginebrako gotzainak izendatzen zituztenak Savoiaiko dukeak ziren. Alemaniako lurraldearen zati handi bat gotzain eta printzeen esku zegoen: Munster, Würzburg, Magdeburgo, Mainz, Salzburgo etab. (Elton, 1964).

Nekazarien matxinada 1524an hasi zen, Alemaniako hego mendebaldean, prezioen igoerari eta nekazarien egoera txarrari aurre egin asmoz. 1524-25eko eskualde ugariara heldu zen matxinada. 1524ko ekainean Stühlingen-go nekazariak Lүpfen-go Sigismundo kondeak ezarritako zergen eta zerbitzu pertsonalen kontra altxatu ziren eta irailean akordio batera heldu ziren. Suitzako Thurgau-n 5000 nekazariak Ittingen-go monasterioa arpilatu eta erre zuten. 1524ko udazkenean Rhin eta Danubio aldeko, Frankoniako eta Suabiako nekazariak matxinatu ziren. 1524-25eko neguan nekazarien matxinada Suitza, Württemberg, Alsazia,

Lorena, Frankonia, Turingia, Saxonia, Estiria, Karintia eta Karniolan zehar hedatu zen. Nekazariak Lutero, Melanchthon, Bugenhagen eta Frederiko Hautesleari eskatu zieten beren eta jaunen arteko bitartekaritza lana egiteko, baina Lutero modu anbiguoan erantzun zien. Alde batetik, printzei esaten zien luxuzko bizitza bat eraman beharrak herriari lapurtzera eramaten zituela; bestetik, nekazariari esaten zien zuzen jokatzeko, kristau baten moduan. Nekazarien matxinada Lutero hasi zuela esaten zutenen aurrean, hark esaten zuen nagusien aginduei obeditzea predikatu zuela beti (García-Villoslada, 1973).

Matxinada hori eragin zuten motibo nagusiak ez ziren erlijiosoak, baina bereizgarri erlijiosoak ere izan zituen; jendea printze katolikoek eta agintari erlijiosoek kontra jarri zen (García-Villoslada, 1973). Nekazariak elkarte kristaua osatu zuten eta *Nekazari guztien artikulua nagusietan* zehaztu zituzten eskaerak. Hona hemen nekazarien elkartearen 12 artikulua:

Kristau komunitate bakoitzak bere artzaina aukeratzeko eta izendatzeko, eta hura kargutik kentzeko boterea eduki behar du.

Komunitateak aukeratutako artzaina mantentzeko aleen hamarrena ordainduko da eta sobratutakoa behartsuei emango zaie; baina ez dugu ganaduaren hamarrenik ordainduko, Idatzi Santuen kontra doalako.

Ez gara inoren jabetza pribatu. Orain arte goi klase mailen mirabe izan gara, eta hori tamalgarria da, Kristok denok askatu eta berrerosi gintuelako; hautatutako agintariei obeditzeko prest gaude, kristautasunari dagozkion gauza guztietan, baina ez mirabetzan.

Orain arte debekatua zuten behartsuek ehizean aritzea eta ibaietan arrantzatzea, eta hori ez da duina; aurrerantzean denek beren lurretan arrantzatzeke eta ehizatzeke eskubidea izatea nahi dugu. Nagusiek ezin dituzte aske utzi nekazarien uztak kaltetzen dituzten harrapariak.

Nobleek ordaindu gabe bereganatu dituzten baso guztiak guztionak bihurtuko dira berriro ere eta zilegi izango da egurra ebakitzea eta eraikuntzarako zura ateratzea, beharren arabera. Zurgintzarako egurra behar duen batek ordaindu gabe hartu ahal izango du, komunitateak izendatu duen pertsona bati jakinarazi ondoren.

Zerbitzu pertsonalak murriztu behar dira, zapalduak egon ez gaitezten.

Ez dugu onartuko gure jaunek zapal gaitzaten; zuzenbidekoa dena bakarrik exijitu ahal izango digute. Ordaindu gabeko zerbitzuetara ezin gaituzte behartu. Nekazariak beharrezkoa denean lagunduko dio Jaunari.

Maizterrak larriki zapalduak daude, lurrak ematen duena baino gehiago ordaindu behar dutelako errentan; horrela lur jota gelditzen dira. Pertsona ohoretsuek finkatu behar dute justiziaz ordaindu behar dena. Nekazariak ez dute ezerezaren truke lan egitera behartuak egon behar.

Tribunalek zuzenbide tradizionalaren arabera inpartzialki epaitu behar gaituzte.

Lehen komunitatearenak ziren zelai eta soroak eta legez erosiak izan ez direnak komunitatearen eskuetara itzuli behar dute. Lurrak zuzenbidearen arabera eskuratu direnean, anaiarteko adostasun batera heldu behar dute.

Erabat kendu behar da “heriotzaren kasuan” izeneko zerga, zerga horren izenean oinordekoak (alargun eta umezurtzak) espoliatzen baitira, Jainkoaren eta giza justiziaren kontra.

Artikulu hauetakoren bat Jainkoaren hitzaren kontra balego, ezabatu egingo dugu.

Nekazarien artikuluak azkar zabaldu ziren, baina Printzeei ez zitzaizkien onargarriak iruditu eskariak eta nekazariak matxinatzen hasi ziren. Artikulu horiek Luteroren eskuetara heldu zirenean, 1525ean, *Bakerako exhortazioa. Suabiako nekazalgoaren hamabi artikuluak direla eta* idatzi zuen hark eta 1525eko apirilaren 19an argitaratu zuen. Liburuak ez zuen harrera oso ona izan. Nekazariak saldu izana egotzi zioten Luterori. Luterok printze eta jauntxoei aholkatzen zien nekazariekin negoziatzeko, haien eskariak arrazoizkoak zirelako; esaten zuen printze eta jauntxoek nekazariak ustiatu eta zergak kobratu besterik ez zutela egiten. Baina nekazariei esaten zien bortxa erabiltzeko eskubiderik ez zutela, agintariak txarrak izateak ez zuelako justifikatzen haien kontra jartzea; ez zutela inolaz ere agintari mundutarren aurka matxinatu behar; zuzengabekeriaren kontra matxinatzea ez zelako zilegi kristauen ikuspegitik; ezpata hartzen zuena ezpataz hilko zela. Esaten zuen nekazariak autoritatea errespetatu egin behar zutela, baita autoritatea zuzengabea zenean ere. Luterok nekazariei egiten zitzaian “lapurreta txikia” salatzen zuen, baina esaten zuen jaunei lapurreta handiagoa egiten zitzaizela: autoritatea, jabetzak eta nekazarien gain zituzten eskubideak lapurtzen zitzaizkiela. (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Mansfeld-go kondeek Luteroren laguntza eskatu zuten eta 1525eko apirilean eta maiatzean Stolberg, Nordhausen eta Wallhausen-en predikatzen jardun zen Lutero. Lutero esaten zuen printzeen losintxari eta lausengatzailatzat hartu zutela Magdeburgoko predikariek, baina hobe zela nekazari guztiak hiltzea printzeak eta magistratuak hiltzea baino; nekazariak Jainkoaren autoritaterik gabe hartzen zutela ezpata eta beren gaizakeriaz Jainkoaren erreinua suntsitzen zutela; printzeek, berriz, Jainkoarengandik zutela beren boterea eta hartaz abusatzen bazuten ere, Jainkoaren erreinua existitu zitekeela. Horregatik, nekazarietako errukirik eta tolerantziarik ez litzatekeela behar (Roper, 2010).

Luteroren iritziz, bidegabekeria jasan behar izatekotan, hobe zen autoritatearen bidegabekeria jasatea, autoritateak mendekoaren zuzengabekeria jasatea baino. Luteroren iritziz, mundu honetako erreinuak ezin zuten iraun pertsonen artean desberdintasunik ez baldin bazegoen; batzuk askeak eta besteak presoak, batzuk jaunak eta besteak mendekoak izan behar zuten. Printzeak eta jaunek bidegabeki jokatzeko bazuten ere, bidegabekeria bati ezin zitzaion beste bidegabekeria batez erantzun; bidegabea zen Jainkoak ezarritako ordena desegitea. Kristauek bidegabekeriak jasan eta eraman egin behar zutela esaten zuen. Lutero zion nekazarien matxinadaren errudun Karlstadt eta Müntzer zirela. Lutero inoiz ez zuen egin ezpataren aldeko aukerarik, horrek autoritatearen kontra joatea esan nahi bazuen (Korintoarrak I, 6,5 eta jarraian; Erromatarrak 13,1; Roper, 2010).

1525eko uda hasieran Alemanian ehunka mila nekazari altxatu ziren jauntxoaren kontra. Nekazarien mugimenduarekin bat egin zuten Suabiak, Frankoniak, Renaniak, Alsaziak, Westfaliako Munster eta Osnabrück-ek, Turingiako Erfurt eta Mühlhausen-ek. Erfurt-en hamar mila nekazari armatuk agustindarren eta karmeldarren komentuek hartu, elizetako erretaula eta aldareak apurtu eta urrezko eta zilarrezko kalizak eraman zituzten. Frankonian eta Turingian ehunka monasterio eta gazteluei eraso zieten. Sei-zortzi mila soldaduk, lehenik, nobleak eta apaizak erail zituzten Weinsberg-en eta, gero, Heilbron-go eliza eta komentuek arpilatu zituzten. Enperadorearen gudarosteak Italian zebiltzan eta printze nahiz jauntxoak zatiturik zeuden. Alde batetik, noble batzuk (Württembergeko Ulrico, Berlichingen-go Götze zalduna, Sickingen-en lagun izana) beren mesederako baliatu ziren nekazarien errebolta. Bestetik, nekazarien kontra gogor ekiteko erabakia hartu zuen Suabiako Ligak (Babierako dukea, Hesseko Landgravea, Mainzeko Hauteslea, Enperadorea, hainbat hiritako gotzainak, kondeak, jauntxoak, Suabia eta Frankoniako hiri askeak). 1525eko martxoaren amaieran

Suabiako Ligako gudarosteak nekazarien gudaroste indartsu bat menderatu zuen. Bataila garrantzitsuak irabazi zituzten Essendorf-en, Wurzbach-en eta Württembergeko dukerrian. Waldburg-eko Jorgek eta Hesseko Felipe landgraveak ere nekazariak garaitu zituzten (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1525eko apirilaren amaieran zortzi mila nekazari bildu zituen Müntzer-ek. Lutero matxinadaren kontra predikatzen hasi zen, anarkia-mehatxua somatuta; gutun bat igorri zion Mansfeld-go kondearen kontseilariari (John Rühel) 1525eko maiatzaren 4an; esaten zion matxinoen kontra eta printzeen alde zegoela. 1525eko maiatzaren 5ean, nekazarien matxinadaren erdian, hil zen Frederiko Hauteslea. Lutero Rühel-i maiatzaren 23an idatzitako gutunean esaten zionez, Hautesleak Eukaristia sakramentua bi formatan hartu zuen eta azken igurtzirik ez zuen hartu. 1525eko maiatzaren 15ean gutun bat idatzi zion Lutero Saxoniako Jon Frederiko Magnanimoari, osaba Frederikoren heriotza zela eta. Egun berean beste gutun bat idatzi zion John Rühel-i, Müntzer-i buruz berriak bidaltzarren eskerrak emanez. Esaten zion ezpataz borrokatzen zena ezpataz hiltzen zela eta garrantzitsua zela horretaz nekazariak konturatzea, zeinen gaizki jokatu zuten ikus zezaten. Esaten zion Frederiko Hautesleak azken unera arte gorde zuela zentzua. Harri batzuk aurkitu zizkietela biriketean, eta beste batzuk beste nonbait. Ez zuela nekazarien altxamendurik ezagutu eta heriotza ona izan zuela.

Saxonia bitan zatitua zegoen: Ernestotarrak eta Albertotarrak. Luteroarren sostengu nagusia Ernestotarretatik zetorren. Arerio nagusia, berriz, George Duke albertotarra zuten. 1525eko urtarrilaren 21ean bere dotrina jazartzeari uzteko eskatu zion Lutero George Dukeari. George dukea Luteroaren teorien kontra bazegoen ere, haren suhia, Felipe (Hesse-ko Landgravea) luterotarren alde zegoen eta Torgau-ko Ligan sartu zen, Saxoniako Hauteslearekin eta beste estatuekin. Alemaniako printze protestanteen aliantza bat izan zen Torgau-ko Liga. Hesse-ko Felipek nekazariekin negoziatu zuen eta adostasunera heldu ziren. Aliantza hori Worms-eko Ediktuaren kontra eratu zuten (Smith, 1911).

1525eko maiatzaren 15ean borrokaldi garrantzitsua gertatu zen Tomas Müntzer eta printze talde baten (Hesse-ko Felipe, Saxoniako Jorge, Braunschweig-eko Henrike eta Mansfeld-go Alberto) artean. Printzeen gudarosteek Müntzerren soldaduak garaitu zituzten. Ligako gudarosteak jaurtigaien eta zaldunen bidez eraso zioten Tomas Müntzer-i eta gutxienez sei mila hildako gertatu ziren Frankenhausen-en; Müntzer-ek gudu-zelaitik ihes egin zuen, baina Frankenhausen harrapatu, atxilotu eta torturatu egin zuten; ondorioz, erretraktatu eta

sinesmen katolikora bildu zen. Hala ere, 1525eko maiatzean erail zituzten Müntzer eta haren predikaria zen Heinrich Pfeiffer. Rühel-ek gudatearen albisteak bidali zizkion Luterori eta Luteroengandik erantzun hau jaso zuen 1525eko maiatzaren 23an: oso pozik zegoela Thomas Müntzer menderatu zutelako eta berri gehiago bidaltzeko haren atxiloketaz eta portaeraz. Müntzer-en heriotzaren berri izan zuenean, idatzi labur bat argitaratu zuen Luterok: *Tomas Müntzer-en Historia Izugarria eta Jainkoaren judizioa*. Luterok zioen profeta hiltzaile haren ahotik deabruak hitz egiten zuela eta Jainkoak horregatik zigortu zuela. Mühlhausen-go hiritarrek berehala men egin zioten Ligari eta zin egin zuten kleroari eta nobleziari itzuliko zizkietela kendutako ondasunak. Bruchsal-go zazpi mila nekazari armatuak ere berehala errenditu ziren, Palatinadoko Hautesle zen Luis V.aren aurrean. Ligako tropek, Weinsberg eta inguruko hainbat herri erre zituzten. Königshohen-go batailan, hiru mila soldadu erail zituzten ekainaren hasieran (García-Villoslada, 1973; Erikson, 1958; Roper, 2010).

Merezia ote zuen Luterok printzeen lausengatzaile titulua, Frankenhausen-eko guduaren ostean eta nekazariak zapaldu ostean jarri ziotena? 1525eko uztailearen hasieran *Nekazariei buruzko liburutxo gogorrari buruzko gutuna* idatzi zuen Luterok. Bertan esaten zuen Jainkoaren erreinua graziaren eta errukiaren erreinua zela; errukiaz hitz egiten zuten testuak Jainkoaren erreinukoak zirela; munduko erreinuan ez zela errukirik behar; munduko erreinua haserrearen eta zorrotzasunaren erreinua zela, han zigorrak eta kondenak ematen baitziren, gaiztoak erreprimitu eta onak babesteko. Bi erreinu horiek ez ziren nahastu behar, Jainkoaren erreinuan haserrea sartu nahi ez bazen, edo munduko erreinuan errukia kokatu nahi ez bazen. Luterok esaten zuen garaituak izan ziren nekazariekin errukitsu izan behar zela, baina errukirik ez zela behar nekazari egoskorrekin. Nekazarien borroka garaile irten izan balitz, Alemania osoa desegino zela esaten zuen Luterok.

Nekazarien matxinada horietan ehunka gaztelu eta komentu desegin zituzten eta ehun mila nekazari baino gehiagok galdu zuen bizia. Luterok zion tamalgarria zela jende txiroarekin hain ankerra izan beharra, baina beste erremediorik ez zegoela; Jainkoak zioen moduan, ezpata hartzen duena ezpataz hiltzen dela; ez kezkatzeko haien erailketagatik, horrek arima asko salbatu zituelako. Luterok bere bizkar hartu zuen hondamendiaren erantzukizuna. 1525ean nekazarien matxinada itzali zen lurralde gehienetan, baina suaren aztarna batzuk geratu ziren Tirolen, Salzburgon eta beste hiriren batean. 1526ko uztaileko matxinada baretua zegoen (García-Villoslada, 1973).

Gerra amaitu ostean, jende behartsua menderatu ostean, presoen alde jarri zen eta haien bizitzaren defendatzaile bihurtu zen Lutero. 1525eko uztailaren 21ean Mainzeko Hautesle zen Albert Artzapezpikuari idatzi zion Luterok; esaten zion bazekiela, Eislebengo hiritar baten semea atxilotu zuela; hiritar horrek esan ziola semeak ez zuela parte hartu matxinadan; esan ziola haren bizitzarengatik erregutzeko. Jende txiro hori errukiz tratatzeko, moderazioz eta kristau moduan jokatzeko eskatzen zion Luterok Artzapezpikuari.

Nekazarien gerraren ondorioz, protestantismoak eta haren liderrek eraso bortitza jaso zuten. Printze protestanteak matxinoak kanporatzearekin konformatzen ziren, baina katolikoek protestanteen erlijioari eraso nahi zioten, matxinadaren aitzakiarekin; horrela, artzain protestante ugari urkatu zituzten. Nekazariak Luteroz mesfidatzen ziren eta haien artean indarra galdu zuen protestantismoak; protestantismoa hirietan babestu zen (Smith, 1911).

1525eko uztailaren 19an Saxoniako Jorgek eta beste printze katoliko batzuek (Brandenburgoko Jokin I.a, Brandenburgoko Alberto, Braunschweig-Wolfenbüttel-go dukea) Dessau-ko Liga antolatu zuten, Ratisbonako Ligaren antzera. Dessauko liga edo aliantza agintari katolikoek elkarrekin izan zen, Luteroen teorien hedapena indargabetzeko sortu zena. Karlos Enperadoreak kontra zeuzkan Aita Santua, Venezia, Milan eta Frantzia eta ezin zen Luteroen kontrako borrokan hasi (García-Villoslada, 1973).

Nekazarien matxinadaren garaian Lutero printzeen eta agintarien alde hartu zuen jarreraren adierazle da *Nekazarien horda hiltzaile eta lapurren kontra* izeneko idazlana, 1525ean, nekazarien borroka amaitu zenean idatzia. Lutero hizkera bortitza zerabilen liburu horretan eta bazirudien nekazariak desagertzearen alde zegoela (Elton, 1964). Esaten zuen nekazari guztiak erail behar zirela, Jainkoak bereak ezagutuko zituela eta; printzeak errazago sartzen zirela zeruan nekazariak erailez, otoitzaren bidez baino; matxinada itzaltzen laguntzen zuenarentzat zeruan saria izango zela; gerra ezbehar txiki bat zela, ezbehar handiago bat ekiditeko erabiltzen zena; ez zela tolerantziaren, errukiaren edo pazientziaren garaia, haserrearen eta ezpataren garaia baizik; onak babesteko eta bakea mantentzeko jarri zuela ezpata Jainkoak; bortxa erabiltzen zuten nekazariak deabruaren lana egin zutela; nekazariak zapaldu egin behar zirela eta lepoa moztu behar zitzaizela; nekazari matxinatu bat hiltzea ez zela erailketa; nekazariak zigortzen ez zituzten printzeek bekatu egiten zutela; infernua deabrurik

ez zela gelditzen, denak nekazarien barruan sartu zirelako; nekazarien kontra esandakoak Jainkoak inspiratu zizkiola.

Luterok esaten zuen nekazariak heriotza merezi zutela, hiru arrazoiengatik: 1) Leialtasun zina apurtzegatik: autoritateari leialtasuna eta esanekotasuna gordeko ziotela zin egin zuten, baina esanekotasuna hautsi egin zuten jaunen kontra matxinatu zirenean; 2) Matxinada eta arpilatzeengatik: berenak ez diren komentu eta gazteluei eraso zieten; 3) Beren bekatu izugarriak ebanjelioaren izenean estali zituztelako: bekatu horiek ezkutatu eta kristautzat hartu zituzten beren buruak. Luterok jaunei esaten zien gudan hiltzen baziren amaiera bedeinkatua izango zutela, Jainkoaren hitza obedituz hilko zirelako. Luterok esaten zuen Jainkoari otoitz egiten ziola nekazariak argitu zitzaizkien eta haien bihotzak konberti zitzaizkien, baina konbertitzen ez baziren, ez ziela zoriontasunik opa (Roper, 2010; Erromatarrei 13, 1 eta ondorengoak).

Luterok esaten zuen askatasun espirituala ados zegoela mirabetzarekin eta mirabetza ados zegoela Eskriturekin; nekazariak defenda zitzaketen eskubide bakarrak espiritualak zirela. Kristauen gobernu espirituala zela, baina kristauak gorputza ere bazuela eta autoritate sekularren mendean zegoela. Ezpataren ofizioa Jainkozkoa zela: autoritate sekularrak borrokara deitzean, haren esanera egon behar zuela kristauak (Erikson, 1958; García Villoslada, 1973).

1525eko irailaren 26an gutun bat idatzi zien Luterok Nurenberg-eko inprimatzaileei ohar bat eginez. Galdetzen zien lapur bihurtu al ziren. Lanak ongi prestatu baino lehen argitaratzea salatzen zien. Zati batzuk kanpora uzten zituztela, besteak tokiz aldatzen zituztela, besteak faltsutu egiten zituztela eta beste batzuk zuzendu gabe uzten zituztela. Esaten zien bilaukeria hutsa zela hori. Beste hiri batzuetan, hala nola, Strasburgon, horrelakorik ez zutela egiten. Zekenkeriak eta enbidiak Jainkoaren hitza hedatzea atzeratzen zuela eta errua haiena zela.

1525eko azaroaren 11n gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori, esanez ezingo zela haren ezkontza ospakizunera joan, bere bizitza arriskuan ikusten zuelako, Freiberg-eko komentuko monjen erreskateak Herzog Georgeren lurraldeko nobleak asalatu eta amorratu zituztelako eta noble gazte batzuk Lutero erailtzeko prest zeudelako, haien arrebei komentutik ihes egiten lagundu izanagatik.

Lutero eta Erasmo

Lutero ezagun bihurtu baino lehen, Rotterdam-go Erasmo oso ezaguna zen jadanik mendebaldeko kultur munduan. *Eromenaren laudorioa* (1511) liburuan Erdi Aroko elizaren kritika zorrotza egin zuen Erasmok. Testamentu Berriaren bertsio grekoa (1516) argitaratzean, bultzada handia eman zion Erasmok Bibliaren azterketari. Sineskeriei eta iluntasunean bizi beharrari aurre egin eta pentsamendu librearen aitzindari bihurtu zen Erasmo. Erasmo diplomatikoa eta bakezalea zen; ez zen iskanbilan eta neurri gogorren zalea. Aldiz, Lutero ez zen erdibidearen zalea; Erasmo baino borrokalariagoa zen eta eztabaida tirabiratsuetan errazago murgiltzen zen. Lutero bere ikasgaiak prestatzeko Erasmoren Testamentu Berria eta komentarioak erabiltzen zituen, baina polemika zalea zen eta muturretara eramaten zituen eztabaidak (Smith, 1911).

John Lang-i 1517ko martxoaren 1ean idatzitako gutunean Lutero esaten zion Erasmoren lanak irakurtzen ari zela, baina bere bihotza harengandik gero eta gehiago urruntzen ari zela. Esaten zuen miresten zituela Erasmok fraideen eta apaizen ezjakintasun alferrari egindako kritikak, baina gizakien auziak garrantzitsuagoak zirela harentzat Jainkoari zegozkionak baino. Erasmok idatzitakoa itsu-itsuan ez irakurtzeko esaten zion, akademiko hebertar edo greko on guztiak ez zirelako benetako kristauak. Esaten zion gauzak ezberdin ikusten zituztela gizakiaren borondate askean sinesten zuenak eta Jainkoaren grazian sinesten zuenak.

1519-20 inguruan nahiko hurbil aurkitzen ziren oraindik Lutero eta Erasmo. Lutero Erasmoren bedeinkapena nahi zuen eta Erasmok Luteroen bizitza laudatzen zuen. Luteroen lagun batzuk Erasmoren miresleak ziren: Melanchthon, Espalatino, Lang, Justo Jonas. Saxoniako printzearen liburutegirako Erasmoren liburu guztiak ekarri zituen Espalatinok. Lutero 1519ko martxoaren 28ko gutunaren bidez jarri zen Erasmorekin harremanean. Erasmoren idatziak laudatu zituen Lutero gutun horretan. Erasmok modu maitagarrian erantzun zion, baina jarrera neutrala hartu zuen; Lutero esan zion gizalegeak gehiago balio zuela suhartasunak baino; Aita Santuaren kontra baino gehiago, Aita Santuaren autoritatez abusatzen zutenen kontra oihu egin behar zela; modu harroxkoan ez zela hitz egin behar. Erasmori ez zitzaion istilurik gustatzen. Lutero, berriz, liskarra gustatzen zitzaion. 1520an Erasmo saiatu zen Lutero entzun ziezaioten; horrela, Frederiko Jakintsuari, Henrike VIII.ari, Mainzeko Albert-i, Aita

Santuari eta kardinalei idatzi zien esanez indarrrik ez erabiltzeko Luteroren kontra (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911).

Ez dago ziur Luterok eta Erasmok elkar pertsonalki ezagutu ote zuten. Eskolastika, monakotza, lege kanonikoak eta Aita Santuaren dekretuak kritikatzeko hasi zenean erakarri zuen Luterok Erasmoren arreta; Erasmok berak ere egina zuen elizaren hainbat praktikaren kritika. Erasmok *Axiomata Erasmi pro causa Martini Lutheri* (Martin Luteroren kausaren aldeko Erasmoren axiomak) idatzi zuen Luteroren alde, hura etsaiengandik babesteko. Lovainako teologoak Luteroren kontra jarri ziren. Aleandro, Erasmoren lagun izana, Aita Santuaren legatu moduan bidali zuten Herbehereetara eta 1520ko azaroan Kolonian elkartu zen Erasmorekin. Erasmok ukatu egin zuen bera Luteroren aitzindari zenik. Luteroren idatziekiko jarrera anbigua mantendu zuen beti Erasmok; ez zuen konprometitu nahi eta Basilean babestu zen. Lutero Erromaren aurrez aurre jartzen hasi zenean, Erasmo harengandik urrunduko egin zen. Erasmok hasieran sinpatiaz begiratzen zien Luteroren idatziak, baina honek Erromarekin zuen eztabaida gero eta garratzagoa zen eta Erasmori oso egoskorra eta erronka zalea iruditzen zitzaion Lutero (García-Villoslada, 1973).

Luterok ez zuen Erasmo etsaitzat nahi; laster ikusi zuen Erasmok ez zuela bere teologia onartuko; beraz, 1524ko apirilaren 15ean gutun bat idatzi zion Erasmori, Wittenberg-etik Basileara. Esaten zion denbora asko egin zuela hark idatzi zain; ulertzen zuela berarengandik urrun mantendu nahi izatea, bere kausa ez konplikatzearen; eskertzen zizkiola hark letren pizkundeari eta Bibliaren ikerketari egindako ekarpenak; Jainkoak ez ziola eman etsaien kontra borrokatzeko behar besteko adorerik eta fermutasunik; bere alde borrokatzeko adorerik ez bazuen, ez behintzat kontra egiteko; bere etsaiekin ez elkartzeko, bere (Luteroren) kontra ez idazteko eta behatzaile edo ikusle soil izatera mugatzeko. Hori guztia egiten bazuen, berak ere ez zuela ezer idatziko haren kontra.

1524ko maiatzaren 8an Erasmok Luterori erantzun zion esanez beren buruak ebanjelikotzat zituztenak beste defendatu zuela erlijioa; oraindik ezer ez zuela idatzi Luteroren kontra, nahiz eta hori egin zezakeen, munduko handien txaloak irabazi nahi izanez gero; esaten zion haren teoriak hondamena ekarriko ziotela kristau gizarteari.

Luteroren eta Erasmoren arteko loturaren haustura 1525 aldean gertatu zen. Biak ziren Eskrituren aldekoak, eskolastikaren kontrakoak, erreforma zaleak eta espiritualtasun zuzenago baten aldekoak; baina Erasmo eta haren kide humanistak laster konturatu ziren Luterok aginte

bat beste batez aldatu nahi zuela eta gizakia ez zela haren sistemako erdigune. Erasmo kristautasun irekiago eta gizatiarrago baten alde zegoen eta eliza garbitu nahi zuen. Luterok Erasmoren eszeptizismoa kritikatu zuen. Gainera, Luterori iruditzen zitzaion Erasmok leunki kritikatzeko zituela eliza eta haren autoritatea; aingira baten antzekoa zela: tolesturak zituen eta iheskorra.

Erasmoren etsai ziren teologo batzuek agintariei sinestarazi zieten Erasmo Luteroren adiskidea zela; baina, Erasmo ez zegoen ados Luteroren ideiekin; Erasmok gizakiaren ideia baikorra zuen eta Luterok humanismoaren kontrako jarrera ezkorra aldarrikatzen zuen. Bien arteko aldeak ezagutarazteko, *De libero arbitrio* argitaratu zuen Erasmok 1524an. Liburu horretan Luteroren graziaren eta justifikazioaren teoriari erasotzen zion eta esaten zuen gizakiaren borondateak zerbait egin zezakeela gizakia salbatzeko; gizakia gai zela salbatuko zuten ekintzak egiteko; gizakiak onar edo bazter zezakeela salbamenerako Jainkoak eskaintzen zion grazia; ekintza onak egiteko grazia beharrezkoa zela, baina horrek ez zuela ezabatzen borondate askea; Eskrituretan esaten zenez, santuek obra onetan oinarritzen zutela justizia; meriturik ez balitz Eskrituretan ez zatekeela sariaz hitz egingo; Jainkoaren aginduei obeditzea laudatzen zela eta ez obeditzea gaitzesten; epailariaren tribunalaren aurrera kontuak eman behar izatekotan, dena ezin zela izan ezinbestekoa (halabeharrezkoa) eta borondate askarik gabea. Erasmorentzat ez zegoen etikarik eta giza moralitaterik ongia eta gaizkia aukeratzeko askatasunik gabe (García-Villoslada, 1973).

1524ko azaroaren 1ean Luterok zioen higuina sortzen ziola Erasmoren *De libero arbitrio* irakurtzeak, baina erantzuna eman aurretik bazituela beste lanak ere: nekazarien gerra, Deuteronomioaz idaztea, Carlstadt-i erantzutea. 1525eko apirilean hasi zen Erasmoren kontrako liburua idazten; irailaren 27an, Katalinarekin ezkondu ostean, bete betean lan horretan murgildu zen. 1525eko abenduan argitaratu zuen *De servo arbitrio* (*Borondate mirabeaz*). Liburu horretan Luterok Erasmoren esaten zion, baieztapen kategorikoak egitea erlijioaren izaerari zegokiola; baieztapen horiek gustatzen ez bazitzaizkion, erlijioari uko egiten ari zela eta eszeptiko bat zela. Berak, Luterok, ziurtasun osoa maite zuela; Espiritu Santuari ere ez zitzaizola eszeptizismoa gustatzen; baieztapen zurrak zituela gogoko; gertatzen zen guztia ezinbestez gertatzen zela, Jainkoaren borondatea eraginkorra zelako. Erasmok galdetzen zuenean nork zuzenduko zuen bere bizitza borondate askarik ez bazegoen, Luterok erantzuten zion ez zegoela borondate askea zuen gizonik; Espiritu Santuak aukeratzen zituela zuzenduko

(justifikatu edo salbatuko) zirenak; besteak zuzenketarik gabe galduko zirela; Jainkoaren ekintzarik gabe ez genuela ezer egiten geure burua salbatzeko. Giza borondatea zaldiaren modukoa zela: zaldiaren gainean Jainkoa jarriz gero, hark nahi zuen lekura joango zela; gainean Satan jartzen bazen, hark gidatuko zuela. Ez zegoela gizakiaren borondatearen esku zaldun batengana edo bestearengana joatea, baizik zaldunak zirela zaldia hautatzen zutenak; Jainkoa eta Satan borrokatzen zirela gizakiaz jabetzeko. Gizakiak galdu egin zuela borondate askea eta ezin zuela ezer onik nahi izan; borondate askea Jainkoari bakarrik zegokiola. Jainkoak baldin bazekien Judasek saldu egingo zuela, Judasen traizioa ezinbestekoa izan zela eta ez zegoela bere esku modu batera edo bestera jokatzeari; Jainkoaren borondatea zela gertatzen zen guztiaren kausa nagusia. Luterok zioen Eskritura guztiak bere alde zeuzkala (Luther, 1957; García-Villoslada, 1973).

Luterok 1518ko urtarrilaren 18ko gutunean Espalatinori esaten zion nahiago zuela Eskriturak Agustinen ikuspegitik interpretatzea, Jeronimoren ikuspegitik baino; Erasmok nahiago zuela Jeronimo Agustin baino, baina hala ere, ez ziola Erasmori publikoki erasotzen. Erasmok 1526ko apirilaren 11n Basilean idatzitako gutunean Luterori esaten zion beste inori baino gogorrago eraso ziola berari, ateo, epikurotarra eta eszeptikoa zela esanez.

Bi zatiko liburu batekin erantzun zion Erasmok Luterori; Basilean argitaratu zuen 1526an: *Hyperaspistes Diatribae adversus servum arbitrium Martini Lutheri*. Luteroren akusazio faltsuen kontra eta haren paradoxen kontra jotzen zuen Erasmok. Erasmok zioen Luterok beti muturreko jarrerak hartzen zituela: harentzat erabateko zuzena eta erabateko okerra besterik ez zeudela; ñabardurak bost axola zitzaizkiola; modu neurrigabea hitz egiten zuela. Luteroren harrokeriak eta izaera matxinoak mundua armetan jarri zuela, baina berak modu baketsuan erreformatu nahi zuela eliza. Bera ados zegoela Erreformaren printzipioekin, baina munduko bakea hautsi gabe egin behar zela Erreforma. Luterok ez zion erantzun. Ez zegoen humanisten baikortasuna eta luterotarren ezkortasuna elkartzeko modurik (Smith, 1911; García Villoslada, 1973).

1525 urterako lan garrantzitsuenetakoak jadanik argitaratuak zituen Luterok. Geroztik gutxiago idazten zuen, eta idatzi zituenak ez ziren hain onartuak izan. Mugimendu herrikoizateari utzi zion Erreformak eta printzeek gidatutako eliza bihurtu zen. Gainera, Katalinak eta biek hainbat seme-alabak eduki zituzten, eta horrek idazteko denbora kendu zion Luterori.

Luterok berak esaten zuen Erasmok ez zuela berak zuen betekizunik eta nahi adina idatzi ahal izan zuela (Luther, 2004).

1525eko maiatzaren 20an Luterok laguntza eskatu zion Saxoniako Juan Frederikori, Wittenberg-eko unibertsitatea berrantolatzeke; haren laguntzaz eta Espalatino leialtasunaz, irakasleen soldata handitu zen, curriculumak aldatu zen eta hebreera irakasteko irakasle bat hartu zen. Biblia egoki irakurri ahal izateko, beharrezkoa zen latina eta grekoarekin batera hebreera ere ikastea.

Eskolak eraberritu eta liburutegi publikoak jarri zituen Luterok. Erasmoren humanismoa antzinate klasikoa berreskuratzen saiatu zen eta tradizio didaktiko eskolastikoak hankaz gora jarri zituen; baina, Lutero ezin zen ados etorri erlijioa etikara mugatzen zuen humanismoarekin; gizakiak ezin zezakeen bizitza bertutetsu bat eraman bere borondatez; gizakiak bekatuzko izaera zuen eta horrek autoritate zibilaren esanaren pean egotera behartzen zuen; obeditu egin behar zitzaion Jainkoak lurrean zuen aginte tenporalari; autoritate zibilei obeditu egin behar zitzaion (García-Villoslada, 1973).

Alemanian humanistak nagusitu ziren unibertsitateetan, hirien administrazioan eta printzeen aholkulari moduan. Humanismo italiarrek ere eraso zieten elizari, Aita Santuari eta teologia eskolastikoari. Elizaren zimenduak aldatu zituzten humanistek, Biblia eta Guraso Santuak aztertuz. Lutero, Erreformaren hasieran, eskolastikaren eta elizako egituren etsai izan zen, humanistak bezala. Erasmo soilki kanpokoak ziren praktiken etsai zen; gizakiak Kristo imitatuz bizitzea zen Erasmorentzat erlijioaren helburua. Baina, Erasmo eta Europa Iparraldeko humanistak ez ziren ortodoxiatik gehiegi aldendu. Aldiz, Luterok elizarekiko eta humanismoarekiko loturak hautsi zituen. Baina, neurri batean, humanismoari esker, Erreformak ihes egin zion Luterok gizakiarekiko zuen mespretxuari; 1525ean Estatua nagusitu zitzaion Eliza berriari (Elton, 1964).

Ezkontza ondorengo bizitza

Lutero eta Catalina

Lutero 1520rako hasia zen apaizek ezkondu behar zutela esaten, baina ez zuen pentsatzen fraideek ere beste horrenbeste egin zezaketenik, kastitatera behartzen zituen boto aske baten mendeko baitziren. Lutero Wartburgoko gazteluan egon zenean, haren adiskide zenbait (Carlstadt, Melanchthon, Bugenhagen, Link, Lang eta Jonas) ezkonduak zeuden, baina Lutero Erreformatan zentratua zegoen. Staupitz-ek lotura afektibo handia izan zuen Luterorekin; hura zen Martinen aita espirituala. Staupitz hil zenean (1524), Lutero bere desira sexualari irtenbide bat aurkitzen saiatu zen; aske zegoen ezkondu eta aita izateko. 1525eko martxoaren 27an gutun hau idatzi zion Luterok Reissenbusch-i; esaten zion gizakiak ezkontzeko eginak daudela eta bakarrik egotea ez dela ona gizakiarentzat. Luterok ezkontzaren bidez pertsona erlijioso eta laikoen arteko, profanoa denaren eta sakratua denaren arteko bereizketa gainditu nahi zuen. Esaten zuen emakumeak haurrak izateko jaioak zirela eta ez zutela saiatu behar haiek birjina bihurtzen eta Jainkoak egin zuena zuzentzen. Luteroren iritziz, Jainkoak ez zuen behartzen gizakia txirotasunera, obediencia eta kastitatera; Jainkoak ez zuen nahi zelibatua derrigorrezkoa izatea, baizik norberaren aukerakoa izatea (Smith, 1911).

Frederiko Hauteslea ama gabe geratu zen jaio eta berehala. George Espalatino izan zuen hezitzaile. Espalatino Luteroren laguna izan zen, Erreformataren hasiera hasieratik. 1524ko azaroaren 30ean gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori gordea ez uzteko esanez. Esaten zion beste edonork asko ikasi beharko zuela hark egiten zuen lana egiteko eta denbora asko beharko zela printzeak harengan zuen konfiantza beste norbaitengan jartzerako. Ez uzteko gordea, ezkontzeko asmorik ez bazuen. Luterok berak ez zuela ezkontzeko asmorik, haragiaren tentaldiak sentitzen bazituen ere, egurrezkoa edo harrizkoa ez zelako. Espirako bigarren dietan aita ordezkatu zuen Frederikok. Aitari lagundu zion Augsburgoko 1530eko Dietara eta Augsburgoko Konfesioa sinatu zuen. Esmalkaldako Ligaren alde eta Klemente VII.ak eta Paulo III.ak deitu nahi zuten Kontzilio Orokorraren kontra agertu zen. Luterori Esmalkadako Artikuluak idatzarazi zizkion eta 1537ko Esmalkadako Dietan kontzilioa baztertu zen.

Wartburgon egon zenetik zelibatuko botoa alferrikakoa iruditzen zitzaion Luterori, baina hala ere Klaustro Beltzean (agustindarren komentuan) bizi izan zen, ia fraide denak irten eta gero. Luterok bere aitari bisita egin zion 1525eko apirilean eta hark esan zion ezkondua ikusi nahi

zuela. Orduan Luterok Katalinarekin ezkontzea erabaki zuen eta Amsdorf-i esan zion ez zela amodiozko pasioak eramanda ezkondu, baizik bere aitaren desira asebetetzeko, ezkontzeko eta ondorengoak izateko esaten baitzion hark. 1538an Luterok esan zuen, 1524an ezkondu nahi izan balu, Basilius Axt-en emazte zen Ave von Schönfeld-ekin ezkonduko zatekeela, baina ez zen harekin ezkondu, Katalinarekin baizik. Katalina emakume erakargarria eta suharra zen; bazekien bere hizkuntzan irakurtzen eta idazten, eta latin pixka bat ere bai. Nekazaritza pixka bat ere ikasi zuen komentuan. Luterok 1525eko maiatzean gutun bat idatzi zion Rühel-i ezkontzeko asmoa zuela esanez. 1525eko ekainaren 16an Espalatinori idatzitako gutunean esaten zion bere ezkontzan hura presente egotea nahi zuela.

1525eko ekainaren 13an ezkondu ziren Martin eta Katalina Monasterio Beltzean, lagun intimo batzuen aurrean: Amsdorf, Lucas Cranach, Bugenhagen, Apel. 1525eko ekainaren 16an gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori ezkontzera zihoala eta asteazken eguerdian oturuntza handia izango zela adieraziz. Garai hartan ohitura zen Saxonian eztaien aurretik ezkontza eginbideak betetzea; betetzen ez bazituzten, ezkontza ezaba baitzezaketen. 1525eko ekainaren 17an gutun bat idatzi zion Luterok Leonhardt Koppe Torgaukoari. Koppek klaustro batetik askatu zituen bederatzi monja horien artean zegoen Katalina von Bora, Luteroren emaztea. Luterok esaten zion hark komentutik kanpora atera zuen monjetako bat bi urte beranduago berriro klaustrora sartzera zihoala, Lutero doktorearen emazte bihurtuta.

Ezkontzaren zeremonia publikoa 1525eko ekainaren 27an ospatu zen, hainbat jenderen aurrean: Luteroren gurasoak, Bugenhagen, Melanchthon, Cranach, Amsdorf, Altenburg-eko Link, Leonardo Koppe Torgau-koa, Mansfeld eta Wittenberg-eko lagunak. Luteroren ezkontza ez zen Melanchthon-en gogokoa izan (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Elkarrekin ezkontzean, Luterok 41 urte zituen eta Katalinak hamabost urte gutxiago. Bora-ko Katalina 1499ko urtarrilaren 29an jaio zen Saxonian. Amaren aldetik umezurtza zen. 16 urterekin Nimbschen-go monasterio zistertarrean sartu zen. Luterok fraide eta monjen botoekiko zuen jarrera ezaguna zen eta monja batzuek komentutik ihes egiteko gogoia agertu zioten. 1523ko apirilaren 5ean hamabi monjek ihes egin zuten beren komentutik eta Wittenberg-era joan ziren. Luterok ostatu eman zien horietako batzuei Monasterio Beltzean eta besteei, lagunak etxeetan. Monja batzuei senarra bilatzen ere saiatu zen Lutero. Bora-ko Katalina Nurenberg-eko merkatari aberats baten semeaz (Hieronimus Baumgärtner-ez) maitemindu zen, baina mutilarentzat beste emaztegai bat zuen pentsatua familiak. Ondoren,

Orlamundeko erretore zen Gaspar Glatz-ek nahi izan zuen Katalinarekin ezkondu, baina Katalina ez zegoen horretarako prest; esan zuen prest zegoela Luterorekin edo Amsdorf-ekin ezkontzeko, emaztetzat hartu nahi bazuten. Azkenean Luterorekin ezkondu zen. 1524ko urriaren 12an gutun bat idatzi zion Luterok Hieronimus Baumgartner patrizio gazteari, Nurenberg-en norbaitentzat egoitza bilatzen laguntzeko; bidenabar, galdetu zion Katalina Borarekin ezkontzeko asmoz jarraitzen zuen; ezkontzekotan, lehenbailehen ezkontzeko, Orlamundeko erretore zen C. Glatz artzaina Katalinarekin ezkontzeko prest zegoelako. Esaten zion oraindik ez zela itzali Katalinak harekiko sentitzen zuen amodioa (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

20 urte bizi izan ziren elkarrekin Lutero eta Katalina (Katie, Ketha edo Kette). Ez dirudi bien artean maitasun sutsurik zegoenik, baina Luterok asko estimatzen zuen Katalina. Katiek izugarritzko energia zuen eta "Goizeko izarra" deitzen zion Luterok; gaixoaldietan ondo zaindu zuen senarra; Luterok zioen Katalina ez zukeela aldatuko Frantziagatik edo Veneziagatik; bere negozioen kargu uzteko moduko emaztea eta haurrentzat emakume ona zela. Oro har, osasun ona izan zuen Kethak, baina 1539-40ko neguan gaixotasun larria izan zuen, abortu baten ondorioz. Kritika asko jaso zituen Luterok, nekazari eta jauntxoaren arteko borroka baretu aurretik ezkondu zelako. Sexualitateari buruz ez zuen inhibiziorik agertzen; pentsatzen zuen gizakiok bekatariak garela eta lizunkeria ere giza naturaren zati dela. Luterok bazekien kastitatea ezin zela lortu, egin ahalak eginda ere. Luterok ez zuen lizunkeria garbitu beharreko zerbaiten moduan ikusten; perfekzioaren ideia gainditu nahi zuen, borondate askerik ez baitzuen gizakiak; Luterok ez zituen ekintza onak baztertzen, baina esaten zuen ekintza horiek ez zutelako salbamena ziurtatzen. Salbamena Jainkoaren opari askea zen, gizakia ez baitzen aske nahi zuen moduan jokatzeko. Kristaua Jainkoaren maitasunak salbatuko zuen, ez bere ahalegin espiritualek (Abellán, 1990; Roper, 2010).

Lutero eta haren familia Wittenberg-eko agustindarren monasterioan bizi izan ziren, Saxoniako Printzearen oniritziarekin. Fraideek komentua utzia zuten. Lukas Cranach pintoreak egin zuen Katalinaren erretratua. Luterok Unibertsitatean zuen soldata ehun florinetakoa zen ezkondu aurretik; opariak ere jasotzen zituen Hauteslearengandik; monasterioko alokairua, berriz, doan zeukan. 1525ean soldata bikoiztu egin zioten, baina monasterioko hornidura kendu zioten eta probisioak erosi beharra zuen. 1532an soldata hirurehun florinetara igo zioten. 1536an, soldataz gain, egurra, aleak eta belar ondua jasotzen zituen. Bere lurretan barazkiak,

mahatsondoak, txerriak, ganadua eta hegaztiak lantzen zituen Luterok; baratzeko urmaeleko arraintxoak, oreina, hegaztiak eta txerria sarritan jaten zituzten; upategiko ardoa eta etxean egindako garagardoa edaten zituen. Unibertsitateko ikasle batzuk etxean hartzen zituzten, apopilo moduan; apopilo horietako batzuek Luteroren esanak jaso eta idazten zituzten eta mahai solasaldi moduan argitaratu zituzten gero. Bere idazlanak argitaratzeagatik ez zuen dirurik jasotzen, idazlanak merkeago izan zitezten. Eskuzabaltasunez lagundu zien lagunei, senitartekoei, ikasleei, apaizei. Klaustro Beltza 1532ko otsailaren 4an jarri zuten Luteroren izenean; Claus Bildenhauer eskultorearen lurrak eta etxe handia ere erosi zituen. 1540 inguruan Katalinaren anaiaren lurrak erosi zituzten, Ketharen jabetza kuttuna zirelako. 1541ean laurehun florinetako soldata zeukan Luterok. 1544an lupulu baratze bat erosi zuten (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911).

Luterok eta Katalinak sei seme-alaba izan zituzten: Juan (1926), Elisabeth (1927), Magdalena (1929), Martin (1931), Paulo (1933) eta Margarita (1934). Lehen semeak Juan zuen izena, haren aitajauna zen Juan Bugenhagenen eta aitonaren ohoretan. Juanek Zuzenbidea ikasi zuen, John Frederiko Hauteslearen aholkulari moduan egin zuen lan eta Gaspar Creutziger-en alabarekin ezkondu zen. Elisabeth izan zen bigarrena eta zortzi hilabeterekin hil zen. Magdalena zen hirugarrena eta hamahiru urterekin hil zen. Laugarrena 1531ko azaroaren 9an jaio zen eta Martin izena jarri zioten, San Martin egunaren ingurukoa zelako; Martinek teologia ikasi zuen, baina osasun ahulekoa zen eta ez zuen lanik egin; ezkondu zen, baina haurrik ez zuen izan. 1533ko urtarrilaren 28an Pablo jaio zen; aitak militar izan zedin nahi zuen, baina medikuntza ikasi zuen; Jenan irakasle katedra lortu zuen eta Saxoniako Juan Frederikoren sendagile izan zen; ondoren, Brandeburgoko Jokin II.aren sendagile izan zen eta hura hiltzean, Saxoniako Augusto I.aren eta haren seme Kristian I.aren sendagile izan zen; Ana Warbeck-ekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten (García-Villoslada, 1973). Margarita 1534ko abenduaren 17an jaio zen; hamaika urte zituen aita hil zenean; gizon noble aberats batekin ezkondu zen eta haurrak izan zituen. 1529tik aurrera, Luteroren arrebaren seme-alabak eta Katalinaren senitarteko bat eduki zituzten Monasterio Beltzean eta baratza landu zuten (Smith, 1911). Seme-alaben irakasle moduan hainbat irakasle eta teologo eduki zituen Luterok. Monasterio Beltzetik Luteroren lagunak eta miresleak ere pasatzen ziren; komentutik irtendako monja eta fraideak ere bai. Han egon ziren Johann Agricola eta haren familia; Simon Haferitz, Müntzer-en jarraitzailea, eta haren familia; Sebald Münsterer doktoarearen

umezurtzak; Bohemiako kondearen hamalau urteko semea; ikasleez at, otordu osteko solasaldien edo Tischreden-en egileak ere han bizi ziren. 1531tik 1546ra bitartean Luterok mahaiaren inguruan esandako gauzak bildu ziren solasaldi horietan. Hauek izan ziren Luteroren esanak jaso zituzten mahaikideak: 1) 1529-1535 urteen artean: Conrado Cordatus, Vito Dietrich, Juan Schlaginhaufen, Antonio Lauterbach, Jerónimo Welter eta Ludovico Rabe. 2) 1536-1539 urteen artean: Welter eta Lauterbach. 3) 1540-1546 urteen artean: Juan Mathesius, Gaspar Heydenreich, Jerónimo Besold, Juan Aurifaber, Jorge Rörer, Jorge Plato, Juan Stoltz, Fernando de Maugis (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luterok solasaldi horietan hainbat gaiez hitz egiten zuen: haurtzaroaz, gaztaroaz, komentuko bizitzaz, ezkontza-bizitzaz, teologiaz, filosofiaz, historiaz, politikaz, hezkuntzaz, unibertsitateez, deabruaz, landareez, animaliez, tentaldiez, gaixotasunez, bere bizitzako anekdotez, nazionalitate ezberdineko jendeaz, Aita Santuaz. Hainbat pertsonaren eta praktikaren kontra ere jardun zen: Erasmoren kontra; Mainzeko Albertoren kontra; Zwingli, Müntzer eta Karlstad-ek kontra; Eck-en eta Jorge dukearen kontra, mezaren sakrifizioaren kontra, sakramentarioen kontra. Katalinak ere bere iritziak ematen zituen, latinez ez bazen, alemanez. Solasaldi horiek ez ziren argitaratu Lutero bizi zen artean, baina hil ostean Aurifaber-ek solasaldien bilduma handi bat prestatu zuen, beste mahaikideen bildumetan eta bere oharretan oinarrituta. Lauterbach-ek jasotako 1538ko solasaldiak 1872an argitaratu ziren. Ernesto Kröker-ek ere egin zuen *Otordu osteko solasaldien* edizio kritikoa. Solasaldi horietan alemana eta latina nahasten ziren. Solasaldi horiek ezin daitezke erabili gertaeren erregistro edo kronika moduan, baina balio handikoak dira, iritziak ematen dituztelako, eguneroko bizitzaren berri ematen dutelako, Luteroren jarrera pertsonalaren berri ematen dutelako (García-Villoslada, 1973).

Politika praktikoa

Elizari buruzko ikuspegi espiritualista zuen Luterok hasieran. Kristorengan zuten fedeak elkartzen zituen kristauak eta Kristauen komunitate deitzen zuen eliza; Elizak ez zuen agintaririk eta antolamendu hierarkikorik: sinestun guztiak ziren apaiz eta Aita Santu, denak berdinak. 1522-23an Luterok debekatu egiten zien printzeei erlijio gaietan sartzea (García-Villoslada, 1973).

1525etik aurrera bere iritzi teologikoei egitura sozial eta politikoa ematen jardun zen Lutero. Garai horretan ugaritu egin ziren eliza antolatzeko Luterok egindako idatziak. Lutero aginte sekularrarekin lankidetzan jardun zen, eliza ebanjelikoari botere politikoaren babesa emateko. Alemaniako estatu eta hiriak Luteroren jarrerarekin bat egiten ari ziren neurrian, elizaren kanpoko zuzendaritza printzeen esku uztea pentsatu zuen Luterok. 1525eko irailaren 27an Printzearen laguntza eskatu zuen Luterok, unibertsitatea, parrokiak eta zeremoniak eraberritzeko. Alde batetik, irakasleen eta apaizen irabaziak gehitu behar zituen Printzeak. Beste aldetik, Luterok estatuari eskatu zion sistematikoki ikuska zitzala elizak; elizen bisitatzeari egituratu eta sistematizatu zezala. Ikuskatzaileek Printzearengandik hartuko zituzten botereak. 1525eko azaroaren 30ean idatzitako gutunean Luterok Printze Hautesleari esaten zion berak inoiz ez zuela esan Eliza sostengatzeko diru guztiak Printzearen altxorretik irten behar zuenik; lurraldeko eliza guztiak bisitatzeko agindu behar zuela Printzeak; eta predikari ebanjelikoak nahi zituzten herritan, nahiko diru ez bazegoen haiek ordaintzeko, hainbesteko bat hartu behar zutela urtero hiri-kontseilutik edo beste nonbaitetik; Printzearen eginkizuna zela haiek ordaintzen zituzten kontrolatzea. Horrek guztiak printzearentzat gastu gehiegi ekartzen zuenean, hiritarren artean eztabaidatu behar zutela nola ordaindu (García-Villoslada, 1973).

Jarrera teologikoetan erradikala bazen ere, liturgia kontuetan zuhurtziaz jokatu zuen Luterok. 1923. urtera bitartean aldaketa gutxi egin zituen. 1925ean hasi zen meza alemanez ematen, baina ez zuen baztertu latinez ematen zena. Komunioa era batera edo bi erataria ematen zen, hartzailearen borondatearen arabera. Ez zituen kendu aldarea, kandelak, jantzi sakratuak. Irudien tratamenduari buruz moderazioa eskatzen zen; ez zen irudirik hautsi behar Carlstadt-en garaian egiten zen moduan. Latinezko musika gregorianoaren ordean, alemanez abestutako kantak sartu zituen. Luterok 1526an argitaratu zuen *Meza alemaniarra*. Luteroren aldaketa garrantzitsua elizan latina erabili ordean herri-hizkuntza erabiltzea izan zen (Smith, 1911).

Luterok Kaiser-en martiritzari buruzko panfleto bat idatzi zuen 1528an. Eck-ek ez zuen lortu Lutero atxilotu eta erailtzea, baina Leonard Kaiser apaiz katolikoa atxilotu zuen. Kaiserrek dotrina luterotarra irakatsi zuen Bavarian; espetxean ahuldurik zegoela eztabaida bat izan zuen Johannes Eck-ekin eta gero, jendetza handiaren aurrean, apaizgoa eta apaiz jantziak kendu, bizarra moztu, eta mantal eta txapela batekin hiriko epailariaren aurrera eraman zuten; gazteluko ziegan hilabete batez eduki ondoren, bere jaioterrira eraman zuten eta bertan urkatu. 1527ko maiatzaren 20an gutun bat idatzi zion Luterok Leonhardt Kaiser-i; esaten zion tristeturik zegoela hura atxilotua zegoelako eta otoitz egiten zutela aska zezaten; Jainkoaren nahia bazen Kaiser libre ez egotea, gutxienez espirituz aske zela eta Kristo berarekin zegoela ziegan. Luterotar fedearen arabera hil zen Kaiser. 1527ko urriaren 2an gutun bat idatzi zion Luterok Michael Stiefel-i, esanez Leonhardt Kaiser-en historia eta idatziak jaso zituela eta laster inprimatuko zituela. Eskatzen zion Luterok bere alde errezatzeko sutuki, Kristok abandona ez zezan, Satanen aingeruen erasoek ia zoratu zutela eta. Miserablea zela bera, ez Leonhardt bezalakoa. Kristok eman ziezaiola Leonhardt-en jarraitzaile izateko zoria. Leonhardt deitzen zela, lehoin-bihotza (lion-heart) zuelako; lehoia bezain indartsua eta beldur gabea zelako.

1526tik 1528ra bitarteko Luteroren gutun batzuk

1526ko azaroaren 22an gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako John Houtesleari. Esaten zion aspaldidanik ez ziola ezer eskatu eta eskaerak pilatu egin zitzaizkiola. Apaizak toki guztietan kexu zirela, nekazariak ez zutelako ezer ematen eta jendea esker txarrekoa zelako Jainkoaren Hitzari buruz. Zalantza gabe, izurrite bat bidaliko zuela Jainkoak. Beharrezkoak zirela irakasle eta predikariak haur gaixoak hezteko. Haurrei eta gazteei irakasten ez bazitzairen, legerik gabeko gizakiak ugaltu egingo zirela eta Jainkoaren agindurik ez zela obedituko. Aita Santuaren arauak amaitu zirela eta klaustroak printzeen esku geratu zirela; obligazioak printzeenak zirela. Printzeak jarri behar zituela lau pertsona lurralde osoa bisitatzeko: bi, negozioetan adituak eta beste bi, irakatsi eta predikatzeko. Eskolak eta elizaren ondasunak mantendu behar zirela. Kostuak jendearentzat gehiegi baziren, klaustroaren ondasunak erabili behar zirela. Izan ere, jendea kexatu egingo zatekeen eskolak abandonatuko balira, nobleak klaustroen ondasunekin gelditzen diren bitartean. Luterok Printzeari esaten zion eskaera bat egiten

ziola, Carlstadt-en izenean: uzteko hari (Carlstadt-i) Kemberg-en bizitzen eta eskatzeko Kemberg-ko prebosteari hura (Carlstadt) zaintzeko.

1526ko otsailaren 9an Saxoniako John Hautesleari idatzi zion Luterok, Melanchthon-en soldata zela eta. Unibertsitatearen antolamenduan Printzeak 200 guldeneko soldata pentsatu zuen Melanchthon-entzat. Melanchthon-ek ez zuen horrenbesteko soldatarik nahi, Eskrituren azalpena egunero ematea ezin baitzuen bere bizkar hartu. Luterok printzeari eskatzen zion uzteko Melanchthon-i Eskriturak azaltzen, egunero azaldu ezin bazituen ere, arrakasta handia zutelako haren ikasgaiek; aldi berean teologiako klaseak ere emango zituela, lehen egiten zuen moduan.

1526ko otsailaren 18an gutun bat idatzi zion Luterok bere koinatu Johann Ruhel-i, esanez semea jaio zela eta Hans izena jarri ziotela.

1526ko azaroaren 1ean idatzi zion Luterok Hungariako eta Bohemiako erregina Mariari, Karlos V.aren arrebari, haren senarra turkoen kontrako borrokan abuztuan hil zela eta. Esaten zion lau salmo eskaintzen zizkiola. Turkoek Mariaren senarra zen Luis erregea erail zutela eta hain gazte alargun gelditu zela Maria. Esaten zion Hungarian Jainkoaren Hitz Santua mantentzeko eta Eskrituretan kontsolamendua aurkitzeko.

1527ko urtarrilaren 10ean gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion Hautesleak nahi zuela elizen bisita berehala hastea. Sakramentarioei erasotzen ari zela eta min ematen ziola Ekolanpadio zentzu gabeko ideia horietan erori izanak; Satanek bultzatzen zuela horretara. Enperadoreak arrakasta eduki zuela Italian; Aita Santuari alde guztietatik erasotzen ziotela eta birrindua izateko zorian zegoela.

1527ko maiatzaren 2an gutuna idatzi zion Luterok Elsie von Kanitz-i. Neska gazteei irakasteko nahi zuen kontratatu Elsie. Luteroren etxean biziko zela eta haren mahaian jango zuela esaten zion eta beste lanik ez zuela egin beharrik izango.

1527ko ekainaren 16an Printze Hautesleak instrukzio bat izenpetu zuen Torgau-n, elizen ikuskapenak egiteko modua zehaztuz. Luteroren eskaerei eta Unibertsitatearen gomendioei jarraituz, Saxoniako Juanek ikuskarien komisioko kideak aukeratu zituen: Felipe Melanchthon, Haubitz-ko Asmus, Jeronimo Schurf eta Planitz-ko Hans. Ikuskariak 1527ko uztailaren 5ean hasi ziren lanean: parrokien egoera aztertzen eta herriaren

egoera erlijiosoa aztertzen. Ebanjelio soila jarraitzen ez zuten apaizak, liturgia berria jarraitzen ez zutenak, beren tokitik kenduko zituzten (García-Villoslada, 1973).

1527ko uztailaren 13an Luterok gutun bat idatzi zion Nicolas Hausman-i, esanez elizak bisitatzen serioski hasi zirela. Melanchthon, Myconius eta Erfurt-ko Menius joan ziren Thuringiako elizak bisitatzera, hiru abokaturekin. Esaten zion Erroma suntsitua izan zela. Bertigo eraso gogor bat izan zuela eta ezin zuela idatzi edo irakurri.

1527ko abuztuaren 15ean gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori. Esaten zion izurritea etorri zela, jendea noraezean iheska zebilela eta Satan ez zuela behin ere ikusi hain arrakastatsu. Han hildakoak arrantzaleen auzoan ehortzi zituztela. Justo Jonasek semea galdu zuela eta joan egin zela. Pommer eta Lutero bakarrik gelditu ziren kapilauarekin.

1527ko abuztuaren 19an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausman-i. Esaten zion espero zuela izurritea amaitua egotea. Izurritea hiru aldiz izan zela bere etxean eta bere sinesmena ahultzen zuela. Seme gaztea zortzi egunez egon zela gaixorik eta likidoak edanez berreskuratu zuela osasuna. Hainbat hilabetez sinesmena galduta egon zela. Errezatzeko esaten zion, sinesmena gal ez zezan. Izurriteak eraman zuela kapilauaren emaztea eta Pommer-ek kontsolatzen zuela bera.

1527ko azaroaren 1ean gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Amsdorf-i. Esaten zion bere etxea ospitale bat zela. Hannak izurritea zuela, baina hobeto zegoela. Katalinagatik kezkatua zegoela. Hans semea hiru egunez gaixo egon zela eta ez zuela ezer jaten. George kaperauaren emaztea izurriteaz gaixo zegoela. Kontsolamendu bakarra Jainkoaren Hitza zutela. Jainkoaren Hitzaren bidez arimak salba zitezkeela, gorputzak iraungitzen baziren ere.

Justo Jonasi 1527ko azaroaren 10ean idatzitako gutunean Luterok esaten zion denek eraso ziotela: Aita Santuak, Enperadoreak, gotzainek, senideek eta deabruak. Jainkoak gauza handiak egin zituela beregatik eta berak ere sufrikario handiak izan zituela. Kristok behar zuela izan bere indarra eta sostengua. Hans semea hamabi egunetan likidoz bakarrik elikatu zela eta orain jolaserako ere ez zela gai.

1527ko azaroaren 17an Nicola Hausmann-i idatzitako gutunean Luterok esaten zion Kristok eman ziezaiola hark berari eman zion erosotasuna. Erreza zezala Jainkoak gaindi

zezan deabruaren eraso. Deabru soil bat ez, baizik deabruen printzea bera ari zela Luterori erasotzen. Deabruaren erasoan aurrean ez zela nahikoa Eskrituren ezagutza; beharrezkoa zitzaizkiola bera animatzeko lagunaren ahotik ateratzen ziren Eskriturako hitzak.

1527ko abenduaren 29an Luterok gutun bat idatzi zion Justo Jonasi. Hura etorri zain zegoen Luterok. Esaten zion harriria zegoela etorri ez zelako; izurritea iragan zela eta ihes egin zuen jendea etortzen ari zela. Ketha eta Elixabete ongi zeudela. Bere gorputzeko eta gogameneko osasuna hari mehe batetik zintzilik zegoela. Deabrua saiatzen zela lokarri sendoz bera hondoratzen, baina Kristok irabazi zuela Luteroren lagunaren otoitzei esker.

1528ko martxoaren 6an gutun bat idatzi zion Luterok Conrad Cordatus-i. Esaten zion bazekiela Austria utzi eta Silesian bizi zela. Han eroso ez bazegoen etortzeko zalantzarik gabe Württembergera, hiru hilabete bazirelako izurritea desagertu zela. Espero zuela irakurria izango zuela Luterok Anabaptistei buruz idatzitako tratatua.

1528ko abuztuaren 5ean gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i esanez bere seme Hans-en izenean eskerrak ematen zizkiola jostailuengatik. Turkoen gerrari buruz idatzi nahi zuela. Alaba Isabel hil zela eta oso atsekabeturik zegoela. Ez zukeela pentsatuko aita batek hain bihotz biguina izan zezakeenik.

1528ko irailaren 3an gutun bat idatzi zion Luterok John Hautesleari. Esaten zion Lochau-ko artzaina hil zela eta eskatzen ziola Michael Stiefel izendatzeko Lochau-ko artzain moduan; Eskriturak ongi ezagutzen zituela eta predikari ona zela. Stiefel-ek pentsatzen zuela Luterorentzat zama zela. Lochau-ko artzain bihurtuz gero, agian alargunaz eta haren bi semez ardura zitekeela, behar izanez gero harekin ezkonduz.

1528ko urriaren 25ean Johann Agricolari idatzi zion Luterok. Esaten zion Stiefel Lochau-ko gotzainaren alargunarekin ezkontarazi nahian ari zela. 1528ko azaroan gutun bat idatzi zion Luterok Michael Stiefel-i, esanez pozik zegoela hura emazte eta seme-alabekin ongi konpontzen zela ikusita. Luterok esaten zion ezin zela superintendentearen ezkontza joan, elizen bisitatzeak ematen zizkion lanengatik.

1528ko azaroaren 28an gutun bat idatzi zion Luterok Melancthon-i, hura elizak bisitatzen zebilela. Esaten zion berriro ere tentaldiak jasaten hasi zela eta beregatik errezatzeko, fedeak huts egin ez ziezaion. Haren familia eta berea ongi zeudela.

1528ko abenduaren 5ean gutun bat idatzi zion Luterok Margareta N-ri, esanez Jainkoak proba handi batean jarri zuela: senarraren heriotzaren aurrean. Bere senarra azkenean Jainkoarengan fidatuz hil zela. Posible zela senarrak bere burua zauritu izatea, deabruak sarritan gorputzaren zatiak kontrolatzen dituelako eta norbaiten besoa mugi dezakeelako norbere borondatearen kontra. Egin zuena nahita egin izan balu, ez zuela bekatua aitortuko bere baitaratzean. Eskerrak ematen zizkion Luterok Jainkoari Margareta-ren senarra ez zuelako gatazkan eta etsipenean utzi eta kristau fedea berreskuratu zuelako.

Melanchthon-ek Saxoniako printzerriko parrokien bisitarien zatia instruktio bat argitaratu zuen 1528ko martxoan, Luteroen hitzaurrearekin. Melanchthon-ek sakramentuei, borondatea askeari, Jainkoaren aginduei buruz hitz egiten zuen eta katolikoengandik hurbilak ziren jarrerak agertzen zituen, herrietako jende xehe asko oraindik ere katolizismotik hurbil zegoelako. Luterok zioen gotzainen eginkizuna zela elizak bisitatzea edo ikuskatzea eta printzeen eginkizuna mendekoen arteko istiluak ekiditea zela, ez dotrina predikatzea.

1528ko urrian bigarren bisita-bira hasi zuten ikuskatzaile berriek, administrazioaren funtzionario gisara; ikuskatzaileen artean ziren Lutero, Jonas, Miconius, Melanchthon eta Espalatino. Bisita horietan ikusi zuten moralak eta erlijioa egoera negargarrian zeudela, sinestunen artean sineskeria ugari zegoela eta parrokiak artzain asko ez zirela gai irakurtzeko eta predikatzeko. Hurrengo urtean Printze Hautesleak Luteroi esan zion etxean gelditzeko, Wittenberg-ek ehun ikasle galdu zituelako Lutero eta Melanchthon kanpoan egon ziren bitartean. Erreformatik aurrera egitekotan, elizgizonak prestatu beharra zegoen eta horretarako katiximak idatzi behar ziren, parrokiak egoera miserablea gainditzeko. Apaizak instruitu behar ziren hamar manamenduak, borondate librea eta elizaren sakramentu eta zerbitzuak azaltzeko. Gurasoei esan behar zitzaizkien seme-alabak eskolara bidaltzeko, han gai hauek ikasteko: kredoak, otoiak, Donatus-en gramatika latinoak, Cato-ren *Disticha Moralia*, musika, Esoporen alegiak latinez. Horrela, bi katixima idatzi zituen Luterok: katixima luzea eta laburra, Katixima horien argitalpen ugari agortu ziren (Smith, 1911).

Bisitak 1529an eten ziren eta ikuskatzaileak 1532an hasi ziren berriro ere bisita sistematikoak egiten. Ikuskariek elizaren eraldaketa egiten lagundu zuten: monasterioak kendu, parrokiak

ekonomia arautu, artzain prestatuak jarri, liturgia bateratu. Saxoniara ez ezik, beste estatu eta hiri libreetara ere hedatu ziren bisitaldiak. Baina, ikuskariak ez ziren beti presente egotean parrokiak arazoak konpontzeko. Printzeak kontseilariak aukeratzen zituen, baina kontseilariak aholkua bakarrik eman zezaketen; erabakia printzearen esku geratzen zen. Printzeak gotzain bisitariak aukeratu zituen eta gotzain horien gaitasunak finkatu, baina gai asko gelditzen ziren gotzainen eskuduntzetatik at. Erromako elizaren zuzenbide kanonikoa desagertu zenetik, tribunalak behar ziren sortutako arazoak konpontzeko. Erreforma botere zibilaren esanetara geratu zen. Horregatik, Saxoniako printzearen eta Wittenbergeko Unibertsitatearen artean Konsistorioa sortu zuten: erdi laikoa eta erdi eliztarra zen tribunal bat. Tribunal hori teologoek eta legegizon laikoek osatzen zuten, komunitate ebanjelikoak ikuskatzeko eta gai hauek tratatzeko: ondasun kontuak, ezkontza kontuak, espetxe kontuak (García Villoslada, 1973).

Espirako dieta, Marburgoko konferentzia eta Augsburgoko dieta

Karlos V.ak Frantziarekin teman jarraitzen zuen. 1525eko otsailean, Paviako garaipenaren ondoren, Frantzisko I.a preso eraman zuten Madriler. 1526ko urtarrilean Madrileko ituna izenpetu zuen Frantzisko I.ak eta uko egin zien Napoles, Milan eta Borgoinako lurraldeei. 1526an Karlos Enperadoreak Worms-eko ediktua zorrozki aplikatzeko asmoa zuen, Luteroren heresiari behin betirako amaiera emateko. 1526ko maiatzean Cognac-en aliantza bat izenpetu zuten Frantzisko I.ak, Klemente Aita Santuak eta Milan, Florentzia eta Veneziak, Karlos V.aren nagusitasuna mugatzeko. Klemente VII.a Aita Santuak Frantzisko I.arekin batera gerra deklaratu zion Karlos V.ari (García-Villoslada, 1973). Printzeak eta Enperadorea Aita Santuaren kontra joan ziren eta Erroma arpilatu zuten 1527ko maiatzaren 6an; Aita Santua menderatu eta hainbat erromatar erail zituzten, baina laster adiskidetu zen berriro ere Karlos V.a Aita Santuarekin eta heresiaren kontra borrokatu zen.

1526ko ekainaren 25ean Austriako Fernando artxidukeak eta Enperadoreak bidalitako komisarioek Espirako dieta inauguratu zuten. Espiran erabaki zuten ezin zela indarrez ezarri Worms-eko Ediktuan erabakitakoa. Worms-eko ediktuaren kontra, Printze bakoitzak erabaki zezakeen bere lurraldeetan Luteroren irakaspenei jarraituko zien ala ez: *Cuius regio, eius religio*. Erlijio kontuetan estatu bakoitzak nahi zuen moduan joka zezakeen, Enperadorearen eta Jainkoaren aurrean zuen erantzukizunaren arabera (Abellán, 1990). Karlosek Luteroren heresia desagerraraziko zuen, ahal izanez gero, baina oso okupatua zegoen atzerriko gerrekin. Dietak erabaki zuen Karlosi mezu bat bidaliko zitzaiola, Alemaniara etortzeko eskatuz. Erabaki zuen baita ere, kontzilio orokor aske bat dei zedila Alemanian, urte eta erdi baino lehen. Eskualdeko buruzagia eskualde horretako eliza luterotarraren buru izango zen eta nahi zuen moduan antolatu ahal izango zen. Erreformaren kontrako mehatxua desagertu egin zen momentuz. Aita Santuak ez zuen legaturik bidali Dieta horretara eta printze katoliko gutxi joan ziren. Turkiarren mehatxua gero eta nabariagoa zen. Suleiman Magnifikoak eta Frantzisko I.ak elkarri laguntzen zioten, Karlosen kontra. Suleiman sultanak hirurehun mila gudarirekin Hungariako armada menderatu zuen; horrela, otomanoek Hungaria eta Bohemia menderatu zituzten 1526ko abuztuaren 29an (García-Villoslada, 1973).

Luterok 1528ko urriaren bederatzian liburu bat eskaini zion Hesse-ko Felipe landgraveari, turkiarren kontrako gerraz. Luterok ez zuen nahi erlijioa armaz defendatzerik; ez zuen nahi

turkiarren kontra armak hartzerik, gerra Aita Santuaren izenean egiten baldin bazen. Turkiarren kontra borroka egin behar zen, baina ez Aita Santuak ematen zituen arrazoiengatik eta ez induljentziak irabaztearren. Luterok zioen turkiarren kontra borrokatu nahi zuenak Enperadorearen izenean egin behar zuela, hura zelako beren legezko agintaria. Esaten zuen turkiarraren kontra penitentziaz eta otoitzaz borrokatuko zela kristaua, ez mezen bidez edo santuei eskatuta. Esaten zuen turkiarrak berez gerrazaleak zirela; Alari erreguka ibitzen zirela, Aita Santu zaleak hari laguntza eske ibiltzen ziren moduan.

Klemente VII.arekin bakeak egin zituenean eta Austriako Fernandok Hungaria eta Bohemiako koroa lortu zuenean, Espiran beste dieta bat egiteko deia zabaldu zuen Karlos V.ak. 1529ko martxoaren 15ean hasi zen Espirako dieta berria. 18 kideko komisio bat eratu zen dietako erabakiak hartzeko: hiru ebanjeliko, hamar katoliko eta bost bakegile. Erreformatik aurrera ez egitea zen helburua. Dietak erabaki hau hartu zuen: ordura arte katolikoak ziren lurretan Erreformatik ez zen egingo; eliza erreformaturik ez zegoen tokitan eragotzi egingo zen beste eliza erreformatuak sortzea. Ezabatu egin zen 1526ko dietako artikulua, norbere kontzientziaren arabera jokatzeko aukera ematen zuena. Berrito ere 1521eko Worms-eko ediktua indarrean jarri zen. Ez zen Kristoren haragi eta odolaren sakramentuaren kontrako sekten predikurik onartuko; anabaptistei erasoko zitzaie; autoritateek ezingo zuten ondasunik konfiskatu (García-Villoslada, 1973).

Erabaki horiekin ados ez ziren agertu Brandeburgoko Jorge, Saxoniako Juan, Wertheim-ho kondea, Hesseko Felipe, Anhalt-eko printzea eta hirietako zenbait delegatu. Dietako dekretuarekin ados ez zeudela eta protesta bat egin zuten 1529ko apirilaren 19an, esanez dekretuaren artikulua ezin zituztela kontzientziaz sinatu. Hala ere, Dietako dekretua sinatu egin zen eta protestanteek Apelazio bat idatzi zuten gai erlijiosoari buruzko artikuluen kontra; apelazio-idatziarekiko atxikimendua agertu zuten Saxoniako Juanek, Brandeburgoko Jorgek, Hesseko Felipek, Anhalt-eko printzeak, Luneburg-eko Ernestok, Frantzisko dukeak eta 14 hiritako delegatuek. Klemente VII.aren legatua apirilaren 13an heldu zen eta hurrengo udarako kontzilio orokor bat agindu zuen. Espirako Dieta hori 1529ko apirilaren 22an amaitu zen. Dietako dekretuak protestanteentzat ondorio kaltegarriak ekarriko zituela pentsatu zuen Hesse-ko landgrave Felipek eta itun bat egin zuen Saxoniako Juan-ekin eta Ulm, Nurenberg eta Estrasburgoko hiriekin, arrazoi erlijiosoengatik gerta zitezkeen erasoetatik elkar defendatzeko.

Luterori ez zitzaion gustatu itun hori eta hala jakinarazi zion Juan Hautesleari (García-Villoslada, 1973).

Protestanteen eta katolikoaren artean banatu zen Alemania; protestanteak ere beren artean banatzeko zorian zebiltzan, Zwingli-ren eraginaren pean. Mugimendu protestantearen baitan teologiari buruzko eztabaidak izan ziren. Luterok ez zuen sakramentarioak konbertitzeko itxaropenik. 1529an aginte handia zuen Karlos V.ak: Francisco I.a eta Klemente VII.a menderatu zituen eta sultan turkoak Vienatik alde egin zuen. Karlos Enperadoreak Alemaniako arazoak konpondu nahi zituen, erreforma zaleen indarrak menderatuz. 1529ko ekainaren 23an Hesseko Felipe Landgraveari idatzi zion Luterok eta esaten zion hartu zuela gonbita Marburgon Ecolampadius eta beste suitzarrekin eztabaidatzeko, baina itxaropen gutxi zuela ezer positibotara heltzeko. Luterok zion ez zegoela ziur Marburgoko Elkarrizketa ongarria ala kaltegarria izango zen; itxaropen gutxi zuela, baina prest zegoela eztabaidarako. Esaten zuen bere eta bere kideen ahaleginak alferrikakoak izango zirela, besteek amore ematen ez bazuten; bakea lortu ordez, odol isurketarekin amai zitekeela jendearen izaeran zegoelako horretarako joera. Enperadoreari aurre egiteko elkartu eta prestatzen ez baziren, ebanjelikoek ezingo zuten erlijio independentziarik gorde. Turkoen kontra borroka egiteko Enperadorea sostengatu behar bazen, aurrez Enperadoreak Erreforma onartu beharko zuen.

Suitzako kantoien katolikoak Austriako katolikoekin elkartu ziren 1529an. Hesseko Felipek Zwinglio eta Luteroen jarraitzaileak elkartu nahi zituen eta horretarako bildu zituen Hesseko Marburgon. Marburgoko Elkarrizketa 1529ko urriaren 1etik 4ra bitartean ospatu zen eta honako hauek hartu zuten parte: Zwinglio, Ecolampadius, Lutero, Osiander, Melanchthon, Jonas, Cruciger, Röser, Brenz, Bucer eta beste batzuk. Marburgoko Elkarrizketan protestanteen arteko harmonia erlijiosoa lortu eta Teologia protestantea bateratu nahi izan zen. Batez ere, Luteroen eta Zwinglioren teoriak bateratu nahi zituzten. Hesseko landgraveak Habsburgotarren kontrako bloke politiko ebanjeliko bat sortu nahi zuen, Danimarkatik Veneziaraino hedatuko zena. Elkarrizketa horretan Eukaristiari buruzko adostasunik ez zuten lortu Luterok eta Zwingliok. Luteroentzat Kristoren gorputza eta odola errealki zeuden sakramentuan; hitzez-hitz ulertu behar ziren "hau nire gorputz da, hau nire odola da". Zwingliorentzat ogia eta ardoa Kristoren sinboloak bakarrik ziren. Hesseko landgraveak ez zuen lortu Marburgon protestanteak elkartzea. 1529ko urriaren 4an Luterok gutun bat idatzi zion Katalina emazteari. Esaten zion Marburgoko konferentzia amaitzeaz zegoela eta ados

etorri zirela ia puntu guztietan. Desadostasun puntua honetan zegoen: Luteroren etsaiek defendatzen zuten ogia eta ardoa bakarrik zeudela presente sakramentuan, elementu horietan Kristo espiritualki presente zegoela onartzen bazuten ere. Luterok zioen Landgravea ahaleginak egiten ari zela adostasuna lortzeko.

Enperadorea Aita Santuak koroatu zuen Bolonian. Alemania hegoaldeko sakramentarioak prest zeuden beren erlijioa armaz defendatzeko, baina Luterok pentsatzen zuen Enperadorearen autoritateari obeditu egin behar zitzaiola. Jarrera horri eutsi zion Luterok 1529ko amaierara arte; orduan aldatu zuen jarrera eta Hautesleari idatzi zion armak erabiltzearena birpentsatu behar zela (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Alemania iparraldean protestanteak ugaltu egin ziren 1527tik 1529ra bitartean, baina eraso egiten zitzaien Bavieran, Austrian, Herbehereetan. Saxonian ezarritako bisitaldien sistema hedatu egin zen beste lurralde batzuetara ere. Printze protestante batzuek eta hiri batzuek itun sekretu bat izenpetu zuten Suabiako Ligaren eta erregeordetza kontseiluaren erasoetatik elkar defendatzeko (García-Villoslada, 1973).

1530eko urtarrilaren 21ean Augsburgoko Dietarako deia egin zuen Enperadoreak Boloniatik. Dieta horrek Alemaniako katolikoek eta protestanteen arteko eztabaidak baretu behar zituen eta inperioa babestu nahi zuen turkoen kontra. Juan Saxoniakoak ikusi zuen zaila zela Enperadorearekin bakeak egitea erlijio gaietan; beraz, pentsatu zuen beste printze eta hiri protestanteekin elkartu behar zuela. **Saxoniako Hautesleak, Dietarako deia jaso zuenean, Torgaun bildu zituen Luterotarrak, Saxoniak izan behar zuen estrategia erabakitzeko eta Wittenberg-eko teologoei agindu zien fede-konfesio bat idazteko, Augsburgon erabili ahal izateko.** Melanchthon-i eman zitzaion konfesioa prestatzeko lana eta hark idatzi zituen Augsburgoko Konfesioaren apologiako artikulua. Luteroren gogokoak ziren artikuluhoriek (Roper, 2010).

Saxoniaren ordezkariak Espalatino, Melanchthon, Jonas eta Agricolak osatu zuten. Lutero ezin izan zen dieta horretan egon, Worms-eko ediktuaren debekua (proskripzioa) zela eta: erbesteratze aginduaren pean eta salbokonduktorik gabe zegoen. Lutero Feste Koburgoko gazteluan geratu zen eta bost hilabete eman zituen bertan, Bibliako Itun Zaharreko salmoak, profetak eta Esoporen alegiak alemanera itzultzen. Osasun arazoak izan zituen: hanka batean abszeso edo apostema bat; belarrietako soinuak; irakurri ezina. Koburgoko bakardadeak urduritasuna eragin zion Luterori. Belarrietako burrunbak izan zituen eta deabruaren eraginari

egotzi zizkion; deabrua hegan ikusi zuela ere esaten zuen; leihotik begira zegoela, suzko suge bat biraka ikusi omen zuen eta suge hura, zalantzarik gabe, deabrua bera omen zen. Bisita ugari izan zituen han zegoen artean: Link, Pistorius, Stromer, Roemer, Reinicke, Müller, Jakob Lutero, Bucer. Katalinaren gutunak ere jasotzen zituen, Wittenberg-etik bidaliak. Ez zituen nahi beste gutun jaso Augsburgora joan zirengandik; Melanchthon buru belarri lanean murgildua zegoen, Enperadoreari aurkeztu beharreko sinesmen konfesioa prestatzen. Dieta aurrera zihoan heinean, Luterori berriro idazten hasi beharrean gertatu ziren, hainbat kontsulta egiteko, baina ordurako Lutero zapuztua zegoen eta Melanchthon-ek kontzesio gehiegi egin zituela esaten zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Aitaren heriotzaren berri Koburgon jaso zuen Lutero, Reinicke-ren bidez. 1530eko otsailean 15ean bere anaia James-ek idatzi zion Martini aita oso gaixo zegoela esanez. Martin ez zen aita ikustera joan, arriskutsua zelako beretzat bidaia hori egitea, edozein jaun edo nekazarik eraso baiziezaiokeen. 1530eko otsailaren 16an gutun bat idatzi zion Lutero bere aitari. Esaten zion anaiaren bidez jakin zuela oso gaixorik zegoela. Haren adin aurreratuak kezka handia sortzen ziola, osasun gogorrekoa zen arren. Hark beregatik mespretxu, gorroto, etsaitasun eta arrisku asko bizi izan zituela. Askok poztuko zatekeela amarekin batera bere etxera etorriko balira; ongi zainduko zituzkeela. Haien ondoan egon nahiko zukeela. Jainkoari eskatzen ziola bere Espirituaren bidez hura zain zezala. 1530eko maiatzaren 29an hil zen Lutero aita. Koburgon zegoela, ekainaren 5ean, jakin zuen Lutero bere aita hil zela. Salterioa hartu eta bere gelan bakarka negar egin zuen. Melanchthon-i idatzi zion Lutero heriotza horrek eragin zion sufrikarioaz hitz egiteko. Melanchthon-ek errita egiten zion Luterori osasuna zaintzen ez zuelako eta Lutero kezkatuak zegoen Melanchthon-en insomnioagatik.

Lutero zehaztasun guztiak ematen zituen bere gaixotasunaren gorabeheraz eta bere gaixotasunen interpretazio espiritualak ematen zuen; esaten zuen bere buruko minek deabruak eraginak izan behar zutelako, Testamentu Zaharra itzultzea eragozten ziotelako eta, beraz, Jainkoaren lana egitea eragozten ziotelako. Jainkoaren eta Deabruaren arteko borrokaren gudu-zelai bihurtu zen Luteroaren gorputza. Tentaldi espiritualen ordean, eraso fisikoak jasaten zituen orain. Luteroaren ama urtebete geroago hil zen eta Martin ez zen amaren hiletetara ere joan. 1531ko maiatzaren 20an idatzi zion Lutero bere amari; esaten zion anaiaren bidez jakin zuela gaixorik zegoela; oso atsekabetua zegoela, baina ezin izango zuela harengana joan. Gutun luze bat idatzi zion, gaixotasunari zentzu espiritual bat eman nahiz (Roper, 2010).

Gutun bidezko harremana, 1529tik 1530era

1529ko otsailaren 15ean Nicolas Hausmann-i gutuna idatzi zion Luterok, esanez poztzen zela elizen bisitatzea ongi amaitu zelako. Bertigoak sentitu zituela eta Jainkoari eskatzeko bera indartu zezan. George Herzog-i ez ziola erantzungo.

1529ko martxoaren 3ko gutunean Hausmann-i esaten zion katixima ez zegoela oraindik prest, baina laster egongo zela. Turkoen kontrako sermoia ere bai. Esaten zion beti gaixo zegoela; deabruak izugarritzko erasoak egiten zizkiola, bakarrik zegoenean.

1529ko maiatzaren 12ko gutunean Luterok John Hautesleari esaten zion Pommer prest zegoela Hanburgotik itzultzeko, baina hango jendeak ez ziola uzten alde egiten. John Printzeari idatzi nahian zebiltzala hanburgotarrak, Pommer han utz zezan betirako. Pommer-ek eskaera bat egiten zion Printzeari: idatziz eska zezala Pommer-ek Wittenberg-en egon behar zuela, ez bere borondatez, baizik Printzeak hala eskatuta, Wittenberg-en Saxoniako ikasle asko zeudelako haren zain.

1529ko abuztuaren 17an gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako John Hautesleari, eskerrak emanez bidalitako jantziengatik. Esaten zion ez zuela azalkean erori nahi, ez eta aberatsak bezala jantzita ibili ere, predikari bati hori ez zegokiolako eta mundu honetan ez zuelako jaso nahi, bestean jaso behar zuen saria. Esaten zuen ez zuela zama izan nahi Hauteslearentzat, premia asko zituelako hark estaltzeko.

1530eko otsailaren 25ean gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion haren elizak behar zituen gauzen zerrenda egiteko, beti aurrean eduki zezan, bere oroimena zamatu gabe. Horrela, denbora eta aukera zuenean desira horiek bete ahal izango zituela. Danielen liburua argitaratzen lanpetua zegoela. Jeremias eta beste profetei ere heldu ziela. Frankfurt-eko ferian Testamentu Berria salgai jarriko zutela, Aita Santu zaleen alarmarako. Apokalipsiari hitzaurre luze bat egin ziotela.

1530eko martxoaren 14an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Esaten zion Hautesleak idatzi ziela Bugenhagen, Felipe, Jonas eta Luterori Dieta inperialerako materiala presta zezaten iganderako. Esaten zion Karlos Enperadoreak adostasun batera heldu nahi zuela. Egun horretan eta hurrengoan Bugenhagen, Felipe eta Lutero bilduko zirela lana gogor egiteko. Justo Jonas elizak bisitatzen zela.

1530eko apirilaren 18an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion oraindik Coburg-en zeudela; printzeak agindu zuela berak Coburg-en gelditu behar zuela eta besteek Dietara joan behar zutela.

1530eko apirilaren 22an gutuna idatzi zion Luterok Melanchthon-i Koburgotik. Esaten zion ikusten zuela oso larritua zegoela fraile kaputxadunak ikusita, baina beren eginkizuna zela haien erasoan aurrean fermu mantentzea. Atsedena emango zion lo egiteko eta deabruaren gezietatik arima libre edukitzeko. Denbora pasa zegoela, oraindik bere paperen kaxa ez zitzaizola heldu eta.

1530eko maiatzaren 8an Wenzel Link-i gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion bizitza patxadatsua eta luxuzkoa zeramala Coburg-en eta profeten liburua itzultzen ari zela. Jeremiasen liburua amaitu zuela. Haur alemanentzat Esoporen alegiak itzultzeko asmoa ere bazuela. Wittenberg-en ezer berririk ez zegoela, hau izan ezik: Pommer-ek idatzitakoaren arabera, Lubeck eta Luneberg-eko jendea ebanjelioa besarkatzen ari zela.

1530eko maiatzaren 12an Feste Coburn-etik Augsburgora idatzi zion Luterok Melanchthon-i; esaten zion Ezekiel liburuaren bi atal itzuli zituela, profetak itzultzen hasi zela eta Esoporen alegiak ere bai. Burrumba indartsu bat, trumoi batena bezalakoa, entzuten zuela buruan eta bat-batean gelditu ezean zorabiatu egingo zela; bi egunez ezer egin ezinik egon zela. Buruko burrunba desagertzen ari zela sendagaiei esker.

1530eko maiatzaren 15ean Saxoniako John Hautesleari gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion irakurri zuela Melanchthon-ek idatzitako *Apologia* eta liluratua gelditu zela. Ez zuela pentsatzen hobetu zitekeenik edo aldatu behar zenik. Esaten zion Enperadoreak Ebanjelioa predikatzea debekatuz gero, hari obeditu egin behar zitzaizola, hura zelako haien jauna. 1530eko maiatzaren 15ean Melanchthon-i ere idatzi zion Luterok esanez Justo Jonas-i kontu handiz emateko haren semearen heriotzaren berri.

1530eko maiatzaren 20an Feste Koburgotik idatzi zion Luterok Saxoniako Hautesle Juani, hark Augsburgotik idatzitako gutunari erantzunez, berandu bazen ere. Luterok esaten zion jaunak bezala bizi zirela Coburg-en. Esaten zion bere lurraldean inon ez bezala predikatzen zela eta Ebanjelioa ezagutzen zela. Jende gaztea ondo eskolatua zegoela Eskriturretan eta Katiximan. Iraganean inoiz egin zen baino gehiago hitz egiten zela Jainkoaz eta Kristoz.

1530eko ekainaren 2an Melanchthon-i idatzitako gutunean Luterok esaten zuen aurreko egunean Mansfeld-go Hans Reinecke eta George Pomer berarekin egon zirela eta egun horretan Argula von Staufen etorri zela. Eskatzen zion errezatzeko, bera ikustera jenderik joan ez zedin.

1530eko ekainaren 5ean gutuna idatzi zion Luterok Melanchthon-i, hark idatzi ez ziolako kexua agertuz, haren gutunak jasotzeko irrikaz baitzegoen. Esaten zion, Staufen-en arabera, Bavierako Hautesleak izugarritzko ongi etorria egin ziola Enperadoreari Munich-en. Reineckek idatzi ziola bere aita maitea, Hans Luther, larunbat goizean hil zela eta heriotza horrek tristura sakona eragin ziola. Orain luterotar zaharrena zela familian.

1530eko ekainaren 11n Luterok Melanchthon-i gutuna idatzi zion Koburgotik eta kexatzen zen Melanchthon-ek eta lagunek gutxiegi idazten ziotelako eta isiltasunaz torturatu nahi zutelako. Wittenberg-eko jendeak hiru aldiz gehiago idazten ziola. Emazteak esan ziola Elba lehorturik zegoela, euririk egiten ez zuelako.

1530eko ekainaren 5ean Feste Koburgotik idatzi zion Luterok Katalina emazteari Wittenberg-era eta eskatzen zion esateko Christian Döring-i inoiz ez zuela eduki betaurreko okerragorik orain zituenak baino; lerrorik ere ezin zuela ikusi. Melanchthon-ek ekainaren 13an idatzi zion Luterori eskatuz Hesse-ko Feliperi idazteko, Luterotarrak utzi eta Zwingli-ren alderdira atxiki nahi zuelako.

Maiatzean heldu zen Saxoniako Hauteslea Augsburgora. Ondoren, berehala iritsi zen Hesseko Felipe. Felipe oraindik zalantzan zegoen Luteroren alde egin edo Zwinglioren alde egin. Luterok bere jarraitzaileei esaten zien sakramentarioen eta zwingliotarren kontra gogor eusteko. Baina, Augsburgoko giroa zwingliotarren aldekoa zen.

Lutero Koburgon gelditu zenez, negoziazio taldearen buru gisara Melanchthon joan zen Augsburgora. 1530eko maiatzaren 2an heldu zen hara. Melanchthon diplomatikoa zen eta errazagoa zen harekin eztabaidatzea, Luteroekin baino. Luteroren printzipioak defendatzen zituen arren, Erromako elizari begirune gehiago zion Melanchthon-ek. Karlos V.ak batasuna lortu nahi zuen, garrantzitsuak ez ziren gaietan amore emanaz. Teologo katoliko eta protestante ugari bildu ziren. Lutero eta Melanchthon ados zeuden katolikoekin,

sakramentarioak heretikoak zirela eta anabaptistek heriotza zigorra merezi zutela esatean; sakramentarioekin ez zen negoziatu behar dietan (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1530ko ekainaren 15ean, Corpus Christi egunez, heldu zen Karlos V.a Augsburgora. Enperadoreak prozesioan parte hartu zuen, baina printze ebanjelikoek ez. Enperadorea Hesseko Feliperekin, Saxoniako Juanekin, Brandeburgo-Ansbach-eko Jorgerekin eta Luneburgo-ko Franziskorekin elkartu zen eta agindu zien predikari protestante eta katolikoek ez zutela sermoirik egin behar bera Augsburgon zegoen bitartean (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1530eko ekainaren 20an hasi zen Augsburgoko Dieta. Saxoniako Hautesleak nahi zuen Augsburgoko Konfesioa dietaren aurrean irakur zedila. Azkenean, ekainaren 25ean irakurri zen Augsburgoko Konfesioa, latinez eta alemanez, Enperadorearen eta printzeen aurrean, gotzainaren palazioko kapera pribatuan. Jonasek esan zuen ulertuko balu bezala entzun zuela Enperadoreak irakurketa, nahiz eta tutik ulertu ez. Honako hauek sinatu zituzten Konfesioaren bi bertsioak (alemanekoa eta latinekkoa): Saxoniako Juan-ek, Hesseko Felipek, Brandenburgoko George-k, Luneburgo-ko Ernest-ek, Luneburgo-ko Francis-ek, Anhalt-eko Wolfgang-ek eta Nurenberg eta Reutlingen hirietako ordezkariak (Roper, 2010). Sakramentarioek ez zuten sinatu.

Melanchthon-i ezinbestekoa iruditzen zitzaion negoziatzea; Luterorengandik aldendua zegoen. Nurenbergtarrek eta Hesseko Felipek zorrozki kritikatu zuten Melanchthon, bere ahultasunagatik. Enperadoreari aurkeztu eta gero irakurri zuen Luterok Konfesioa; esan zuen berak idatzi izan balu, ez zukeela neurri horretan amore emango. Melanchthon-ek prestaturiko Augsburgoko Konfesioa Luterok onartu zuen, baina ondoren Melanchthon-ek zerbait aldatu zuen, katolikoek errazago onar zezaten. Melanchthon-ek katolikoei adierazi zien Luteroren dotrina ez zela haiek uste zuten bezain heretikoak; oinarrizko dogmetan alderik ez zegoela katolikoek eta protestanteen artean. Alderik handienak puntu hauetan zeuzkaten, Melanchthon-en iritziz: laikoek bi espezetan hartzen zuten komunioa; apaizak eta fraideak ezkon zitezkeen; meza pribatua debekatu egin behar zen. Melanchthon-en iritziz, hiru puntu horietan adostasuna lortuz gero, beste guztia konpon zitekeen.

Augsburgoko Konfesioak bi zati zituen: dogmari zegozkion artikulua eta elizaren abusuei buruzko artikulua. Melanchthon saiatu zen eliza luterotarraren eta erromatarraren arteko alde dogmatikoak leuntzen, luterotarrak zwingliarren, anabaptisten eta beste heretikoek etsaiak zirela esanez. Melanchthon-ek Luterori galdetu zion zertan amore eman zezaketen eta

Luterok esan zion lehendik ere behar beste amore emana zutela. 1530eko ekainaren 27an idatzitako gutunean Melanchthon kritikatu zuen Luterok hain estutua eta larritua zegoelako; Luterori ez zitzaion gustatzen Melanchthon kezkatua egotea; Jainkoaren promesak sinetsi behar zituela eta haren sostengua bilatu behar zuela esaten zion; Melanchthon-en filosofia zela, ez haren teologia, atsekabetzen zuena; bere burua menderatzeko esaten zion Melanchthon-i, etsairik gogorrena bere burua zuelako. Luterok esaten zion entzuten bazuen gauzak gaizki zeudela, berak ere Augsburgora joan beharko zuela (Roper, 2010).

Karlos Enperadoreak Dietan zeuden hogeit hamar teologo katolikoren komisio baten esku utzi zuen Melanchthon-ek prestatutako Augsburgoko Konfesioa gezurtatzea. Konfesioa aztertu zuten eta protestanteen artikulua gezurtatu zituzten. Uztailaren 30ean aurkeztu zioten Enperadoreari *Augsburgoko Konfesioari erantzunak* izeneko idatzia. Melanchthon saiatu zen protestanteekin bakeak egiten, baina atzean, Koburgoko bakardadean, Lutero egoskor mantentzen zen. Aste batzuetan berarekin ezer ez zutela jakin nahi izan eta orain bere beharra zutela ikusita, ez zion berehalakoan erantzuten Melanchthon-en gutunei. Karlos V.ak hamalau kideko komisio parekide bat (zazpi katoliko eta zazpi protestante) eratu zuen, Augsburgoko Konfesioaren artikulua eztabaidatzeko. Aurrerapenik ez zen egin eztabaida horretan eta abuztuaren 23an erabaki zuten Melanchthon-ek eta Eck-ek bakarrik eztabaidatuko zutela. Horiek ere ez ziren ados jarri eta abuztuaren 30ean negoziaketak amaitu ziren (Roper, 2010).

Luterok Nurenberg-eko abatari eskaini zion salmo bat eta Koburgoko gazteluko zaintzaileari beste salmo bat. 1530eko irailaren 15ean gutun bat idatzi zion Katalina emazteari; esaten zion denbora gutxi zuela idazteko, baina espero zuela laster etxean izango zela. Augsburgotik esaten ziotenez, gaiak eztabaidatu zituztela eta Enperadorearen erabakiaren zain zeudela. Eztabaidaren jarraipena etorkizuneko kontzilio baterako utziko zutela. 1530eko irailaren 13an John Frederiko printzeak bisita egin zion Luterori Koburgoko gazteluan. Martin Bucer-ek 1530eko irailaren amaieran bisitatu zuen Lutero, Augsburgoko dietatik itzultzean eta sakramentarioekin negoziatzen hastekotan geratu ziren; baina, Luterok zuhurtziaz jokatu zuen Bucer-ekin; Bucer etengabeko bidaietan murgildua zebilen, Alemaniako hiriak eta Suitzako kantoiak elkartu nahirik. Bucer-ek Lutero konbentzitzeko moduko formula aurkitu zuenean, suitzarrek ez zioten formula onartu.

Hesse-ko Felipek, Dieta amaitu baino lehen aldegin zuen Augsburgotik; Zurich eta Constancerekin aliantza egin zuen, Luteroen aholkuei jaramonik egin gabe. 1530ko irailaren

23an irten ziren Augsburgotik Saxoniako Juan, Melanchthon, Espalatino, Anhalt-eko Wolfgang eta beste teologo batzuk eta urriaren 1ean Luterekin elkartu ziren Koburgon. Koburgon amaitu zuen Lutero Testamentu Zaharraren itzulpena. Urriaren 13an heldu ziren Wittenberg-era. (Smith, 1911; García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Aita Santuaren nuntzioak, Laurentius Campegius-ek, Estatuei aholkatu zien ez banatzeko eliza santu katolikotik. Enperadoreak lehenik turkiarren kontrako laguntza ziurtatu nahi zuen, baina protestanteek elizaren arazoari ematen zioten lehentasuna. Melanchthon asaldaturik eta lur jota zebilen denboraldi horretan, Aita Santuaren legatuarekin adostasun batera heldu nahiz; adostasunik lortu ezean, gerra etorriko zela pentsatzen zuen; baina, elkarrizketek huts egin zuten. Augsburgoko Konfesioa mugimendu protestantearen une garrantzitsua izan zen, ondorengo urteetan ere jarraitu egin baitzuten gerra ekiditeko eta protestantismoa defendatzeko ahaleginek; ahalegin horien ondorioz, Alemaniako lurraldean, indartu egin zen Erreforma eta printze indartsuak pasatu ziren protestanteen aldera (Smith, 1911; Roper, 2010; García-Villoslada, 1973).

1530eko azaroaren 19an Augsburgoko dietak ondorioen dekretu bat (Errezesoa) atera zuen, hartu ziren erabaki guztiekin. Honako hauek ziren ondorioak: Luteroen dotrina ez zettorrela bat Eskriturekin; Enperadoreak lehengo komunioan jarraitzea erabaki zuela eta protestanteek beren hutsegiteei uko egin behar zirela hurrengo apirilaren 15a baino lehen; bien bitartean ezin zela beste berrikuntzarik egin, ezin zela katolikoek fede-gaietan eta kultuan aldaketarik egin eta anabaptistak desagerrarazten lagundu behar zitzaizkion Enperadoreari; Enperadoreak Aita Santuari eskatuko ziola urtebete barrurako kontzilio orokor bat deitzeko, bitartean gotzainak lehengo beren barrutietara erretiratuko zirela eta eraldaketa berririk ez zela egingo. Karlos V.ak Worms-eko ediktuaren aplikazio zehatza eta elizako ondasunen eta Aita Santuaren agintearen berreskurapena agindu zituen. Luteroak esan zuten Melanchthon-ek prestatutako Konfesioa inoiz ez zela gezurtatua izan eta haren defentsa aldarrikatu zuten, baina apologia hori baztertu egin zen. Lutero haserre zegoen Errezesoak zioenarekin, Worms-eko ediktuaren bir-baieztapena zela iruditzen baitzitzaion. Augsburgoko Konfesioari eutsi behar zitzaizkion pentsatzen zuen (Smith, 1911).

Konfesio protestantearen errefutazioari eta Augsburgoko errezesoari laster erantzun zien Lutero. Esaten zuen beti bakearen aldekoak izan zirela eta ordura arte bakean egon zirela, baina Aita Santuaren aldekoek ez zutelako inoiz bakerik nahi izan; eta ez zuela baztertuko Aita

Santuaren jarraitzaileen kontra beren burua defendatzea; matxinadarik ez dagoela norbere burua defendatzen denean; Aita Santuak eta Enperadoreak elkar hartzen bazuten, luterotarren kontra joateko aginduz, haiek agindutakoa betetzea eragotzi egiten zuela Jainkoak; Luterok justifikatu egiten zuen Enperadorearen kontra altxatzea. Puntu honetan aldaketa nabarmena izan zuen Luterok. Esaten zuen, Enperadorea Aita Santuaren interesak defendatzeko armatzen bazen, inork ez ziola obeditu behar, obedientzia hori Jainkoak debeketzen zuelako; Aita Santuak bultzatu zuela Enperadorea Kristoren ebanjelioaren kontra joatera; benetako sediziozileak Aita Santuaren aldekoak zirela; bere burua defendatu nahi zuenak haien kontra borrokatu behar zuela; bera alemanen profeta zela: ez zuela bere interesa bilatzen, alemanen ongia eta salbamena baizik; legegizonek demostratzen bazuten hiritarrek Enperadoreari aurre egin diezaioketela, beren esku zegoela hori egitea. Luterok azken urteetan defendatzen zuen gerra erlijiosoa zilegia zela, baina ez zion uko egin hasierako jarrerari: ebanjelioa ez dela armaz defendatu behar, baizik hitzaren bidez. Enperadorearen kontra borrokatzeko bidea irekitzen zuen Luterok eta jarrera berri hori kontraesanean zegoen aurretik predikatzen zuenarekin (García-Villoslada, 1973).

Gutun bidezko harremana, 1530 urtean

1530eko ekainaren 19an idatzitako gutunean Luterok eskerrak ematen zizkion Hieronimus Weller-i bere semea zaintzeagatik. Luterok zioenez, Weller-ek idatzi zion bigarren gutunean Hans-i (Luteroren semeari) buruz hitz egiten zuen, haren pedagogo moduan. Luterok esaten zion Jainkoak emango al ziola egunen batean Hansi egindakoa saritzeko aukera.

1530eko ekainaren 19an gutun bat idatzi zion Luterok Hans semeari. Esaten zion oso pozik zegoela hain langilea zela eta erreztatzen zuela ikusita. Ipuin bat kontatu zion gero, errezatu eta ikastea gustatzen zitzairen haurrentzako zen jardina baten berri emanaz. Jardina horretara joan zitekeela jatera eta jolastera, erreztatzea gustatzen bazitzaion eta ona bazen.

1530eko ekainaren 29an Melanchthon-i gutun bat idatzi zion Luterok eta esaten zion irakurri zuela haren isiltasunaren azalpen ederra eta aldi berean bidali ziola bera isilik egon izanaren azalpena. Egun horretan haren gutuna heldu zitzaizkion, merezi gabeko gaitzespenez bete, isiltasun horrek Melanchthon-en lanak eta malkoak ugaltu izan

balitu bezala. Melanchthon-en gutunak gau horretan iritsi izan ez balira, mezulari bat bidaliko ziola bizirik ala hilda zegoen jakiteko. Haren Apologia jaso zuela eta galdetzen ziola zenbateraino amor eman zitekeen Aita Santu zaleen aurrean. Bere ustez gehiegi amor eman zuela. Gau eta egun gogoeta egiten zuela horretaz guztiaz, gaiari alde guztietatik begiratu, eta zenbat eta gehiago begiratu, orduan eta ziurrago zegoela irakaspen horren oinarriaz. Hitz bat ere ez zela erretiratu behar.

1530eko uztailaren 6ko gutunean Luterok Hausmann-i esaten zion Konfesioa honako hauek sinatu zutela: Saxoniako Hautesleak, Brandenburgoko Margraveak, John Frederiko Gazteak, Anhalt-eko printzeak, Nurenberg eta Reutling-eko hiriek... Mainzeko artzapezpikua oso goraipatua zela bere bake-zaletasunagatik eta Enperadorea agertzen zela dietako pertsonarik moderatuena bezala.

1530eko uztailaren 9an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonas-i, esanez haren gutunak oso atsegingarriak izan zirela. Dietaren amaiera asebetetzailerako espero zuela, nahiz eta irekiak gelditu apaizen ezkontzaren eta bi formatako sakramentuaren gaiak.

1530ko uztailaren 13an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Esaten zion herabeak ez zutela izan behar, horrek besteak harrotzen zituelako. Besteek uste zutela berauek amor emango zutela, besteak Enperadorearekin bat baldin bazetozen. Baina, garbi zegoela Enperadorea alde batetik bestera zalantzan zebilela. Luterok esaten zion beraiek fermu mantendu ezkerok, besteek beren iritzia aldatuko zutela. Eskatu behar zitzaizela itzultzeko beren irakaspen okerrez galbidera eraman zituzten arimak, induljentzien bidez bereganatu zituzten ondasunak eta hain lotsagabeki erail zituzten pertsonak (Kaiser Leonhard eta beste).

1530eko abuztuaren 14an gutun bat idatzi zion Luterok bere emazte Katalinari. Esaten zuen Pommer eta besteei laster idatziko ziela. Augsburgotik berririk ez zutela. Errefutazioari emandako erantzuna laster argitaratuko zutela, baina Errefutazioaren kopiarik ez zietela ematen, erantzunik ez prestatzearren. Abuztuaren 10az geroztik ez zuela buruan burrunbarik sentitu. Burrunba horrek idaztea eragozten ziola.

1530eko irailaren 14an idatzitako gutunean Luterok Melanchthon-i esaten zion bezperan Printze Hauteslea eta Graf Albrect izan zirela bera bisitatzen, etxerako bidean zihoazela. Pozik zegoela printzeak zurrumbilo horretatik ihes egin zuelako eta espero

zuela Melanchthon ere laster aske izango zela. Nahikoa lan egin zuela. Harengatik errezatzen zuela eta espero zuela Melanchthon adoretu egongo zela eta ez zuela bere burua premiarik gabe atsekabetuko, dena Jainkoaren eskutan zegoelako.

1530eko irailaren 20an gutun bat idatzi zion Luterok Melanchthon-i. Esaten zion harengatik kezu asko jaso zituela eta ez ziola hori esaten mina ematearren. Luterok zion erabaki zuela Melanchthon-i sinestea eta pentsatzea hark ez ziola kausari zegokion ezer gordeko. Konbentzitu zegoela Melanchthon-ek ez zuela amor emango Ebanjelioari zegokionean. Luterok printzearen aurrean esan zuen berak ez zuela ezer idatzirik jaso gai horretaz.

1530eko irailaren 23an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i eta kontatzen zion Augsburgon zer gertatu zen Printzeak alde egin zuenetik. Arbitro batzuk aukeratu zituztela dotrinaren batasunaz eta bakeaz erabakiak hartzeko. Horien artean zegoela Felipe. Adostasunik ez zutela lortu eta Enperadorearen esku zegoela erabakia. Karlos Enperadoreak bakea eta batasuna ezarri nahi zituela, baina inguruan deabru mozarrotu asko zegoela.

1530eko urriaren 31n Nicolas Amsdorf-i idatzitako gutunean Luterok zion Amsdorf kezu zela idatzi ez ziolako. Luterok zion mendekua izan zela, bakarrik zegoenean Amsdorf-ek ez baitzion bidali kontsolamendu lerro bat ere. Luterok bere buruari galdetzen ziola Amsdorf Magdeburgoko artzapezpiku edo Alemaniako Primatu bihurtu ote zen, hain erraz ahantzi zuelako Lutero. Esaten zion atsegingarri gertatu zitzaiola bere azken argitalpena Amsdorfi gustatu zitzaiola ikustea. Esaten zion bere osasun kaxkarrari zor zitzaiola gehiago ez argitaratzea.

1530eko abenduaren 12an gutun bat idatzi zion Luterok John Hautesleari. Esaten zion Bruck Doktoreak galdetu ziola ezkutuan Erromako Erregearen aukeraketari buruz. Luterok zion Printzeak bozkatu egin behar zuela, hori egiten ez bazuen aitzakia zutelako hari elektoradua kentzeko eta beste norbaiti emateko eta Alemania zatitu egingo zela. Bozkutzen bazuen, elektoradua sendotua geratuko zela.

Esmalkaldako Liga. Nurenberg-eko bakea. Agricola. Kontzilioa. Felipe Landgravearen bigamia

Alde batetik, Karlos Enperadoreak heresia desagerraraziko zuela agindu zion Aita Santuari. Bestetik, Juan Saxoniakoak Augsburgoko Konfesioa izenpetu zutenak Esmalkadan biltzeko deia egin zuten 1530ko abenduaren 22an eta printze luterotarrek defentsarako aliantza bat eratu zuten 1531ko otsailean: Esmalkadako Liga. Esmalkadako Ligan elkartu zirenak honako hauek ziren: Saxoniako Juan eta Juan Frederiko, Braunschweig-Grubenhagen-go Felipe, Braunschweig-Luneburgo-ko dukeak, Hesseko Felipe landgravea, Anhalt-eko Wolfgang printzea, Mansfeld-go kondeak, Germania Garaiko eta Germania Behereko hiri batzuk. Ligako kideetako bati erasotzean, denek elkar babestuko zutela erabaki zuten. Liga hori 1537ra arte luzatu zen hasieran eta gero beste hamar bat urte ere luzatu zen, Karlos V.ak 1547an menderatu zuten arte. Esmalkadako Ligak inperio barneko inperio moduan jokatu zuten ikuspegi militarretik. 1535ean indar handia zuen Europar Esmalkaldako Ligak. Enperadoreak estatu baten moduan tratatzen zuten. Frantziako eta Ingalaterrako erregeek Alemaniako printzeengana jotzen zuten, Augsburgotarrei aurre egiteko. Horrela, Frantziako erregeak enbaxadorea bidali zuten Saxonia Ernestotarrera eta Melanchthon gonbidatu zuten beren hiriburua bisitatzera. Ingalaterra ere Esmalkaldako printzeen laguntza bila ibili zen eta antzeko gonbitea egin zion Melanchthon-i, London bisitatzeko (García-Villoslada, 1973; Smith, 1911; Roper, 2010).

Enperadorea turkoen erasoagatik kezkatua zegoen, beraz Nurenberg-en elkartu eta Nurenberg-eko Bakea edo suetena sinatu zuten katolikoek eta protestanteek 1532ko uztailaren 23an. Ituna bederatzi printze eta hogeita lau hirik sinatu zuten. Katolikoek ordezkariek Mainzeko Hauteslea eta Palatinadoko Hauteslea izan ziren. Protestanteena: Saxoniako Hauteslea. Eraitza: Nurenberg-eko Bake Erlijiosoa izeneko ituna. Itun horren arabera, Saxoniako Hauteslearen eta haren kideen kontra hasitako prozesua bertan behera geldituko zen; batak bestearen fedea errespetatuko zuten eta inor ez zuten kondenatuko sineste erlijiosoengatik, kontzilioa ospatu bitartean; Worms-eko ediktuaren mehatxuak baztertu ziren; alde bakoitzaren ondasunak zainduko ziren; Augsburgoko ediktua aldi baterako etengo zen, turkoen kontrako gerran esku-hartzearen truke; Printzeek Enperadoreari obeditu eta turkoen kontra laguntza emango zioten; Frantziako Frantzisko I.aren gana ez ziren hurbilduko printze protestanteak

Nurenberg-eko bakearen ondoren auzi nagusia kontzilioa deitzea zen; Klemente Aita Santuak ez zuen horretarako gogorik. Enperadorearen aldeko printzeek Esmalkadakoekin sueten bat sinatu zuten; Nurenbergeko bakea sinatu zenetik protestanteek posizio sendoa izan zuten; hala ere, barne-gatazkarik ez zitzaien falta izan: Lawrence Soranus klerigoa bere parrokiatik jaurtikitzea, Osiander apaizaren aitortza pribatu eta publikoari buruzko auzia, John Agricola-ren heresia antinomianoa (García-Villoslada, 1973). John Agricola Eisleben-en jaioa zen; Luteroren lagun hurbila, urte askotan haren jarraitzailea eta unibertsitateko irakaslea. Leipzige-eko eztabaidan Luteroren idazkari lana bete zuen. Agricola-ren emazteak harremana bazuen Katalinarekin. 1528an Luterok entzun zuen Agricola dotrina faltsua predikatzen ari zela: fede bidezko justifikazioa irakasten zuen, moralitatea mesprezatu; sinestuna grazia egoeran baldin bazegoen, ez zitzaion asko axola bat egin edo bestea egin; zuzen jokatu ala bekatua egin; esaten zuen kristauak kezkatu behar zituen ez zela legea bortxatzea, Jainkoaren Semea iraintzea baizik. Mansfeld-go kondeak Luterori esan zion Agricolak predikatzen zuenak Müntzer-ek predikatzen zuenaren antza zuela. Agricolak ez zituen behar moduan kontrolatu nobleen kontrako erasoak eta uste gabean Hesse-ko Felipe, Mansfeld-go Alberto eta Württemberg-eko Ulrich Dukea iraindu zituen. Hautesleak predikatzea debekatu zion Agricolari. Luterok Agricola Wittenberg-en irakastera gonbidatu zuen; Lutero kanpora joan zenean, bere ordezkari irakasten utzi zuen, baina etortzean ikusi zuen bere dotrinatik urrunduta egiten zela. Agricolak bere tesiekin liburu bat idatzi zuen, baina Luterok eragotzi egin zion liburu argitaratzea. Agricola-ren tesi antinomisten kontrako tesiak idatzi zituen Luterok eta Unibertsitateko entzuleria zabal baten aurrean defendatu zituen. 1537an Esmalkaldako negoziaketetatik kanpora utzi zuten Agricola. 1538ko urtarrilaren 6an gutun bat idatzi zion Luterok Agricolari; esaten zion ikasgai teologikoak bertan behera utzi behar zituela; aurrerantzean unibertsitatearen baimena beharko zuela konferentzia horiek emateko. Luterok eragotzi egin zion Agricolari publikoki irakastea eta Agricola bere teoriez erretraktatu egin zen publikoki. 1538ko abenduaren 26an gutun bat idatzi zuen Agricolak Luteroren mendean jartzen zela adieraziz eta seme espiritualtzat har zezala hari eskatuz. Beraz, Agricolak atzera egin zuen, baina berriro ere lehengo ideietara itzuli zen, Luteroren idatzietan oinarrituta. 1539ko otsailaren 1ean tesi luterotar batzuk idatzi zituen Agricolak. Saxoniako Hautesleak Konsistorium-eko kide izendatu zuen Agricola eta Wittenberg-eko Unibertsitateak Filosofiako Fakultateko Dekano izendatu nahi izan zuen, baina horrek Lutero sutu zuen eta 1540ko apirilean Agricola-ren kontrako beste liburuxka bat atera zuen. Luterok Agricola salatu egin zuen

unibertsitateko kantzilerraren aurrean, sekta berri bat fundatu nahi izan zuela esanez. Wittenberg utzi eta Brandenburg-era joateko aukera eman zioten Agricolari eta hark 1540ko ekainean onartu zuen eskaintza hori. 1540ko abuztuan Agricolak Wittenberg-etik alde egin zuen. Brandenburgoko Joakin II. Hautesleak gorteko predikari postua eman zion Berlinen (Smith, 1911; García Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Enperadoreak eta Aita Santuak ezin zuten Augsburgoko ediktua betearazi lurralde protestanteetan, printze protestanteak seguru sentitzen baitziren Esmalkadako Dietaren ostean; Enperadoreak haien beharra zuen turkoen kontra gerra egiteko. Esmalkadako Dietako kideek erabaki zuten Enperadoreari ez ziotela lagunduko turkoen kontrako gerran, Dieta horretako kideen kontra hasitako prozesuak bertan behera uzten ez bazituen.

Esmalkaldako Ligaren eta Nurenberg-eko Bakearen ondoren, Eliza eraberritzeko proiektua utzi eta eliza antolatzeari ekin zion Luterok: Hauteslearen zuzendaritzaren pean egingo zen antolaketa hori, ez gotzainen arabera. Luterok *Martin Lutero Doktorearen oharra Alemaniako Herri Maiteari* idatzi zuen 1531n, esanez Enperadoreak armak hartzeko agintzen bazuen adiskide luterotarren kontra, ez zitzaiola obeditu behar. 1530ean Luterok esan zuen legeetan adituek esan behar zutela Enperadorearen kontra erresistentzia jarri behar zen ala ez, haren kontra borrokatzea zuzena zen ala ez. Ondorioz, Luterok Esmalkaldako Liga sostengatu zuen, baina ez zuen erresistentzia sostengatuko zuen teologiarik garatu (Roper, 2010).

Ratisbonako Dietaren (1532ko apirilaren 17tik uztailaren 27ra) helburua gatazka erlijiosoa konpontzea eta turkoen kontrako gerrarako prestatzea zen. Campeggio, Aita Santuaren legatua, protestanteen kontra indarra erabiltzearen aldekoa zen, baina Suleiman Magnifikoa gerrarako prestatua zegoen; Viena eskuratu eta Ratisbonara heldu nahi zuen. Dietako estatu katolikoek kontzilio bat eskatu zioten Aita Santuari; Aita Santuak deitzen ez bazuen, Enperadoreak berak deitzea nahi zuten; eta Kontzilioa posible ez bazen, biltzar nazional bat deitzea nahi zuten; kristauen batasuna lortzeko behar zena egin behar zuten Inperioko Estatuak. Gainera, Erromak ezarritako zergak kentzeko eskatzen zuten (García-Villoslada, 1973).

Juan Frederiko I.a izendatu zuten Saxoniako Hautesle berri eta Lutero pozik zegoen aita baino kementsuagoa zelako eta Habsburgotarren etsaia zelako. Juan Frederiko Torgau-n jaio zen 1503an eta Weimar-en hil zen 1554an. Saxoniako Hauteslea eta Esmalkadako Ligaren burua zen. Espalatino izan zen haren hezitzailea eta haren eskutik bihurtu zen luterotar. Liburutegi

zabal baten jabe zen. Luterorekin gutun bidezko harremana izaten hasi zen, Aita Santuak hura eskomikatzeko bulda sinatu zuenean. Luteroren defendatzaile sutsua izan zen eta haren idazlan osoen argitalpena bultzatu zuen. Espirako II. Dietan bere aita ordezkatu zuen (1529). Augsburgoko dietan bere aitarekin joan zen eta Augsburgoko Konfesioa sinatu zuen. 1532an Hautesle bihurtu zen eta Eliza Luterotarra sendotu zuen: hautes-kontsistorioa eta elizen bisitaldiak antolatu zituen. Hesseko Landgravearekin arazoak izan zituen, hark suitzarrak eta Estrasburgoko ebanjelikoak elkartu nahi zituelako. Aita Santuen kontra agertu zen, Kontzilio Orokorraren deialdia zela eta; uste zuen kontzilioak Aita Santuaren agintea indartu besterik ez zuela egingo. Juan Frederikok Luterori eskatu zion artikulu guztien labur-bilduma bat egiteko eta horrela sortu ziren Esmalkadako Artikuluak. Esmalkadako Dietan (1537) kontzilioa baztertu zuten eta Aita Santuaren eta Enperadorearen legatuei ez zitzaien jaramon handirik egin. 1546an Esmalkadako Gerran hegoaldera joan zen bere tropak hartuta, baina Maurice Dukeak haren lurraldea inbaditu zuen eta Juan Frederikok bere lurraldea berreskuratu zuen. Enperadoreak Mühlberg-eko Batailan (1547) haren gudarostea sakabanatu zuen, Hauteslea preso hartu zuen eta Worms-era erbesteratu zuen. Enperadoreak heriotzera kondenatu zuen lehenik, baina gero Juan Frederikok Wittenberg-ko Kapitulazioa sinatu zuen eta bizitza osoko espetxe zigorra ezarri zion. Ez zuen inoiz onartu fede protestantea baztertzea edo Augsburgoko Interim-a onartzea. 1552an askatu zuten espetxetik (García-Villoslada, 1973).

Karlos V.a Espainiara joan zen 1533ko apirilaren 21ean eta bederatzi urtez ez zen Alemaniara itzuli. Denboraldi horretan protestantismoa hedatu egin zen hainbat lurralde (Anhalt-Dessau, Brandeburgo, Frankoniako margrabiato batzuk, Pomerania, Silesia, Württemberg-eko dukerria) eta hiritara (Augsburgo, Bremen, Hanburgo, Hannover, Main eta Oder-eko Frankfurt, Nassau, Nurenberg, Ulm) (García-Villoslada, 1973).

Luterok denbora gehien Wittenberg-en ematen zuen, irakasle, predikari, guraso eta idazle lanak eginez; gainera, tarteka, beste hirietara bisitaldi laburrak egiten zituen: Eilenburg, Kemberg, Lichtemberg, Torgau, Weimar. Printzeek eta Saxoniako Hautesleak ongi zaintzen zuten. Wittenberg-en hainbat arazo, tirabira eta gatazka izan zituen Luterok eta pentsatu zuen beste nonbaitera joatea ere. 1525etik 1533ra arte nahiko txiroa izan zen Wittenberg-eko unibertsitatearen egoera. 1533an Melanchthon-ek unibertsitatearen estatutu berriak idatzi zituen eta Luteroren hiru lagunek lortu zuten doktoretza-titulua, haren zuzendaritza pean. 1535etik hil arte Teologiako Fakultateko dekanok izan zen Lutero (García-Villoslada, 1973).

Hesseko landgravearengan eragin handia zuen Zwingli-k eta Alemania iparraldean nahiko jarraitzaile zituen. 1531ko urrian hil zen eta Lutero poztu egin zen horretaz. Garai horretan Lutero osasunez pattal zebilen, belarriko burrunbekin; 1532ko urtarrilaren 22an gaixoaldi bat izan zuen, baina katedrako lana egiten eta idazten jarraitzen zuen: salmoei buruzko irakaskuntzak, profetei buruzko idatziak, Galaziarrei idatzitako gutunaren komentarioa, Augsburgoko Dietako Errezesoaren kontrako Glosa, mezaren eta apaizgintzaren kontrako liburua. Lutero harreman txarrak izan zituen Klemente VII. arekin, haren zerbitzari Campeggio-rekin, Saxonia Albertotarreko George Dukearekin. Jorge Bizardunak protesta egin zuen Saxoniako Juan lehengusuaren aurrean, Lutero Enperadoreari, Aita Santuari, printzeei eta kardinalei erasotzen zielako. Juanek moderazioa eskatu zion Luterori, baina Jorgek Luteroren kontra idatzi zuenean, honek berehala erantzun zion; esan zion Dresdeko hiltzailea, odol gosea, lotsagabea, sikarioa, deabrua eta traidorea zela. 1539ko apirilaren 7an hil zen Jorge Bizarduna eta anaia Henrikeri utzi zion bere lurraldea, baldintza batekin: sinesmen katolikora itzultzekotan. Henrikek Jorge ordezkatu zuen, haren lurraldea bereganatu zuen, baina testamentuko baldintzei ez zien jaramonik egin: protestante izaten jarraitu zuen (García-Villoslada, 1973).

1534ko irailaren 25ean hil zen Klemente Aita Santua eta Pablo III.ak jarraitu zion. Aita Santu hori izan zen Jesusen Konpainiaren onarpen kanonikoa gauzatu zuena eta Trentoko Kontzilioari hasiera eman ziona. Erreformaren historiako fase berria hasi zuen Paulo III.ak; Luteroren heresia itzali nahi zuen, kontzilio ekumeniko baten bidez. Kontziliarako deialdia egiteko asmoz, Alemaniara bidali zuen Vergerio Nuntzioa. Vergerio Wittenberg-en elkartu zen Lutero, Bugenhagen eta Barnes-ekin 1535ko azaroaren 7an. Luteroren karikatura honela egin zuen Vergeriok: harroa zela, latina gaizki hitz egiten zuela, betokerra zela, deabrutuen antzeko begirada zuela, eraztun batzuk eta urrezko koilara handi bat zeramatzala soinean. Lutero Vergeriori esan zion ez zuela kontziliarik nahi alferrikako gauzez hitz egiteko: jantzi monastikoaz, apaizen tonsuraz. Vergeriok zioenez, Lutero esan zion kontzilia joango zela eta han bere iritziak mundu guztiaren kontra defendatuko zituela. Lutero zioen katolikoek kontzilio beharra zutela, beren sinesmena ahula zelako; baina, berek ez zutela kontzilio beharrik, ziurtasuna Espiritu Santuak ematen zielako. Hala ere, kontzilioa nahi bazuten, deitzeko; Lutero hara joango zela, sutara botako bazuten ere.

Austriako Fernandorekin eta beste hainbat printzerekin ere elkarriketatu zen Vergerio, kontzilio orokor bat antolatzeko asmoz. Kontzilioa non egin erabakitzea zen kontua. Vergerio nuntzioa Saxoniako Printze Hauteslearengana zuzendu zen; hark abegi ona egin zion eta gazteluan eman zion ostatu. Bien bitartean, Karlos V.a Afrika iparraldeko lurraldeak (Tunisia) bereganatzen ari zen.

Vergeriok Saxoniako Hautesleari esan zion kontzilioa Mantuan ospatzeko asmoa zutela. Juan Frederiko Hautesleak esan zion inperioko dietek erabaki zutela kontzilioa Alemanian egin behar zela eta ezin zuela ezer esan Esmalkadako aliatuekin hitz egin aurretik. Esmalkadako Ligak 1535eko abenduaren 21ean ezezkoa eman zion Vergeriori. Erabaki zuten kontzilioak Aita Santuaren eraginetik libre izan behar zuela; Alemaniako lurralde batean ospatu behar zela, inperioko dietek erabakita bezala; ez zirela Pablo III.aren bermeez fidatzen; gauza guztiak Jainkoaren Hitzaren arabera epaituko zirela. Enperadorea eta Aita Santua Vatikanon elkartu ziren, baina Frantziako erregeak eta Ingalaterrakoak kontzilioa deitzea eragotzi zuten (García-Villoslada, 1973).

Saxoniako Juan Frederikok Wittenberg-eko teologoei esan zien kontzilio libre eta kristau bat nola deitu behar zen eztabaidatzeko; eztabaitatik etorriko zela batasuna. Baina Enperadoreak neurri militarrik hartzen bazituen, printzeak behartuta zeuden harengandik defendatzera. Lutero prest zegoen otoitzak eta indarra erabiltzeko. Juan Frederiko printzeak Luterori eskatu zion artikulua batzuk idatz zitzala zertan amore eman zitekeen eta zertan ez erabakitzeko. Lutero lanean hasi zen, baina bularreko angina modukoak izan zituen 1535ko abenduaren erdi aldera. Halere, berehala idatzi zituen artikulua eta Wittenberg-eko komisioteologikoak onartu egin zituen, aldaketa txiki batzuekin. Artikulu horiek izenpetu zituztenak honako hauek izan ziren: Lutero, Justo Jonas, Bugenhagen, Creutziger, Amsdorf, Espalatino, Melanchthon eta Agricola (García-Villoslada, 1973).

1536ko ekainaren 2an Aita Santuak kontzilioa deitu zuen Mantuan, 1537ko maiatzaren 23rako. Kontziliorako gaiak honako hauek izango ziren: eliza moralki eraberritu, heresiak borrokatu eta Lur Santuak bereganatzeari ekin. Pablo III.ak legatuak bidali zituen Frantziara, Poloniara, Austriara, Eskoziara eta Alemaniara, lurralde haietako erregeak eta printzeak kontziliara etor zitezen. Lutero esan zuen kontzilioa Aita Santuak deitzen bazuen bera ez zela joango. Zer egin erabakitzeko printze eta teologo protestanteak Schmalkalden bildu ziren 1537ko otsailan.

Erabaki zen Augsburgoko Konfesioko artikulua birplanteatzea, garai horretarako bigunegiak zirela pentsatzen baitzen.

Luterok Esmalkaldako artikulua 1537an idatzi zituen, katoliko eta protestanteen arteko aldeak azpimarratuz, Esmalkaldako Ligakoek Elizaren kontzilioa presta zezaten. Kontzilioan hartu beharreko erabakiak nola hartu jakiteko idatzi zituen Luterok Esmalkadako artikulua. Lehenik katolikoek eta protestanteek eztabaidatzen zituzten puntuak agertzen ziren. Bigarrenik, Kristoren eta salbamenaren obrak agertzen ziren: Kristo gizakien bekatuak barkatzeko eta gizakiak justifikatzeko hil eta berpiztu zela; guztiok bekatariak garela eta gure meriturik gabe justifikatzen garela; erromesaldiak, erlikiak, induljentziak deabruaren iruzurrak direla; Aita Santua ez dela elizaren buru Jainkoaren hitzagatik; Erromako elizaren gotzain edo erretore besterik ez dela. Hirugarrenik, Esmalkadako bileretan eztabaidatu zitezkeen gaiak zehaztu zituen: jatorrizko bekatua, legea, penitentzia, bataioa, aldareko sakramentua, aitortza, eskumikua, apaizgintza, apaizen ezkontza, boto monastikoak. Artikuluen puntu nagusiak honako hauek ziren: gizakiak fedeaz salbatzen dira, ez ekintzaz; meza ez dira ekintza ontzat hartu behar; Aita Santua ez da eliza unibertsalaren burua, Erromako Gotzaina baizik. Augsburgoko Konfesioren osagarri ziren Esmalkaldako artikulua. Augsburgoko Konfesioren Melanchthon-ek tonu bakegilea erabili zuen, baina artikulua horietan Lutero intransigenteagoa agertu zen. Luterok zioen ez zuela aldatuko artikulua horietaz zuten jarrera. Artikulu horiek idatzi ostean, zortzi teologok izenpetu zituzten eta Saxoniako printzearen eskutan utzi zituzten 1537ko urtarrilaren 3an; egun horretan bertan gutuna idatzi zion Luterok John Frederiko printzeari. Esaten zion Amsdorf, Eisleben eta Espalatinorekin artikulua berrikusi zutela; horretarako egun batzuk behar izan zituztela, Lutero bera ahul zegoelako. Artikulua sinatu ostean, printzeari bidali zizkioten, Espalatinoren bidez. Printzeak zorionak eman zizkion Luterori eta opa izan zion Jainkoak indarra emango ziola artikulua horiei eusteko.

1537ko otsailaren 7an heldu ziren Esmalkaldara Saxoniako Juan Frederiko eta haren kontseilariak: Espalatio, Lutero, Bugenhagen eta Melanchthon. Esmalkaldan beste printzeekin eta berrogei bat teologorekin elkartu ziren. 1537ko otsailaren 24an heldu zen Esmalkadara Pedro van der Vorst, Aita Santuaren nuntzioa. Saxoniako Juan Frederikori audientzia eskatu zion, baina hark ukatu egin zion, saio publikoan bere mezua emango zuela eta. Vorst-ek esan zion berarekin egotera etorri zela eta Juan Frederikok harrera egin zion, baina bere kontseilariak lagun zituela. Nuntzioak kontzilioa deitzeko bulda eman zion, baina

printzeak bulda jaso gabe alde egin zuen. Hesse-ko landgraveak, Württemberg-eko dukeak, Pomeraniako dukeak eta Braunschweig-Luneburgo-ko dukeek ere mespretxuz tratatu zuten nuntzioa; audientziarik ez ziotela emango esan zioten. Esmalkadako estatu ebanjelikoen biltzarra 1537ko martxoaren 6an amaitu zen (García-Villoslada, 1973).

Esmalkaldako Liga bildu zenean, Lutero gaizki sentitu zen, giltzurrunetako harriak zituelako. Orduan, Melanchthon-ek hartu zuen gidaritza eta Augsburgoko Konfesioa ezarri zuen, Luteroren artikuluen ordean. Melanchthon-en eraginaren ondorioz, Ligan ez ziren onartu Esmalkadako artikulua. Aita Santuari buruzko agiri bat onartu zuen Ligak, Melanchthon-ek prestatua: Aita Santuaren lehentasunari buruzko tratatua. Bestalde, Melanchthon Bucer-en eta Zwingli-ren jarreretara hurbildu zen; atsegin zuen Hesse-ko landgravearen jarrera, protestanteen batasuna lortzeko. Melanchthon-ek Hesse-ko landgravearekin hitz egin zuen eta esan zion Luterok Bugenhagen-en eraginez aldatu zuela aldareko sakramentuari buruzko lehen erredakzioa: "Eukaristiako ogiaren eta ardoaren azpian Kristoren benetako gorputz eta odola daude" jarri ordean, beste hau idatzi zuela: "Eukaristiako ardoa eta ogia Kristoren benetako gorputza eta odola dira" (García-Villoslada, 1973).

Melanchthon-ek bere lagun Camerarius-i esaten zion barne-herstura handiz joan zela Esmalkadara eta berarekin batera joan zirela Lutero, Osiander, Bugenhagen, Espalatino, Amsdorf, Rhegius eta Vitus. Melanchthon-ek zioen kongresu horretan gai hauetaz hitz egin behar zela: elizetan irakatsi behar zuten dotrinaz, defendatu behar ziren artikuluez eta adostasuna lortzeko alda zitezkeenez. Melanchthon-ek zion dotrinaren azterketa sakonik ez zela egin eta besoak gurutzatuta ez egotearen eskatu zitzaizela hitz egiteko Aita Santuaren lehentasunaz, gotzainen eskumenez eta Augsburgoko Konfesioko artikuluez. Melanchthon-en iritziz, jende ezjakinak ez zuen uzten garrantzi gutxiko gauzak aldatzen. Printzeek esan zuten Wittenberg-eko adostasunari eutsiko ziotela eta eztabaidatu zuten kontzilioa erabat baztertu behar zuten ala delegatuak bidali behar zituzten. Melanchthon-ek defendatu zuen kontzilioa ez zela beste gabe baztertu behar, baina, haren iritziaren kontra, Mantuako kontzilioa deitzearen kontra bozkatu zen; Enperadoreari eskatu zioten berak deitzeko kontzilio aske bat (García-Villoslada, 1973).

Luterok gogor tratatzen zituen etsaiak. Aita Santua eta juduak ez zituen erdizkako etsaiak. Baina, turkoen kontra zuen etsaitasuna ñabardura gehiagokoa zen. Gurutzadaren ideia ez zitzaion gogoko. Turkoei ez zitzaien eraso behar haien sinesmenaren kariatz. Turkoen kontrako

gurutzadetarako deiak Aita Santuak Enperadorea manipulatzeko erabiltzen zituen trikimailuak ziren. Aita Santuari eraso behar zitzaion, turkoei baino areago. Luterok nahiago zuen turkoen mendean egon, espainiarren mendean baino, turkoek justiziaz jokatzeko zuten bitartean, espainiarrek benetako piztien moduan jokatzeko omen zutelako. Luterok *Libellus de ritu et moribus Turcorum* (*Turkoen erritu eta ohiturei buruzko liburua*) izeneko idatziari hitzaurrea egin zion. Musulmanak Alemaniaren ateetan zebiltzan. 1526an Suleiman I.ak Hungariaren zati handi bat bereganatu zuen eta 1529an Viena setiatu zuen, menderatu ez bazuen ere.

Luterok autoritate zibilaria obeditzea eskatzen zuen, baita turkoek agintzen bazuten ere. 1529an argitaratu zen *Turkoen kontrako gerraz* liburuan Jainkoaren makila zen turkoa, haren bidez zigortzen baitzuen mundua. Liburu horretan zioen turkoak hiltzaileak zirela, autoritate sekularra mehatxatu zutelako, kristauei militarki erasoz; turkoak gezurtiak zirela, Eskriturak oker interpretatzen zituztelako. Ikuspegi hori izan zen nagusi Luterorengan 1528tik 1542ra bitartean: *Turkoen kontrako gerraz* (1529), *Turkoen kontrako sermoia* (1529), *Turkoen kontrako otoitzerako deia* (1541), *Koranaren Bibliander-en Edizioaren Hitzaurrea* (1543).

Luterorentzat erlijio musulmanak osagai asko hartu zituen beste erlijioetatik (judaismoa, kristautasuna) eta paganismotik. Turkoarengan deabruaren eta haren eragileen indarra ikusten zuen, baina arriskutsuagoak iruditzen zitzaizkion Aita Santua eta haren bidaliak. Luterok berehala eskuratu zuen Koranaren latinezko itzulpena, 1542an argitaratu zenean. Turkoen zeremonia erlijioso bikainak eta Aita Santu zaleen erakusketa itzaltsuak kontrastatzen zituen. Luterok ikusi zuen Mahomaren erlijioa ekintzetan eta kanpoko zeremonietan oinarritzen zela; Jainkoaren, graziaren eta fedearen ebanjelioaren kontrako zela; Kristoren haragihartzea, heriotza eta berpizkundea ukatzen zituela. (*Turkoen kontrako otoitzerako deia*, 1541; Roper, 2010). Turkoen eta alemanen izaera alderatzean, Luterok esaten zuen alemanek gehiegi jan eta edaten zutela, luxu handiz janzten zirela eta eraikuntza nabarmenak egiten zituztela; aldiz, turkoak neurritsuagoak eta apalagoak zirela. Turkoek kate motzean lotzen zituzten beren emazteak, baina ez zuten ezkontza errespetatzen, errazki dibortziatzen zirelako eta poligamia praktikatzen zutelako. Turkoak, berenak ez ziren lurraldeei erasotzen zieten, Jainkoaren zigorraren agenteak eta deabruaren zerbitzariak ziren; enperadoreak haien kontra borroka egitekotan, bere mendekoak defendatzeko izan behar zuen, ez ebanjelioa edo sinesmena defendatzeko. Enperadorearen egitekoa sinesgabeak ezabatzea baldin bazen, Aita Santuarengandik, gotzainengandik eta apaizengandik hasi behar zuen.

Anhalt-eko printzeak Luterori agindu zion zalgurdia bidaliko ziola Wittenberg-era, haren lurraldera eramateko atsedean hartzera. 1538ko maiatzaren 12an Justo Jonasi gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion Anhalt-eko printzeak eskatu ziola finka zezala Coswick edo Worlitz-en egonaldi bat egiteko eguna. Jonasi esaten zion printzeari adierazteko larunbatetik ostegunera okupatua egongo zela, predikatzen eta klaseak ematen. Irakasle beharra zegoela, Jonas eta Pommer absente zeudelako eta Agricolak eragotzia zuelako klaseak ematea. Ostegunean joan eta ostiralean itzuliko zela. Jonasi esaten zion haren etxean dena ongi zegoela, Sofia txikiaren sukarra kenduta.

Kontzilioa Mantuan ezin izan zen bildu Frantzisko I.ak Saboya bereganatu zuelako eta Karlos V.ak Proventzari eraso ziolako. Mantuako dukeak zailtasunak jarri zituen Mantuan kontzilioa egiteko. Pablo III.ak 1538ko maiatzaren baterako deitu zuen kontzilioa Vicenzan.

Alemanian Esmalkadako ligaren kontrako liga bat antolatu zuten Nurenberg-en. Kantziler Inperialak protestanteen elkartzehalekin ikusi zituen eta pentsatu zuen printze katolikoek bildu egin behar zutela. Nurenberg-eko Batasunean honako hauek elkartu ziren 1538ko ekainaren 12an: Fernando erregea, Bavierako dukeak, Salzburgo-ko artzapezpikua, Saxoniako Jorge, Mainzeko Alberto, Braunschweig-Wolfenbüttel-eko Erico eta Henrike. Protestanteengana bildu ziren Brandeburgoko Margravea, Saxoniako Henry eta Danimarkako erregea (García-Villoslada, 1973; Currie, 2009).

Enperadorea eta Frantziako erregea bakea sinatzeko prest zeudela ikusita, Henrike VIII.ak protestante alemanekin elkartu nahi izan zuen. Hark eskatuta, Burkhard eta Gotako Miconius bidali zituen Hutesleak Londresera, eta han onarpen sutsua egin zuten erregeak (Currie, 2009).

1531tik 1538ra bitarteko gutunak

1531ko urtarrilaren 22an Luterok Estrasburgoko predikaria zen Martin Bucer-i idatzi zion. Bucer-i esaten zion haren fede-aitortza erabat onartzen zuela, esaten zuenean gorputza eta odola errealki zeudela Jaunaren afarian eta arimaren elikagai moduan ematen zirela. Esaten zion Bucer-i hark ez zuela errazki onartuko Kristoren gorputza jartzen dugula sinesgabeen eta sinestunen ahoan. Denei haren partaide izatea ahalbidetu bazaie, ezin ukatu haren gorputza aldi berean toki ezberdinetan dagoela.

Posizio hori nagusi ez bazen Bucer-engan, negoziazioak amaitu behar ziren. Posizio horri ezin ziola uko egin Luterok. Bucer-ek ez bazuen ikusten ideia hori Kristoren hitzetan zegoela, batasun iraunkorra ezinezkoa zela beren artean. Bi aldeek onartzen zutena mantenduko zutela: Kristoren gorputza errealki presente zegoela sakramentuan eta sinestunek barnetik parte hartzen zutela. Hortik aurrerakoak batzuen eta besteen artean etsaitasuna sortzera eramango zukeela. Adostasuna beharrezkoa zutela, desadostasunak ebanjelioari kalte egingo ziolako.

1531ko otsailaren 2an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion Estrasburgokoak Karlos Enperadorearen kontra joango zirela. Beti esan zuela sakramentarioek sedizio espiritu ezkutu bat zutela. Müntzer berri bat sortuko zela haien artean, Jainkoak eragozten ez bazuen, eta zigortuak izango zirela Ebanjelioa mespretxatzen zutelako. Ingalaterra Erreforma besarkatzen ari zela eta lehen erdi Jainko moduan gurtu zuten kardinala orain bizitza osoko espetxera kondenatu zutela.

1531ko uztailaren 13an gutun bat idatzi zion Luterok Bernard Von Dolen predikariari. Luterok esaten zion Katalinak agindu ziola idazteko eta haren izenean agurtzen zuela. Goraipatzen zuela ezkontzeko hartu zuen erabakia; baina, ezkondu aurretik etxea eraiki behar zela, emaztearekin bizitzeko; eraman ezina zela norbere emaztearekin beste norbaiten etxean bizi beharra; ezagutzen zuela neska ezkongai eta zuzena eta estimagarria iruditzen zitzaioela, baina ez zuela besteen iritzian oinarritu behar erabakia hartzerakoan.

1531ko urriaren 31n eta azaroaren 20an Luterok Nicolas Hausmann-i idatzi zion esanez bere etxera etortzeko, beretzat laguntza eta sostengua izango zelako. Zwickau-ko jendearen esker txarrak atsekabetzen zuela, haien zerbitzuan hainbeste lan eginda gero. Lehenbailehen etortzeko, gela bat prestatua zeukala harentzako eta.

1531ko azaroaren 24an gutun bat idatzi zion Luterok Johann Bugenhagen-i, Lubeck-en bisitari lanetan zebilenari. Esaten zion haren emaztearen osasuna hobetu eta hura itzuli zain zegoela. Lubeck-eko jendeari nahikoa zerbitzatu ziotela eta eraman ezina gertatzen ari zela haren absentzia. Lutero lanez gainezka zegoela eta elizako diru kontuak eraman ezinik zebiltzala.

1532ko urtarrilaren 3an Luterok Wenzel Link-i idatzi zion esanez aspaldian ez ziola idatzi, eginkizun asko zituelako; Wenzel-ek denbora libre gehiago zeukala berak baino.

Galdetzen zion ea egia zen Nurenberg-eko ebanjelisten artean ulertu ezinak zeudela. Eskatzen zion laguntzeko deabruari aurre egiten. Jainkoaren epaia bigarren aldiz ikusten ari zirela; lehenik Müntzer-ekin ikusi zutela eta orain Zwingliorekin. Bestalde, esaten zion Carlstadt-i buruzko informazio fidagarririk ez ziola ematen.

1532ko otsailaren 12an gutuna idatzi zion Luterok John Hautesleari. Esaten zion Bruck doktoreak erakutsi zizkiola Mainzeko eta Pfalz-eko Hautesleek prestatutako artikuluak, Printzeen eta Enperadorearen arteko tratatuari buruzkoak. Esaten zion erregeari buruzko artikuluak zer pentsatua emango ziola Hautesleari, ezaguna baitzen haren aukeraketa zuzengabearen kontrako Hauteslearen jarrera. Luterok eskatzen zion artikulu horiek pasatzen uzteko. Enperadoreak bakea eskatzen zuela, eta Jainkoak eskua luzatuko balu bezala ulertu behar zela eskaera. Printzea ez zela gerran zer galdurik ez zeukan pertsona arruntaren modukoa.

Saxoniako Juan-i 1532ko otsailean egin zioten oineko ebakuntza; Luterok sarri bisitatu zuen Torgaun. 1532ko martxoaren 28an gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako John Hautesleari. Esaten zion printzearen gutuna atseginez hartu zuela eta eskerrak ematen zizkiola Jainkoari haren osasuna hobetzearren. Abuztuaren 15ean apoplexia eraso batez hil zen Juan; Wittenberg-en hilobiratu zuten bere anaia Frederikoren alboan.

1532ko ekainaren 23an gutuna idatzi zion Luterok Nicolas Amsdorf-i. Esaten zion ez ziola idatzi, buruko arazoengatik, baina haren otoitzei esker hobeto zegoela; pena ematen ziola Amsdorf gaixo egon zela entzuteak; ez zekiela zer aterako zen gai erlijiosoei buruzko printzeen eta Enperadorearen negoziaketetatik. Aita Santuak eta Frantziako erregeak turkoen kontrako borrokarako laguntza ukatzen zutela. Aita Santuek gizalditan bildu zutela induljentzien dirua, turkoen kontra joateko; Enperadoreak printze alemanen laguntza eskatuko zuela. Esaten zuen Carlstadt Frisiara joan zela ezkutaleku seguruaren bila eta Suitzan superintendente postua bakarrik lortu zuela.

1532ko maiatzaren eta ekainaren artean gutun bat idatzi zion Luterok Anhalt-eko Johann eta Joakini. Esaten zion Nikolas Hausmann haiengana zihoala, gorteko predikari moduan. Goi mailako karaktereko gizona, Jainkoaren Hitzaren predikari leiala zela eta zalantzarik gabe preziatuko zutela.

1532ko abuztuaren 27an gutun bat idatzi zion Luterok Danimarkako errege Frederikori. Esaten zion bere lehengusu Christian Erregea garaitu zuela, Jainkoaren laguntzaz.

Eskatzen zion Kristoren ereduari jarraitu eta eskuzabal izateko bere lehengusu presoarekin.

1532ko azaroaren 27an gutun bat idatzi zion Luterok Jonas Von Srockhausen-i. Esaten zion lagun onen bidez jakin zuela bizitzaz aspertua eta heriotza desiratzen zegoela. Esaten zion bere pentsamenduez mesfidatzeko eta entzun ziezaiela horrelako tentaldiak gainditu zituzten pertsonei. Haren belarriak jartzeko Lutero eta lagunaren ahoen ondoan eta uzteko haien hitzak bere bihotzean sartzen. Jainkoak suspertuko zuela. Elias, Jonas eta beste profetek heriotza eskatu zutela, izan zituzten sufrikario handiengatik; jaio ziren eguna madarikatu zutela, baina bizitzera behartuak egon zirela, beren eguna heldu bitartean. Jainkoari gomendatzen ziola, haren bihotza gida zezan, deabruaren kontra.

1532ko azaroaren 27an beste gutun bat bidali zion Luterok Jonas Von Stoskhausen-en emazteari. Esaten zion haren senarrari idatzi ziola kontsolamendu gutun bat. Deabrua haren eta haren senarraren etsaia zela, Kristo maite zutelako; horregatik mendekatzen zela haietaz. Esaten zion ez uzteko senarra bakardadean eta kalte egin ziezaiokeen ezer ez uzteko haren eskueran, zauritu ez zedin. Bakardadea pozoia zela harentzat. Mesede egingo ziotela istorioek, fabulek, turkoen edo tartaroen kontrako borroken kontakizunek.

1533ko urtarrilaren 2an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion hiru bider izan zela hari idazteko asmoz, baina ezin izan zuela. Idazlanez zamatua egon zela, Leipzigezko azokan salduko ziren liburu eta hitzaurreak adierazten zuten moduan. Atzerapena barkatzeko eskatzen ziola. Oraina lanak amaituak zituela eta hari eta Magdeburgoko George Printzeari idatzi behar ziela. Eskatzen zion osasuna berreskuratzeko. Esaten zion ebanjelioaren kontra zegoen Hanburgoko kalonje batek bere buruaz beste egin zuela eta sakramentario bat putzu batera erori zela eta erreskatatzen ari ziren bitartean ito egin zela; haren azken hitzak hauek izan zirela: "jende asko eraman dut bide okerrera eta ez daukat itxaropenik".

1533ko urtarrilaren 29an gutuna idatzi zion Luterok Hans Von Loser-i eta eskatzen zion Katalinak erditu berri zuen semearen aitajauna izan zedila.

1533ko martxoaren 28an gutun bat idatzi zion Luterok Anhalt-eko Jokin Printzeari. Eskatzen zio ebanjelioari atxikitzeke, printze handiek hura ebanjeliotik urruntzeko ahaleginak egiten bazituzten ere. Esaten zion Nicolas Hausmann, gorteko predikariak

esan ziola gogorra zela printzearentzat ebanjelioari leial izatea, ohiturarik ez zuelako eta printze boteretsu zenbaitek eskatzen ziotelako ebanjeliotik urruntzeko. Esaten zion Kristo eta haren Hitza handiagoak zirela ehunka mila kontzilio eta Aita Santu baino. Esaten zion lurreko ahaldunei beldurrik ez edukitzeko, Kristo deabru guztiak baino handiagoa zelako.

1533ko irailaren 24an gutuna idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Esaten zion haren gaixotasunak atsekabe handia sortzen ziola. Katalinaren agurra bidaltzen zion eta printzeak bere izenean agurtzeko esaten zion.

1533ko urriaren 8an gutun bat idatzi zion Luterok Andreas Osiander-i, haren eta Link-en arteko eztabaida zela eta. Esaten zion sufrikario handia eragiten ziotela Nurenberg aldeko zatiketek. Inork ez zuela onartzen beste aldekoek konbentzitzen zutenik. Istiluak betirako jarraituko zuela. Batzuek ezin zutela onartu beren kontzientziaren kontra zihoana eta besteek ezin zituztela utzi beren usteak. Elkarri barkatzen hasi beharra zutela; alde bakoitzak eraman behar zuela beste aldearen zama. Publikoki eztabaidatzeari utzi beharra zutela. Bakoitzak bere iritziekin jarrai zezala, sentimenduak bigundu arte eta gero erabakia hartuko zutela ozpinkeriarik gabe.

1533ko urriaren 8an beste gutun bat idatzi zion Luterok Wenzel Link-i. Esaten zion Osiander-i idatzi ziola absoluzio publikoaren gaiaren inguru. Esaten zion gaixo moduan tratatzeko iritzi horiek zituztenak; ez haiek barregarri uzteko, txispa txikia sute bihur ez zedin. Kontu handiz adierazteko besteei okerrean zeudela. Ez zuela uste gizon hori beren dotrinatik horrenbeste aldentuko zenik.

1534 urtean amaitu zuen Luterok Wartburgon hasitako lana: *Biblia, Eskritura Sakratu guztiak*. Martin Lutero. Wittenberg. 1534.

1534ko urtarrilaren 3an gutuna idatzi zion Luterok Nicolas Amsdorf-i. Amsdorf kexu zen Luterok ez zuelako erantzun haren idatziei, baina Luterok esaten zion gaixo eta okupatua egon zela eta ez kezkatzeko, erantzun ez bazion hutsegiterik ikusi ez ziolako zela eta. Luterok esaten zion jakinmina zuela meza pribatuaz ateratako panfletoaz hark zuen iritzia jakiteko.

1534ko otsailaren 8an Nicolas Hausmann-i idatzi zion gutuna Luterok. Nicolasek Mainzeko Artzapezpikuaren eta haren anaiaren aurrean predikatu behar zuela eta predikatze hori nola egin behar zuen esaten zion.

1534ko martxoaren 11n gutun bat idatzi zion Luterok John Frederiko Hautesleari. Esaten zion Zwickau-ko artzain zen Leonhardt Maisuak eskatzen ziola Zwickau-ko apaizen etxeetako bat, laster libre geldituko zena, emaztea eta haurra berekin eduki ahal izateko.

1534ko apirilaren 27an Dorothea Jorger andreaki idatzi zion gutuna Luterok. Hark emandako dirua ongi gastatu zuela eta behartsu askori lagundu ziela esaten zion. Hiri eta unibertsitate txiki hartan gazte adimentsu asko bizi zela ura eta ogia bakarrik janean, hotzetik babestu ezinik, Eskritura Santuak ikasi ahal izateko. Ikasle horietako askorentzat bedeinkapen bat izan zirela diru-laguntza horiek. Jadanik diruaren erdia banatu zuela eta gastatuaren errezihoak gordetzen zituela, dirua ongi gastatu izanaren proba moduan.

1534ko uztailaren 29an gutun bat idatzi zion Luterok Katalinari. Luterok Hauteslea bisitatu zuen eta harrera beroa egin zion hark Torgau-n. Luterok Katalinari esaten zion Felipe eta besteak etxera bidean zirela, baina berak Printzearekin denbora gehiagoz egon beharra zuela. Bezperako gauean edandako ardo txarrak etxeko ardo eta garagardo onak gogora ekartzen zizkiola eta etxean zuen emazte ederraz pentsatzen zuela.

1534ko urriaren 17a gutun bat idatzi zion Luterok Hesse-ko Felipe Landgraveari. Esaten zion haren gutuna jaso zuela, sakramentuaren dotrinaz Suitzarrekin adostasuna lortzeko eskatuz. Luterok esaten zion berak gehien desiratzen zuena bake iraunkor bat zela, baina oinarri sendoen gainean eraiki behar zela hori.

1534ko abenduaren 17an gutuna idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Esaten zion zoriontasuna opa ziola, gaixotasuna gainditu zuelako; espero zuela berriro ez zela gaixotuko. Esaten zion hamabietan puntuan jaio zela Luteroren hirugarren alaba. Anhalt-eko Jokin printzea izango zela aitajauna, baina eguraldi txarragatik ezingo zela etorri.

1534ko abenduaren 17an beste gutun bat idatzi zion Luterok Anhalt-eko Printze Jokini, esanez Jainkoak beste alaba bat eman ziola Katalina-ren bidez eta Printzeak agindu ziola aitajauna izango zela; eskatzen zion Kristoren izenean, lagun ziezaiola pagano txikiari bere bekatuzko natura utzi eta bizitza bedeinkatura pasatzen; horrela haren aita espiritual bihurtuko zela bataioko ur sakratuaren bidez. Eguraldi txarra zegoenez, arriskurik ez hartzeko, norbait bidal zezakeela Dessautik edo beste nonbaitetik.

1534ko abenduan Luterok Espalatinori idatzitako gutunean esaten zion hark Jonasi idatzitako gutunetik zekiela haiek Espalatinok eta beste superintendenteak presionatzen

ari zirela Torgauko artzainak kentzeko, beren ahots ahulengatik elizak ez zituztelako betetzen. Ahotsaren aitzakia soilarengatik ez uzteko aldaketak egiten. Torgauko apaizek bazituztela beste kualitate asko. Ez zela erraza Torgaukoen mailako gizonak aurkitzea eta zoritxarra zatekeela ahotsaren aitzakia soilaz haiek aldatzea eta beste okerrago batzuk jartzea. Beste batzuek ahots onak zituztela, baina ez zutela hainbesteko mesederik egiten.

1535eko otsailaren 24an gutun bat idatzi zion Luterok Espalatinori. Esaten zion Christopher Strobel-entzat postu on bat aurkitzeko. Gizon oso ona zela. Ezin zela bizi pantanoetan haren osasuna kaltetu gabe, mendiko airera ohitua zegoelako. Esaten zion ez zitzaizkiola komeni Luteroren lurraldeko haragi eta edariak, gertuegi zeudelako itsasoko arrainetatik eta lurraren barrunbeetatik. Espalatinoren lurraldean aire hobea zegoela.

1535eko apirilaren 5ean gutun bat idatzi zion Luterok Augustin Himmel-i. Esaten zion ordura arte Andreas eta Wolf-en artean banatu zuela diru-laguntza, baina orain Wolf-i bakarrik emango ziola. Espero zuela Gorteko funtzionarioak sinatua izango zuela ofizialki pentsio guztia Wolf-i bidaltzearen kontua. Luterok esaten zion bere indarrak makaltzen ari zirela eta gustatuko zitzaiokeela Wolf-entzat etxe txiki bat erostea, bera hiltzen zenean erakunde batean babestu beharrik ez izateko.

1535eko uztailaren 9an gutun bat idatzi zion Luterok John Frederiko Printzeari. Kezka agertzen zion, izurritearen aitzakiaz irakasle eta ikasleek alde egin zezaketela eta.

1535eko abuztuaren 17an John Frederikori idatzi zion gutuna Luterok. Hautesleri eskatzen zion uzteko Melanchthon-i Frantziara joaten, erregeak gonbidatu zuela eta. Pertsona ondraduek Luterori esan ziotenez, Melanchthon-ek eragotzi zuen haiek sutan erretzea; Melanchthon-i esker ihes egin zioten sutan erretzeari. Eskatzen zion hiru hilabetez Frantziara joateko baimena emateko Melanchthon-i.

1535eko abuztuaren 19an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Esaten zion oinarririk ez zuela Wittenberg-en gaixotasun infekzioso bat zegoela zion txostenak. Felipe Frantziara deitu zuela hango erregeak, baina Hautesleak ez ziola horretarako baimenik eman. Horregatik, aldarte txarreko joan zela Jenara. Hiria atsekabetua zegoela, baina Lutero osasuntsu eta aldarte oneko aurkitzen zela. Garagardoa amaitu zela hirian, baina Luterori zerbait gelditzen zitzaiola.

1535eko irailaren 12an Zorger andereari idatzi zion Luterok. Esaten zuen larritua zegoela bere etxean predika ote zezakeen jakiteko eta esaten zion artzainak eragozpenik jartzen ez zion artean predika zezakeela bere jendearentzat, kanpoko jenderik gabe. Inork debekatzen ez zion bitartean hori egin zezakeela. Deitua zena zela sagaratua eta deitzen zutenei predika ziezakeela.

1535eko urriaren 5ean Gereon Seiler Augsburgoko Mediku Doktoareari idatzi zion gutuna Luterok. Esaten zion Melanchthon-ek uko egin ziola Frantziara bidaiatzeari, ez baitziren fidagarriak frantsesak; uztarri astunaren azpian zeudela auhenka, baina ihes eginez gero beste nonbaiten aurki zezaketela egoitza. Jainkoak errukia izan ziezaiela eta aska zitzala desiratzen zuen.

1535eko azaroaren 10ean gutuna idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Eskerrak ematen zizkion txoriengatik eta erbiarengatik. Luterok zioen gauza askotaz idatzi beharra zuela, baina oso nekatua zegoela. Aita Santuaren legatua agertu zela Wittenberg-en eta orduan margravearekin zegoela. Bugenhagen eta bera gosaltzera gonbidatu zituela. Frankfurt-eko jendeak idatzi ziola kexuekin: Mainzeko Artzapezpikuak mezetara eta Aita Santuaren beste errituiletara behartzen zituela. Beretzat beharrezkoa zela haiek denak bere inguruan izatea, baina berak bakarrik erabaki behar zituela gauzak, izurriteak heriotza gutxi batzuen kariaz jende guztia sakabanatu zuelako, deabruaren atseginerako.

1536ko urtarrilaren 14an Veit Dietrich-i gutuna idatzi zion Luterok. Zorionak ematen zizkion ezkondu zelako eta esaten zion emaztea bere izenean agurtzeko eta esateko emazteak bihotz osoz saiatu behar zuela senarra auto-atseginean edo masturbazioan eror ez zedin. Emaztea umore onean eduki behar zuela, haren kontra haserrea erakutsi ordez. Esaten zion zorientasuna opa ziola elizako postu berrian.

1536ko urtarrilaren 25ean Luterok gutuna idatzi zion John Frederiko Hautesleari. Eskerrak ematen zizkion oparitutako sei ardo-ontzirengatik eta basurdearengatik. Esaten zion ez zukeela zama izan nahi berarentzat. Aurrez pentsatzen zuela enbaxada ingelesekoak hiru egunen buruan joango zirela, baina luzaz han jarraitzeko asmotan zirela. Printzearentzat handiegia bazen gastua, prest zeudela beren mantenuaz arduratzeko.

1536ko martxoaren 20an gutuna idatzi zion Luterok Wenzel Link-i. Esaten zion denbora askoan ez zuela latina hitz egin eta idatzi; beldur zela ahantziko zitzaioela. Alemanez hitz

egin nahi zuela. Okupatuak zeudela liburu alemanak idazten ikasten. Esaten zion mutil bati eskatu behar zitzaizola urte horretan egindako koadro, kanta eta liburu alemanak biltzeko.

1536ko martxoaren 25ean Martin Bucer-i gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion hamalau egunez ohean egon zela ez tul izugarriarekin eta bere onera etortzen hasia zela. Kongresua ospatzeko leku moduan Eisenach aukeratu zuela Hautesleak, Hesse-tik gertu. Bazko-osteko laugarren larunbatean izan zitekeela, baina eztabaidatzeko lagunekin. Bucer-i esaten zion arduratzeko Alemania hegoaldeko jendeari deitzeaz eta berak esango ziela Osiander-i eta Nurenberg-eko lagunei.

Lutero nekaturia zegoen ingelesekin eztabaidatzen. 1536ko martxoaren 28an gutuna idatzi zion John Frederiko Hautesleari. Esaten zion aliantza sinatuko zela adostasunerako artikulua onartzen bazituzten; baina, onartzen ez baziren edo artikuluetan aldaketak egin nahi bazituzten, ez zirela beren elizan arazo berriak sortzera joango.

1536ko apirilaren 20an Burkhardt kantziler-ordeari gutuna idatzi zion Luterok. Luterok zion fedearen eta irakaskuntzaren aldaketarik ez zutela baimenduko. Hori eginez gero Aita Santua eta Enperadorea haserretuko zirela. Ez ziotela Ingalaterrako erregeari gehiago amor emango Enperadoreari edo Aita Santuari baino.

1536ko maiatzaren 29an gutuna idatzi zion Luterok Brandeburgoko George Margraveari. Luteroi George printzeak galdetu zion berak Wittenberg-era bidaltzen zituen ikasleek, ikasle horietako askori berak ordaintzen baitzien. Luterok erantzun zion gauzak ongi zihoazela; kaleetako istiluak eta gaueko zaratak ez zirela lehen ziren adinakoak. Luterok esaten zion haren ikasleetakoren bat nabarmentzen bazen, etxera bidal zezakeela, kasu batzuetan egin zuen moduan.

1536ko irailaren 20an gutuna idatzi zion Luterok Nicolas Hausmann-i. Hausmann Dessau-n zegoen. Luterok esaten zion bi margraveak ebanjeliotik aldendu zirela. Esaten zion Nicolasi bere etxean bizitzera gonbidatzen zuela, han atsedena har zezakeelako. Alesius-ek Ingalaterratik esaten zuenez, erregina berria, Jane erregina, ebanjelioaren etsai zela. Laster koroatuko zutela.

1536ko abenduaren 2an gutuna idatzi zion Luterok Danimarkako erregeari. Esaten zion haren gutuna jaso zuela eta pozik zegoela gotzainak kendu zituelako. Baina, esaten zion,

erreserbatzeko koroaren ondasun batzuk elizaren eta artzainen onurarako, bestela ezin zirela predikariak mantendu eta.

1537ko otsailaren 1ean idatzi zion gutuna Luterok Justo Jonasi. Esmalkaldara bidean zihoala idatzi zion. Urtarrilaren 31n utzi zuten Wittenberg; Torgau, Grimma, Altenburg, Weimar, Arnstadt eta Waltershausen-etik zehar joan ziren. Luterok Jonasi esaten zion kongresuan izan zitekeela uste baino jende gehiago. 1537ko otsailaren 9an Esmalkaldatik idatzi zion beste gutuna Justo Jonasi. Esaten zion denbora zeukan artean idazten ziola, laster jendearen eta lanaren presio pean egongo zela eta. Esaten zion aurreko egunean Espalatinok predikatu zuela eta egun horretan Luterok berak predikatu zuela printzeen aurrean Esmalkaldako elizan. Hain handia zela eliza, ezen beren ahotsa satitsu batena bezala entzuten zela. Aurreko egunean sufrikario handia izan zuela, baina desagertu zitzaioela. Aita Santuaren legatua ez zela agertu.

1537ko otsailaren 14 gutuna idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Esaten zion zortzi egun zeramatzatela ezer egin gabe, tokiaz aspertuta, handik joateko gogoarekin. Printzeak eta hiriak beste gai batzuekin okupatuak zeudela eta ez zirela elkartzeko eskatzen. Landgravearen eta Wurtemberg-eko Herzog-en ogia eta gorteko haragia eta arraina jaten zutela. Amuarraina oso ona zela, baina zopan serbitzen zutela. Berak Nurenbergeko sukaldariei prestatu arazten ziela.

1537ko otsailaren 27an gutuna idatzi zion Luterok Katalinari. Esaten zion aurreko egunean utzi zuela Esmalkalda eta hiru egunen ondorezik izan zela. Ezin izan zuela lorik egin, jan edo edan. Hilobian egongo zela Jainkoak lagundu izan ez balio. Jendearen otoitzek eta malkoek lortu zutela sendagaiek lortu ez zutena.

1537ko martxoaren 21ean gutuna idatzi zion Luterok George Espalatino, Meissen-go artzapezpikuari. Esaten zion azkenean berriro heldu ziola lumari. Hasi zela jaten eta edaten, nahiz eta hankek nekez eramaten zuten; uste baino indar gehiago galdu zuela. Atsedenaekin eta konpresa beroekin berriro indartuko zela.

1537ko uztailaren 9an gutuna idatzi zion Wolfgang Capito-ri, Eskritura Santuetan Doktore eta Estrasburgoko elizaren zerbitzaria zenari. Esaten zuen ahalegin handia egin behar zuela bere liburuen zati ezberdinak antolatzen. Liburuak birrinduak ikusi nahiago zituela, ez zitzaiokeela inportako ez izatea haietako bakar baten egilea ere, *Borondatearen lotura* eta katiximaren salbuespenarekin. Gaia Creuciger-i pasatuko ziola

eta hark ikusiko zuela zerbait egin ote zitekeen. Katalinak eskerrak bidaltzen zizkiola urrezko eraztunagatik. Oso haserretua ikusi zuela Katalina, eraztuna desagertu zenean eta galdu zuela edo ostu ziotela pentsatu zuenean.

1537ko abuztuaren 1ean gutuna idatzi zion Luterok Coban Hesse-ri, salterioaren itzulpenagatik eskerrak emanez; esaten zion jaso zuela haren salterioa eta atsegin handiz irakurri zuela; bihotz bihotzez gorai patzen zuela itzulpena. Hark bakarrik ezagutzen zuela behar beste latin erabat espirituala zen poesia hori itzultzeko.

1537ko abuztuaren 21ean gutun bat idatzi zion Luterok Torgauko kontseiluari. Esaten zien haien artzainak sarritan aipatzen ziola zer utzi behar zien emazteari eta seme-alabei; artzainaren emazteak etxetxo bat nahi zuela, baina etxerik ez zegoela; zirudenez, lur-puska bat zegoela libre sakristiaren ondoan eta han eraiki zitekeela etxea. Luterok esan zien gai hau haien eskutan uzten zuela. Hari lur puska bat erregalatzeko edo lur-puska eskuratzen laguntzeko, horrela Jaioari beren maitasunaren froga ematen ziotelako.

1537ko abenduaren 1ean Suitzako hiri erreformatuen burgomaestre eta kontseiluari idatzi zien Luterok. Esaten zien asko atzeratu zela Esmalkaldan jaso zuen gutunari erantzuteko; atzerapena zuzitzeko esan zien bazekitela zenbat lan egin beharra zeukan, hain zahar eta ahula izanik. Lagunak eta lanak albora utzi behar izan zituela erantzuteko. Pozik zegoela haiek Wittenberg-eko Konkordiara elkartzen zirela ikusita. Beren artean izandako desadostasun handiak ezin zirela sendatu orbainik utzi gabe. Batzuek mesfidatu egiten zirela adostasunaz. Eskatzen zien mugak jartzeko adostasunaren kontra oihu egiten zutenei, zatiketak ez baitzien lagundu ez berari ez beste inori.

1538ko urtarrilaren 4an John Frederiko Hautesleari gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion George Karg Maisuarekin elkarrizketa izan zuela sakristian, idatzitako oharrari buruz. Hark lehenik ukatu egin zuela berak idatzi zuela, baina eskatu ziotela bere iritzia agertzeko lerro gutxitan. Ofizial bat agertu zela eta hura gaztelura eraman zuela, printzearen agindutara uzteko. Geroxeago aguazilak gazteluan itxi zuela. Haren idatzirik ez jasotzean, bi kapilau bidali zizkiotela idatzia eskatzeko. Hark eskatuta egon zirela harekin Lutero eta Jonas eta ikusi zutela Pfaff apaiza zela benetako erruduna. Luterok aholkatzen zion nola jokatu behar zuen, baina onartzen zuen printzeak berak zekiela hobekien gauza hauek nola tratatu.

1538ko martxoaren 27an Luterok Nicolas Hausmann-i gutuna idatzi zion. Esaten zion gutunarekin batera bidaltzen zizkiola juduen kontrako bi panfleto eta eliza erreformatzeko kardinalen proposamenak. Esaten zion Jonas bere ordeaz joan zela Brunswick-era, bera ezin zelako arriskatu, osasun eskasa zuelako. Esaten zion ez zegoela bakerik Enperadorearen eta frantsesen artean. Sultanak Veneziaren ontziak blokatu zituela eta ezin zirela itsaso irekira irten. Enperadorea eta Italiako printzeak laguntzera joan ezean, Sultanarekin tratua egin beharko zuela.

1538ko irailaren 15ean gutun bat idatzi zion Luterok Jacob Probst, Bremengo artzainari. Esaten zion gutxitan idazten ziola, baina negozio, lan, urte eta tentaldi asko zituelako zela. Gainera, hura ez zegoela bere gutunen beharrearantz. Bi gizon zintzo eta jakitun bazituela, txiroak, Saxonia Beherekoak. Luteroren inguruan horrelako asko zeudela eta nekez mantentzen zitzaizkela denak. Felipek pentsatu zuela bat hari bidaltzea, jabe gabe zegoen eliza baterako; bere ingurukoak haren mantenuaren kargu egin nahi ez bazuten, itzultzeko berriro.

1538ko abenduaren 12an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Specht, Bautzengo Eskolako Errektoreari. Esaten zion ezin zela haren ezkontzara joan, bere osasun kaxkarrarengatik. Oroitzapen moduan Juan Hus-en erretratua bidaltzen ziola.

Zwinglio eta Felipe Landgravea

Ulrico Zwinglio 1484an jaio zen. Luteroren dotrina onartu zuen, sinesmen soilak salbatzen zuela zioena. Zwingliok Vienako unibertsitatean ikasi zituen arteak eta humanisten artean ospetsu bihurtu zen, letra klasikoak ongi ezagutzen zituelako. Zwingliok herria salbatzeari ematen zion garrantzia. Luteroren filosofia, berriz, gurutzearen teologiak markatzen zuen eta norberaren arima salbatzeari ematen zion garrantzia. Zwinglio 1506ko irailaren 29an apaiztu zuen Constanzako gotzainak. Liturgia, zuzenbide kanonikoa eta espiritualitatea eraberritzearen alde agertu zen Zwinglio. 1522an apaizen ezkontzaren alde agertu zen eta hilabete batzuk geroago alargun batekin ezkondu zen. 1523an tesi hauek defendatzen zituen: sinesmenaren iturri bakarra Biblia zela; elizaren buru bakarra, Jesukristo; Aita Santuaren eta gotzainen autoritatearen, induljentzien, ekintza onen, meza-sakrifizioaren, prozesioen eta zeremonien kontra agertu zen. 1524an ukatu egiten zuen Eukaristian Kristo presente zegoela. Basilean irakasten zuen Ekolanpadio irakaslearekin batera Luterori eraso zion.

Luterok gogorki baztertu zituen sakramentarioen interpretazio sinbolikoa eta Zwinglio eta Ekolampadioren argudioak. Sakramentarioek Eukaristiako transubstantiazioa eta Kristoren presentzia erreala (haragi eta odol) ukatzen zituzten. Luterok, katolikoek bezala, onartzen zuen Kristo presente zegoela Eukaristian, baina ez zuen transubstantiazioa onartzen; transubstantiazioan ogiaren eta ardoaren akzidenteei (usainak, gustuak...) berdinak izaten jarraitzen zuten, baina haien esentzia Kristoren gorputz eta odol bihurtzen zen. Aristotelesen filosofian oinarrituta zegoen dotrina hori eta Luterori ez zitzaion Biblian oinarritua iruditzen. Kristok Eukaristian zuen presentzia erreala azaldu ezina zen Luterorentzat; sinetsi beharreko zerbait (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Alemaniko Zwingliotarren ordezkaria Estrasburgoko Martin Bucer zen, 1518az geroztik Luteroren laguna. Luterok gaitzetsi egiten zuen Teologia suitzarra; haien liderraren aspirazio politikoaz mesfidatzen zen. Zwingliok Nestor-en heresia defendatzen zuela esaten zuen Luterok. Nestoriok erabat bereizten zituen Jesukristoren natura Jainkotiarra eta giza natura; Sakramentarioek ere erabat bereizten zituzten haragiaren gauzak eta espirituarenak; esaten zuten Kristo ezin zela aldi berean zeruan eta hostian egon. Luterorentzat, haragia eta espiritua zorrotzegi bereizteak Kristoren Presentzia Erreala ukatzera eramaten zuen. Luterok

sakramentarioei erasotzen jarraitu zuen; zaku berean sartu zituen Zwinglioren eta Müntzer-en jarraitzaileak eta sakramentarioak.

Sakramentarioek Luterori iseka egiten zioten, luterotarrak kanibalak zirela esanez, eta sagarapen garaian apaizak mirariak egiten zituela esanez. Hesse, Zurich eta Constantzaren arteko ituna gaizki aterako zela aurreikusi zuen Luterok. 1531ko urriaren hamaikan Cappela-ko guduan kanto katolikoetako gudarosteek protestanteak menderatu zituzten; Zwingliok lantzas zaurituta bizia galdu zuen; haren gorpua zatitu, erre eta errautsak simaurraz nahastu zituzten. Hesse-ren aliatu suitzarrak errenditu egin ziren. Luterorentzat berri ona zen Zwinglioren porrota, katolikoek garaipenagatik poztu ez zen arren. Wittenberg-eko akordioa sinatu zuten Luterotarrek eta Zwinglioren jarraitzaile alemanek, baina Suitzarekiko hausturak jarraitu zuen. 1538an berriro ere jo zuten suitzarrek Luteroengana; apirilaren 15ean haien ministro bat Saxoniara joan zen eta Klaustro Beltzean hartu zuten. Zwinglioren jarraitzaile zen Henry Bullinger-i Luterok esan zion Marburgon ikusi zuenean gizon zoragarria iruditu zitzaioala Zwinglio, baina gerora hutsegiteetan egoskortu zela. Geroztik ez ziren elkartzen saiatu (Smith, 1911; Roper, 2010).

Urte askotan zehar izan ziren etsaiak Lutero eta Brandeburgoko Alberto, Mainzeko Hauteslea eta Magdeburgoko artzapezpikua. Melanchthon-en laguna zen Lemnius poetak Mainzeko-ko kardinal-artzapezpikuari laudoriozko epigrama latinoak eskaini zizkionean, Lutero sutu egin zen eta haren idatziei eraso zien. Unibertsitateak baimendu zituen Lemnius-en idazlanak, baina Luteroen eraginez, hiriko senatuak eragotzi egin zuen epigramen salmenta. Lemnius-ek ihes egin zuen, baina haren liburuak erre egin zituzten eta Luterok Lemnius-en kontra hitz egin zuen pulpitutik. Lemnius-i erasotzean, humanistei eta Melanchthon-i ere erasotzen zien, Melanchthon Lemnius-en gogoko irakaslea baitzen; Lemnius-ek etengabe laudatzen zuen Melanchthon Wittenberg-eko irakasle bikain moduan. Lutero eta Melanchthon-ek tarteka haserreak izaten zituzten arren, une zailetan elkar babesten zuten. Horrela, adibidez, 1537an Esmalkaldan osasun arazoak izan zituen Lutero eta Melanchthon-ek aholkatu zion sendatu egin behar zuela, bidaia egin aurretik. 1540an Melanchthon malenkoniatsu zegoenean, Lutero babesa eman zion. Gainera, Lutero estimu handitan zeukan Melanchthon; esaten zuen haren burua berea baino sistematikoagoa zela eta hark hobeto ezagutzen zituela latina eta grekoa (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luterok harreman asko izan zuen bere garaiko printze eta merkatariekin. Berak jende boteretsuari mesedeak eskatzen bazekien eta arazoak zituen jende boteretsuak sarritan jotzen zuen beregana. Halle-ko Juan eta Antonio Schönitz merkatariek 1532an noblezia titulua eskuratu zuten, asko aberastu eta gero. Juan Schönitz Brandenburgoko Alberto Hauteslearen bankari pribatu eta finantza ministro izatera heldu zen. Schönitz-ek palazio izugarri bat eraiki zuen eta Alberto Hauteslea zorretan utzi zuen. 1534ko irailaren 6an Juan Schönitz atxilotu eta gotorleku batean giltzaperatu zuten. 1535eko ekainaren hogeita hamaikan nekazarien tribunal batek epaitu eta urkatu egin zuen. Antonio Schönitz Luterorengana zuzendu zen, Saxoniako Hautesleak babesa eman ziezaion. Albertok Luteroren lagun bat mehatxatu zuenean, Luterok bere laguna babestu zuen eta 1535eko uztailaren 31ko gutunean kardinal deabrua zela esan zion Albertori; 1536ko otsailaren 12ko gutunean errugabe bat erail zuen hiltzailea zela esan zion Luterok Albertori (García-Villoslada, 1973).

Luterok pentsatzen zuen norbaitek adulterioa eginez gero, ezkontza desegin eta kide errugabeari berriro ezkontzeko baimena eman behar zitzaiola. Ezkontza-kontsulta asko egiten zizkioten Luterori. Kasurik zailenetakoa 1539ko abenduan egindakoa izan zen. Hesseko Felipe Landgravea Saxoniako George Dukearen alaba Kristinarekin ezkondu zen, hogeitaz bete baino lehen. Ezkontza botoa hautsi zuen ezkondu eta hiru aste barru, baina emaztea leial izan zitzaien eta ezin zen dibortziatu. Sakramentarioekin izandako eztabaidan Luteroren alde zegoen Felipe Landgravea, baina Zwingliotarrengandik ez zen inoiz aldentu. Zwickau-ko profetek erakartzen zuten, poligamia legezkotzat hartzen baitzuten haiek. 1539an sifilisa harrapatu zuen; bere arrebaren etxean eriondo zegoela, Margarita von der Saal-ek erakarri zuen; orduan, Margarita emaztetzat hartu eta bigarrenez ezkontzeko asmoak zituen Hesseko Felipek. Neskak hamazazpi urte zituen eta ama prest zegoen alabari ezkontzen uzteko, legezko bigarren emazte bihurtzen bazuen, baina ez ohaide moduan hartzen bazuen. Egoera horretan zegoela, bere egoera zuzentzeko baimena lortu behar zuen Felipek teologo ebanjelikoengandik. Hasteko, Estrasburgoko erreformatzaile zen Martin Bucer-en oniritzia jaso zuen.

1539ko abenduaren 10ean Lutero eta Melanchthon-engana joan zen Bucer eta esan zien bere asmoak aurrera eramaten laguntzen ez bazioten Hesseko Feliperi, hura prest zegoela Enperadorearengana jotzeko eta Aita Santuaren baimena lortzeko behar zen guztia egiteko. Egoera aztertu ondoren, Luterok baimena eman zion Hesse-ko Felipe Landgraveari bigarren

aldiz ezkon zedin, baina ezkontza ezkutuan edukitzeko baldintzarekin. Melanchthonek idatzi zuen erantzuna, lege orokorra eta dispentsa partikularra bereiziz. Luterok esan zuen gizon batek emazte bat baino gehiago ezin zuela eduki arau orokor moduan, baina dispentsa bat eman zitekeela, gaiari buruzko isiltasun osoa gordez gero. Ohaide edo amoranterik ez zuen onartzen, baina bigarren emaztea, bai. Esaten zuen gainera ebanjelioak ez duela debekatzen Moisesen legeak baimentzen zuena. Lutero prest zegoen bakearen izenean gezurra esateko: gezurra bertute izan zitekeen, jendearen ohorea edo ongizatea serbitzeko edo deabruaren haserreari ihes egiteko esaten bazen.

Hesse-ko printzearen emazteak baimena eman zuen, baina honako hau agindu zitzaion: bera izango zela lehen emaztea edo emazte nagusia eta Hesse-ko printze bakarrak Kristinaren semeak izango zirela. Lege orokor moduan ezkontza bi pertsonen arteko elkarte gisara ikusten bazuten ere, dispentsa egin zitekeen, kasua ezagutarazten ez bazuten; konfiantzako pertsona batzuek bakarrik jakin behar zuten ezkontzaren berri. Idatzia Luterok, Melanchthon-ek eta Bucer-ek sinatu zuten. Felipe 1540ko martxoaren 4an ezkondu zen, hainbat zaldun gonbidatuta (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Luteroren onarpena eskuratu ondoren, Saxoniako Hauteslearen oniritziaren bila joan zen Bucer. Hauteslea kezkatua geratu zen portaera horrek beste printzeen aurrean izan zitzakeen ondorioengatik; esan zuen landgraveak gogoeta egin behar zuela bigarren ezkontzak eliza ebanjelikoan sor zitzakeen nahaste eta kalteez; esaten zuen tentaldian ez erortzeko otoitz egin behar zuela eta lehenengo emaztearekin kontentatu behar zuela, baina hori ezinezkoa bazitzaion sekretuan hartu behar zuela bigarren emaztea, Luterok eta Melanchthon-ek esaten zuten moduan. Hesse-ko Felipe asebetarik gelditu zen.

Landgravearen ezkontza Rotenburgoko gazteluan egin zen 1540ko martxoaren 4an, Bucer, Melanchthon, printzearen kontseilarien eta emaztearen amaren aurrean. Laster zabaldu zen ezkontza horren albistea Alemania osoan. Juan Frederiko beldur zen ezkontza horretatik haur berriak etortzen baziren landgravearen herentzia korapilatuko zela eta Felipe Landgravearengandik urruntzen hasi zen. Felipek mehatxu egin zuen Esmalkadako liga uztearekin. Arazoa konpontzeko asmoz Eisenach-en bildu ziren teologo eta kontseilari batzuk. Luterok gogor eraso zien poligamiarako joera zutenei, monogamia defendatu zuen eta esan zuen gatazka ebazteko Landgraveak ukatu egin behar zuela Margarita Saalekoarekin ezkondua zegoela. Luterok pentsatzen zuen aitorlea ez dela behartua egoten aitortzan zer aholkatu duen

esatera; bere aholkua ez zela izan gertaera publiko egitea, eta publiko egiteak indargabetu egiten zuela ezkontza; Landgraveak etxean gorde behar zuten bigarren emaztea eta publikoki bere ohaidea zela esan behar zuten. Hesse-ko landgraveak Eisenach-eko konferentzien emaitzen berri izan zuenean sutu egin zen eta esan zuten berak zergatik ez zuen edukiko gustuko emaztea, Luterok eta haren inguruko apaiz eta fraideek ere gustuko emazteak bazituzten. Luterok erantzun zion ez zela bere errua printzeek gogoz kontrako emazteak aukeratzen bazituzten (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1539 eta 1540an Luterok idatzitako zenbait gutun

1539ko martxoaren 26an gutuna idatzi zion Luterok Felipe Melanchthon-i. Esaten zion beldur zela gutun horrek ez ote zuen Frankfurt-en aurkituko. Nekazariak erabakia zutela jendea gosez hiltzen uztea. Galdetzen zuen ea poliziak ezin zuten ordena ezarri. Pena handia ematen ziola unibertsitatea sakabanatzen ikusteak. Esaten zion Jonas berriro ere gaixo zegoela.

1539ko apirilaren 9an gutuna idatzi zion Luterok John Frederiko printzeari. Esaten zion lurraldean bat-bateko gosea zabaldu zela. Printzeak ezagutuko zuela hirian zenbat elikagai zegoen. Wittenberg-ek ogiz hornitu behar zituela inguruko hiri txikiak: Kemberg eta Schmiedeberg. Batzuen ustez, eskasia ez zettorrela arto gutxiegi zegoelako, baizik saltzaile aberatsen gaiztakeria eta zekenkeriagatik; saltzaile batzuek lakari bakoitzeko golden bat eskatzen zutela. Elbako ur emari handiagatik errotak gelditu zeudela. Luterok laguntza eskatzen zion Printzeari eta esaten zion lege bat atera zezala nobleziak negozioerik egin ez zezan artoarekin, ez zezan lukurreriaz joka hain modu lotsagarrian. Horrela jokatu gabe ere nahiko aberats bazegoela.

1539ko apirilaren 16an gutuna idatzi zion Luterok Martin Bucer Estrasburgoko Elizako Superintendenteari. Esaten zion berak baino denbora gehiago zuela hark idazteko; lan gutxiago zuela eta gazteagoa zela. Harro zegoela hura lagun zuelako. Ingalaterrako erregeak iruzur egingo ziela beren itzaropenei. Ingalaterrako jendea sarri kexatzen zela beren erregeaz eta Alemaniako Luterotarren askatasuna goraiatzeko zutela. John Sturm eta John Calvin bere izenean agurtzeko, haien idatziek atsegin handia ematen ziotelako.

1539ko apirilaren 18an gutuna idatzi zion Luterok Suediako Gustavus erregeari. Esaten zion haren enbaxadore Nicolas jaunak haren (erregearen) agindua jaso zuela printzearentzat tutore on bat bidaltzeko. Luterok zion oso atsegina gertatu zela hori beretzat. Erregeak berez besteak baino burutsuagoa izan behar zuela edo gaitasun hori entrenamenduz lortu behar zuela. Kristoren laguntzaz Erregearen lanak erreinu osoan harrera ona izango zuela, batez ere katedraletan eta eskoletan. Luterok esaten zion instruktore gaztea aukeratu zutela printzearentzat: Norman jauna; apala, zuzena, jakintsua eta ongi prestatua.

1539ko ekainaren 23an Luterok gutuna idatzi zion Prusiako Herzog Albrecht-i. Esaten zion Jainkoak lan zoragarria burutu zuela Saxoniako Herzog George-ren heriotzarekin. Hori egin izan ez balu, Alemania miserian murgildua egongo zatekeela. Jainkoak bakea eman ziela, gizon gaiztoa bere asmo txarrekin erail zuenean. Esaten zuen Fernando eta Bavieratarrak ebanjelioari seriooki erasotzen ari zirela. Osterantzean gauzak baketsu ziruditela Alemanian eta zirudienez artoaren eta fruten uzta ugaria zetorrela.

1539ko uztailaren 8an gutuna idatzi zion Luterok John Frederiko Printzeari. Esaten zion Leipzig-eko Wolrab pikaro alhadura gabeak Luteroren kontrako irainak argitaratu zituela eta orain Biblia Alemana suntsitu nahi zuela, inprimatzaileen ahotik ogia kenduz. Esaten zion apalki eskatzen ziola eragotz ziezaiola horrelako gaiztakeria egitea. Gogaitzen zela pirata hori bere lanaz abusatzen ikusita.

1539ko azaroaren 4an gutun bat idatzi zion Luterok John Frederiko printzeari. Esaten zion Leipzig-eko hiri kontseiluak Cruciger doktorea han gerarazteko baimena eskatu ziela; Cruciger-ek agindu zuela han geldituko zela Wittenberg-eko baimenarekin. Leipzig-eko hiri kontseiluak espero zuela Hautesleak eskaera horri baiezkota emango ziola. Luterok zion Crucigerrek nahiago zuela Wittenberg-era etorri, han zerbitzu gehiago egingo zuelakoan; Luterok zion dena prestatua zegoela bera hiltzen zenean Cruciger doktoreak haren postua har zezan.

1539ko abenduaren 4an gutuna idatzi zion Luterok Brandeburgoko Joakin Hautesleari. Esaten zion haren enbaxada atsegin handiz hartu zuela. Atseginez irakurri zuela agiriari hark egindako hitzaurrea, baina eztabaidagai batzuk bazituela. Prozesioan sakramentua forma bakarrean eramatea Jainkoari trufa egitea zela; bi formatan eramatea barregarria

zela. Formari buruzko kezka horiek albora uzteko. Gaixoen azken igurtzia ere bere horretan uzteko esaten zion; denboraldi batez ohitura bere horretan uzten bazen ere, horretaz ez zela ezer idatzi behar eta azken igurtziak ez zuela aginduzkoa izan behar esaten zion.

1540ko urtarrilaren 7an Luterok, Jonasek, Bugenhagen-ek eta Melanchthon-ek gutuna idatzi zioten Brandeburgoko Joakini artoa esportatzeko baimena eskatuz. Esaten zioten eliza ahalegindu zela txiroentzat artoa erosten, toki askotara joanda. Dietrich von Rochau-k 21 anega ziurtatu zituela elizarentzat eta txiroentzat, ulertarazi zitzaiolako printzeak baimendua zeukala bere lurraldetik kanpora artoa eramatea. Printzeak debekatua zeukala hori, baina eskatzen ziola arau hori aldatzeko, hurbileneko behartsuei zegokienean. Eskatzen zion baimena eman diezaiola Dietrich von Rochau-ri, eskuratu zuen artoa esportatzeko.

1540ko urtarrilaren 18an gutuna idatzi zion Luterok Saxoniako printzeari. Esaten zion Esmalkaldarako iritziak bidaltzen zizkiola. Luterok esaten zion gustatuko zitzaiokeela Esmalkaldara zihoan jendearekin Eisenachera joatea, baina ez zuela uste ezertarako balioko zuenik. Arazoak eta gastuak sortu besterik ez zuela egingo. Baina, printzeak nahi zuena egiteko prest zegoela. Gutxi axola izango zitzaiola betirako begiak itxiko balitu.

1540ko otsailaren 26an gutuna idatzi zion Luterok Justo Jonas, Bugenhagen eta Feliperi. Esaten zion entzun zuela dieta atzeratu egingo zela. Feliperen alabak susto bat eman ziela, ordu batzuetan benetan gaixo zegoela baitzirudien. Bi eguzki egunen ostean, eguraldi txarra etorri zela, baina Elbako urak jaitsi zirela. Luterok ondo egin zuela haiek ez joatean; gauean ez zuela lorik egin, besoko giharretan mina zuelako. Katalina arrastaka ibiltzen zela, aulki eta mahai artean, lau hankan.

1540ko martxoaren 3an Anton Lauterbach, Pirnako Superintendenteari gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion Dresde-ko gortean axolagabekeria zela nagusi Jainkoaren eta gizakien kausari zegokionean. Printze zaharrak ezer gutxi egiten zuela eta gazteek botererik ez zutela. Turkoak prestakuntza handiak egiten ari zirela, baina beraiek jan eta libertitu besterik ez zutela egiten. Enperadorea, Frantzisko eta Fernando oturuntzan zeudela Flandrian. Katalinak heriotzaren atzaparretatik ihes egin zuela eta osasuna berreskuratu zuela. Ibiltzen ikasten ari zela.

1540ko martxoan printze ebanjelikoen kongresua egin zen Esmalkaldan. Hara joan ziren Bugenhagen, Melanchthon, Jonas, Cruciger eta Printze Hauteslea. Martxoaren hiruan Felipe Langravearen ezkontza ospakizunean izan zen Melanchthon. Enperadoreak printze katoliko eta protestanteak bildu zituen Hagenau-n, baina emaitza onik ez zuen izan eta beste kongresu bat antolatu zen Worms-en, urrirako. Calvino Estrasburgon zegoen garai horretan eta bi konferentzietara joan zen.

1540ko apirilaren 8an gutuna idatzi zion Luterok Felipe Melanchthoni. Enperadoreak konferentzia pribatu bat agindu ziola idatzi zuen Felipek. Luterok zioen hark ez zekiela zer egin. Esaten zuen Enperadorearen bihotzak sekretu asko eduki behar zituela, hainbeste sugegorriren artean kokatuta; jakin gabe nola asebate alderdi biak. Esaten zuen Jainkoak Enperadorearen eskua geldirik eduki zuela horrenbeste denboraz, nahiz eta gotzain eta kardinalak hura ozpintzen eta asaldatzen jardun, luterotarren kontra. Eskerrak eman behar zitzaizkiola horregatik Jainkoari.

1540ko maiatzaren 24an Graf Albrecht eta Albert Von Mansfeld-i idatzi zion gutuna Luterok. Esaten zion azkenaldian gortean entzun zuela haiek oso gogorki tratatzen zituztela fundizioen jabeak, horrelako traturik merezi ez bazute ere; ondorioz konderririk gal zezakeela bere aberastasuna. Esaten zion galdetu zuela nola ukitzen zuen horrek bere senitartekoen egoera eta esan ziotela bere koinatua beldur zela eskaletzan hasi beharko ote zuen. Haiek ez zeukatela herentziaz jasotako labea besterik. Jaun kondeak ez zuela ezer irabazten jende onaren txirotasunaz; Jainkoaren amorrua erakarriko zuela beregana. Esaten zion ez zuela haien justizia nahi, haien faborea baizik; haiek ere Jainkoaren faborea eta babesa bilatzen zituztela. Norberak bere eskubideak gehiegi aldarrikatzen bazituen auzokoen aurrean, mesedeei lekurik utzi gabe, Jainkoak ere beste horrenbeste egingo zuela.

1540ko uztailaren 2an gutuna idatzi zion Luterok John Lang-i. Esaten zion Melanchthon hilzorian egon zela Weimar-tik Hagenau-ra bidean zihoazela. Jainkoaren mirariz, Luteroren presentzia eta otoitzei esker orain bizirik zegoela.

1540ko uztailaren 2an beste gutun bat idatzi zion Luterok bere emazte Katalinari. Eisenachera bidean zihoan Lutero, Hauteslearekin eta Felipe Landgravearekin aurkitzeko, ezkontza bikoitzaren gaia eztabaidatzeko. Katalinari esaten zion bohemiarrak bezala jaten eta Germaniar batek bezala edaten zuela. Felipe hilzorian egon zela

eta Lazaro bezala heriotzatik jaiki zela. Jainkoak beren otoitzak entzun zituela. Igandean utziko zutela Weimar, Eisenachera joateko eta Felipe berekin eramango zutela.

1540ko uztailaren 26an gutuna idatzi zion Luterok Katalinari. Esaten zion hurrengo egunean irtengo zirela Wittenberg-era bidean. Hagenauko konferentzia iruzur bat izan zela; horrenbeste kezka eta gastu alferrik. Felipe infernutik atera zutela eta pozik eramango zutela etxera. Jaunaren mila akre baino gehiagori sua eman ziotela Turingiako basoan. Werder aldeko egurra ere sutan zegoela. Horrek egurraren estimazioa igo zuela.

1540ko irailaren 3an Gaspar Gutel-i gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion zaharra eta ahula izanik ere, lanez zamatua zegoela. Bere etxean bakarrik hamar pertsona zeudela larriki gaixo. Sukarraren ondorioz, epilepsia zutela batzuek. Gaixo zeudela Bugenhagen, Jonas eta Cruciger.

1540ko azaroaren 10ean gutuna idatzi zion Luterok George Espalatinori. Luteroren emazteak nahi zuen Espalatinok bitartekari lana egitea egurraren opariari zegokionean. Eskatzen zion printzearen funtzionarioari gutuna emateko, Henrikeri egur ona eta baliagarria bidal ziezaion, haritz-egurra batez ere; alferrikako egurra bidal ez diezaioten, funtzionarioen zekenkeria zela eta. Esaten zion adarrak eta enbor lodiak nahi zituela, ez sastraka. Bere jabetza berriko tximiniarako nahi zituen.

Ratisbonako Dieta eta Worms-eko eztabaida

Karlos V.ak ez zuen nahi protestanteen zisma handitzerik eta erlijio gerra pizterik. 1539ko apirilaren 19an Frankfurt-eko suetena sinatu zuten: 15 hilabeteko suetena katoliko eta protestanteen artean. Sueten horren arabera, Esmalkaldako Ligakoek turkoen kontrako gerran lagundu behar zuten eta enperadoreak protestanteen kontrako prozesuak gerarazi behar zituen. Frankfurt-eko konferentzian Hauteslearekin eta Miconius-ekin egon zen Melanchthon. Enperadorearen eta Fernandoren delegatuekin ere egon zen. Frankfurt-eko ituna Nurenberg-eko elkarrizketarekin amaitu zen. Elkarrizketa horretatik kanpora gelditu ziren Aita Santua eta haren legatuak (de Cadenas y Vicent, 1990).

1541ean Suleiman Magnifikoak pentsatu zuen Hungaria, Austria, Bohemia eta Alemania bereganatu behar zituela. 1541eko abuztuan Buda bereganatu zuen eta inperio turkoko probintzia bihurtu zen Hungaria. 1541ko irailaren 8an Saxoniako Juan Frederikok Luterori idatzi zion esanez turkoak Alemania inbaditzeko zorian zeudela eta predikariek otoitz publikoak egin behar zituztela. Luterok turkoen kontra otoitz egitea eskatu zuen (García-Villoslada, 1973; Currie, 2009).

Ratisbonan konferentzia bat egin zen 1541ean katoliko eta protestanteak adiskidetzeko. Eztabaidaren oinarri moduan Ratisbonako Liburua erabili zen. Luterori iruditzen zitzaion liburu horretan jasotzen zena ez zutela onartuko ez protestanteek ez katolikoek. Eztabaida apirilaren 5ean hasi zen. Katolikoek aldetik, Aita Santuaren legatua (Contarini kardinala), Eck, Gropper eta Pflug jardun ziren. Protestanteek aldetik, Melanchthon, Pistorius eta Bucer jardun ziren. Contarinik Ratisbonan onartu zuena Erroman ez zuen Aita Santuak onartu. Justifikazioaren gaia kontzilio batean bakarrik ebatz zitekeela esan zuten Erromatik. Ratisbonako Dietan adiskidetu zen Hesse-ko Felipe Karlos V.arekin. Enperadoreak Felipearen bigarren ezkontza gertatu ez balitz bezala jokatu zuen eta jarrera-aldaketa horren trukean, Hesseko Felipek Enperadorearen jarrerak defendatu behar zituen dietetan eta Esmalkadako Ligaren buru izateari utzi behar zion (García-Villoslada, 1973).

1541eko urtarrilaren 14an hasi zen Worms-eko eztabaida. Eliza katolikok eta protestanteko delegatuen arteko eztabaida horrek arrakastarik ez zuen izan, Hagenau-koak izan ez zuen bezalaxe. Han zeuden Eck eta Melanchthon, eztabaidarako prest, baina Enperadoreak turkoen kontra borrokatzeko laguntza behar zuen eta egun gutxi batzuen barnean moztu zuen eztabaida.

Eztabaida berriro hasi zen Regensburg-en, apirilaren 27an; protestanteen aldetik Cruciger, Bucer, Melanchthon eta Pistorius egon ziren; Aita Santuaren delegatu moduan Contarini Kardinala egon zen. Eztabaida horretan ere adostasunik ez zen lortu.

1545eko urtarrilaren 17an kexu zen Lutero, gutunak idaztea oso neketsua egiten zitzaiolako. Heriotza orduaren zain zegoen irrikaz, bere lanetatik atsedena hartzeko. Luterok asko sofritu zuen urte horretan; bizitzaren ikuspen negatibo bat nagusitu zen harengan. 1535eko ekainetik 1545era arte Luterok Genesiari buruzko ikasgaiak eman zituen Wittenberg-eko unibertsitatean. Genesiaren irakurketaren hamar urteko kurtsoa azaroan amaitu zuen; azken ikasgaia 1545eko azaroaren 17an eman zuen eta nekaturik eta ahuldua zegoenez, berak baino hobeto gaia azal zezakeen norbait eskatuz erretiratu zen. 1544an hasi ziren ikasgai exegetiko horiek argitaratzen Wittenberg-en. Lankide izan zituen Luterok Gaspar Cruciger eta Jorge Römer. Luterok zioen Genesiari buruzko ikasgaiak ez zituela argitaratzeko asmoz idatzi, irakasle lana egiteko eta bere burua eta entzuleak entretenitzeko baizik. Hizkuntza herrikoian eman zuen dena. Azken klasean esan zuen ahul zegoela eta beregatik Jainkoari erreztatzeko (García-Villoslada, 1973).

Espirako Dieta berria 1544ko otsailaren 20an elkartu zen. Saxoniako Hauteslea segizio ederrarekin joan zen Espirara eta Karlos V.ak begirune handiz egin zion harrera. Frantsesei kontra egiteko laguntza eskatzen zuen Karlosek. Lehen ere izan ziren Espiran dieta inperialak 1526, 1529 eta 1542an. Zazpi Hautesleak bildu ziren 1544ko dieta horretara eta Karlos V.ak diru-laguntza eskatu zien Suleiman Magnifikoaren kontra gerra egiteko. Aita Santuaren delegatuak Frantziako erregearekin bake giroa sortzeko eskatu zuen, baina Brandeburgoko Joakin II.aren iritziz Frantzisko I.ari esan behar zitzaion turkoarekin ez elkartzeko. Dietan inperioaren etsai izendatu zuten Frantzisko I.a eta Enperadoreak eskatutako diru-laguntzak onartu ziren. Baina, protestanteek eskatu zuten 1541eko Ratisbonako dekretua aplikatu zedila. Ratisbonako Interimean katolikoek eta protestanteek arteko oreka sinatu zen: monasterioak eta elizaren ondasunak ez ziren ukituko eta gai erlijiosoengatik ez zen prozesatuko. Enperadorearen erabakiak 1544ko ekainaren 10ean argitaratu ziren Espirako Dietako Errezesoan edo ondorioen dekretuan. Arazo erlijiosoa kontzilio orokorrean ebazteko utzi zuten. Augsburgoko ediktua zintzilik geldituko zen, erabaki berriak hartu arte. Anabaptistek eraso egingo zitzaizkien, legeen arabera. Dietako dekretua berehala heldu zen Erromara eta Pablo III.a atsekabetua geratu zen. Amonestazio serio bat egin zioten Karlos V.ari, gai erlijiosoei buruz

erabakiak hartu izanagatik, elizako ondasunei buruzko disposizioak emateagatik eta kontzilio orokor batez hitz egiteagatik, Aita Santua izendatu gabe. Aita Santuak erretraktatzeko eskatu zion Karlos V.ari, baina hark ez zion jaramonik egin (García-Villoslada, 1973).

Luterok azken idatzietakoak Lovaina eta Pariseko teologoen kontrakoak izan ziren. Lovainako Teologiako Fakultateak 1545eko martxoan tesi katoliko batzuk argitaratu zituen sinesmenari, jatorrizko bekatuari, borondate askeari, justifikazioari, mezari eta abarri buruz. Luterok Lovainako teologoen 32 artikuluen kontra 75 tesi argitaratu zituen. Hil aurretik idazten ari zen azken idatzia *Paris eta Lovainako astoen kontra* izan zen. Amaitu gabe geratu zen lan hori (García-Villoslada, 1973).

1545eko uztailaren 14ko gutunean Erfurt-eko unibertsitateko John Lang-i idatzi zion Luterok eta beregatik erretratzeko eskatu zion, hilotz bat zela eta. **Pozik zegoela** esaten zion Luterok, Lang bere aldean zegoelako eta haren unibertsitateak bere iritziak partekatzen zituelako. Esaten zion kristau izan nahi dutenek urtean behin gutxienez aitortu beharko zuketela kristauak zirela, hori bizitza osoan egin beharko zuketean arren. Gerrek eta eztabaidek ez zuketela horretarako aitzakia izan behar. Berak ere papistekin desadostasun ugari izan zituela azken urtean, baina horrek ez ziola eragotzi sakramentua hartzea.

1545eko udan giltzurrunetako harriek gogaitzen zuten Lutero: ezin zuen lorik egin minaren minaz. Esaten zuen heriotza nahiago zuela harriek ematen zioten mina baino. 1545eko azaroaren 10ean hirurogeita bi urte bete zituen. Bere bizitzaren azkenaldian Lutero ez zegoen oso pozik Wittenberg-en. Teologiako irakasle batzuk ez zeuden Luterorekin ados. Agintari zibilek ere nahi zutena egiten zuten. Luterok pentsatu zuen hiri hura betirako uztea. Horrela, 1545eko uztailaren amaieran Merseburgo aldera joan zen bere seme zaharrenarekin eta bi lagunekin. 1545eko uztailaren 28an Leipzig-etik gutun bat idatzi zion Luterok Katalinari. Wittenbergera ez itzultzea gustatuko zitzaiokeela esaten zion. Emazteak Zülsdorf-eko finkan bizi beharko zukeela iruditzen zitzaion: eskatu zion bere baratzea, patioa eta etxea saldu eta Zülsdorf-era erretiratzeko. Wittenberg-en gauzak gaizki ikusten zituen eta hara agertzeko gogorik ez zuen Luterok. Katalinari esaten zion bera bizi zen artean egiteko egin beharrekoa, berak lagun baitziezaiokeen bere soldatarekin. Luterok **Wittenberg utzi zuenean, hango** unibertsitatean alarma piztu zen eta Melanchthon eta Bugenhagen bidali zituzten Lutero konbentzitzera, Wittenbergera itzul zedin. Lutero abuztu ardi aldera itzuli zen (García-Villoslada, 1973).

1545etik 1563ra bitartean ospatu zen Trentoko Kontzilioa. 1545eko otsail eta martxoaren artean lan hau idatzi zuen Luterok: *Deabruak fundaturiko Erromako Aitasandutzaren kontra*, Lukas Granach Zaharrak egindako Aita Santuaren grabatu barregarriekin. Luterok Aita Santuari eraso zion, hark esan baitzuen kontzilioa Aita Santuak bakarrik dei zezakeela, ez Enperadoreak, ez beste inork. Liburu horretan etsairik okerrenaren moduan deskribatu zuen Aita Santua; infernuko deabru okerrenez betea zegoen Aita Santua. Luteroren iritziz, Aitasaindutza eratu zuena ez zen Jainkoa izan; hark botere bera eman zien jarraitzaile guztiei; Aita Santua gizateriaren etsaia zen, toki santuan eseritako Antikristoa. Satanen botereak sortutako atsekaberik handiena zen Aita Santua. Sodomita eta transbestitu moduan deskribatzen zuen. Aita Santua iraintzeko deitura ugari erabili zituen: arratoien erregea, astoa, astoen puzkerra, astoen erregea, dragoia, hartz-otsoa, giza-otsoa, krokodiloa, larba lehoia, otsoa, piztia, txerria, zakurra. Kropolalia eta grobianismotik hurbil ibili zen. Lutero Erdi Aroko inperioaren kontra agertu zen, Aita Santuarengandik hartzen baitzuen hark boterea; Luteroentzat, Enperadorea Hautesleek solik aukera zezaketen. Juan Frederikori asko gustatu zitzaion liburu hori eta alemanera itzularazi zuen (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1541 eta 1545 artean Luterok idatzitako zenbait gutun

1541eko apirilaren 12an gutun bat idatzi zion Luterok Melanchthon-i. Regensburg-era bidean zihoala istripua izan eta eskuin besoa hautsi zuen Melanchthon-ek. Esaten zion beren kausa Jainkoaren kontrolpean zegoela eta haren etxean dena ongi zihoala.

1541eko apirilaren 21ean Felipe Melanchthon-i gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion oturuntzetan bere burua zaintzeko. Erfurt-en sendagaiak eta bizigarriak pozoitu egin zituztela. Altenburg-en hamabi pertsonak platera ezberdinetan pozoia jan zutela eta hil egin zirela.

1541eko maiatzaren 21ean gutuna idatzi zion Luterok Caspar Cruciger-i. Esaten zion egun horretan Enperadorearen berri onak izan zituela. Enperadoreak bere kamerara deitu zituela bi teologo multzoak eta eskatu ziela albora uzteko beren printzeen pentsamenduak eta Jainkoari bakarrik begiratzeko, egiari eta elizen ongiari bakarrik

begiratzeko. Ezin zuela gehiago idatzi, entzumena galdua eta burua haize ekaiztsuz betea zuelako.

1541eko ekainaren 28an gutuna idatzi zion Luterok Felipe Melanchthon-i. Esaten zion galdu zuen belarri bateko entzumena berreskuratzen ari zela, baina belarri horrek batzuetan ez zituela bere funtzioak betetzen. Beti izan zela eta izango zela erreumatikoa eta katarro mota guztien martiri.

1541eko abuztuaren 3an John Frederikori idatzi zion gutuna Luterok. Luterori Printzeak esan zion Melanchthon-ek ez zuela grekoko klaserik emango, zaharregia zelako unibertsitatean serbitzeko. Horregatik, grekoko katedrako soldata unibertsitatera itzuliko zela. Felipe apala eta zuzena zela eta ez zuela soldatarik kobratu nahiko, grekoa irakatsi ezean. Printzeak esan behar zuela ehun florin kobratzen jarraitu behar zuen, grekoa eman gabe ere. Bere iritziz hogeit hamar urtean nahiko lan egin zuela, atsedean pixka bat hartzeko eskubidea ematen ziona.

1541eko azaroaren 17an gutun bat bidali zion Luterok John Frederiko Hautesleari bere emaztearen nebarentzat lanpostu bat eskatuz. Esaten zion azkenaldian gutun bat eman ziola Frederiko-entzat bere koinatuari, baina gutuna galdu egin zuela eta beste bat bidaltzen ziola. Leiala, elizkoia eta langilea zela, baina ez zuela bere burua eta haurra ongi mantentzeko adina. Leipzig-eko komentu batean superintendente izan zela, eta hura iraintzen saiatu baziren ere, kontuak ongi eraman zituela ikusi zela. Beharbada Luteroren beraren kontuengatik jasan zuela eraso, Pistorius doktorea zegoelako agintean.

1542ko martxoaren 26an gutun bat idatzi zion Luterok John Frederiko Hautesleari, Katirekin erlazionaturiko arazoan bere aldeko erabakia ematearren. Bidalitako ardoagatik ere eskerrak ematen zizkion. Esaten zion jakinarazi ziela errektoreari eta unibertsitateari Printzeak ez zuela nahi Luterori bere ondasunengatik eta etxearengatik zergak ezartzea. Esaten zion entzun zuela denborarekin etxea arazo militarretarako erabiliko zutela eta Kati eta seme-alabentzako Hans Brun-en etxea erosi zuela, baina arazoak zituela etxe hori ordaintzeko.

1542ko uztailaren 13an Espalatinori gutun bat idatzi zion Luterok, esanez bera ez zela bere janariaz gehiegi arduratzen, baina ezkondua zela eta etxerako betekizun batzuk zituela. Eskatzen ziola ez iruzurtzeko bera Printzearen opariei zegokienez, asko baloratzen zituela eta. Ikusten zituela beren buruaz bakarrik arduratzen ziren hegazti

harrapariak. Luterok zion bere izenean eskuratutako haritz eta izeiak gorde nahiko zituela.

1542ko abuztuaren 26an gutun bat idatzi zion Luterok Torgauko maisu Marcus Grödel-i, esanez semea bidaltzen ziola gramatika, musika, morala eta gizabidea ikas zitzan beste ikasleekin batean. Semearen eskola-lagun bat ere bidaltzen zuela. Arrakasta izaten bazuten, beste bi ikasle ere bidaliko zizkiola. 1542ko irailaren 6an beste gutun bat idatzi zion Luterok Marcus Grödel-i. Esaten zion alaba Magdalena gaixorik eta azkenetan zegoela, eta semea etxera bidaltzea nahi zuela; horretarako bidaltzen zuela zalgurdia; ez esateko semeari benetan zer gertatzen zen; esateko etxera berehala itzuli beharra zuela, zerbait pribatua komunikatu behar ziotela eta. 1542ko abenduaren 25ean Luterok bere seme Hans-i gutuna idatzi zion. Esaten zion etxean denak ongi zirela. Ahalegintzeko bere malkoak gordetzen eta amaren atsekabea ez handitzen. Zegoen tokian lan egitea eta bere ahultasuna gainditzea desiratzen zuela Jainkoak. Amak ezin ziola idatzi, baina hark esandakoa errepikatu beharrik ez zegoela, gaixotuz gero etxera itzultzeko. Gainerantzean, ikasketekin jarraitzeko eta ez arranguratzeko.

1542ko uztailaren 25ean Luterok Wenzel Link-i idatzi zion. Wenzel Link kexu zen Bibliak berandu zetozelako eta Luterok esaten zion kuadernatzaileak lanez gainezka zebiltzala; esaten zion jende askok sei hilabete baino lehen ezin zituela lortu kopiak, baina hark laster jasoko zituela bi kopiak. Esaten zion Genesiari buruz ezin ziola ezer agindu; argitaratzaileak kontuz ibiltzen zirela lan handiekin, saltzen ez baziren diru asko galtzen zutelako.

Justo Jonas 1493 urtean jaio zen Nordhausen-en eta 1555ean hil zen. Jaiotzatiko izena Jodokus Koch zuen, baina garaiko humanista alemaniarren ohiturari jarraiki, izena aldatu zuen Erfurt-eko Unibertsitatean ikasten ari zenean. Erfurten Zuzenbidea eta humanismoa ikasi zituen. Ondoren, Wittenberg-en ikasi zuen eta Erfurt-era itzuli ostean, apaiz egin zen. 1518an doktore bihurtu zen eta kalonje izendatu zuten. Leipzig-eko Eztabaidan eta Worms-eko Dietan Luteroren ondoan izan zen. Luteroren eta Melanchthon-en lanak alemanetik latinera eta alderantziz itzuli zituen. Justo Jonas presente egon zen Luteroren heriotzean eta haren hiletan sermoia egin zuen. Lutero hil ostean Saxoniako Printze Hautesleak Saxoniatik erbesteratu zuen. 62 urterekin hil zen Eisfeld-en.

1542ko otsailaren 6an Justo Jonas-i gutuna idatzi zion Luterok. Esaten zion ezin zezakeela gutun gehiagorik itxaron Luterorengandik, mezulariak ez baziren egoten erantzuna idatzi zain. Mezulariak presaka zirela beti, eta ez zirela gutuna idatzi zain egoten. Luterok esaten zion bera behartsuegia zela mezulari berezi bat bidaltzeko. Esaten zion Bücer-ek emaztea, semea eta alabak galdu zituela, izurritearen ondorioz.

1542ko irailaren 23an ere idatzi zion gutuna Luterok Justo Jonas-i, bere alaba Magdalena hil zela esateko.

1542ko abenduaren 25ean Luterok Justo Jonas-i idatzi zion, emaztearen heriotzak sortu zion nahigabea arintzeko. Esaten zion ez zekiela zer idatzi horrelako kolpe baten ondoren. Gertaera mingotsa izan bazen ere, hurrengo bizitzak elkartuko zituela. Jainkoaren errukia bizitza baino hobe zela.

Jonasek erantzun zion azkenaldian izan zuen galera gero eta eramangaitzagoa zela; orain bere onera etortzen ari zela eta emakumerik onenarekin elkartzeko desira pizten ari zela berriro. Esaten zion Genesiaren lehen berrogeita bat atalei buruzko irakurketak igortzen zizkiola, George Rorer-en bidez. Esaten zion asko gustatu zitzaioela zwingliotar bihurrien kontrako Osiander-en panfletoa.

1543ko urtarrilaren 26an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonasi. Gutunean zioen buruko min handia jasaten zuela; ezin zuen irakurri eta idatzi; Jonasek egindako itzulpena ere ez zuela irakurri esaten zuen.

1543ko maiatzaren 4an gutun bat idatzi zion Luterok Justo Jonasi esanez ez zuela haren bigarren ezkontza eragotzi nahi. Ezkontzarako epea luzatzeko esan bazion, jendearen esamesak ekiditeko izan zela. Printzeagatik ez kezkatzeko, hark berari buruz ongi hitz egiten zuelako azkenaldian. Jonasen emaztegaiaz laudorioak entzun zituela.

1543ko abenduaren 16an Luterok Justo Jonas-i idatzitako gutunean esaten zion jaso zuela hark bidalitako gutuna, 25 urte lehenago bera kondenatzen zuen buldaren kopiarekin.

1543ko urtarrilaren 6an Luterok Brück kantzilerrari esan zion sakramentuan elementuak jasotzeari buruzko eztabaidan Felipe Melanchthon-en itzuleraren zain egongo zela. Fedearekin zerikusirik ez zuten zeremonia horiek kezka gehiago sortzen zutela gai garrantzitsuagoek baino. Zalantzan zegoela zuhurra izango ote zen horretaz zerbait argitaratzea. Beldur zela inoiz ez zirela ados jarriko elizen artean zerbitzuen formari

zegokionean. Hemen bat ala beste adostu arren, beste tokietakoak ez zirela ados etorriko. Apostoluak berak ere zailtasunak izan zituztela errituekin eta askatasuna eman zitzaiola bakoitzari, jateari, jazteari eta portaerari zegokionean.

1543ko urtarrilaren 20an idatzitako gutunean Luterok Wenzel Link-i esaten zion kexatu egiten zela hura berak haren gutunei erantzuten ez zielako. Ez zela gustu onekoa horrelako irain bat gizon baten aurpegira botatzea. Esaten zion jakin beharko zukeela Luterok ez zuela hark adina denbora libre; indargabetua eta lanez zamatua zegoela, lanetik askatzeko azken ordua iritsi zain. Nola pentsa zezakeen Luterok haren lana gutxien zuela, hitzaurre neketsu bat egin zionean.

1543ko apirilaren 4an Luterok Friedrich Myconius-i idatzi zion, hark Conrad apaiza postutik kendu zuelako. Horrenbeste urte lanean jardun eta gero txirotasunean geratu zela, bost ume goserik zituela. Luterok esaten zion berriro beregana bidali ziola, entzungo ziola aginduz. Osasun ona opa ziola eta Jainkoari gomendatzen ziola. Bera ere heriotzaren ateetan egon zela urte horretan, mundu honetako kezka zirela eta.

1543ko apirilaren 5ean George Held-i eta Anhalt-eko Joachim Printzeari idatzitako gutunean Luterok esaten zuen Joachim-ek iritzia eskatu ziola, jakiteko errepresentazio sakratuak Eskritura Santuetan oinarrituak zeuden ala ez. Esaten zion Jainkoaren Hitza ezagutaraztera zuzenduak zeudela; ez hitzez bakarrik, irudiz ere bai baizik. Moisesek nahi zuela Jainkoaren Hitza gizakien begien aurrean izatea eta hori ezin zela errazki lortu errepresentazio horien bidez ez bazen. Alemania Hegoaldean, ebanjelioa predikatzea debekatua egonik, jende askok errepresentazio horien bidez jaso zuela ebanjelioa. Egia ezagutaraztera zuzenduak zirenean, modu serio eta apalean erabiliak zirenean, irudiak ez zirela kondenatzeak.

1543ko abuztuaren 31n gutun bat idatzi zion Luterok Christoph Froschauer, Zurich-eko inprimatzaileari. Esaten zion jaso zuela hark bidalitako Biblia eta eskerrak ematen zizkiola bidaltzeagatik; baina, alferrikako lana iruditzen zitzaiola egin zutena. Beharrezko oharrak egin zitzaizkiela beren bide okerra utz zezaten eta jende apala berekin infernura eraman ez zezaten, baina ohar horiek alferrikakoak izan zirela eta beren bide okerrean jarraitu zutela, Luterori jaramonik egin gabe. Bera ez zela izango haien eta haien teoriaren kondenaren partaide. Jainkoak konberti zitzala eta lagun ziezaiela predikari faltsuak bazterten. Orain barre egiten bazuten ere, egunen batean Zwinglioren patu bera izango zutela, hari jarraitzen baitzioten.

1543ko abenduaren 3an idatzitako gutunean Luterok John Frederiko Hautesleari esaten zion Wittenberg-eko hebreeraren lanpostua hutsik geratu zela, Aurogallus hil zelako, eta eskatzen ziola aukera zezala Lucas Edenberger postu horretarako. Leiala eta langilea zela, teologo bete-betea, hebreera irakasteko gaitua. Akademiko hebrear asko zirela, errabinoetik gehiago zutenak kristautik baino.

1543ko abenduaren 14an Luterok Johann Matthesius-i, Luteroren lehen biografia idatzi zuenari, gutun bat bidali zion; esaten zion Gaspar Cruciger-ek eman ziola Matthesius-en kezka berri, Fernando Erregeak erabaki zuelako ezkonduko apaiz guztiak bere lurraldeetatik erbesteratzea. Luterok zioen harrizko zatekeela bohemiarrek erabaki hori onartuko balute. Esaten zion fidatzeko Jainkoaren indarrak. Kristorekin eternitate osoan gobernatuko zutela eta errege hori infernua erreko zela deabruarekin.

1543ko abenduaren 23an George Espalatinori, Meissengo gotzainari, idatzitako gutunean Luterok zioen atsegingarria gertatu zitzaioela Espalatinoren liburuxka, puntu batean izan ezik; hain zuzen ere, monjen komentuko bizitzaren aipamena ez zitzaioela egokia iruditzen eta horren kontra irakurleei oharra egingo ziela hitzaurrean.

Wittenberg-eko abokatuak Caspar Beier-en ezkontzarako konpromiso sekretua onartu zuten. 1544ko urtarrilaren 22an Luterok John Frederiko Hautesleari idatzi zion esanez berriro ere zabaltzen ari zirela ezkutuko konpromisoak. Lurralde askotako jende gaztea zegoela han eta emakumea asko ausartak zirela eta ikasleei beren gelatara jarraitzen zirela, amodioa eskainiz. Luterok berak konpromiso pribatuaren kontrako eta ohitura zaharren aldeko sermoia egin zuela. Esaten zuen gurasoen onarpenik gabe mutikoak ezin zezaketela konpromisorik hartu.

1544ko urtarrilaren 30ean idatzitako gutunean Luterok Espalatinori esaten zion ez haserretzeko, haren liburua inprimatzaileen eskuetan zegoela eta. Ez pentsatzeko liburu hori mespretxatzen zuenik; baina, inprimategia lanez gainezka zegoela. Katik sustrai batzuk igortzen zitzaioela, harrien kontrako erremedio ona zirelako. Espalatinok zela bere lagun zaharren eta maiteena. Hiru bider agurtu zuen gutunean Espalatinok.

1544ko abuztuaren 27an gutun bat idatzi zion Luterok Anhalt-eko John printzeari, esanez pozik joango zatekeela Bernburg-era, baina Zeitz-etik etorri berria zela eta oso nekatua zegoela; nekez ibil zitekeela, nekez zutik edo eserita egon; hortik antzematen

zuela laster hilko zela; geldi egon eta atsedena hartu beharra zuela, bere onera etorri bitartean.

1544ko azaroaren 8an idatzitako gutunean hau esaten zion Luterok John Frederiko Hautesleari: Jonas doktorea berarekin zegoela eta dena esan ziola. Irakasle plaza bat-batean bete behar zela, baina Jonas doktorea ezin zuela bere lekutik kendu, Halle-ko elizari kalterik egin gabe. Horregatik eskatzen ziola Jonas Hall-en uzteko, urtean 140 bat florin emanaz, 8-9 urtetan zehar.

1545eko azaroaren 8an gutun bat idatzi zion Luterok John Frederiko Hautesleari, bidali zizkion edaria eta arrainengatik eskerrak emanaz.

Nicolas von Amsdorf Leipzig inguruko Torgau-n jaio zen 1483an eta Eisenach-en hil zen 1565ean. Jaiotzez noblea zen, Staupitzen iloba. Frederiko Jakintsuaren gortekoa zuen aita. Wittenberg-eko lehen ikasleetakoa izan zen. Teologiako doktore bihurtu zen 1511n. Duns Scotoren filosofia irakatsi zuen Wittenberg-en. Santu guztien kolegiatako kalonje izan zen 1508tik aurrera. 1513an Unibertsitateko errektore aukeratu zuten. Luteroren jarraitzaile izan zen. Luteroren eraginari esker, Aristotelesen teoriak baztertu eta Augustinen teologiara bildu zen. Luteroren alboan izan zen Leipzig-eko konferentzian, Worms-eko dietan, Esmalkadako eztabaidetan. Magdeburgora itzuli nahi izan zuen, baina Luterok konbentzitu zuen bere tokian jarrai zezan. Luteroren konfiantzako laguna, langile fina, eztabaidetan karaktere latza zuena. Luteroren idazlanen Jenako argitalpena gainbegiratu zuen. Luteroren dotrinaren purutasuna defendatu zuen etengabe. Esaten zuen ekintza onek batere baliorik ez zutela; gainera, gizakia salbatzeko kaltegarriak zirela (Roper, 2010).

Naumburg-Zeitz-eko gotzaina, Palatinadoko Felipe, 1541ean hil zenean, haren ordezkot moduan Amsdorf aukeratu zuten gotzain Luterok eta Saxoniako Printzeak, katedraleko apaizen hautagai zen Juluis Pflug baztertuta. Urtarrilaren 18an izendatu zuten gotzain. Gutun bidezko harreman estua eduki zuen Luterok Amsdorf-ekin:

1542ko urtarrilaren 6ko gutunean Luterok Amsdorf-i esaten zion haserre zegoela Naumburg-eko superintendentea zen Medler-en jokaera autoritarioarengatik; Medler-ek Amsdorf-i begirune gabeko trataera eman zion nonbait, Amsdorf Naumburg-eko komunitatearen arduradun zela jakinda. Esaten zion, behar izanez gero Medler-i idatziko ziola, batere beharrik gabe bakea hausteagatik; bitartean fermu mantentzeko.

1544ko abenduaren 27an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Medler-i haren semearen heriotzaz eta lanpostu batez hitz egiteko. Semearen heriotzaz esaten zion atsekabe handia sentitu zuela, baina Jainkoak modu horretara irakasten dizkigula gauzak. Lanpostuari buruz esaten zion, Nicolas Amsdorf gotzainak irakasle postu baten berri eman ziola eta egokia zela horretarako Medler, zuen ospeagatik; onartzen ez bazuen, jakinarazteko, beste bati eman ahal izateko lanpostu hori.

1542ko urriaren 29an gutun bat idatzi zion Luterok Nicolas Amsdorf-i, alabaren heriotzaren ondoren bera kontsolatzen saiatu zelako. Esaten zion pozten zela alaba zeruetako aitaren etxean goxoki lotan zegoelako orain. Esaten zion sarriagotan idatzi nahiko ziokeela, baina hark oso gutxitan idazten ziola. Galdetzen zion ea hartu zuen gutun bat Hieronymus Weller-entzat postu bat eskatuz.

1543ko abenduaren 7ko gutunean Luterok Nicolas Amsdorfi esaten zion behin baino gehiagotan saiatu zela hura bisitatzera joaten, baina zerbaitek eragotzi ziola hori egitea; bazirudiela Jainkoak utzi ziola Satani bidaiia hori eragozten; desiratzen zegoela hura ikustera joateko, hil baino lehen. Burua hobeto zuela eta medikuek oinean zauri bat egin bazioten ere, horrek ez ziola bidaiia eragotziko. Bere gaixotasuna zaharra zela. Gehiegizko lana, gatazka eta deabruaren eraso ugari zituela; zientzia medikuak gutxi zezakeela horren guztiaren kontra. Buruan berriro mina hasi zitzaiola kausa garbirik gabe, baina uste zuela deabruaren kontua zela. Esaten zion berririk ez zuela; munduak mundu izaten jarraitzen zuela, beti izan zen moduan, eta horrela izaten jarraituko zuela, Kristorenik ezer ezagutu gabe; mundu hori desegitera zihoala eta erredentzioa bertan zela; horrela izan zela uholdeen aurretik, Sodoma desegin aurretik, Babiloniako kaptibitatearen aurretik, Erromaren beheraldaren aurretik, Grezia eta Hungariako kalamitateen aurretik eta orain, Alemaniaren gainbeheraren aurretik.

1544ko ekainaren 4ean Nicolas Amsdorf-i gutuna idatzi zion eta esaten zion Leipzig-era egun batean joateko asmoa zuela; jakinarazten ziola Printzea bera Zeitz-en izango zela hamabost egun barru; Brück doktoreak esan ziola hori, Printzeak horrela adierazita; printzeari obeditu behar zitzaiola; Brück doktoreak pentsatzen zuela ez zela segurua orduan bidaiatzea, nekazariak Printzearen kontra tematuta zeudelako eta printzeari erasoko zioten beldurra zabaldua zegoelako.

1545eko uztailaren 17an gutun bat idatzi zion Luterok Amsdorf-i, eklesiastikoen Trentoko bileraz hitz eginez. Trentotik idatzi zutenenez, hogeita hiru gotzain eta hiru kardinal omen zeuden han, zer egin jakin gabe. Mainzeko gotzainak, doilorren artean doilorrenak, gotzain ordeko bat bidali zuela. Aita Santuak eta Enperadoreak kristauen etsai moduan aurkeztu zituzten turkoak, horrela dirua atera eta lurraldeak turkoen kontra altxarazteko; gero, enbaxada bat bidali zieten turkoei, opari ederrez lagunduta, bakea eskatzeko. Horrela, induljentzien izenean, jendeari lapurreta egin zioten.

1544ko otsailaren 10ean Luterok gutun bat idatzi zion Brandeburgoko Hautesle zen andre alargunduari, Danimarkako errege-familiako Frau Elixabeteri, adieraziz pozik zegoela Brettin-go artzain izateko Johannes Faber izendatzeko asmoa zuela jakinda. Espero zuela pozik hartuko zutela eliztarrek izendapen berria.

1544ko martxoaren 30ean gutun bat idatzi zion Luterok Saxoniako Sibiliala Hautesle andeari. Eskerrak ematen zizkion, bere osasunagatik, emaztearengatik eta haurrengatik egindako errezoengatik. Luterok zion ez zela kezkatzekoa bere burua aldika ongi ez sentitzea; nahikoa bizi izan zela jadanik; ikusi zuela munduan ikus zezakeen onena; oso erraz uler zezakeela erregina gorena bakarrik sentitzea, senarra falta zitzaiolako; baina, hor zeukatela Jainkoaren Hitza, gure bizitzan sostengatzen gaituena eta geroko bizitzan bedeinkazioa agintzen diguna; otoitza ere hor zeukatela. Turkoak eta Aita Santuak ez zeukatela horrelako harribitxirik, eta horregatik eskaleak baino txiroagoak zirela.

1544ko apirilaren 12an gutun hau idatzi zion Luterok Danimarkako Kristian erregeari. Luterok esaten zion Katalina Peutinger izeneko emazte abandonatu batek eskatu ziola bere senarraz hitz egiteko. Bazegoela gizon zital bat Suediako erregearekin, bere buruari Peutinger doktorea deitzen ziona, gezurren bidez kantzilerra izatea lortu zuena eta jaun baten moduan bizi zena. Pikaro hori larrugin baten semea zela, ez zela doktorea eta lurraldean zehar ibili zela gaiztakeria mota guztiak eginez. Gaiztakeria horien arteko bat honako hau izan zela: Frau Katalina, familia oneko emakumearekin ezkondu zela, harekin bizi izan zela eta gero baztertu eta behartsu moduan utzi zuela; harengandik dibortziatu zela esaten zuela (egia ez zena), Lutero doktorearen eta Felipe jaunaren bidez, eta beste batekin ezkondua zegoela Suedian. Kristian erregearengana jo zuela, hori zelako Suediako erregearengana heltzeko bide bakarra.

1544ko abenduaren 2an gutun bat idatzi zion Anton Lauterbach-i. Elizaren diziplinaz liburuxka bat idazteko eskatu zion Antonek Luterori eta Luterok esaten zion lan gehiegi

zuela. Alde batetik, etengabe gutunak idazten ari zela; gainera, printze gazteei mozkorkeriari buruzko liburu bat agindu ziela; Sakramentarioen kontrako idatzi bat ere agindua zuela; beste batzuek Biblia osoari buruzko iruzkin bat eskatzen ziotela; bitartean, ez zuela ezer egiten. Bazter guztietatik presioa egiten ziotela kezkaz beteriko bizitza bat eramateko. Ahal zuena egingo zuela eta gainerantzekoa egin gabe geratuko zela.

1544ko abenduaren 5ean Jacob Probst-i (monasterio agustindar bateko priorea) gutun bat idatzi zion Luterok. Esaten zion nekatua eta zahartua zegoela; jadanik nahikoa denbora luzez bizi izan zela, eta iruditzen zitzaioela mundua amaierara heltzen ari zela. Printzeak ez zeudela jadanik ausardiaz eta heroien bertutez hornituak. Gorrotoz, liskarrez, diruzalekeriaz eta berekoikeriaz beteak zeudela. Alaba Margaritak eskerrak ematen zizkiola opariarengatik. Elgorria harrapatu zutela semeek eta alabak. Semeak sendatu zirela, baina alabak hamar asteko sukar eraso zuela eta oraindik garbi ez zegoela biziko zen ala hilko zen. Jainkoak deabruzko mundu honetatik beregana eramaten bazuen, bera ez zela haren kontra jarriko.

1545eko martxoaren 9an Brandeburgoko Joachim II. Hautesleari idatzi zion Luterok, Berlingo Buchholzer prebostearen semeentzako eskaera bat egiteko eta juduen kontrako oharra eginez. Buchholzer-ek esan omen zion Hautesleak nahi zuela Luterok iruzurgileen kontra idaztea. Luterok Hautesleari esan zion beldur zela ez ote zen juduen trikimailuen sarean eroriko, haietaz asko fidatzen baitzen. Esan zion ezin zuela sinetsi Hautesleak nola pentsa zezakeen juduek negozio zuzenak egiten zituztela; juduak iruzurgileak zirela, berek dena irabazi ahal izateko eta besteek ezer ez irabazteko. Bestalde, esaten zion, George Buchholzer jaunak bi beka eskatu zizkiola Hautesleari bere bi semeek teologia ikasten jarraitzeko.

1545eko maiatzaren 2an gutun bat idatzi zion Luterok Prusiako Albrecht Dukeari, Albrecht von Kunheim-ek hala eskatuta. Esaten zion Enperadoreak, Erregeak eta Printzeek ez zutela inolako prestakuntzarik egiten turkoen kontra joateko. Esaten zion baita ere, Enperadorea hasia zela Herbehereetan ebanjelioari jazartzen. Aita Santu munstroa Enperadoreari iseka egiten ari zela, kontzilioaren promesa eginez, baina kontzilioa berriro atzeratuz.

1545eko uztailaren 5ean Anton Lauterback-i idatzi zion Luterok bere iloba konkistatu nahian zebilen gazte bati buruz galdetuz. Dresde-ko gazte bat zela, Ernest Peuchter

izenekoa; bere biloba Magdalenaren faboreak irabazi nahi zituela hitz handiak erabiliz; ezkontzaren aitzakiaz diru apur baten atzetik ibil zitekeela. Gurasoak kontsultatu gabe amarru bat prestatzen ari zela. Eskatzen ziola aurkitzeko zeintzuk ziren haren gurasoak eta baliabideak. Luteroren familia kontra izango zuela. Gurasoei esaten zien semea arrastoan sartzeko, Luterok neurri gogoragoak hartu baino lehen. Horrela ekidingo zuela deabrua, ez zuela eta barregarri gertatu nahi.

1545eko abuztuaren 18an Torgau-ko hiri kontseiluari idatzi zion Luterok esanez M. Gabriel artzainak bere izenean eskaera hau egiteko eskatu ziola: kontseiluak garagardo upel bat erregalatu ziola eta berak beste bi erosi zituela; laugarren bat behar zuenez, laugarrena opari moduan emana izan zekiola eskatzen zuen. Artzain horrek luzaroko zerbitzua egin zuela, bere etxea bere kontura handitu zuela, laguntza berezirik gabe. Aldi berean, Luterok berak ere kontseiluari eskerrak ematen zizkion, opari moduan jaso zuen garagardo upelarengatik.

1545eko azaroaren 26an Danimarkako Kristian erregeari idatzi zion Luterok, George Stur izeneko ikasle baten aldeko gomendioa eginez. Ikaslearen ordain-sariaren zati bat jaso zuela eta beste zatia eskatzen ziola, ikasle ondradua eta saiatua zelako. Gainera, Luterok esaten zion jaso zuela 50 taleroko oparia Bugenhagen doktorearen bidez eta eskerrak ematen zizkiola.

Luteroren bizitzako azken hilabeteak eta heriotza

1546ko urtarrilaren 17an Luterok azken aldiz predikatu zuen Wittenberg-en; sermoi horretan sirena maitagarriaren eta deabruaren andregaiaren, hots, arrazoiaren kontra hitz egin zien entzuleei. Gizon zahar, nekatu, higatu, begi-bakar eta erdi hila izan arren, lanez zamatua zegoela zion Luterok. 1546ko urtarrilaren 28an Lutero, Jonas doktorea lagun zuela, Mansfeld-era joan zen; bidean uholdeak eta eguraldi txarra izan zituzten eta osasun arazoak izan zituen; urtarrilaren 29an heldu zen Eisleben-era eta han predikatu zuen urtarrilaren 31n. Luterok bidaiaria horretan zuen helburua Mansfeld-eko kondeen arteko eztabaida batean bitartekari lana egitea zen. Herentzia, meatze eta erlijio kontuetan Mansfeld-eko kondeei aholkuak eman behar zizkien. Mansfeld-dik idatzi zion Luterok Katalinari otsailaren 1ean; esaten zion berrogeita hamar judu baino gehiago bizi zirela Eisleben-en; arazo nagusiak konpontzean, juduak erbesteratzen ahalegindu behar zuela. Alberto kondea haien etsai zela, baina inork ez zuela ezer egiten eta hari lagundu nahi ziola, pulpitutik juduei buruz hitz eginez. Naumburg-eko garagardoa edaten zuela eta horrek komunera sarritan joatera behartzen zuela. Esaten zuen bidean ahultasun handia sentitu zuela eta Katalina han egon izan balitz juduei egotziko ziela ondoeza. Osasunez ongi zegoela, baina emakume ederrek ez zutela tentatzen eta ez zeukala arriskurik kastitatearen kontrako bekatuak egiteko (Roper, 2010).

1546ko otsailaren 6ko gutunean Luterok Katalinari esaten zion oraindik zortzi egunez ezingo zirela etxera itzuli, nahiz eta horretarako irrikaz egon. Jateko eta edateko nahikoa bazutela, baina oraindik arazoak ezin konpondurik zebiltzala. 1546ko otsailaren 10eko gutunean Luterok bromak egiten zizkion Katalinari, alfer-alferrik kezkatzen zelako beragatik; esaten zion ongi zegoela, baina itzultzeko desiratzen.

Hil baino lau egun lehenago, 1546ko otsailaren 14an bi apaiz ordenatu zituen Luterok; egun berean, San Balentin egunez, idatzi zion Luterok azken gutuna Katalinari Eislebendik Wittenberg-era. Gutunean esaten zion Alberto eta Gerardo anai kondeek bakeak egin zituztela eta aste horretan etxera itzultzea espero zuela. Esaten zion semeak Mansfeldera joan zirela, bera giltzurrunetako harria ez zuela sentitzen eta Jonas doktoreak hankan arazoak zituela; haragiz eta edariz ongi hornituak zeudela eta Albrecht kondesak emandako amuarrairain batzuk bidaltzen zizkiola.

Azken hitzaldia 1546ko otsailaren 15ean eman zuen Luterok Eislebengo San Andres elizan, hil baino hiru egun lehenago. Zeruko jauna laudatzen zuen jakintsuei gauza haiek ezkutatu zizkielako eta txikitxoei agertu zizkielako. Esan zuen Jainkoa jakintsuen eta zuhurren etsaia zela eta haurrak bezalakoak zirenak maite zituela; jakintsuak (Aita Santua eta haren aldekoak) heretikoak zirela; Jainkoaren hitza jasotzen zuten txikitxoak Luteroren aldekoak zirela. Jakintsuek eta zuhurrek Jainkoak egindakoa hobetu nahi zutela; heretiko guztiek egiten zutela hori: Arriok, Pelagiok, anabaptistek, sakramentarioek, Aita Santuak... Jende horrek ez zituela Eskritura Sakratuak bilatzen, beren ohorea baizik. Jainkoak gidatu behar zuela gizakia eta gizakiak bere arrazoimena itzali behar zuela. Sermoia egiten ari zela, ahulezia bat izan zuen Luterok eta hitzaldia amaitutzat eman zuen.

Urtarrilaren 29tik otsailaren 16ra arte kondeekin negoziatzen jardun zen Lutero, etxera joateko irrikaz bazegoen ere. Otsailaren 17an adostasun agiriak idatzi zituzten kondeek eta geratzeko eskatu zioten Luterori, nekatua ikusi baitzuten. Afari aurretik bularreko betetasunaz kexatzen zen eta oihal beroez igurtzi zuten; betetasuna pixka bat desagertu zitzaion. Afaritan ondo jan zuen eta umore oneko zegoen; heriotzaz eta betiko bizitzaz hitz egin zuen. Afaria amaitzean, erretiratu egin zen, errezatu zuen eta bularreko mina eta betekada sentitu zituen; Albrecht kondesak emandako erremedioekin lo pixka bat egin zuen, baina ordu eta erdira oso gaizki sentitu zen; ohetik altxatu, pixka batean ibili zen eta izerdi hotz asko bota zuen. Azken uneetan alboan zituen Justo Jonas, Martin eta Pablo semeak, Mansfeld-ko kondeak, Ambrosius zerbitzaria eta Celius kaperaua. Ebanjelioko eta Salmoetako pasarte batzuk errezitatu ostean, bere espiritua Jainkoari gomendatu zion. Orduan Jonasek eta Coelius-ek galdetu zioten predikatu zuen dotrinari sendo eusten zion eta baietz erantzun zuen; lo geratu zen eta berehalakoan aurpegia zurbildu zitzaion, oinak hoztu zitzaizkion eta arnasketa sakon batekin hil zen. 1546ko otsailaren 18ko hirurak laurden gutxiago ziren. Ez zuen azken igurtzirik hartu, sakramentua ez zela iruditzen baitzitzaion (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Testamentua 1542ko urtarrilaren 6an egin zuen Luterok. Katalinari utzi zizkion bere ondasunak. Luterok honela eman zituen testamentua horrela egiteko arrazoiak: Katalina maitale leiala izan zuelako eta emazteak ez zuelako seme-alaben zaintzapean geratu behar; bost seme-alaba eman zizkielako; seme-alabek amaren zaintzapean geratu behar zutelako; zorrak amak berak ordaindu behar zituelako; espero zuelako ama izango zela bere seme-alaben zaintzaile onena eta ondasun horiek semeentzat onuragarriena zen modan erabiliko zituela.

Juan Frederiko Hautesleari eskatzen zion berari ematen zion asignazio bera Katalinari ematen jarrai zezala (Roper, 2010).

Hil ostean hainbat orduz ohean eduki zuten Lutero; egunsenti aurretik ator txuri bat jantzi zioten eta zinkeko kaxa batean sartu zuten. Otsailaren 18an, egun osoan han eduki zuten gorpua. Otsailaren 19ko arratsaldean prozesioan eraman zuten Eisleben-go San Andres elizara eta Justo Jonasek sermoia bota zuen. Saxoniako Hautesleak gorpua Wittenberg-era eramateko eskatu zuen. Hilaren 20an kutxa zalgurdi batean jarri eta Wittenberg-erako bidea hartu zuen; iragan zituen hirietan harrera beroa egin zioten, batez ere Hallen. Segizioa osatzen zutenak: Mansfeld-go kondeak eta berrogeita bost zaldun, Katalina eta emakume talde bat, hiru semeak, anaia, ilobak eta beste senitartekoak, unibertsitateko errektore eta irakasleak, doktoreak, ikasleak eta hiritarrak. Otsailaren 22an heldu zen segizioa Wittenberg-era eta han beste prozesio bat egin zioten; Bugenhagen-ek hitzaldia eman zuen eta Melanchthon-ek latinez errezatu zuen. Wittenberg-eko palazioko elizan hilobiratu zuten Luteroen gorpua (Roper, 2010).

Luteroren anti-judaismoa

Luteroren anti-judaismoak eta Hitlerren antisemitismoak eragin handia izan zuten Alemanian. Luteroren aurretik ere izan ziren juduen arerioak, baina Lutero izan zen juduen kontra idazten lehenengoetakoa. Hala eta guztiz ere, Holokaustoan gertatua ikusita, zaila gertatzen zaie Luterotarrei Luteroren antisemitismoa onartzea. Luterok ez zuen beti jarrera bera eduki juduenganako. Gaztea zenean ez zen hain gogorra izan haren juduekiko jarrera; juduak kristautzen saiatu zen. 1523an *Jesukristo judu jaiotzen* liburua argitaratu zuen eta juduek pentsatzen zuten Lutero beren laguna zela; kristauei esaten zien juduak hobeto tratatzeko eta gaitzetsi egiten zituen haiek gaizki tratatzen zituztenak. Luterok zion kristauek zakurrak bezala tratatzen zituztela juduak eta bera judua izan balitz eta ikusi izan balu halako baboek eta kirtenek gobernatzen zutela, kristau dotrinaren izenean, txakur lehenago bihurtuko zatekeela kristau baino (Luther, 1962).

Batzuek esaten dute zahartzean bihurtu zela Lutero antisemita. Beste batzuen iritziz, Lutero beti izan zen antisemita; Lutero gazteari juduak interesatzen zitzaizkion, baina konbertitu beharreko objektu moduan; gerora, juduak ez zirela kristau bihurtzen ikusita, kristautasunaren etsaiak zirela pentsatzen zuen eta haien kontrako jarrera irekia hartu zuen. Dirudienez, Luteroren antisemitismoa ez zen izan haren azken urteetan sortutako zerbait; itxuraz juduen alde bazegoen ere, ez zien haiei batere sinpatiarik; nahiago zuen juduak desagerrarazi, haiek toleratu baino. 1519ko *Lukurreriari buruzko sermoian* juduen irudiak agertzen ziren izenburuaren orrian. Paras-en (2008) arabera, Lutero beti izan zen antisemita, baina juduek asaldatu eta frustratu zutenean agertu zituen bere benetako sentimenduak. 1530ean mahaiko solasaldietan esaten zuten Torgaun 30 judu baino gehiago zeudela; Frankfurt juduz beterik zegoela. 1531n Luterok Amsdorf-i idatzi zion alferrikakoa zela juduak bataiatzea, bilauak zirelako. 1536ko abuztuan Saxoniako John Frederiko Hautesleak bere lurraldeetatik juduak kanporatzeko agindu zuenean, juduen bozeramaileak, Josel von Rosheim-ek, laguntza eskatu zion Luterori, juduak Saxonian libreki mugi ahal izan zitezen; baina, Luterok uko egin zion harekin elkarteari. 1530eko hamarkadan Luterok zehurtiaz hitz egiten bazuen ere juduez, 1543an nabarmenki aldatu zen (Roper, 2010; Paras, 2008; Luther, 1962).

Lutero ez zen izan juduen aurkako iritziak zituen lehena; Staupitzek berak “zakur” moduan deskribatzen zituen juduak. Luterok juduen aurkako hainbat idatzi egin zituen; ezagunena, *Juduei eta haien gezurrei buruz* (1543) izan zen eta hil baino hiru urte lehenago idatzi zuen Luterok (Oberman, 1992; Pangritz, 2001; Roper, 2010). 1530-40 inguruan *Parrokoei sermoia*,

lukurreriaren kontra predika dezaten idatzi zuen. Hil baino hiru egun lehenago ere juduen kontra predikatu zuen Luterok.

Juduei eta haien gezurrei buruz liburuan Luterok esaten zuen juduak deabruak zirela; Satan kenduta, juduak bezain etsai pozoitsurik ez zegoela; lukurreriatik ateratzen zutela mantenua; besteen izerdiz, hezur-muinaz eta odolaz aberasten zirela; alferrak, lapurrak, gaiztoak, arriskutsuak, birao zaleak, pikaroak, traidoreak, odol goseak eta mendeku zaleak zirela; errabinoek irakasten zietela lapurreta ez dela bekatua; horregatik, juduez mendekua hartu behar zela, lan egitera eta ogia beren bekokiko izerdiaz irabaztera behartu behar zirela eta erail egin behar zirela; haien aurrean aitaren egin behar zela. Luterok agintari sekularrei aholkatzen zien juduen sinagoga eta eskolak erretzea, haien etxeak suntsitzea eta haiek lurraldetik kanporatzea, errabinoei irakaskuntza debekatzea, liburu eta idatzi talmudikoak desagerraraztea, bideetatik ibiltzeko baimena juduei kentzea, haiei zilar edo urre gordailuak kentzea eta lukurreria debekatzea; dirua mailegatzeagatik ateratako ondasunak konfiskatu egin behar zitzaizkien eta konbertitutako juduak sostengatzeko erabili behar ziren. Alemaniarrentzat juduak zama astun bat ziren, izurrite baten moduko zerbeit. Baina, Luterok zion juduak harro zeudela beren zirkunzizioagatik (Luther, 1971; Roper, 2010)

<http://www.sgipt.org/sonstig/metaph/Lutero/lvdjuil.htm>).

Ikusi dugun moduan Luterok bere bizitzako azken egunak Eisleben-en eman zituen, Mansfeld-go kondeen arazoak konpondu nahirik. Albert kondeak ez zituen juduak batere gogoko, baina haien kontrako borrokan hark laguntza behar zuela iruditzen zitzaion Luterori. Horregatik, 1546ko urtarrilean eta otsailean juduen kontra predikatzen jarraitu zuen Luterok. Jende gaiztoa ziren, Kristoren kontra etengabe biraoka aritzen zirenak (Roper, 2010). Lagunen batek Luterori esaten bazion juduekin gogorregia zela, berak esaten zion bigunegia zela. Jarrera hori bere bizitzako azken egunetara arte izan zuen eta printzeei esaten zien juduei justizia zorrotza ezartzeko. Lutero etengabe nahigabetzen zuen deabruak; gaizkiaren sinboloa zen harentzat deabrua; juduak, etsai guztiak bezala, deabruak ziren (Wiener, 1999).

Lau mende geroago, Luterok eragin handia izan zuen Hitlerrek juduen kontra zuen jarreraren (Olsen, 2012). Hitler ere, Lutero bezala, ez zen juduen arerio nabarmena izan gaztea zen artean; bizitza-esperientziek eraman zuten juduen aurka gero eta jarrera gogorragoak hartzera. Luterok, adinean aurrera zihoan heinean, juduen aurkako jarrera fanatikoa hartu zuen, eta gauza bera gertatu zitzaion Hitlerri. Hitlerrek gaztetan juduekin negoziatzen zuen, baina gero haiek desagerrarazten saiatu zen; Alemaniak jasaten zituen gaitz askoren errua

juduei egozten zien Hitlerrek; beraz, indarrean jarri zituen Luterok kristauei aholkatu zizkien juduen kontrako neurri asko: sinagogak erre, etxeak suntsitu, liburu eta idatzi talmudikoak desagerrarazi eta abar (Luther, 1971).

Luteroren *Juduei eta haien gezurrei buruz* liburuak eragina izan zuen Hitlerren antisemitismoan. Luterok eta Hitlerrek uste izan zuten beren borroka jende alemanaren interesekoa izan zela eta ez ziren kezkatu beren portaerak eragin zituen biktimengatik. Hitlerren iritziz, besteen kontura bizi ziren bizkarroi atzerritarrak ziren juduak; beren lurralde propiorik ez zuten eta beren maltzurkeriaz beste zibilizazioetako kideak menderatuz bizirauten zuten. Antzekoak ziren Martin Luteroren iritziak ere: alemanen etxeetan, haien babesean bizi ziren juduak eta alemanen lurra, bideak, azoka eta kaleak erabiltzen dituzte. Printzeek eta gobernuek uzten zieten haiei beren poltsatik nahi zutena lapurtzen. Alemanak, menderatuak eta ustiatuak, beren diru propioaren eskale bihurtzen ziren, juduen lukurreria zela eta (Olsen, 2012).

II. Mundu Gerra osteko Nurenbergeko epaian, Hitlerren goi mailako ofizial batek esaten zuen juduen sinagogak erre egin behar zirela, suntsitu beharreko sugedorriak zirelako. Epaiketa horretan naziek milioika juduen erailketa justifikatu nahi izan zutenean, Luteroren *Juduei eta haien gezurrei buruz* liburua aipatzen zuten. Hans Hinkel erregimen naziko kazetariak esaten zuen naziek jarraipena eman ziotela Luterok hasi zuela iraultzari. Hitlerren Hezkuntza Ministroak, Bernhard Rust-ek, esaten zuen Lutero hil zenetik ez zela halako gizonik izan, Hitler agertu arte; Rusten iritziz, Luteroren eta Hitlerren irakaspenak antzekoak ziren; horrela, Luteroren iritzien bidez, Hitlerren ekintzak zuritu nahi izan zituen (Steigmann-Gall, 2003). Julius Streicher gerra amaitu ostean atxilotu zuten eta gerra krimenak egin izana egotzi zioten. Epaietan esan zuen Martin Lutero ere akusatuen aulkian egongo zatekeela, haren liburua (*Juduei eta haien gezurrei buruz*) kontuan hartu izan balitz epaian. Streicherrek pentsatzen zuen bera bezain erruduna zela Lutero eta hura baliatu zuen kontrako akusazioetatik bere burua defendatzeko. 1946ko urriaren 1ean gizateriaren kontra krimenen errudun aurkitu zuten eta urriaren 16an erail zuten Streicher (Wiener, 1999; Walker, 1996)

Luteroren garaian Alemania hainbat printzerritan banatua zegoen eta hizkuntza alemana hainbat dialektotan banatua zegoen. Luterok alemanentzat hizkuntza batu bat sortu nahi izan zuen eta hura izan zen hizkuntza germano modernoaren jatorria. Luterok pentsatzen zuen hizkuntza alemanak bazituela beste askok ez zituzten baliabideak. Luterok alemanen profetatzat zeukan bere burua eta Alemaniaren batasunaren defendatzaile sutsu moduan agertzen zen; Biblia alemanera itzultzearen oinarrizko helburuetako bat alemaniarren

hizkuntza literario komuna sortzea izan zen (Olsen, 2012). Hitlerrek ere Alemaniako pertsonaia handien artean kokatzen zuen Lutero: munduko gerragilerik handienetakoa eta historiako eraberritzaile handietako bat izan zen Lutero, Frederiko Handiaren ondoan. Naziek beren inspiratzailetzat eta lider espiritualetzat hartzen zuten Lutero eta beren ekintzak justifikatzeko erabili zituzten Luteroen idatziak. Hainbat filosofo alemaniarrek Luteroen eragina izan zuten, estatuaren boterearen nagusitasuna aldarrikatzen zutenean, hiritarren eskubideen aurretik. Luteroek eragin handia izan zuen Adolf Stoecker, Werner Naumann edo Adolf Hitlerrengan. Hitlerrek zioen goiz edo berandu boterea eskuratuko zutela eta Luteroek bere bedeinkapena emango ziela. Hitlerren garaian pertsona batzuek pentsatzen zuten Hitler Luteroen berraragizatzea zela. Elkarren bikitzat hartzen zituzten batzuek; ertzeko nazionalismo eta antisemitismoaren ordezkariak ziren biak, elkarri estuki lotuak (Wiener, 1999; Olsen, 2012).

1938ko azaroaren 10ean, Lutero jaio zen egunaren urteurrenean gertatu zen Alemanian *Kristalen gaua*; gau horretan juduak erail, eskaparateak hautsi eta ehunka sinagoga birrindu zituzten (Paras, 2008). Nurenberg-eko manifestaldien garaian *Juduei eta haien gezurrei buruz* liburuaren propaganda egin zuten naziek. 1941ean Eliza Ebanjelikoa erreformatu eta estatuarekin koordinatu nahi izan zuen Hitlerrek; urte horretako azaroaren 13an manifestaldi handi bat egin zuten koordinazio hori sustatzeko. Lutero juduen aurkakoa zen guztiz eta autoritate politikoak zioena obeditu behar zela sinesten zuen. Sineste horrek eramanda, luterotar askok Nazien ikuspegi antisemitikoa bereganatu zuten eta Hitlerri itsuki obeditu zioten (Shirer, 1960). Luterotar batzuk Naziei eutsi bazieten ere, gehienek Hitlerri obeditu egin zioten (Paras, 2008). Esan daiteke Luteroek Hitlerri bidea irekitzen lagundu zuela, horrelako asmorik izan gabe (Waite, 1977).

Lutero eta Hitler biak ziren pertsona autoritarioak eta biak izan ziren antisemita nabarmenak (Olsen, 2012; Fromm, 1941), biek zuten sentimendu nazionalista indartsua eta biek nahi zuten alemaniarrek nazio handi batean biltzea, baina bietako inork ez zuen lortu nahi zuena, lehen baino zatituagoa utzi baitzuten Alemania. Luteroen alderdi antisemita ezkututzen saiatu dira haren aldekoak; baina, Lutero oso antisemita izan zen, eta adinean aurrera egin ahala, are eta antisemitagoa. Luteroek juduen kontra eginiko testuak bortitzak eta traukilak ziren, haien kontrako irainez beteak. Paras-en iritziz (2008), Lutero deskribatzeko egokiagoa da, beharbada, anti-judutarra zela esatea, antisemita zela esatea baino, antisemita terminoa XIX. mendean erabili baitzen lehen aldiz, arraza-kontzeptuan oinarrituta; Lutero juduen aurka zegoen, baina arrazan baino gehiago oinarritzen zen ideia erlijiosoetan (Paras, 2008).

Kristau luterotarrek Hitlerri eman zioten sostengua, gehien batean. Luterok zioen herriak ez zuela eskubiderik agintarien kontra altxatzeko, ez eta agintaria zuzengabea zenean ere. Garbi dago Luterok Hitlerrengan eragina izan zuela, agintari bidegabei kontra egiteko eskubidea ukatzen zionean jendeari; edo esaten zuenean jendea behartua zegoela agintarien gehiegikeriak eramatera, jasanezinak zirenean ere. Luterok esaten zuen agintariak gerra aginduz gero, herriak obeditu egin behar zela eta haien alde borroka egin behar zuela (Olsen, 2012). Lutero prest zegoen maite zituen germaniarrengatik hiltzeko eta beste horrenbeste gertatzen zen Hitlerrekin ere.

Lutero eta Hitler pertsona zurrun eta autoritarioak ziren (Erikson, 1958; Fromm, 1941). Hitler beti izan zen zurruna eta autoritarioa. Lutero, berriz, ingurune zurrun batean hezi izan zuten, baina lortu zuen bere espiritua eliza katolikoaren debekuetatik askatzea eta Enperadorearen uztarpetik ihes egitea. Hala ere, protestantismoa ingurunean ezarrita gero, printzeen aldeko jarrera hartu zuen; jarrera benetan autoritarioa hartu zuen bizi-baldintzak hobetzea eskatzen zuten nekazarien kontra. Esan dezakegu Luterok ez zuela lortu uztarri autoritarioari ihes egitea, bizitzako uneren batean saiatu bazen ere ezarritako hertsapenetatik askatzen. Luteroentzat bateragarriak ziren askatasun espirituala eta mirabetza. Luterok ezin izaten zuen zalantza eta ziurtasungabezia jasan; kontrako iritziak ezin izaten zituen eraman; kontra egiten ziona anti-Kristo bihurtzen zuen, Aita Santuarekin egin zuen moduan.

Lutero eta kapitalismoa

Erdi aroko katolizismoan elizak josten zuen gizakiaren eta Jainkoaren arteko harremanaren sarea. Erdi Aroan nolabaiteko ziurtasuna bazuen gizartean gizabanakoak, baina Errenazimenduan Erdi Aroko gizarte feudalaren egiturak behera etorri ziren; egitura horiek behera etorri zirenean, gizakia bakartua eta beldurtua sentitu zen; galdu egin zituen lehengo segurtasun, partaidetza edo kidesun sentimenduak. Erdi Aroko egitura sozialaren egonkortasuna desagertu egin zen eta klase-maila guztiak mugitzen hasi ziren. Gizabanakoak bere irizpideen arabera jokatzeko askatasuna lortu zuen. Gizarte berrian pertsona batek bere lanaren eta ahaleginaren bidez lor zezakeen beste estatus bat.

Protestantismoan gizakiak bakarrik egin behar zion aurre Jainkoari, sinesmen-esperientzia guztiz subjektibo batekin. Bakardade horretan bere kabuz pentsatu eta jokatzeko gaitasuna lortu behar zuen; modu askean jokatzeko eta kritiko izaten ikasi behar zuen. Jainkoaren aurrean sentitzen zuen bakardade bera sentitzen zuen egitura ekonomikoaren aurrean ere.

Errenazimendu garaian kapitalismoa industrialia eta merkataritza asko garatu ziren; garapen hori hirietako klase ertainetan oinarritu zen. Merkataritza handiek ahalmena zuten prezioak nahi zuten moduan igotzeko eta jaisteko; aldiz, merkataritza txikiak, nekazariak eta hirietako behartsuak egoera tamalgarrian zeuden. Merkataritza txikiak haserre zeuden merkataritza handien monopolioen kontra. Luteroentzat, errege eta printzeek debekatu egin beharko zituzketen merkataritza handien neurri ekonomiko ankerrak. Lutero esaten zuen lukurreria gaitzetsi behar litzatekeela eta lukurreruari sakramenturik ez litzaiokeela eman behar. Gizarteko beheko klase mailakoek (hirietako behartsuek eta nekazariak) zapalkuntzaren amaiera, askatasuna, sendetasuna eta justizia aldarrikatzen zituzten.

Luteroen idatziek eragina izan zuten nekazarien matxinadetan, baina matxinada horiek ordena soziala arriskuan jarri zutenean, Lutero erdiko klase mailaren eta printzeen alde jarri zen. Erdiko klase mailakoek bazituzten behe klase mailakoek ez zituzten pribilejio batzuk eta kapitalismoaren onurak erdiko klase mailako batzuek, aberats kapitalista berriek eta jaiotzetik aristokrata zirenek baliatu zituzten batez ere. Erdiko klase mailako batzuek kapitalismotik etekin handia lortu bazuten ere, klase maila horretako jende gehiena bakarturik eta ezdeustasun sentimenduz beterik gelditu zen; kapitalismoaren abantailak baliatu ez zituztenek,

boterea eta luxua eskuratu ez zituztenek erresumina, frustrazioa eta mehatxua sentitu zituzten (Fromm, 1941).

XIII. mendetik XV. mendera arte Duns Scoto, Occam eta Biel-ek gizakiaren ekintzek salbamenerako duten balioa azpimarratzen zuten. Gizakiaren borondatearen eta askatasunaren indarra defendatzen zuten. Jatorrizko bekatuak ez zuen gizakia erabat usteldu eta ongia egiteko eta merituak irabazteko gai zen. Erdi Aroko Elizak borondate askea, giza duintasuna eta giza-ahaleginaren balioa azpimarratzen zituen.

Luterok gizabanakoen artean banatu zuen elizak zuen autoritatea; baina, gizakiaren ikuspegi ezkorra zuen; giza-natura oinarrian txarra zela eta ongia egiteko askatasunik ez zuela esaten zuen. Luterok ezdeustasun sentimendua sentiarazi zion gizakiari; gizakia Jainkoaren eskuetan tresna pasibo bat zela eta hark Jainkoaren aurrean egindako merituek ezertarako ez zutela balio esaten zuen. Luteroren ikuspegia bereganatzean, gizakiak galdu egin zituen bere buruarengan zuen konfiantza, bere harrotasuna eta bere duintasun sentimendua; hersturaz eta zalantzaz betea zegoen gizakia eta ziurtasunaren bila zebilen; gizakiak galdu egin zuen Erdi aroan zuen sentimendu nagusia, bizitzaren helburua gizakia zela sentiarazten ziona (Fromm, 1941).

Luterok gizakiaren ezdeustasuna agirian utzi zuen eta haren itxaropenari irteera bat eman zion: bere ezdeustasuna onartzen bazuen, Jainkoak onartuko zuen; baina, horretarako ukatu egin behar zuen borondate askea zuela; borondate askearen aztarna guztiak ezabatu beharra zuen; Jainkoaren mendean erabat jartzen bazen, hark maitatuko zuen eta orduan bakarrik askatuko zen ezdeustasun sentimendutik. Luterok elizaren tiraniatik askatu zuen gizakia, baina Jainkoaren tiraniaren pean jarri zuen. Jainkoaren esanetara jartzen bazen bakarrik izango zen maitatua (Fromm, 1941).

Luterok jarrera anbibalentea erakutsi zuen agintearen eta jendearen aurrean. Alde batetik, agintea miresten zuen eta, bestetik, haren kontra matxinatzen zen. Alde batetik, errespetatzen zituen agintearen kontra altxatzen ziren masak, berak ezarritako mugen barruan matxinatzen zirenean; baina gorrotatu eta mespretxatu egiten zituen beren kabuz matxinatzen ziren masak. Luteroren nortasunaren bereizgarri nagusia honako hau izan zen: zalantzak gainditzen lagunduko zion ziurtasunaren bila ibili zen konpultsiboki. Ziurtasuna bilatzeko bere nortasun indibiduala deuseztatu zuen eta kanpoko botere indartsu baten mendean jarri zen; kanpoko botere hori Jainkoa zen eta haren mendean jarrita lortuko zuen ziurtasuna. Baina, Jainkoaren

aurrean ezdeusa zela onartzeak bere buruan zuen konfiantza galtzera eraman zuen; bere duintasuna eta harrotasuna galdu zituen (Fromm, 1941).

Aurrerantzean, Jainkoarengan konfiantza izateko, bere buruarengan zuen konfiantza galdu behar zuen. Gizakiaren bizitzaren helburua ez zen haren salbamena izango, kanpoko helburuen mendean geratuko zen. Horrela, Calvinorentzat eta Luterorentzat ekintza onek ez zuten gizakia salbamenera eramaten. Gizakiaren bizitzaren asmoa Jainkoaren aintza zen. Gizakia ezdeusa zen eta bereak ez ziren asmoen mende jarri behar zuen bizitza. Gizakiak segurantzaz lortu nahi bazuen, apaldu eta besteen mendean jarri behar zuen. Luterorentzat eta Calvinorentzat, gizakia berez gaiztoa zen; alferrikakoak ziren haren ahaleginak. Egitura ekonomikoaren edo Führer-en baten esanera bere bizitza jartzeko prest zegoen gizakia; lanean eta ahaleginean oinarrituta, kapitala pilatu: horra hor bizitzaren helburua. Hori zen gizakiak egin behar zuena, Luterorentzat eta, batez ere, Calvinorentzat. Ahalegin horrek haren patua aldatzen ez bazuen ere, ahalegina egiten zuen gizakia aukeratuen taldekoa bihurtzen zuen. Lurreko bizitzan arrakasta izatea salbamenaren adierazle moduan interpretatzen zen (Fromm, 1941).

Erdi Aro amaieran gizakiak gizarteko ziurtasuna galdu zuen eta indar ekonomiko berrien mehatxuaren pean geratu zen. Erdi Aroan gizakiaren esanetara zegoen kapitala; Errenazimenduan gizakia jarri zen kapitalaren esanetara. Jarduera ekonomikoa bizitzarako bitartekoa zen Erdi Aroan; Kapitalismoan, berriz, jarduera ekonomikoa eta irabazia gizakiaren bizitzako helburu bihurtu ziren. Aurrerantzean, ekoizpen ekonomikoaren helburuak lortzeko bitarteko bihurtu zen gizakia (Fromm, 1941).

Calvinok ukatu egiten zuen gizakien berdintasuna eta elkartasuna; garbi bereizten zituen salbatuak izango zirenak eta kondenatuak izango zirenak. Calvinok Lutero baino garrantzi gehiago ematen zion gizakiaren ekintzari eta ahaleginari. Ahaleginak egiteko gai bazen, hautatuen taldekoa zela demostra zezakeen; munduan arrakasta izatea zen salbamenaren ikurretako bat. Salbamenari buruzko ziurtasunik ez zuenak ekintza frenetikoan murgildu behar zuen, horrek bakarrik emango baitzion sosegua; etengabeko jarduera obsesiboaren bidez bakarrik gaindi zitekeen ezdeustasun sentimendua; norbere patuari buruzko zalantzak ahaleginaren bidez gainditzen ziren. Munduan lortutako arrakastaren bidez aurreikus zitekeen norberarentzat ezarrita zegoen patua. Calvinorentzat, lana eta jarduera helburuak ziren, ez ziren beste helburuak lortzeko bitartekoak. Lanerako joera konpulsiboa nagusitzen zen gizakiarengan eta bere buruaren mirabe bihurtzen zen gizakia. Predestinazioaren teoriaren

bidez gizakiak bere ezdeustasuna onartzen zuten; ezin zuten bere patua alda zezakeen ezer egin. Hautatuen taldekoa zela pentsatzeak bakarrik emango zion salbamenaren ziurtasuna (Fromm, 1941).

Luteroren familiak meatzarien munduan ziurtasun gabezia eta arrisku handia bizi izan zituen. Esperientzia horren ondorioz, pentsatzen zuten ezer ez zegoela bere eskuetan, eta Jainkoarekin tratuak egiteko garaian bitartekorik eta estrategia arrakastatsurik ez zegoela. Jainkoaren aurrean bakarrik aurkitzen zela (Roper, 2006). Arrakastarik izan ez zuten erdiko klase-mailako pertsonak goi klase mailako jendearekiko, aberats kapitalistekiko gorrotoa eta bekaitza sentitzen zituzten, baina etorkizun oparo baten itxaropena zutenez, gizarteko egiturak ez zituzten hankaz gora jarri nahi; aberatsen kontrako etsaitasuna bigundu behar zuten; ezin zituzten gorrotoa eta bekaitza zuzenki adierazi; etsaitasun hori dirudunen kontrako enbidia eta sumindura moral moduan agertuko zen. Alde batetik, besteen kontrako sumindura, gorrotoa eta mespretxua eta, bestetik, bere buruaren kontrako etsaitasuna agertuko zituzten. Kanpotik ezarritako eskakizunak barneratu eta kontzientzia moduan agertuko zituzten. Luterok eta Calvinok etsaitasun hori ordezkatzeko zuten (Fromm, 1941).

Calvinok eta Luterok ezberdin pentsatzen zuten. Calvinoren eraikuntza teorikoan aurrez ezarritako patuaren teoria giltzarria zen; teoria horren arabera, Jainkoak gizon batzuk salbatu eta besteak kondenatzen zituen. Salbamea eta kondena ez ziren gizakiak ondo edo gaizki jokatzearen emaitza. Gizakia jaio aurretik Jainkoak ezarria zeukan haren patua. Maitasunaren eta justiziaren arrastorik ez zuten tirano bat zen Calvinoren Jainkoa; gizaki batzuk salbatu egiten zituen eta besteak kondenatu. Patu hori jaiotzaren aurretik erabakita zegoen, eta predestinatua ezin zezakeen ezer egin patu hori aldatzeko (Fromm, 1941). Protestanteentzat dirua aurreratzea beharkizun moral bat zen eta Calvinorentzat aberasten zena salbatua izateko predestinatua zegoen. Aldiz, Luterorentzat, kristauak jadanik salbatuak zeudenez, komunitatearen alde lan egin behar zuten, aberastasuna pilatu ordez; mozkina ateratzea ez zen helburua, aberastasuna birbanatzea baizik. Calvinok Luterok baino garrantzi gehiago ematen zion giza-ahaleginari, ez ahalegin horrek gizakiaren patua aldatuko zuelakoan, baizik munduan arrakasta izatea salbamenaren ikur zelako. Salbamenari buruzko kezka gainditzeko bitartekoa zen ekintzarako eta lanerako joera inpultsiboa. Aurrez determinatua zegoen patua aurreikusteko modu bat zen munduan arrakasta lortzen saiatzea (Fromm, 1941).

Calvinoentzat, erlijioaren sustraia gizakiaren ezintasunean oinarritzen zen. Gizakia apaltzea eta haren harrotasuna suntsitzea beharrezkoak ziren Jainkoaren indarra ziurtatzeko. Gizakia ez zen bere buruaren jabe. Gizakiaren deliberoak eta ekintzak ez zuten arrazoian edo borondatean oinarritu behar. Gizakiak bere buruaz ahaztu eta Jainkoaren arabera bizi eta hil behar zuen. Bere aurretik zihoan Jainkoak gidatu behar zuen gizakia. Gizakiari eraman ezina gertatzen zitzaion herstura-egoera, ezintasun eta ezdeustasun sentimendua eta norbere patuari buruzko zalantza etengabea. Kalbinismoaren arabera, ziurtasungabezia hori gainditzeko, jarduera inpulsibo eta frenetikoan murgildu behar zuen gizakiak; etengabeko jardunak bere herstura, zalantzak eta ezintasunak gainditzen laguntzen zion. Lana eta jarduera bizitzaren ardatz bihurtu ziren (Fromm, 1941).

Martin Luteroren bereizgarri psikologikoak

1505eko uztailaren bian Stitternheim-en, Erfurtetik hurbil, ekaitz bat gertatu zen eta Luteroren ondoan tximista batzuk erori ziren. Lutero komentura sartzea eraman zuen arrazoi hurbila haren inguruan eroritako tximista horietan aurkitu behar da (Abellán, 1990). Tximistaren erasoaren pean lurrera jausi zen Lutero eta Santa Anari agindu zion fraide sartuko zela, esperientzia horretatik bizirik irteten bazen. Bizirik atera zen, baina izu-ikara eraso bat jasan zuen. Erfurt-eko unibertsitatea utzi zuen, aitaren baimenik gabe eta 1505eko udan Erfurt-eko agustindarren monasterioan sartu zen, 21 urte zituela (Abellán, 1990).

Luteroren aitak esana zuen Martinen komenturako sarrera deabruaren amarru baten ondorioa izan zitekeela. Komentuan egun batez Meza Nagusia entzuten zegoen Lutero, fraideen koruan, zalantzaz eta alhaduraz beteta; Ebanjelioan deabruak hartutako gizakiaz hitz egiten zen (Mateo 9:32-33); une horretan, Lutero ondorez-eraso bat izan zuen, negar eta aihen historikoekin lurrera erori zen, eta zoro baten moduan jokatu zuen, deabruak hartua ez zegoela esanez: *“Hori ez naiz ni!, hori ez naiz ni!”* (Non sum!, Non Sum!). Lutero esan nahi zuen bera ez zela aitak esaten zuena, hots, deabruak hartutako pertsona. Pasarte hori identitatearen galeraren paroxismo epileptoide moduan, krisi historiko baten edo krisi psikotiko baten moduan ulertu izan da (Reiter, 1937); krisi hori gertatu zen Luteroren komentuko bizitza arazoz betetzen hasi zenean. Erikson-en iritziz, koadro psikotikoen edo mugako koadroen antzeko eraso eta konbultsioak bizi izan zituen Lutero (Erikson, 1958).

Luteroren biografo askok haren sufrikarioa kanpoko presioei egozten badiete ere, Luteroren sintomak ez ziren mugatu haren bizitzako garai jakin batera. Paul Reiter-entzat Lutero bere bizitzan zehar barne-herstura, nahaste bipolarra eta nahaste psikotikoak izan zituen eta koruko eraso psikopatologia larriaren adierazle zen (Reiter, 1941). Ian Osborn-en (2008) arabera, akademiko guztiek onartzen dute Lutero barne-herstura, obsesioa eta depresioa jasan zituela bizitza osoan zehar, neurri handiagoan edo txikiagoan (Reiter, 1937).

Gaixotasun mentalak eginkizun esanguratsua bete zuen Luteroren bizitzan zehar. Erikson-en arabera (Erikson, 1958), nerabezaro amaieran identitate-krisi moduko batetik iragan zen Lutero eta krisi horretatik Staupitz-en terapeuta lanari esker irten zen. Martin gaztea aitaren eta Jainkoaren autoritateen krudeltasunak zapaltzen zuen eta deabruak hartua zegoen; baina Lutero heldua saiatzen zen aitaren, Aita Santuaren, Enperadorearen eta deabruen atzaparretatik askatzen.

Hogeita hamabost urterekin, Staupitz-en atzetik Corpus Christi eguneko prozesioan zihoala, izu-ikara, izerdi eta zorabio eraso bat izan zuen Luterok (Erikson, 1958). Staupitz eta Kristo aitaren irudiarekin lotzen zituen. Jainko aitaren irudiarekin erlazionatuak zeuden Luteroren nahasteak; Jainko aitarekin zuzenki, bitartekaririk gabe, harremanean jartzen zenean sortzen zen nahastea. Meza berriko gertakarian eta Eisleben-go prozesioarenean, Kristo presente zegoen, eta gertakari bietan aitaren irudia ere presente zegoen: meza berrian aita presente zegoen eta prozesioan, aitaren irudi zen Staupitz eta Kristo presente zeuden. Staupitz-en aurrean Luterok sentitzen zuen barne-herstura aitaren irudi anbibalentearen transferentziak sortzen zuen barne-herstura zen. Luterok jarrera anbibalentea zuen Staupitz-en aurrean: alde batetik miretsi egiten zuen eta begirunea zion; beste aldetik hotz eta berotasun gabeko pertsona moduan deskribatzen zuen. Staupitzek prozesioan zeraman Kristoren irudiak afektu positibo eta negatiboak eragiten zituen Luterorengan. Staupitz-ek terapeuta eta zuzendari espiritual lanak betetzen zituen Luterorekiko (Roper, 2010; Erikson, 1958).

Lutero monasterioan sartu zenean giro matriarkal batean babestu zen; monasterioko bizitzan segurantza sare bat eraiki nahi izan zuen Luterok. Mariaren bitartekaritaz, haragia menderatu eta Jainkoaren botere traszendentea leundu nahi zuen. Staupitz beregandik urruntzen ikusi zuenean, Luterok esan zion haren isiltasuna bidegabea zela, baina eskerroneko zela harekiko, Ebanjelioa aurkitzen lagundu ziolako. Erreforma etorri zenean, Staupitz beste ordena batera aldatu zen eta eliza katolikoaren barnean jarraitu zuen. Staupitzek askotan babestu zuen Lutero, baina hark alde egin zuenean, Bugenhagen-ek hartu zuen Luteroren aitorlearen lekua; hark babestu zuen, esate baterako, 1527ko krisialdia izan zuenean. Staupitz-ek ere, hiltzear zegoenean, esan zuen Lutero asko maitatu izan zuela.

Ikaslez, zerbitzariz, bisitariz eta lagun leialez inguratuta bizi izan zen Lutero Wittenberg-en: Bugenhagen, Jonas, Melanchthon, Dietrich, Rörer, Cruciger. Unibertsitateko lanean eta predikari lanean zentratuta bizi izan, baina gutun bidezko harremanek ere toki handia izan zuten haren bizitzan. Wittenbergeko unibertsitatea hazten zihoan heinean, ikasle ohi eta akademiko asko hiriko zinegotzi bihurtu ziren eta politiko eta akademikoen sare zabal bat eratu zuten. Luterok depresioaldi asko izan zituen eta sentikortasun berezia eduki zuen malenkonia sufritzen zutenak kontsolatzeko, hala nola, Weller anaiak kontsolatzeko (Roper, 2010; Erikson, 1958).

Bere etsaien arabera, tripa zakua eta mozkortia zen Lutero. Nerbioetatik eta giltzurrunetatik sofritzen zuen. 1523tik aurrera nerbio gaixotasuna izan zuen: zorabioak, belarrietako soinuak, lo egin ezina. Nahaste fisikoak ere izan zituen: ziatika, ultzerak hortzetako mina, bihotzeko palpitazioak, insomnia, harriak. 1527an depresio pasarte batean arazo fisiologiko zorrotzak

izan zituen. 1532ko otsailean buruko minak eta zorabioak izan zituen. 1532 eta 1533an izterrean gaizki zikatrizatutako zauri bat zeukan. 1535eko apirilean osasun arazoez kexatzen zen. 1535eko abuztuan oso zahartua sentitzen zen eta 1536ko otsailean bertigo eraso batek sermoia botatzea eragotzi zion Torgau-n. 1537ko urte hasieran koliko nefritiko bat jasan zuen Esmalkadan. 1540an katarro bortitz bat jasan zuen. 1541eko urtarrilaren 9an bere osasun ahulaz kexatzen zen; ezkortasuna nagusitu zen harengan, bizitzaz aspertua zirudien eta heriotza desiratzen zegoen. 1541eko apirilean hainbat sintoma eta minez kexatzen zen; ezinezkoa iruditzen zitzaion borroka gogor hori eramatea; alferrikako hilotz bat zela esaten zuen. 1541eko maiatzean esaten zuen belarria sendatu zitzaioela, baina buruan oinazeak zituela; beti katarroz, mukiz eta karkaxaz betea izan zela; umore txarrez eta malenkoniatsu zegoela. 1542ko urtarrilean idatzi zuen bere lehen testamentua. 1542-43ko neguan burua astuna sentitzen zuen eta munduaz aspertua zegoen; 1543ko urtarrilean eta otsailean idatzi zuen buruko minek ez ziotela uzten irakurtzen eta idazten. 1543ko maiatzean zahartua sentitzen zen eta ekainean hiltzeko gogoia erakusten zuen. 1543ko azaroan buruko minak itzuli zitzaizkion eta hankako zauria okerragotu zitzaion. Etengabe kexatzen zen buruko minez: 1544ko otsailaren hasieran ere buruko minen eraso bortitz bat jasan zuen. Ez zen gai edan gabe lana egiteko. Bizitzaren azken aldian hankako zauriak zalgurdian ibiltzera behartzen zuen; unibertsitatera eta elizara joateko ere zalgurdia erabiltzen zuen, bertatik bertara egon arren (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010). Krisialdi horiek guztiak izanda ere, Luterok jarrera dinamikoan agertzen zuen, tarteka-tarteka; tentsio neurotikoa eta beheraldi zorrotzak jasaten bazituen ere, lanerako indarra ateratzen zuen eta ekoizpen handiko fase batzuk izaten zituen (Erikson, 1958).

Pertsonaren bereizgarriak sarritan aldatzen dira deskribatzailearen ikuspegiaren arabera. Martin Luteroren bereizgarriak ere aldatu egiten dira biografia egin duenaren jarreraren arabera. Batzuentzat irudi erraldoia zen Luterorena, beti egiarekin konprometitua zegoena. Beste batzuentzat, Lutero ezegonkorra zen eta interes aldakorren arabera aldatzen ziren haren iritziak. Ikerlari batzuentzat zaila da XVI. mendeko pertsona baten bereizgarrien deskribapen zehatza egitea hogeita batgarren mendean. Baina, beste batzuen arabera (Jasko, 2014), Luteroren bizitzako gertaera askoren eta haren izaerako bereizgarri askoren berri badugunez, haren osasun mentalaren erretratu psikologiko eta historiko bat eta behin-behineko diagnostiko bat egin liteke, psikopatologiaren, teologiaren eta historiaren ekarpenak kontuan hartuta.

Nortasun erlijiosoa. Fedea eta grazia nagusi

Kiefl-en arabera (Kiefl, 1917), Luterok nortasun erlijiosoa zuen. Luteroren bizitzako alderdirik sakonena erlijioa izan zen; Jainkoarekiko harremanari eman zion garrantzirik gehiena bere bizitzan. Haren idatzi, gutun eta solasaldi nagusiak erlijioaz izan ziren eta haren bilakaera arrazoi erlijiosoek azaltzen dute. Bere atsekabe fisiko eta psikikoei zentzua emateko ideia espiritualak erabiltzen zituen Luterok, nahaste mentalak ulertzeko metodo zientifikorik ez zegoelako. Malenkonia eta gaixotasunak deabruaren lan moduan eta espiritualitatearen ikuspegitik ulertzen zituen (Luther, 2004).

Gizakiak justifikazioa sinesmenaren bidez lortzen zuela aurkitu bitartean, Jainko zigortzaile baten ideiak estutu zuen Lutero. Ezin zuen ahantzi erruduna zela eta kondenatua izango zela. Salbamena lortzen ahalegindu zen komentuan, baina sakrifizio guztiak egin arren, infernuak eta deabruak sortutako izuaren mendean bizi izan zen, harik eta justifikatzen gaituen Jainkoaren ideia aurkitu zuen arte. Luteroren iritziz, gizakia bekatari sentitzen zen Jainko izugarriaren aurrean. Luterorentzat, kristauak, bataiatuak zeudenek ere, bekatari izaten jarraitzen zuten; gizakiaren ekintzak bekatu ziren, itxuraz onak ziruditenek ere. “Dorreko esperientzian” ikusi zuen Luterok sinesmenak justifikatzen gaituela; handik aurrera, Luteroren teologiaren ardatza fede bidezko justifikazioa izan zen. Kristok bekatuak bere gain hartu zituen eta bere burua bekatu bihurtu zuen, Jainkoaren haserrea baretzeko eta gizakia justifikatzeko edo salbatzeko. Luterorentzat Eskriturak ziren teologiaren eta jardueraren autoritate bakarrak; Eskriturak interpretatzeko ez zegoen tradizioaren eta elizaren irizpideen beharrik; norberaren irizpideak nahikoa ziren.

Humanistek pentsatzen zutenaren kontra, Luterorentzat gizakia kateatua zegoen eta ez zuen erabakiak hartzeko askatasunik. Luterorentzat, gizakia ezin zen bere kabuz bekatutik askatu eta horrek porrot sentimendua sortzen zuen. **Gizakiak ez zuen salbamenera eramango zuen erabakimen askerik; gizakia Jainkoaren edo Deabruaren borondatearen gatibu zen eta dena halabeharrez egiten zuen. Beraz, halabeharra zen, eta ez erabakimen askea, pertsonaren jokaera erabakitzen zuena. Jainkoa zen onaren eta txarraren egilea. Merezi ez zutenei zemaian zorientasuna eta merezi ez zutenak zigortzen zituen (Lutero, 1557).**

Lutero bereizi egin zen teologia eskolastikotik, hark justiziari, legeari eta zuzenbideari lehentasuna ematen baitzion graziaren aurretik. Luterok Jainkoarekiko harremanetatik

justiziaren eta legearen ideia baztertu eta graziaren ideia jarri zuen nagusi. Luterok gairitu egin nahi zuen erruduntasuna sortzen zion erlijioa; sinestunaren onarpena erraztuko zuen erlijioa sortu nahi izan zuen. Luterorentzat, gizakiaren sinesmenak zuen garrantzia, ez gizakiaren ekintzak edo jokaerak; bekatua eta heriotza ez ziren gizakien ekintza onen bidez gairituko, gizakiek Kristorengan zuten fedearen bidez baizik. Grisar jesulagunaren arabera (Grisar, 1931), Luterok gizakiaren ekintzak baztertu eta erlijioa sinesmenean oinarritu zuen. Jainkoarekin harremanean jartzeko gizakiak ez zuen merituak pilatzen jardun beharrik; jatorrizko bekatuak bekatari izatera predestinatzen zuen gizakia eta horrek erruduntasuna sortzen zion. Kristo zen munduko bekatuak garbitzen zituena; fedeak justifikatzen zuen gizakia. Jainkoak ez zuen gizakien ekintza onen beharrik; gizakiaren bekatuek garrantzirik ez zuten. Luterok esaten zuen indar handiz bekatu egin behar zela eta are kemen handiagoz sinetsi behar zela.

Teologia berri horrek Jainko ankerraren tiraniatik askatu bazuen ere, Luterok ez zuen benetako atsedetik lortu bere erlijioan; praktikatzen zuen teologiak ez zuen askatu nahaste obsesibo-konpulsibotik. Luterok jarrera anibalentea izan zuen bere bizitzan zehar. Alde batetik pentsatzen zuen benetako ebanjelioa predikatzeko hautatu zuela Jainkoak; alemanen profeta zela; aurreko inork ez bezala zekiela zer zen ebanjelioa; aspaldiko mila urtetan inork ez zuela izan berak zuen dohainik. Beste aldetik, bizitzan zehar kezkatu jarraitu zuen, bere irakaspen eta sermoiek pertsona batzuk desbidera zitezketela pentsatzen baitzuen; bere erruz pertsona asko galbidera joan zitezkeela pentsatzeak errudun sentiarazten zuen Lutero (García-Villoslada, 1973)

Vatikanoko artxibista zen Denifle-k Luteroren eta luteranismoaren azterketa bat egin zuen. Haren iritziz (Denifle, 1904), *Erromatarrei egindako gutunaren komentarioak* argi berria jaurtikitzen zuen Luteroren izaerari buruz. Lutero ez zen fraide eredu izan; joera eraman ezinek bultzatuta, nekatu egin zen bere salbamena eguneroko borrokaren bidez lortzen. Seriotasun moralari eta borondate askeari uko egin zion. Fraide erlaxatutzat zeukan Deniflek Lutero. Baina, Strohl-en arabera (Strohl, 1962), Luteroren teologia ez zen Jainkoaren haserrearri ihes egin nahi zion gizon ustel eta moz korti batena, baizik gizon arduratsu eta apal batena, absolutuaren bila zebilen gizon batena.

Cefalurentzat Luterok ez zuen gaixotasun mentalik; erlijioak baldintzatutako obsesioak bakarrik zituen. Cefaluren iritziz, Luterok ez zituen betetzen nahaste nahaste obsesibo-konpulsiboaren

bereizgarriak (Cefalu, 2010). Horregatik esaten zuen eskrupulositatea zuela; Luteroren obsesioak gai erlijiosoetan zentratzen ziren nagusiki eta hori normala zen, erlijioak indar handia zuen gizarte batean bizi baitzen. Ikerketa transkulturelek erakutsi dutenez, pertsonaren ingurunearen arabekoak izaten dira obsesioen edukiak: kultura sekularretan kutsadura obsesioak agertzen dira eta kultura erlijiosoetan gai erlijiosoekin loturiko obsesioak. Cefaluren arabera (Cefalu, 2010), Lutero gaixotasun mentala zuela esatea historia kontuan ez hartzea da, eskrupulositate mota hori Erdi Aroan normala baitzen. Alde horretatik, prekauzioz jokatu behar da irudi historikoak diagnostikatzeko. Bretch-en arabera (Bretch, 1985-1993) lehen itxura batean Lutero ezin zuen patxadarik bilatu eta horrek patologikoa dirudi, baina fraideak iraganeko bekatuez kontziente izatera bultzatzen zituzten; Lutero ez zen horrela jokatzen zuen bakarria; pietatezko atmosferaren zati zen. Luteroren portaera eskrupulosoak presio erlijiosoaren emaitza moduan ulertzen zuten Bretch-ek eta Cefaluk. Aitortzari buruzko garaiko dotrinek eta praktikek eraman zezaketen Lutero obsesio horietara.

Edozein modutan, Lutero bezalako asko zeudela esateak ez zuen esan nahi Lutero nahaste mentalik ez zuenik. Erdi Aroan eskrupulositatea normala izan zitekeen, baia jende gehienak ez zuen jasaten Lutero jasan zuen mailako eskrupulositatearik. Beraz, Lutero ere, beste pertsonaia historiko askoren moduan, gaixotasun mentala jasan zezakeen. Eskrupulositatea eta alhadurak nahaste klinikoaren bereizgarriak dira, ez nahaste erlijiosoarenak; gizarte erlijiosoek, obsesioak sortu baino gehiago, obsesioen edukia determinatzen dute. Obsesioak patologiko bihurtzen dituen sintomen maiztasuna eta zorrotasuna da, ez sintomen edukia. Luteroren obsesioak patologikoak bihurtzen zituena haien larritasuna eta maiztasuna da, ez haien edukia. Luteroren eskrupulositateak desagertu egin beharko zukeen konbertsio teologikoa izan zuenean, inguruko presioaren ondorena izan balitz, baina Luteroren obsesioak, eskrupulositatea eta depresioa ez ziren inoiz desagertu, bizi zen artean. Iduri du, beraz, Luteroren obsesioek haren konstituzio psikologikoarekin zutela zerikusia, eta ez kanpoko eraginarekin edo presioarekin (Jasko, 2014; Osborne, 2008).

Luteroren kasua muturrekoa zen, Staupitz bera ere deskontzertatua baitzegoen Luteroekin; Bainton-ek zioenez, Staupitzek ezagutzen zituen gaixotasun espiritualentzako erremedioak (Bainton, 1950). Lutero eskerroneko zen Staupitzi buruz. Esaten zuen hura bidelagun izan ez balu, obsesio eta tentazio horiek gainditu egingo zuketela eta aspaldian infernua egongo zatekeela (Stork, 1857). Staupitzek arindu zezakeen Luteroren barne-herstura neurri

bateraino, baina ez zituen ulertzen Luteroren borrokak eta zergatik jarraitzen zuen kezkatu-rik. Luteroren sufrikarioak teologikoki eta espiritualki ebatzi ezin zituenean, Staupitzek esaten zion haren sufrikarioak beharrezkoak zirela, ulertezinak baziren ere, Jainkoaren asmoak betetzeko. Horrek itzaropena, iraupena eta inspirazioa eman zion Luterori. Staupitz kontziente zen bai Luteroren sufrikarioaz, bai haren distiraz. Horregatik bidali zuen Lutero Teologiako doktoratua egitera, Wittenberg-eko unibertsitatera. Haren dardarak lasaitzeaz gain, haren energiak sormenera zuzendu behar zituen, Teologia Biblikoko katedran jarrai ziezaion (Bainton, 1950).

Luteroren nahaste mentala

Luterok bizitza gatazkatsua izan zuen. Luzea izan da Luterori buruz ikerlariak egindako diagnostikoen zerrenda: barne-herstura orokortua, nahaste bipolarra, depresio nagusia, nahaste obsesibo-konpulsiboa, **espektro emozionaleko nahastea**. Ikerlarien arabera, bizitza osoan jasan zituen Luterok obsesioak, barne-herstura, goraldi eta beheraldiak; baina, adostasunik ez da ikusten hari gaixotasun mentala egozterakoan.

Diagnostikoen sailkapena egiten hasita, akademiko protestanteak eta akademiko katolikoak bereiz genitzake. Akademiko batzuek Luteroren nahasteak gutxiagotu egin dituzte. Beste akademiko batzuek Luterori hainbat nahaste egozten dizkiote.

Mendeetan zehar katolikoek esan dute Luteroren oreka psikologikoa ezegonkorra zela eta ezin zuela gogoeta zuzenik egin. Katolikoek tradizioz datarren **Johannes Cochlaeus-ek 1549an Luterori buruzko ikerketa bat idatzi zuen eta esan zuen hark epilepsia eduki zezakeela, deabrutua zegoela, nahaste psikologiko sakon bat edo gaixotasun mental bat (depresioa, nahaste bipolarra) zuela (Jasco, 2014; Roper, 2010; Cochlaeus, 2002).**

Akademiko protestanteek Luteroren teologia defendatu eta katolikoek kontra erreakzionatu zuten; besteak beste, Erik Erikson-en kontra. Erikson-en *Young Man Luther* liburuaren kontra Lewis Spitz-ek *Psychohistory and History: the case of Young Man Luther* (Spitz, 1973) idatzi zuen. Protestanteek, oro har, ukatu egin izan dute Luterok arazo psikologiko esanguratsurik zuenik. Baina, badira azterketa zehatzak egin dituzten protestanteak ere, hala nola, Ian Osborn.

Jaskoren arabera (2014), akademiko guztiek onartzen dute Luterok barne-herstura, obsesioak eta depresioa izan zituela bizitza osoan, gehiago edo gutxiago. Baina, biografo askoren arabera, Luterok kanpoko gertaera eta presioengatik zituen arazo psikologikoak. Jaskok besterik pentsatzen du; haren iritziz, Luterok jasan zituen barne-herstura, obsesio eta depresioak esan nahi dute hark gaixotasun mentala pairatu zuela eta gaixotasun mental horrek funtzio esanguratsua bete zuela Luteroren ekarpen teologikoetan; Luterok erlijioaren eta teologiaren munduan egindako ekarpenak estuki loturik daude haren gaixotasun mentalarekin (Jasko, 2014).

Nahaste obsesibo-konpultsiboa

Erfurt-eko monasterio agustindarrean emandako denboraldia Luteroren bizitzako okerrenetakoa izan zen. Eskakizun fisiko eta espiritual zorrotzak ziren hangoak. Luterok muturrera eraman zituen praktika aszetikoak eta portaera patologikoak erakusten hasi zen (Jasko, 2014). Luterok marko espiritual baten barnean ulertzen zituen bere nahigabe psikiko eta fisikoak: malenkonia eta gaixotasuna deabruaren lanaren emaitza moduan ulertzen zituen. Horregatik, bere nahigabeak bide espiritualetatik gainditzen saiatu zen (Luther, 2004). Lutero bere garaiko erlijio zigortzailearekiko oso sentibera zen; buruan etengabe zebilkion bekatuaren ideia; errudun sentitzen zen; komentuan alferrik zegoela eta obra on guztiak alferrikakoak zirela iruditzen zitzaion. Egunero aitortu arren, atsedetik ez zuen aurkitzen. eta bere erremedio propioak asmatu zituen alhaduren eta erruduntasun sentimenduari ihes egiteko (Bretch, 1985-1993).

Txikitan herabea, basatia, mesfidatia, atsekabetua eta jarrera defentsiboa zuena izan zen Lutero eta haren gurasoek diziplina zorrotza erabili zuten. Luteroren haurtzaroa zoritzarrekoa izan zen, gurasoak zorrotzegiak zirelako eta Jainko mendeku zalearen kezka gehiegi zuelako. Gurasoen tratu txarrek eragina izan zuten Lutero autoritateari zion beldurrean; Jainkoa eta Kristo epailari zorrotz moduan ikusten zituen. Hezkuntza hertsia ekoizten zizkion Lutero bere nahasteak eta asaldurak. Diziplina hain zorrotzaren eraginez, gurasoengandik aldendu zen Lutero. Umetan barne-hersturatu izan zen; gaztetan, tristea; komentuan, alhaduraz betea; heldutan, zalantzaz eta tristuraz betea. Martinek gurasoen etxea utzi zuenean superni zorrotz bat zuen; obedientzia aurkituko zuen bere identitatearen zentzua. Otordu osteko solasaldietan Lutero esaten zuen haurrak ez zirela zigortu behar gogorki, bere aitak eta amak egin zuten moduan (Erikson, 1958).

Eskolako hezkuntzari zegokionez, Latineko klaseetan zigor fisikoak jasaten zituen, alemanez hitz egiteagatik. "Lupus" moduan izendatutako ikasleak ezkutuan apuntatzen zituen alemanez hitz egiten zutenen izenak, eta astearen amaieran irakasleak zigorkada bat ematen zion ikasleari, arauen kontra egindako hutsegite bakoitzagatik (Erikson, 1958). Lutero hainbat zigorkada jasotzen zituen (Bainton, 1952).

Lutero zioen Monasterioko bizitza aukeratzeko arrazoietakoa bat familia girotik alde egin eta monasterioan babestea izan zela (Bretch, 1985-1993; Oberman, 1992). Lutero etengabe

sofritzen egon zen, baina ez monasterioan bakarrik; bizitza osoa doluan eta tristuran eman zuela esaten zuen (Smith. 1911).

Ikertzaile batzuen ustez, gurasoengandik eta irakasleengandik jasotako tratu txarreatik izan zituen Luterok nahaste psikologikoak; oso sentibera zen eta umore aldaketa (goraldi eta beheraldi) bortitzak jasaten zituen; egoskorraldiak eta matxinada aldiak izaten zituen Luterok (Olsen, 2012; Bainton, 1952). Preserver Smith-en arabera, Luteroren neurosiaren jatorrian honako faktore hauek egongo lirateke: txikitan jasotako sineskeriak eta haurtzaroko heziketaren gogortasuna; alkoholismoaren eragina; Ediporen konplexua.

Beste ikertzaile batzuen ustez (Bretch, 1985-93), Luteroren hezkuntza mota normala izan zuen; hari haurtzaroan emandako tratuan ezer anormalik ez zegoen; normala zen garai haietan diziplina fisiko zorrotza, bai eskolan eta bai etxean, eta haur gehienak ez zituen horrek traumatizatzen. Luterok bere haurtzaroko inguruneari buruz esandako gauza negatibo apurrek ez dute egiaztatzen haurtzaroko tratu txarrek eragindako kalte emozionalaren teoria (Bretch, 1985-93; Oberman, 1992). Bretch-en arabera, Luterok haurtzaro normala izan zuen arren, oso sentibera zen; sentiberatasun hori zela eta besteek baino gehiago sufri zezakeen eskolako hezkuntza praktikarekin (Bretch, 1985-93). Bainton, Bretch eta Oberman-en arabera Luteroren temperamentua ezin egotz dakioke haren ingurunearen eraginari; haren herentziako alderdiren bati egotzi beharko litzaioke. Luteroren barne-herstura nahasteen jatorrian osagai genetikoak zeuden. Luterok modu desproporzionatuan erantzuten zien gertaereij; haur oso sentibera izanik, deabruaz oso kezkatua zegoen; harentzat deabrua errealitate bat zen; haren barne-herstura esperientzietan eginkizun esanguratsua betetzen zuen deabruak (Osborn, 2008). Lutero deabruaz kezkatua zegoen, garai hartan beste askoren moduan, baina haren deabruarekiko kezka normala baino handiagoa zen. Bere osasun arazo guztiak deabruaren ekintza zirela pentsatzen zuen. Obsesioz beterik zegoen: Aita Santuaren obsesioa, deabruaren obsesioa, fede soilez justifikatzearen obsesioa (Jasko, 2014).

Komentuko lehen urtean lasaitasun aldi bat bizi izan zuen Luterok, baina gero berriro ere depresioa, mania, barne-herstura eta obsesioa jasaten hasi zen. Esan zitezkeen fraide ona zela, hertsiki betetzen zituelako bere ordenako arauak; inor zerura joatekotan, bera joango zen, egiten zituen barau, otoitz, irakurketa eta ekintza onak kontuan hartuta. Baina, atsekabea eta alhadura sentitzen zituen, bekatari sentitzen zelako, eta Jainkoak gorrotatu egingo zuela pentsatzen zuelako. Bekatari eta errudun sentitzen zen beti, nahiz eta hainbeste ekintza on

egin eta hainbeste sakrifikatu (Roper, 2010). Komentuan luzaroago jarraitu izan balu, barauengatik, otoitzengatik, irakurketengatik eta beste lanengatik hilko zatekeela esaten zuen (Bainton, 1950). Pietate eredugarria erakusten zuen arren, bere beldurrak arrazoi gabeak eta zorrotzegiak zirela konturatu arren, lasaitasunik ezin zuen aurkitu eta kezka ezin izaten zituen bere burutik uxatu. Melanchthon harrtua zegoen Luterok deabruarekin zituen atsekabe obsesiboengatik (Oberman, 1992); askotan aitortu arren, bekatuan jarraitzen zuela esaten zion deabruak. Baintonen iritziz, deabruaren tormentu askok Luteroren beldur eta zalantzak islatzen zituzten. Staupitz-ek Luterori esaten zion bere hutsegiteak handiesten zituela, baina Lutero ez zen lasaitzen; esaten zuen aitorleak ez zuela ulertzen bere kasua eta haren gomendioak ez zirela baliagarriak. Luterok bere gaixotasun fisikoaren sustraian atsekabe psiko-espirituala ikusten zuen; atsekabe horrek gehiago sufriarazten zion, gaixotasun fisikoak baino (Bainton, 1952).

Ian Osborn-ek Luteroren azterketa psikiatriko sakona (Osborn, 2008) egin ostean, esaten zuen katolikoek Luteroren ezegonkortasuna nabarmendu zutela; protestanteek, aldiz, ukatu egiten zutela Luterok arazo psikologikorik zuenik. Batzuek eta besteek alborapenak ezartzen zizkioten Luteroren azterketari. Osborn-en arabera, Luterok nahaste obsesibo-konpulsioa zuen; pentsamendu, irudi eta bulkada intrusiboak jasaten zituen (Jasco, 2014; Osborn, 2008). Gaztetan izaten zituen tentaldiez, barne-hersturaz, zalantzez, nahastez, izuaz, etsipenaz eta saminduraz askotan hitz egin zuen Luterok (Osborn, 2008). Sadismo moralak, bereizgarri obsesibo-konpulsioak, garbitasunarekiko eta infekzioekiko kezka eta deabru-posesioak Luteroren analitatearekin erlazionatuak zeuden. Deabrua bere armekin borrokatu nahi zuen, sadismo anala erabiliz: deabrua borrokatzeko haren sudurretara puzkerrak jaurtikitzea proposatzen zuen (Erikson, 1958); sarritan hitz egiten zuen idorreriaz, txizari eusteaz, puzkerrez eta kakaz; besteak beste, bizitzan zehar idorreria eta txizaren erretentzioa jasan zituen. Deabrua izutzeko aholkatzen zuen modu traukilaren bidez libidoa asebetetzeko modu perbertsoa agertzen zuen. Analitatea eta sadismoa elkaturik agertzen zituen: haurrak ipurdian joz zigortzea, garbitasuna eta analitatea erlazionatzea.

Aitortzari buruz jarrera obsesibo-konpulsioa zuen Luterok; aitortza bakoitza sei orduz luzatzeko gai zen; aitortza amaitzen zuenean, aitortu ez zituen bekatuei buruzko pentsamenduak etortzen zitzaizkion burura, behin eta berriro. Aitortza amaitzean, ez aitortu izanaren sentipena edukitzen zuen; berriro berehala aitortu beharra sentitzen zuen (Osborn, 2008). Luterok modu konpulsioan errezatzen zuen, bere beldurrak, bekatuak, zalantzak eta

tormentuak desagerrarazteko. Pentsamendu tormentatzaileak ekiditeko esaldi batzuk errepikatu behar izaten zituen, nahaste obsesiboetan sarri gertatzen den moduan (Osborn, 2008).

Obsesio erlijiosoak jasan zituen Luterok. Bainton-en arabera, deabruak Luterori esaten ziona pertsona obsesibo batek bere buruari esaten diona da (Bretch, 1985-93). Deabruak irudi izugarriak sartzen zituen Luteroren buruan: heriotzaz, infernuaz, predestinazioaz etengabe hausnarrean ari zen. Luteroren aitak berak ere pentsatzen zuen Martin komentuan sartzea deabruaren amarru bati zor zitzaiokeela, espirituaren deiari baino areago. Turingiako meatzariak deabruari buruzko sineskeria asko zituzten: meatzetan deabruak jendea iruzurtzen zuen eta ez zegoen tokian meatzeak zeudela pentsarazten zien meatzariei; Martin deabruarekin obsesionatua zegoen: lurralde askotan deabruak bizi zirela esaten zuen; egun batez bere gelan erreztatzen ari zela, deabrua agertu omen zitzaion, Kristoren moduan; Satan sarritan agertzen omen zitzaion, Jainko edo aingeru moduan mozarrotua (itxuraldatua); heriotza baino egun batzuk lehenago, teilatu ertzean deabrua ikusi omen zuen Luterok, berari ipurdia erakusten.

Barne-herstura eta depresioa

Eriksonen arabera Lutero bipolarra edo depresiboa zen. Pablo Moebius-en arabera ere, Lutero psikosi maniako-depresiboa zuen eta horrek eraman zuen *sola fides* dotrinara (Erikson, 1958). Grisar-en arabera, Lutero gaixoa zen, egoera patologiko batzuk bizi izan zituen eta ez zen egokia komentuko bizitzarako; Lutero goraldi maniatikoko faseak eta beheraldi sakoneko faseak bizi izan zituen. Hausrath-en arabera (1904), Lutero psikosi zirkularra zuen. Frederiko Küchenmeisterrek zioenez, Luteroen izaera koleriko eta malenkoniatsuaren artekoa zen, psikologikoki deprimtua, txikitako hezkuntza motaren eta monasterioko aszetikaren ondorioz. Luteroen nortasun malenkoniatsuan nabariak ziren emozio negatiboak: tristura, gorrotoa, amorrua edo haserrea, erorialdi sakona, jardueraren inhibizioa, auto-mespretxua, kanpo munduarekiko interesaren galera eta zigor igurikapena. Malenkoniaren prozesuan objektu galdua barneratu zuen eta objektu hori irainak jasotzen zituen alter ego bihurtu zen. Luteroen amorrua eta gorrotoa haurtzaroan galdutako amarengana zuzendu ziren; amorrua sentitzen zuen bere baitan barneratua zuen amarekiko. Amari erasotzen zion, bere buruari erasoz. Amari errua bota ordez, bere buruari botatzen zion. Aldarte malenkoniatsuan zegoenean, bere burua depresiboki baztertzen zuen Lutero, adierazpen analak erabiliz. Malenkonia amaren galeran oinarritua zegoen. Malenkonia gainditzeko dolu-lana egin behar zen; amaren dolua eta norbere buruaren dolua egin behar zen; objektu galdua berriro kanporatu behar zen. Alde batetik, estimu erlijiosoa zion amari, eta beste aldetik, modu ikonoklastan ama ezabatu nahi zuen.

Paul Reiter psikiatrak Luteroen patografiari buruzko liburuan esaten zuen hark bere bizitzan zehar barne-herstura, nahaste bipolarra eta nahaste psikotikoaren sintomak izan zituela. Reiterrek ukatu egiten zuen Lutero nahaste epileptikoak edo eskizofrenia zuenik; esaten zuen psikosi maniako-depresiboa zuela (Reiter, 1937). Reiterren arabera, Luteroen bokazioaren sustraiak psikosi batean aurkitu behar dira. Reiter saiatu zen, Grisar-en eraginez, Luteroen patologia eta haren sistema teologikoa erlazionatzen. Haren sistema teologikoa eta egoera animikoa bat zetozen. Reiter-ek egindako Luteroen patografiaren arabera, Lutero barne-herstura, nahaste bipolarra eta nahaste psikotikoak izan zituen; **psikosi maniako-depresiboa zuen, fase depresiboaren nagusigoarekin** (Reiter, 1937). Reiterren arabera hainbat urtetako alkohol zaletasunak arteriak gogortu zizkion Luterori eta susmagarritasuna, intolerantzia eta neurastenia eragin zizkion. Ezaugarri paranoikoak agertzen zituen.

Hainbat psikologok Luterori gaixotasun mentala egotzi zioten eta pentsatzen zuten gaixotasun mentalak pertsonaren bizitzan goi mailako helburuak betetzen laguntzen duela. Cefaluren iritziz, ordea, gaixotasun mentala duena goragoko mailako asmoetatik aldendu egiten da (Cefalu, 2010); goi mailako helburuak ezin izaten ditu lortu; Cefaluk pentsatzen du gaixo mentalak beren sufrikarioari goi mailako esanahiak emateko gai ez direla, haien insight-ak oso boteretsuak izan badaitezke ere. Cefaluren arabera (2010), bateraezinak dira gaixotasun mentala eta goi mailako ekoizpen intelektuala; gaixotasunak sormen eta ekoizpen intelektuala eragozten ditu.

Baintonen eta Bretch-en arabera ere, Luteroren emankortasunak haren gaixotasun mentala ukatzen du; baina, gaixo mental batzuk, bizitza arrakastatsurik ez baldin badute ere, oso emankorrak eta produktiboak izan dira. Luterok aldika izugarrizko hiperaktibitatea erakusten zuen: monasterioan eta parroketan sermoiak egin; ordenako bikario, komentuko priore, salmoen irakasle eta arrainen bizitegi-tako arduradun izan; ofizioak errezitatu eta meza eman; egunero hainbat gutun idatzi eta hogeita bi fraide zituen monasterio bat kudeatu. Beste aldi batzuetan, berriz, ezer egin gabe egoten zen Lutero, bere grinaren eta haragiaren ahultasunaren biktima, alferkeriari emana eta lozorroan (Jasko, 2014).

Lutero psikikoki ezegonkorra zen; bazuen psikopatologia bat, gaztaroan eta ia bizitza osoan zehar hedatu zena. Oso sentikorra zen, tarteka deprimitua egoten zen eta hiperaktibitate bidez gainditzen zuen depresioa. Bere bizitzako hirugarren hamarkadan izugarrizko jardura izan zuen Lutero, eta laugarren hamarkadan depresio latza jasan zuen. Lutero bizitza osoan zehar jasan zuen barne-herstura, nahiz eta aldi batzuetan patologia hori ezkutuagoan geratzen zen. Roland Bainton-en arabera, Lutero depresioa jasan zuen haurtzarotik hogeitaz bitartean, erlijioak eragindako existentzia atsekabetuaren ondorioz. Bainton-entzat, Lutero gehiegizko sentikortasun emozionala zuen eta sentikortasun horri esker, jende arruntak ikusten ez zituen modura ikusten zituen objektu erlijiosoak edo arazoak; Luteroren agerpenei esker, hura bezain sentibera ez ziren pertsonak ere arazoa ikuspegi berritik ikusten zuten. Lutero goraldi eta beheraldi errepikatuak izan zituen bizitza osoan zehar eta, Bainton-en arabera, depresioaldiak, barne-herstura eta obsesioak jasan zituen. Baintonek esaten zuen Lutero bere gaixotasunen sintomen kontra borroka egin zuela bere bizitza osoan, baina zalantzan jartzen zuen Luteroren gaixotasun mentala, haren produktibitate maila ikusita (Bainton, 1950); edonola ere, laster baztertu zituen zalantza horiek, nahiko datu ikusten baitzituen Lutero gaixotasun mentala

jasan zuela esateko. Egun arrunt batean orduak ematen baitzituen Luterok deabruarekin borrokan, bere bekatuez hausnarrean, etsipenean murgilduta; tarteka lana egitea eragozten zion depresioak. 1527ko depresio pasarte batean arazo fisiologiko larriak izan zituen eta heriotzatik hurbil egon zen (Jasko, 2014).

Luterok gaixotasun mentala zuela esateak ez du esan nahi haren erlijio-bizipenekin zerikusirik ez zutenik. Gaixotasun mentalak ez ditu baztertzen esperientzia erlijiosoak; aitzitik, kasu batzuetan esperientzia erlijiosoek horrenbesteko indarra zergatik hartzen duten azaltzen du. Gaixotasun mentalari esker ikusten zuen Luterok beste jendeak ikusten ez zuena. Bainton-en arabera gaixotasun mentalak aukera ematen dio jendeari besteek ikusi ezin dituzten gauzak ikusteko eta haien ekarpenetatik onura ateratzen du gizarteak. Mania eta depresioaldiak izatera eraman zuen Lutero bere sentikortasun emozionalak (Bainton, 1950).

Martinek tristura sakoneko eta barne-herstura handikoaldiak jasan zituen, depresioa edo bipolarra zelako (Erikson, 1958); tristuraaldi horietako batean erabaki zuen bizitza normaletik erretiratu eta fraide bihurtzea; horrek bake eta lasaitasunune batzuk bizitzeko aukera eman zion, baina lasaitasunune horiek berehala desagertu ziren, barne-herstura pasarte berriak bizitzeko. Luterok nerbio gaixotasunak izaten zituen Erfurt-en ikasle zela. 1505etik 1519 ingurura arte ahultasun nerbiosoaren fasea bizi izan zuen Luterok; gero ekoizpen maniatikoaren faseari ekin zion. 1523an soinuak entzuten zituen belarrietan; zorabioak, depresioa eta narridakortasuna izan zituen. Krisi handiena aitak nahi zuena izatea lortzean jasan zuen; ziurtasun ekonomikoa lortu zuenean, erlijio protestantearen antolamenduan eragin handia izatera heldu zenean eta guraso izatera heldu zenean; horrela, sintoma larriak agertu zituen 1527an: bihotzeko arazoak, haluzinazioak, nahaste dispeptikoak, barne-herstura, depresioa, idorreria, hemorroideak, giltzurrunetako harriak, belarritako burrunbak (Erikson, 1958). 1527a sufrikario urtea izan zen; urte horretako uztailetik 1528ko udaberrira bitartean depresio krisialdi bat izan zuen. 1527ko uztailaren 6an gaizki sentitu zen, mahaitik altxatu eta logelara zihoala erori egin zen; hotza sentitu zuen eta belarrietan burrunbak entzun zituen; **barne-herstura arazoak eta bihotzeko arazoak izan zituen**; depresio larri bat, depresio nagusia, jasan zuen Luterok; astebete baino gehiagoz oso gaizki egon zen, gorputz atal guztiak dardarka zituela; beharbada Luteroen bizitzako nahasterik larriena izan zen hura (Bainton, 1950; Oberman, 1992); hil behar zuela uste izanik, Bugenhagen artzainari dei egin zion eta bere

atsekabe espiritualaren berri eman zion; inoiz izan zuena baino atsekabe handiagoa. Bugenhagen-ekin aitortza egin zuen eta **ohean sartu zen; han konorte gabe geratu zen, zurbil eta jelaturik. Justo Jonasek urez igurtzi zuen eta berpiztu egin zuen.** Ohean egun batzuk eman zituen eta ondorengo hilabeteetan ahul eta deprimituta egon zen (Bretch, 1985-93; Bainton, 1950; Oberman, 1992). Kezka psikologikoez larriagotu egiten zuten haren osasun fisikoa. Deabruaren tentazio espiritualak (Anfechtung) denbora luzez jasan zituen; Kristorengan zuen konfiantza galdu zuen eta infernuaren ateetan sentitu zen. **Luteroren arabera, giza espiritua deabruaren mende zegoen eta ezin zuen atsedetik hartu; deabrua beti ari zen gizakiak nahasten eta haiei buruhausteak sortzen; lotan zeudenean ere ez zien deabruak bakean uzten. Luterok zalantzak zituen zenbat jende kondenatuko ote zen, bere ideietan oker baldin bazegoen.** Denbora luze samarrean egon zen Lutero, idatzi ezinik eta lana egin ezinik, Satanen erasoak zirela eta (Oberman, 1992; García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

Lutero krisialdi handi horretatik bere onera etorri baino lehen izurritea etorri zen Wittenberg-era. Izurritearen ondorioz, ikasle eta irakasleak hiritik joan ziren. Hautesleak agindutakoari jarraituz, Jonas eta Melanchthon-ek alde egin zuten beren familiekin, baina Lutero eta Bugenhagen bertan gelditu ziren. Izurritearen garai horretan Bugenhagen Luteroren etxean bizi izan zen eta Luterok edozein ordutan dei egiten zion laguntza espiritualaren eskean.

Tristura krisialdiak 1528ko udaberrira arte iraun zion, garai horretan idatzitako gutunetan ikus daitekeen moduan. Tentaldi indartsu horiek nerabe zenetik jasaten zituen, baina ez zuen uste hainbeste larrituko zirenik. Lutero akitua zegoen hainbeste urtez eramandako borroka zela eta. Borroka anitz izan zituen Aita Santuarekin, haren zaleekin, nekazariekin, printzeekin eta erregeekin. Bere kemena eta haserrekortasuna zela eta, ez zuen atzera egin presioari eta tradizioari aurre egiterakoan. Azkenean, Lutero bere krisialditik irten zen eta Eliza protestante berria eraikitzeari ekin zion. Ondorengo urteetan katixima berriak idatzi zituen, haurrak hezteko alegia batzuk idatzi zituen eta hainbat atsotitz bildu zituen. Hauteslearekin batera eliza erakundetzeari eta sakramentarioen kontra borrokatzeari ekin zion (García-Villoslada, 1973; Roper, 2010).

1530etik aurrera beste arazo batzuk izan zituen: anginak, otitisa, artrismoa, reumatismoa, errinitisa, arteria koronarioaren gogortzea. Luterok **ezin izaten zuen denbora luzez errezatu, baina denbora luzea ematen zuen biraoka eta garrasika, amorrua haren bizitzako pizgarri bat**

baitzen. Zikinkeria eta lizunkeriarekin obsesionatua zegoen. Esaten zuen arrazoia gorrotatzen zuela: grina eta aldarte bortitzek gidatzen zutela.

Katalinak nortasun indartsua zuen eta emakume bizkorra zen. Egun batez Lutero bere langelan geratu zen hiru egunez, atea itxita; Katalinak atea behartu beharra izan zuen Lutero ateratzeko. Beste batean, Lutero aste pare batez deprimitua egon zen eta Katalina gosariarekin joan zitzaion, doluz jantzita; Martinek galdetu zion nor hil zen eta Katalinak esan zion Jainkoa hil zela. Luterok errieta egin zion, baina Katalinak esan zion, haren portaera ikusita deduzitu zuela Jainkoa zendu zela (Boyer, 1983).

Baina, Luterok izan zituen nahasteek adierazten zuten ez zela heldu erlijioaren bidez bere herstura eta obsesioak baretzera. Lutero ez zen inoiz askatu bere malenkoniatik eta bere nahaste obsesibo-konpultsibotik. Denboraldi batez, sinesmenaren bidez justifikatzearen teoria aurkitu zuenean, Luteroren barne-herstura desagertuko zela zirudien arren, erlijio kezkek berriro agertu ziren harengan. Adinean aurrera zihoan heinean, Lutero ez zen gehiegi fidatzen Kristok beregan egiten zuen lanean, eta bere txikitako beldurrak berriro agertu ziren.

Capps-en arabera (Capps, 1997), gizonaren malenkoniak sustraiak honetan ditu: amaren galeraren esperientzian edo haurraren jatorrizko selfaren galeraren esperientzian. Haurrak sarritan ama bilatu nahi izaten du erlijioaren bidez. Amaren maitasun baldintza gabea galdutako haurrak mutil txintxo bihurtu nahi zuen, amak onar zezan. Erlijioaren laguntzaz txikitari amarengan zuen konfiantza berreskuratu nahi zuen, Jainkoan uste ona izatera helduta. Horrela josten da erlijiotasunaren eta gizonen malenkoniaren arteko lotura. Malenkonia hori batez ere mutiletan agertzen da, mutilak amarengandik bereizi egin behar duelako generoan, aitarekin identifikatu ahal izateko.

Luteroren pentsamendu obsesibo-konpultsiboak haren malenkoniarekin erlazionatuak zeuden (Cole, 2000). Luteroren malenkonia larria amaren galerarekin lotua zegoen eta nahaste obsesibo-konpultsiboak larriagotu egiten zuen. Luteroren malenkonia eta nahaste obsesibo-konpultsiboa ulertzeko haren identitate pertsonalaren testuingurua kontuan hartu behar da (Cole, 2000). Luterok identitate arazoak izan zituen bere bizitzan zehar eta identitatearekin zerikusia zuten gertaera esanguratsuak bizi izan zituen:

Tximistaren esperientzia: ekaitz gogor baten harrapatuta, izu-ikara eraso bat jasan zuen eta Santa Anari agindu zion, ekaitz horretatik bizirik ateratzen bazen, fraide sartuko zela. Ondorioz, zuzenbide ikasketak bertan behera utzi zituen eta komentuan sartu zen.

Koruko erasoak: Erfurteko monasterioan zorura erori zenean, deabrutua dagoen pertsona baten moduan eldarnioak izan zituen eta honela oihu egin zuen: “Hori ez naiz ni!”. Gertaera hori uler zitekeen pasarte psikotiko baten moduan edo Jainkoaren iragarpen baten moduan, baina, Erikson-ek identitate krisi baten moduan interpretatu zuen. Luterok aitarekiko harremanetan izan zituen zailtasunak haren teologian islatu ziren; Jainkoa bihurtu zen Luteroren aita. Familia ingurunean aita zigortzailearekiko beldurra eta mirespena sentitu zituen eta Jainkoarengana aldatu zuen aita zorrotzaren irudia. Depresio larriak zituen eta ez zuen bere burua baloratzen. Baina, laster aurkitu zuen Luterok sinesmenak justifikatzen zuela eta hortik aurrera pentsatzen zuen bera eta bere aldekoak bakarrik zeudela Kristorekin eta bere arerioak antikristoak zirela.

Hogeita hamar urte inguru zituenean, Berri Ona irakurtzen ari zela, honako pasarte honen aurrean gertatu zitzaion: Ebanjelioan sinesmenaren bidez justifikatzen du gizakia Jainkoak; gizaki zuzena sinesmenetik bizi da (Erromatarrak 1: 17). Luterok sinesmenaren bidez onartua eta justifikatua ikusten du bere burua.

Luterok monasterioan presio handia bizi izan zuen eta lurrean infernua egongo balitz bezala sofritu zuen; baina, ez zuen teologia zaharraren giroaren beharrik atsekabea sentitzen jarraitzeko; bere bizitzako azken urteetan are eta atsekabe handiagoa sentitu zuen. Luteroren mania eta depresio sintomak azaltzeko ez dira nahikoa haren bizitza esperientziak. Antzeko bizitza esperientziek ez zuten gaixotasunik sortu haren garaikoengan (Bainton, 1952).

Luterok gaixotasun fisikoak bazituen, baina Baintonek ez du uste haren depresioaren zergatia gaixotasun fisikoa zenik. Nahaste espirituala nabarmena zen Luterorengan nahaste fisikoak hasi baino lehen ere. Ahultasun fisikoa depresioaren ondorena zen, kausa baino areago (Bainton, 1952; Strelau eta Zawadzki, 2011). Bainton-ek depresioaren kausak barnekoak ala kanpokoak ziren garbi ez bazeukan ere, azkenean arimaren gau ilunaren hipotesia eta Jainkoaren abandonorekin esperientzia jarri zituen depresioaren jatorrian. Luteroren asalduren sustraia ez da aurkitu behar haren hezkuntzan, erlijioan edo gaixotasun fisikoetan, baizik gaixotasun mentalean. Luteroren biografoek alde batetik azaltzen zuten Luteroren gatazkak haren bizitzako garai batzuetara mugatzen zirela, baina biografo berek beste une batean esaten zuten sintomak bizitza osoan zehar hedatzen zirela. Luterok haurtzarotik heriotzara arte izan zen hersturatu, obsesiboa eta depresiboa (Jasko, 2014). Luteroren nortasunaren egitura integratuak zeuden haren deabruzko tentazioak; estilo zaharreko sinesmena izan balitz Luteroren atsekabea eragiten zuena, aldaketa teologikoa egin zuenean desagertu egingo

ziratekeen haren atsekabeak. Luterok jasandako barne-herstura eta obsesioek haren nortasun egituraren zuten oinarria; etengabe jasaten zituen oinaze espiritualak (Oberman, 1992).

Jaskoren (2014) iritziz, Obermanek ez zuen seriotan hartzen Luteroren gaixotasun psikologikoa. Oberman-en iritziz Luterok nahaste emozionala eduki zezakeen, baina gehiegi lanpetua ere bazegoen eta garaiko presio asko eraman behar izan zituen (Oberman, 1992). Oberman-ek ez zituen kontuan hartzen Luterok bizi izandako depresioak; haien aurrean ez ikusiarena egiten zuen. Pentsatu ere ez zuen pentsatzen Luteroren diagnostiko psikiatriko modernorik (Erikson-en azterketa baino aurreratuagorik) egin zitekeenik. Oberman-ek zuhurtziaz hitz egiten zuen: ez zegoen metodo zientifikorik Luteroren nortasunean murgiltzeko; gertaera autobiografiko batzuk bakarrik genituen, haren izaeraren berri ematen zigutenak (Oberman, 1992).

Bretch-ek ere pentsatzen zuen, Oberman eta Bainton-ek bezala, Luteroren atsekabe psikologikoa ez zela inoiz indargabetu, ez eta monasterioko urteak pasatuta gero ere; Luteroren arazo psikologikoak ezin egotz zekizkiokeela haren ingurunearen eraginari; haren herentziako alderdiren bati egotzi beharko litzaizkiokeela. Wartburgon zegoenean ere atsekabetua egon zen. Luteroren dardaren izaera ez zen aldatu haren gaztarotik helduarora. 1533ko otsailean buruko min izugarriak izan zituen Luterok (Luther, 2004); buruko min horiek eta urdaileko minak eraso espiritualengatik gertatzen zirela uste zuen Luterok, eta ez lanean gogor jarduteagatik. Bretch-entzat, Luteroren gatazkak berdintsuak ziren gaztea zenean eta zahartu zenean. Sofritzeari ez zion utzi, atsekabeari aurre egiteko estrategiak garatu bazituen ere, bere teologia berriztatuz. Luterok bere eskrupulositateari aurre egiteko estrategia batzuk bereganatu zituen eta bere teologia marko berrian kokatu zuen. Bretch-en iritziz, Luteroren atsekabe psikologikoen eragina izan zuten haren teologia egituratzean (Bretch, 1985-93). Luterok sufrikario handi baten moduan deskribatu zuen *Anfechtung*-a. Esaten zuen atsekabe aldi horietan Jainkoa eta mundua haserre zeudela zirudiela; arimaren zoko bakoitza ozpinez, beldurrez, dardaraz eta tristuraz betea zegoela, beti egoera horretan iraun behar izan balu bezala (Roper, 2010).

Aspaldi hil zen pertsona baten diagnostiko zehatza egitea zaila izanik ere, haren bereizgarri psikologikoak ezagutzera hel gaitezke, datu asko baititugu haren bizitzari, jokaerari eta izaerari buruz. Bernhard Lohse-k zioen moduan, Luteroren bizitzaz eta izaeraz garai hartako beste edonortaz baino gehiago dakigu (Lohse, 1986). Luteroren nahaste mentalak eragin handia izan zuen haren lanean. *Anfechtung*-ak eraman zuen Lutero monasteriora; atsekabe horrek eraman

zuen justifikazioaren dotrinara, Erreforma gauzatzera eta teologia ebanjelikoa eraikitzen; otoitzaren eta meditazioaren ikuspegiari tentaldiaren, nahigabearen eta atsekabearen ikuspegia erantsi zion Biblia interpretatzeko garaian; ikuspegi horretatik bakarrik uler zitekeen Jainkoaren Hitza Jainkoaren grazia moduan. Bretch-en arabera, Luterok ulertu zuen Salterioa zela atsekabeak nahastutakoen liburua; pentsatzen zuen atsekabearen mende daudenek bakarrik uler zitzaketela Eskriturak (Bretch, 1985-93) eta insight sakonak edukitzeko gaixotasun mentala jasan behar zela.

Luteroren atsekabeak larritu egiten ziren gauean. Pasarte gogorrenak gauean, ohean zegoenean, izaten zituen, baina etxeko giroak babesa ematen zion beheraldietan; emazteak babesten zuen gaueko tentaldietan. Deabruak erasotzen zionean eta bere larrialdi psikologikoei edo depresioari aurre egin behar zionean, Katalinarengan eta Eskrituretan babesten zen. Ezkonduen maitasuna iruditzen zitzaion Jainkoaren graziaz handiena. Katalinak Martin lasaitzea lortzen ez zuenean, alkohola eta musika baliatzen zituen hark (Bainton, 1950), gogamen tristetik eta atsekabetik askatzeko. Beste estrategia batzuk ere erabiltzen zituen depresioari aurre egiteko: puzkerrak botatzea, bekatu txikiak egitea eta besteen konpainia bilatzea (Bainton, 1950).

Espektro Emozionaleko Nahastea

Pertsona askok, Luterok bezala, nahaste psikologiko bat baino gehiagoren sintomak agertzen dituztenez, osasun mentalaren arloko jakitunek pentsatu zuten nahaste mentalaren kategoriak jariakorrak direla: nahaste mental bat duten pertsona askok beste nahaste mental baten sintoma nabariak ere badituztela. Horrela, pentsatzen zuten nahaste bipolarra duten askok, aldi berean, barne-hersturaren nahaste komorbidoa dutela edo nahaste obsesibo-kompulsiboa duten paziente askok, aldi berean, barne-herstura nahastea ere badutela (Lamers, van Oppen, Comijs, Smit, Spinhoven, van Balkom, Nolen, Zitman, Beekman, Penninx, 2011). Gertaera horrek eraman zituen ikerlariak nahasteen kategoria zabalago batean pentsatzera eta horrela hasi ziren Espektro Emozionaleko Nahastez hitz egiten (Watson, 2005).

Nahaste bipolarra, depresio nagusia, barne-herstura orokorraren nahastea eta nahaste obsesibo-kompulsiboa Espektro Emozionaleko Nahasteen kategoriaren pean biltzera jotzen da gaur egun (Watson, 2005). Ez da egokia diagnostiko kategoria asko aplikatu dakizkiokeen pertsona bati diagnostiko estu bat ezartzea. Horrelako nahaste mental bati hobeto legokioke espektro emozionaleko nahastearen deitura (Jasko, 2014). Luterori patologia asko egotzi izan zaizkio, batez ere espektro emozionaleko nahasteak: nahaste bipolarra, depresio nagusia, barne-herstura orokortua, nahaste obsesibo-kompulsiboa; Luterok nahaste horien guztien sintomak agertu zituen (Jasko, 2014). Jaskoren (2014) arabera, Lutero aztertu duten akademiko eta psikologoek onartzen dute hark barne-herstura, obsesioa eta depresioa izan zituela bizitza osoan, neurri handiago edo txikiagoan; beraz, esan behar genuke Luterok espektro emozionaleko nahastea zuela.

Ondorioak

Erdi Arotik Aro Modernora bitarteko garai gatazkatsuetan eta tirabiratsuetan bizi izan zen Martin Lutero. Garai horretakoak ziren Rabelais, Miguel Angel, Koperniko, da Vinci, Maquiavelo, Loiola, Erasmo eta Paracelso ere. Aurkikuntza handiak egin ziren garai horretan eta munduaren ikuskera asko aldatu zen. Kopernikori eta Giordano Brunori esker munduaren ikuspegi heliozentrikoa nagusitu zen; Kristobal Kolon-ek Europarrentzat ezezaguna zen mundu berria aurkitu zuen Ameriketara; Loiolako Inaziok Gogo Jardunak asmatu eta Jesusen Konpainia fundatu zuen; Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zion lehenengo aldiz. Garai horretan nabigatzeko iparrorratza erabiltzen eta gerrako munizio moduan bolbora erabiltzen hasi ziren; inprimategia asmatzeak idatzi beraren kopia anitz egiteko eta pentsamendua hedatzeko aukera ekarri zuen; merkatalgoa mundu osora zabaldu zen; estatu nazionalak sortu ziren, burgesen, merkatarien eta hirien askatasunean oinarrituta; literatura klasikoa, latina, grekoa eta Biblia aztertzen hasi ziren humanistak (Erasmo, Johannes Reuchlin...).

Luteroren gatzaroan batasunik gabeko lurralde bat zen Alemania, nahiz eta hango herrialdeetan antzeko dialektoak hitz egin eta antzeko usadioak eduki. Alemaniarrak harro zeuden beren aberastasunarengatik, baina politikoki zatituak zeuden. Luterok Alemania osoari begira egin zuen lan; alemaniarren profeta sentitzen zen eta esaten zuen Alemania garaiezina izango zela, buruzagi bakar batek eta esku bakar batek gidatuz gero, lurralde zabala, jendetsua eta soldadu anitzez hornitua zelako. Hizkuntza germaniarra inguruko hizkuntza europarren gainetik zegoela eta alemaniera hitz egiten zuten jende guztiaren batasuna lortzeko lider bat behar zela pentsatzen zuen. Mundu germanikoaren eta modernoaren gurasoetako bat izan zen Lutero eta germaniarrak elkartzeko lan asko egin zuen. Germaniarren ordezkarietat zeukan bere burua.

Erreformatik hizkuntza alemana, alemanen pentsaera eta biziera aldatu zituen. Alemanek agintariei obeditzeko zuten joeran eragina izan zuen Luterok, agintari espiritualak eta lurtarrak bereizi zituenean. Bibliaren zabalkundeak asko suspertu zuen liburuen salerosketa Alemanian; liburu zaletasuna asko ugaltu zen luterotarren artean. Wartburg-eko gazteluan babestuta egon zenean, grekotik alemanera itzuli zuen Luterok Testamentu Berria, hamaika astetan. Lan hori 1522an argitaratu zuten Melanchthon-ek eta Biblia osoaren itzulpena beste dozena bat urtetan luzatu zen. Biblia osoa 1534an argitaratu zuen Luterok eta itzulpen hari esker, Aleman batu idatziaren sortzaile bihurtu zen.

Alemanak elkarturik egon ez arren, lurralde germaniarretako printzeekin tratuak egin beharrean aurkitzen zen Enperadorea, turkoen kontra borrokatzeko haien laguntza lortu nahi bazuen. Hiriek indar handia zuten Alemanian XVI. mendearen hasieran eta ekonomikoki indartsua zen hiri horietako burgesia; Alemaniako merkatari aberatsei botere politikoa falta zitzaien, baina prest zeuden elizaren aginteari aurre egiteko; paretik kendu nahi zituzten Jainkoaren eta gizakiaren artean kokatzen ziren erlijiosoak; pentsatzen zuten erlijiosoek lan egin behar zutela, hamarrenak jaso orde (Febvre, 1980).

Luteroren garaiko Alemaniako mitologian ugariak ziren sorgin beldurgarrien, iratxoen, espiritu onen eta espiritu gaiztoen ipuinak. Deabruz eta sorginez betetako lurraldeak ziren Mansfeld aldekoak. Naturaz gaindiko indarretan sinesmen handia zuten Luteroren familian eta Martin ez zen inoiz askatu sineste horietatik; iratxo, sorgin eta deabruetan sinesten zuen. Luterok benetan sinesten zuen deabruan; etxeen inguruan hura biraka ikustea ez zela arraroa pentsatzen zuen. Esaten zuen Wittenbergeko komentuan hainbatetan eta hainbat tokitan entzun zuela deabrua. Deabrua txakur edo txerri forman ikusten zuen, ikusmen haluzinazio batzuen eraginez. Haren iritziak, espiritu gaiztoak aurkitzen ziren naturako elementuetan (uretan, basamortuetan, airean, lainoetan, tximistetan eta trumoietan) eta espiritu horiek gizaki eta animalia batzuetaz jabetzen ziren. Luterorentzat deabruaren tentaldirik handiena Jainkoak gorroto gaituela pentsatzea zen; esaten zuen, Jainkoak gizakiak gorroto izan balitu ez zukeela Kristo bidaliko haiek salbatzera (García-Villoslada, 1973).

Gurasoengandik eta meatzariengandik zetorkion Luterori deabruetan, sorginkerietan eta iragazki magikoetan sinesteko joera; deabru inkuboen urdangekin haurrak izan zitzaketela pentsatzen zuen; pentsatzen zuen emakume batzuk gai zirela gaixotasunak, heriotza eta ekaitzak eragiteko edo uzta galarazteko; horrela, bere anaia bat sorginkeriak eragindako gaitz baten ondorioz hil zela pentsatzen zuen. Kristo eta deabrua biak ziren benetakoak Luterorentzat eta etengabe borrokan ari ziren, Elizaz eta munduaz jabetzeko. Jainkoaren kontrako botererik egon izan ez balitz, haren haragi hartzeak, justifikazioak eta tentaldiek zentzurik ez zuketuen edukiko (Smith, 1911; Erikson, 1958; García Villoslada, 1973).

Luterok eldarnio gabeko zorotasuna edo psikosi bat zuen, handitasun haluzinazioekin batera; sufrikarioak Satanengandik zetoze eta munduaren azkena berehala helduko zela pentsatzen zuen. Luterok munduaren amaieraz eta azken egunez zituen kezkek ez ziren zahartzaroko

kontuak soilik, gaztaroan ere arazo berberak izan zituelako. Satanek berarekin lo egiten zuela esaten zuen. Luterok etengabe hitz egiten du deabruaz. Bere hitzaldietan, idatzietan, bizitza sozialean eta intelektualean deabruak esku-hartzen zuela iruditzen zitzaion. Jainkoaren eta deabruaren artean harrapatua sentitzen zen Lutero. Brown-ek zioen (Brown, 1959) deabrua Luteroaren analitatearen gauzatzea zela. Analitatea Satanekin erlazionatzen zuen: Satanen kontra erabil zitezkeen iskilu indartsuak ziren hondakinak; deabrua kanpora jaurtikitzeko balia zitzakeen puzkerrak, hondakinak eta gorozkiak. Sorginetan eta deabruan sinesteari garrantzi handia eman zion Luterok eta haiek suntsitzearen alde agertu zen; ondorioz, Alemanian protestanteek katolikoek baino gehiago eraso zieten sorginei.

Luterok barnetegian eta komentuan bizitza gogorra eraman zuen; garrantzi handia ematen zion giza-borondatearen indarrari; grazia bigarren mailan geratzen zen (Smith, 1911; Erikson, 1958). Luterok, gatzetxo zelarik, ikasi zuen gizakiak Jainkoaren faborea eskura zezakeela merituzko ekintzen bidez. Komentuan sartu zenean, bere penitentzia eta merituen bidez lortu nahi zuen salbamena, baina hainbat barau eta sakrifizio egin arren, bekatuaren mendean sentitzen zen eta etsipenak hartu zuen. Saiatu zen barauak, otoitzak, sakrifizioak eta penitentziak egiten eta kastitatea, obediencia eta txirotasuna praktikatu merituak pilatzen, baina hala ere ez zuen lortzen bere tristura gainditzea; zenbat eta gehiago saiatu sakrifizioz kontzientzia lasaitzen, orduan eta urduriago eta estuago aurkitzen zen; penitentzia asko eginagatik, etengabe aitortzen jardunagatik, ez zuen ziurtasunik lortzen. Luterok ahaleginen bidez lortu nahi zuen salbamena, baina ezinezkoa iruditzen zitzaion gizakiaren lizunkeria erabat baztertea. Luteroentzat, kristauak bekatua egiten zuenean, erruduntasuna onartu, damutu, bekatua aitortu eta penitentzia egin behar zuen, bekatu hori barkatua izan zekion. Jainkoak bere ekintzak ez zituela ontzat hartzen iruditzen zitzaion. Bere temperamentuaren eta jaso zuen hezkuntza-motaren ondorioz, pertsona fidagaitz eta ziurtasunik gabea bihurtu zen Martin. Jainkoa ere, gurasoak bezala, epailari zorrotz eta anker moduan ikusten zuen, eta santuen laguntza behar zen haren zigoretik askatzeko; elizako hierarkiari ere beldurra zion.

San Pabloren gutunak aurkitu aurretik, Pelagianismoaren eraginaren pean bizi izan zen Lutero: giza ekintzetan sinesten zuelako, graziaren indarra mesprextatuz. Luteroentzat ezinezkoa zen gizakiarengan Jainkoaren maitasun desinteresatua aurkitzea. Orduan hasi zen zuzentasunaz bakarrik hitz egiten zuen Jainkoa gorrotatzen. Gorroto zuen bekatariak zigortzen zituen Jainko zuzena; haserre zegoen Jainkoarekin. Deabruari fobia zion eta Jainkoari, beldurra eta gorrotoa, zigortu bakarrik egiten baitzuen. Luterok zioen munduko pertsonarik zoritxarrekoena zela; gau

eta egun negarrez egoten zela; inork ezin zuen konpondu bere etsipena (Strohl, 1962). Etsipena sortzen zion hark esandakoa agintariek seriotan ez zutela hartzen ikusteak. Staupitz-ekin aitortzen zen eta hari eskatzen zion aholkua. Staupitz-ek esaten zion, Kristok bekatari handiak ere salbatzen zituela.

Luterok bere krisialdia Staupitzi esker gainditu zuen lehenik eta gero jarrera horri zegokion teologia asmatu zuen. Staupitzek eragin handia izan zuen Luteroren garapen teologikoan. Staupitz-en aholkuei esker Eskriturak aztertzen eta irakasten hasi zen Lutero eta hor aurkitu zuen bere kontsolazioa; hortik abiatu zen besteak kontsolatzera ere. Eskriturak ziren haren sendabidea. Lutero eliza katoliko zaharraren ustelkeriaren kontra altxatu zen eta eliza ebanjelikoaren erreforma antolatu zuen. Bere bekatuek sortzen zioten alhadurari eta barnehersturari ihes egiteko prestakuntza akademikora eta irakaskuntzara bideratu zuen Staupitzek eta Wittenberg-eko teologia fakultateko irakasle bihurtu zen.

Orduan, auzitan jarri zituen eliza katolikoaren dotrinako oinarrizko kontzeptuak: penitentzia eta ekintza onen bidez lortzen zen justifikazioa. Luterok erlijio katolikoaren oinarrizko kontzeptu horiek zalantzan jarri zituen garai berean, elizak penitentzia praktikatu ordez, induljenzien praktika aldarrikatzen zuen; elizak esaten zuen bere eskuetan zeukala santuen eta ekintza onen bidez lortutako merituen gordailuko giltza. Tetzel Alemanian zehar Elizaren induljenzia saltzen ari zen bitartean, Saxoniako Printze Hautesleak bere printzerrian induljenzia saltzea debekatu zuen, baina hango herritar asko joaten ziren inguruko printzerrietara induljenzia erostera. Horrek sutu egin zuen Lutero, aitortzaren eta penitentziaren kontrakoa iruditzen baitzitzaion praktika hori.

Luterok auzitan jarri zuen Elizak salbamenaren izenean negozioa egiteko zuen autoritatea; auzitan jarri zuen barkamena induljenzia bidez lor zitekeela. Horrela, Wittenbergeko elizako atean iltzatu zituen 95 tesiak eta Alberto artzapezpikuari bidali zizkion tesi horiek, induljenzien salmenta debekatzeko eskatuz. Eskaera horri jaramonik egiten ez zitzaiola ikusita, bere tesiak banatzen hasi zen Lutero.

Luteroren iritziz, gizakia salbatuko bazen, Jainkoa maitatu behar zuen indar guztiaz, baina gizakiak ezin zuen agindu hori bete. Gizakiak borondate askerik ez zuen. Gizaki zuzenen ekintzak bekatu ziren, eta are gehiago ziren bekatu justifikatu gabe zeuden gizakienak. Gizakiak bere buruaz etsi egin behar zuen, Kristoren grazia hartzera prestatzeko. Kristoren ekintza zen eragilea eta gizakiak haren eragina jaso besterik ez zuen egiten. Luterok ukatu egin zuen

gizakiak gaitasunik zuenik Jainkoaren ekintza zuzenen bidez grazia lortzeko. Gizakiak justizia bere merituengatik lor zezakeela pentsatzea, Kristo alferrik hil zela pentsatzea zen. Luteroren ikuspegiaren arabera, gizakien ekintzak, ederrak ziruditeanean ere, itsusiak ziren; ekintza onak egiten zituenean ere, berekoikeria zen nagusi gizakiarengan, bere interesetan bakarrik pentsatzen baitzuen.

Gogoeta horietatik etorri zen Lutero ondorio honetara: pertsona zuzena ez zen ekintza on asko egiten zituena, baizik, ekintzarik gabe, Kristorengan asko sinesten zuena. Salmoen Komentarioan Lutero esaten zuenez, Jainkoak eman bakarrik egiten zuen, beretzat ezer eskatu gabe (Strohl, 1962). Luteroentzat, pertsona bat ez zen zuzena obra zuzenak egiten zituelako; fedea ekintzen aurretik zegoen; ekintzak zuzenak izango ziren gizakia zuzena bazen. Kristau zelako egiten zituen gizakiak ekintza onak, baina ez ziren ekintza on horiek gizakia kristau bihurtzen zutenak. Kristo ez zen jarraitu beharreko eredu bat, Jainkoak emandako opari bat baizik. Kristok elikatzen zuen gizakiaren fedea eta hark egiten zuen kristau.

Eliza katolikoarentzat, beregandik at salbamenik ez zegoen; Elizaren kide izatea eta salbamena estuki loturik zeuden; salbamenaren giltza bere eskuetan hartu zuen Elizak eta eskumiku-mehatxuaren bidez eusten zien katolikoei bide zuzenean; elizako agintariek ezarritako mugetatik irteten zirenak eskomikatu egiten zituen. Lutero eliza katolikoaren jarrera horren kontra altxatu zen; harentzat eliza ez zen Jainkoaren eta sinestunaren arteko ezinbesteko bitartekaria; sinestuna salba zitekeen eliza-erakundetik at ere. Aita Santuaren eta kontzilioen autoritateari eraso zien Lutero eta Eliza Erromatarraren oinarriak astindu zituen. Salbamena ez zuen ematen erakunde baten kide izateak; Jainkoak doan ematen duen opari espiritualaren zen salbamena; sinesmenean oinarritzen zen, ez gizakiaren ekintza onetan eta merituetan. Luteroren arabera, autoritate bakarra Bibliarena zen; Jesukristorengan zuen sinesmenak salbatzen zuen gizakia, eta ez bere meritu eta otoitzek (Smith, 1911). Lutero zioen, legea betez justifikatu nahi zutenak justiziatik aldendu egiten zirela; ekintza onetan ez zela sinetsi behar eta ekintza onak egiten ez zela sufritu behar. Luteroentzat Ebanjelioa ez zen legea, bekatuen barkamenaren promesa baizik (García-Villoslada, 1973).

Aristotelesaren Etikaren arabera, ekintzetatik eratortzen zen justizia. Horrela pentsatzen zuen Lutero ere bere bizitza monastikoa hasi zuenean. Horrela pentsatzen zuen Denifle-k ere, Luteroren erlaxazioa kritikatzeko zuenean. Denifle-ren iritziz, Lutero denboraldi batez bakarrik

hartu zuen seriotan bizitza monastikoa; garai horretan, gainera, gehiegizko sakrifizio batzuk ere egin zituen; baina, laster erlaxatu zen eta bere bizimoduari zegokion dotrina berri bat asmatu zuen (Strohl, 1962). Luteroren iritzi aldaketaren oinarriak hark salmoei egindako komentarioetan eta San Pablok erromatarrei egindako gutunaren komentarioetan aurkitu behar dira (Strohl, 1962). San Pablok Erromatarrei egindako gutuna aztertzean, Luteroren barnealdea argitzen hasi zen. Luterok Ebanjelioa eta legea bereizi zituen Erromatarrei egindako gutun horretan: Jainko errukitsuak sinesmenaren bidez justifikatzen gaitu, "*Pertsona zuzena sinesmenetik bizi da*". Ordura arte Jainkoaren eskakizunak bakarrik ezagutu zituen. Orduan konturatu zen Jainkoa gizakiei maitasuna agertzera etorri zela, ez eskakizunak ezartzera. Justifikazioa ez zen ekintzen eta legeen bidez lortzen; fedea bakarrik justifika zezakeen gizakia. Luterorentzat Jainkoaren justizia ekintzen aurretikoa zen eta ekintza ona Jainkoaren dohaina zen. San Pablorentzat pertsonak apalak izan behar zuten eta ez zuten inoiz beren buruaz asebeterik eta harro sentitu behar; gogor erasotzen zien San Pablok beren ekintzetan sinesten zuten pertsona harroei. 1512-13ko neguan Wittenberg-eko Komentu Beltzean izandako "Dorreko esperientzian" ikusi zuen Luterok sinesmenari esker justifikatzen gaituela Jainkoak eta ez gure ekintzen merituengatik. Graziaren izaera bat-batean ulertu zuen Luterok. Ebanjelioko Jainkoa bere indarra ematen duena da, ez eskatzen duena (Strohl, 1962; Roper, 2010).

Luterok bere krisi espirituala gainditu nahi zuen teologia berriaren bidez; praktika aszetikoak mespretxatzen hasi zen Erromako bidaiaren ondoren, Erfurt-eko komentutik Wittenbergera aldatu zutenean; Wittenberg-en Lutero Staupitz-en aldera pasatu zen eta Obserbantiako fraideengandik urruntzen hasi zen, haiek pentsatzen baitzuten zuzenak zirela arauak betetzen zituztelako; hor sortu zen fedearen bidez justifikatzearen teoria. Erruki gabeko Jainkoak sorturiko herstura eta izua gainditzeko bide moduan ulertu behar zen Luteroren *sinesmen bidezko justifikazioa*; bekatuetatik aske sentitzeko, Jainkoarengan sinetsi behar zuen; sinesmenak eta Eskriturak bakarrik justifika zezaketen. Eskriturak ziren sinesmenaren iturri bakarra; bizitza ematen zuena Jainkoaren Hitza zen. Luterorentzat, Liburu Sakratuetan zegoen Jainkoaren Hitza. Eskriturei behar zitzaion obeditu, eta ez Aita Santuari edo kontzilioari (Grisar, 1931). Luterok ez zuen bere barnean salba zezakeen ezer aurkitzen; Sinesmenari esker gainditzeko zuen bere barne-herstura (García-Villoslada, 1973).

Staupitzek ikusi zuen gaixotasun mentaletik zetorkiola Luterori beste laguntzeko ahalmena, bere insight bereizien bidez; ikuspegi teologiko berriak eta insight berriek lagundu zioten Luterori bere obsesioek sortutako barne-hersturatik askatzen; baina, hala ere, bere aurkikuntzak ez zuen askatu Lutero monasterioko eskrupuluetatik; Lutero bizitza osoan jarraitu zuen bere obsesio, depresio eta barne-hersturarekin; ezin zien erabat ihes egin bere sufrikarioei; lurtean infernua bizi izan balu bezala hitz egiten zuen. Hor zeuzkan Eskriturak eta fedearen nahaste psikologikoak gainditzeko, baina Luteroen nahasterik larriena monasteriotik irtenda gero gertatu zen, Erreforma hasi eta gero; Luteroen sintoma nagusiek hor jarraitu zuten haren bizitza osoan (Jasko, 2014).

Staupitz-en aurrean Lutero sentitzen zuen barne-herstura aitaren irudi anibalentearen transferentziak sortzen zuen barne-herstura zen. Alde batetik miretsi egiten zuen eta begirunea zion; beste aldetik hotz eta berotasun gabeko pertsona moduan deskribatzen zuen (Roper, 2010; Erikson, 1958). 1521eko otsailaren 9an egindako gutun batean Staupitz kritikatu zuen Lutero bere etsaiei gogor ez egiteagatik eta Aita Santuaren eta Kristoren artean bitartekari lana egiteagatik; Luteroen iritziz, ezinezkoa zen haien arteko bitartekaritza, biak erabat etsai baitziren. Lutero Staupitzi esaten zion tristuraz bete zuela haren mendekotasunak. 1522 urtean agustindarren ordena utzi zuen Staupitzek eta Salzburgoko monasterio beneditar bateko abata aukeratu zuten. Lutero abandonatua eta saldua sentitu zen. Staupitz 1524an hil zen eta inork bete ezin zezakeen hutsunea utzi zuen Luteroengan.

1522an indarra hartzen zihoan erreformaren uhina eta Wartburg-eko gordelekutik Wittenbergera itzultzeko eskatu zioten Luterori, han bakea jartzera. Han egindako sermoietan askatasuna aldarrikatu zuen eta bortxa kondenatu. Lutero zioen Jainkoa tiranoen eta matxinoen etsaia zela. Erreforma zaleek sortutako istiluen aurrean, moderazioa eskatu zuen eta erreforma mugimenduaren ahots kontserbadorea bihurtu zen. Ikonoklastekin izan zituen eztabaidetan, Lutero ez zien garrantzirik ematen idoloiei; esaten zuen idoloek benetako existentziarik ez zutela (I kor., 8:4) eta ez zuela pena merezi haiek erabiltzen zituztenak zigortzeak. Lutero askatasun espirituala eta ebanjelikoa eskatzen zuen; ez zuten kezkatzen egoera sozial eta ekonomikoak; haren iritziz, Ebanjelioa ez zen lurreko gauzez arduratzen. Lutero zioen Jainkoarengandik zetorrela autoritate sekularra eta autoritate haren esanetara egon behar zela, zuzengabea izan arren.

Leon Aita Santuak Lutero eliza katolikoaren bidera ekartzeko ahalegin bat egin zuen, Saxoniako Frederikoren bidez; Frederikok Luteroi erakutsi zizkion Erromatik bidalitako gutunak. Lutero Espalatinori esan zion, Wittenberg-etik botatzen bazuten, Alemaniaren erdi aldean bazirela defendatuko zutenak, Bohemiara joan gabe ere; bost axola zitzaiola Erroma alde edo kontra edukitzea; Erromakoek bere liburuak gaitzetsi eta erretzen bazituzten berak Aita Santuaren legeria guztia gaitzetsi eta erreko zuela. Germanoak arrazoiaren eta Eskrituren bidez konbentzitu behar zirela; osterantzean, haserretu, ankertu eta basati bihurtzen zirela (García-Villoslada, 1973).

Leon X.a Aita Santuak Luteroi eskatu zion Erromara joateko, baina Lutero urtebetez Kaietano kardinalarekin negoziatzen jardun zen, adostasuna lortu nahian; azkenean, Aita Santuak *Exsurge Domine* bulda atera zuen 1520an, eta Luteroi eskatu zion haren idatzietako hutsegiteak bi hilabete barru erretira zitzala. Lutero tarrek bulda hori toki askotan erre egin zuten; Lutero berak ere kode kanonikoarekin batera erre zuen bulda. 1521ean *Decretum Romanum Pontificem* bulda atera zuen Leon X.ak eta Lutero elizatik jaurtiki zuen. Worms-eko Dietara deitu zuten Lutero, baina han ere ez zen bere idatziez erretraktatu; ondorioz, heretikotzat jo zuten Lutero, hari babes ematea debekatu zuten eta hura atxilotzen zuenari saria ematea erabaki zuten. Frederiko III.a printzeak Wartburg-eko gazteluan babestu zuen Lutero. Gaztelu horretan Testamentu Berria alemanera itzuli zuen eta hainbat idazlan argitaratu zituen.

Maximiliano kaiserrak Inperioko gobernua eratu zuen: Enperadorea, Enperadorearen gorteko bi diputatu, hamazazpi printzeak eta hirien ordezkariak. Ipar ekialdean Ordena Teutonikoa zegoen, Errege Poloniarrekin eta Enperadore Germanoarekin harremanak zituena. Suleiman II.ak Belgrado bereganatu zuen eta Hungaria eta Austria mehatxatu zituen 1521ean. Frantziako estatua ere indartu eta bere kokalekua bilatu nahian zebilen eta Karlos V.a Enperadoreak gatazkak izan zituen Frantziarekin Erreformaren lehen urteetan. Enperadoreak etengabeko borrokak izan zituen Alemaniako printzeekin ere. Lutero pozik zegoen Karlos Enperadoreak printzeen babesaren beharra zuelako; mendekotasun horri esker, printzeek Enperadorearen boterea mugatzen zuten. Luteroen aldeko printzeek Enperadoreari babes emango zioten, Worms-eko ediktua eraginkortasunik gabe uztearen truke (García-Villoslada, 1973). Espirako Lehen Dieta 1526an ospatu zen eta Worms-eko Dietako erabakiak atzeratzea lortu zuen. Dietaren ondorioz, herrialde bakoitzak nahi zuen sinesmena izango zuen. Printze bakoitzak

askatasuna izango zuen erreforma erlijiosoari zegokionean nahi zuen moduan jokatzeko, Enperadoreak deitutako kontzilio orokorra ospatu bitartean. Kontzilio hori ez zen ospatu beste hogeit hamar urte pasa bitartean. Protestantismoak aurrera egingo zuen urte horietan eta Luterok bere absolutio moduan interpretatuko zituen Dietako horretako ondorioak.

Lutero Bibliatik elikatu zen nagusiki eta haren aitzindari espiritualak Jeronimo, Agustin, Akinoko Tomas, John Hus, Wicliffe, Eckhard, Juan Tauler, Tomas Moro eta Erasmo izan ziren. Gogoko zituen Moro-ren *Utopia* eta Erasmo-ren *Testamentu Berria* (Smith, 1911), baina Erasmok ez bezala, Luterok aldarrikatzen zuen gizakiak borondate askerik ez zuela; jatorrizko bekatua egin zuenetik, ongia egiteko askatasunik ez zuela gizakiak, bataioak ez baitzuen jatorrizko bekatua ezabatzen; esaten zuen gizakia Jesukristorengan zuen sinesmenak bakarrik justifikatzen eta salbatzen zuela. Fedearen iturburu bakartzat Eskritura hartuta, sinestunen esku uzten zuen Hitza interpretatzeko eskubidea (García-Villoslada, 1973).

Luteroren pentsamenduaren eta Erreformaren hedapena inprimategiaren zabalkundeari zor zaio neurri handi batean. Luteroren idatziek hedapen handia izan zuten Alemanian zehar. Ordura arte latina erabiltzen zen idatzietan, baina Luterok alemana erabili zuen. Alemanez argitaratutako liburuak asko ugartu ziren Erreformaren lehen urteetan (1518tik 1524ra bitartean). Luterok berak lauhun liburu eta liburuxka baino gehiago argitaratu zituen bere bizitzan zehar. Luterok oraindik bere idazlan nagusiak idatzi ez zituenean, 1519an, Froben argitaratzaileak esaten zuen Luteroren lanak Inperio osora (Espainiara, Italiara, Ingalaterrara, Herbehereetara) hedatu zirela.

Luterok latinetik alemanera itzultzen zituen testuak; **hizkuntza** grekoa ez zuen ongi menderatzen. Ezagutza aldetik falta zitzaiona intuizioari eta sentimenduei esker konpentsatzen zuen (García-Villoslada, 1973). Luterorentzat, sinesmena entzumenetik elikatzen zen, ikusmenetik baino areago. Ikusmenaren aurretik entzumena eta ulermenaren aurretik sinesmena jartzen zituen Luterok (Erikson, 1958). Idatziei garrantzi handia ematen zien eta idatzi asko egin zituen, baina ahozkoari ez zion garrantzi gutxiago ematen. Hitzaldi ugari ematen zituen eta mahai inguruan hainbat solasaldi izan zituen.

Lutero altuera ertainekoa zen. Gaztetan pertsona argal eta aszetikoa zen. Santuak imitatu nahi izan zituen: uko egiten zien haragiaren atseginei eta bizitza aszetikoa eraman nahi zuen. Heldu arora sartu zenean, ezkondu eta seme-alabak izan ondoren, gizendu egin zen eta aurpegi beteak zuen; garai horretan Luterok erakusten zuen gorpuzkera ez zetorren bat

Melanchthon-ek egindako Luteroren biografian agertzen zenarekin; biografia horretan esaten zuen Luterok barau asko egin zuela eta egunetan egoten zela jan gabe. Beraz, 1530 alderako Luteroren irudia aldatua zegoen; bolumen handiko Lutero aurkezten zuten irudiek (Roper, 2010). Gizentzeak ez zion kendu begien bizitasuna: begietatik sua zerion, eta espresio basatia zuen. Adinean aurrera egin ahala, ilea urdindu zitzaion, baina ez zuen ilerik galdu (Smith, 1911). Hitz-jario handi eta patxadatsukoa, ahots gozo, bizi eta sarkorrekoa zen; zalantzarik gabe eta oso argi hitz egiten zuen; ahozko adierazpenerako eta entzuleekin konektatzeko talentu berezia zuen (Olsen, 2012), baina kostatu egiten zitzaion emozioak kontrolatzea. Entzuleen aurrean jarrera tentea eta sendoa hartzen zuen, kokots irtenarekin, begi txiki marroiekin, lepo motzarekin, sorbalda zabalekin eta bular indartsuarekin.

Erdibideko jarreraren zale ez zen Lutero. Gizakiak erabat bekatariak ala erabat zuzenak zirela, erabat gaiztoak ala erabat bedeinkatuak zirela aldarrikatzen zuen. Luterok ez zituen bereizten atrizioa eta kontrizioa, bekatu astunak eta bekatu arinak. Luterok jarrera kontraesankorrak zituen. Alde batetik, beldurrez, zalantza, bakardadez eta ezintasunez betea zegoen; ezdeusa eta bakardadean murgildua sentitzen zen eta bere burua gorroto zuen. Beste aldetik eta aldi berean, maitatua izateko behar handia zuen (Fromm, 1941) eta botere-grina indartsua agertzen zuen. Zatiketa nabarmena sentitzen zuen Luterok gurasoek erakutsitako bizitza estilo tradizionalaren eta identitate berriaren izenean hartutako konpromisoen artean. Dikotomia nabarmena bizi izan zuen aita biologikoari zion mendetasunaren eta zeruko aitari zion mendetasunaren artean. Gaztetan aitaren kontra egon zen eta monasterioko agintariak miresten zituen; geroago, Aita Santua gorrotatzen zuen eta printzeak miresten zituen. Alde batetik, autoritatea gorrotatu egiten zuen eta haren kontra altxatzen zen; baina, aldi berean boterea zuena miretsi egiten zuen eta haren mende jartzen zen. Alde batetik, gerraren eta jazarpenaren kontra hitz egin zuen; baina, beste aldetik, jende xehearen kontrako gerra eta zapalkuntza ankerra defendatu zituen. Berak jarritako mugen barruan matxinatzen zena begi onez ikusten zuen; baina berak onartzen zituen agintariak erasotzen zituena gorrotatu eta mespretxatu egiten zuen.

Luterok mahai solasaldietan esaten zuenez, sarritan izaten zituen tentaldi espiritualak eta burutazio horietatik eratorritako buruko eta urdaileko minak. Bretch-ek, Oberman-ek eta Baintonek pentsatzen zuten Luteroren atsekabea inoiz ez zela desagertu haren bizitzan zehar. Sufrikarioa inoiz desagertu ez bazen ere, hari aurre egiteko estrategiak garatu zituen Luterok. Luteroren ekoizpen teologikoan eragin esanguratsua eduki zuen Luteroren atsekabeak.

Anfechtungen-ek zorroztu egin zuten gai teologikoetan sakontzeko Luterok zuen gaitasuna. Bere bizitzan jasan zituen tentaldi eta eraso handiei esker haren begirada sakonagoa zen. Bere sentikortasun emozionalari, gaixotasun mentalari eta bizitzan zehar izan zuen etsipenari esker, beste modu batera ikusten zituen Luterok gauzak (Bainton, 1950).

Bainton, Bretch eta Oberman-en arabera, Luteroren tenperamentua ezin egotz dakioke haren ingurunearen eraginari; haren herentziako alderdiren bati egotzi beharko litzaioke. Luteroren barne-herstura nahasteen jatorrian osagai genetikoak zeuden. Luterok modu desproporzionatuan erantzuten zien gertaerei; haur oso sentibera izanik, deabruaz oso kezkatua zegoen; harentzat deabrua errealitate bat zen; haren barne-herstura esperientzietan eginkizun esanguratsua betetzen zuen deabruak. Bretch-en arabera, Luteroren deskribapenak nahaste mentala adierazten zuen, baina baztertu egiten du nahaste mentala zuenik, haren esperientzia erlijioak baldintzatzen zuelako; Bretch-en iritziz, sufrikario horiek gaixotasun mentalarekin erlazionatuak egon zitezkeen, baina ez ziren gaixotasun mentalaren ondorio; Luteroren teologiak baldintzatzen zituen sufrikario horiek (Bretch, 1985-93).

Luterok egonkortasunik ez zuen bere barnean eta Eskriturretan aurkitu zuen sosegua eta patxada. Eskriturak eta musika erabili zituen bere oinaze espiritualei aurre egiteko. Mahai solasaldietan esaten zuen musikak bizitza ematen ziola testuari. Tristurarentzat sendabiderik onena musika zela, deabrua urruntzen zuelako eta gogamena freskatzen zuelako. Depresioari aurre egiteko, musikaz gain, edatea, jatea, puzkerrak botatzea, besteekin hitz egitea eta bekatu txikiak egitea ere ona zela zioen Luterok. Tristura garaietan neska batengan pentsatzeak laguntzen bazion, hori egiteko esaten zuen. Luterok besteen konpainia bilatzen zuen tentaldiak jasaten zituenean. Esaten zuen gizakiak ez zuela bere burua kontrolatzen bakardadean zegoenean. Bakarrik zegoenean erasotzen ziola deabruak gizakiari (Bretch, 1985-93).

Atsekabeak eraman zuen Lutero komentura eta Eskriturak aztertzeraz; atsekabearen ikuspegitik irakurri zituen Eskriturak; atsekabetik askatzeko hartu zuen bere ikuspegi teologikoa eta atsekabeari esker aurkitu zuen justifikazioaren teoria. Beheraldietan dena ilun ikusten zuen Luterok. Heldulekurik gabe eta galdua sentitzen zen. Malenkoniatik babestu beharra ikusten zuen, hark gorputza ezabatzen zuelako. Luterok esaten zuen esperientzia mingarriak izan zituela monasterioan, baina pentsatzen zuen esperientzia horiek Jainkoarengandik zetozela, eta santutasuna lortzeko ezinbestekoak zirela. 1539. urtean Bere Idatzi Alemanen **Wittenbergeko** Edizioari egindako Sarreran bere lanak ulertzeko hermeneutika bat ezarri zuen Luterok;

Biblia interpretatzeko metodoa azaldu zuen bertan; azaltzen zuen nola eraiki zituen bere idatziak eta bere teologia, nola irakurri behar ziren Eskriturak eta nola ikasi behar zen teologia. Eskrituren interpretazioan tentazioa ere integratu zuen, errezoarekin eta tentaldiarekin batera. Mundutarra zena eta kristaua zena modu ezberdinean arautzen zirela esaten zuen Luterok. Kristauak bizitza bikoitza zeraman: kristauarena edo sinestunarena eta munduko hiritarrarena. Bi bizitzek ez zuten elkarrekin zerikusirik. Bizitza zibila printzeen esku zegoen eta haiei itsu itsuan obeditu behar zieten hiritarrek. Gizakiari ez zitzaion axola nondik zetorren printzeen boterea. Agintariak zuzengabeak eta gaiztoak zirenean ere, inork ez zuen baimenik haien kontra jartzeko edo haien kontra matxinatzeko. Luteroren iritziz, Jainkoak agindu ziezaiokeen printzeari edozein unetan gerra hasteko, ezpata eta boterea Jainkoaren zerbitzuan zeudelako. Agintariak gerra agintzen bazuten, herriak obeditu eta borroka egin behar zuen. Gerra lan sakratua eta beharrezkoa zen: jatea eta edatea bezain beharrezkoa. Gaizkileak zigortzeko eta bakea edo mendetasuna sortzeko egiten zen gerra. Matxinatzen ziren nekazariei lepoa moztu behar zitzaien, erre egin behar ziren. Burugabe batek bakarrik esan zezakeen zapaltzea eta lapurtzea ez zirela ekintza kristauak (Fromm, 1941).

Luterok bere buruaz zuen irudia ez zen oso ona; barruan zuen haserrea ezin zuen baretu. Haserre hori Aita Santuarengana, nekazariengana, juduengana eta hurbileko lagunengana heltzen zen; Melanchthon bera ere kexatzen zen haren egoskorkeriaz eta tiraniatz. Bere ideiak defendatzeko borrokatzen zenean, ideia horiek erreprimitzea zuzengabea zela pentsatzen zuen eta pentsamendu, adierazpen eta ekintza askatasuna eskatzen zuen; baina, bere ideiek Alemanian zehar hedatu zirenean, zerutik inspirazio zuzena zuela eta erlijio kontuetan autoritate bakarra zela uste zuen. Besteen ikuspegia kontuan hartzea asko kostatzen zitzaion Luterori; bere buruarengana asko zentratu zen, barnean sentitzen zuenari bakarrik begiratzen zion eta bere esperientzia pertsonalak orokortzeko joera zuen. Ingurukoei guztizko mendekotasun espiritualak eskatzen zion eta beti baiezkotzat ematen zioten lagunez inguratu zen. Bera bakarrik zegoen zuzen, bere barne ahotsari bakarrik egiten zion jaramon, bere intuizio eta bulkadak jarraitzen zituen, besteei entzun gabe; bere sentitzeko moduan oinarrituta, liburu sakratu batzuk onartu eta besteak baztertzen zituen. Profeta sentitzen zen eta mespretxatu egiten zituen Aita Santuak, kontzilioak, doktoreak eta berak zioenarekin ados ez zeudenak (García-Villoslada, 1973).

Sasoiko zenean jende askok begirunea zion Luterori, iraganeko zerbitzuengatik, baina adinean aurrera zihoan heinean fisikoki eta psikikoki aldatu egin zen eta galdu egin zituen bere lidergoa eta bere ospea (Oberman, 1992). Luterok sarritan eduki zituen oinaze fisikoak, dispepsia, giltzurrunetako gaixotasuna, kolikoak, hezueria, ziatika, buruko minak, insomnioa, amesgaiztoak, barne-herstura erasoak, kontrolik gabeko haserre eta amorru erasoak. Luzea da Luterori buruz ikerlariek egindako diagnostikoen zerrenda: barne-herstura orokortua, nahaste bipolarra, depresio nagusia, nahaste obsesibo-konpulsiboa, **espektrio emozionaleko nahastea**. **Ian Osborn-en (2008) arabera, akademiko guztiak onartzen dute Luterok barne-herstura, obsesioa eta depresioa jasan zituela bizitza osoan zehar, neurri handiagoa edo txikiagoan.** Krisialdi horiek guztiak izanda ere, Luterok tarteka jarrera dinamikoa agertzen zuen; tentsio neurotikoa eta beheraldi zorrotzak jasaten bazituen ere, lanerako indarra ateratzen zuen eta ekoizpenerako gaitasun handiko fase batzuk izaten zituen (Erikson, 1958).

Kiefl-en arabera (Kiefl, 1917), Luterok nortasun erlijiosoaren zuten. Haren idatzi, gutun eta solasaldi nagusiak erlijioaz izan ziren eta haren bilakaera arrazoi erlijiosoek azaltzen dute. Malenkonian eta gaixotasunak deabruaren lan moduan eta espiritualitatearen ikuspegitik ulertzen zituen. Landu zuen Teologia berri horrek Jainko ankerraren tiraniatik askatu zuen Lutero, baina ez zuten askatu nahaste obsesibo-konpulsibotik.

Luteroren portaera eskrupulosoaren presio erlijiosoaren emaitza moduan ulertzen zuten Bretchek eta Cefaluk. Cefalurentzat Luterok erlijioak baldintzatutako obsesioak bakarrik zituen. Bretch-en arabera (Bretch, 1985-93), lehen itxura batean Luterok ezin zuen patxadarik aurkitu eta horrek patologikoa dirudi, baina fraideak iraganeko bekatuez kontziente izatera bultzatzen zituzten; Lutero ez zen horrela jokatzeko zuten bakarra; giro erlijioso baten eta pietatezko atmosfera baten zati zen. Jaskok besterik pentsatzen du; haren iritziz, Luterok jasan zituen barne-herstura, obsesio eta depresioak esan nahi dute hark gaixotasun mentala pairatu zuela eta gaixotasun mental horrek funtzio esanguratsua bete zuela Luteroren ekarpen teologikoetan; Luterok erlijioaren eta teologiaren munduan egindako ekarpenak estuki loturik zeuden haren gaixotasun mentalarekin. Jaskoren iritziz, Obermanek ez zuen seriotan hartzen Luteroren gaixotasun psikologiko; ez zituen kontuan hartzen Luterok bizi izandako depresioak; haien aurrean ez ikusiarena egiten zuen (Jasko, 2014; Oberman, 1992).

Luterok modu desproporzionatuan erantzuten zien gertaerei; haur oso sentibera izanik, deabruaz oso kezkatua zegoen; harentzat deabrua errealitate bat zen; haren barne-herstura

esperientzietan eginkizun esanguratsua bete zuen deabruak (Osborn, 2008). Luteroren deabruarekiko kezka normala baino handiagoa zen. Bere osasun arazo guztiak deabruaren ekintza zirela pentsatzen zuen. Obsesioz beterik zegoen: Aita Santuaren obsesioa, deabruaren obsesioa, fede soilez justifikatzearen obsesioa. (Jasko, 2014). Osborn-en arabera, Luterok nahaste obsesibo-konpultsiboa zuen; pentsamendu, irudi eta bulkada intrusiboak jasaten zituen (Jasco, 2014; Osborn, 2008). Sadismo morala, bereizgarri obsesibo-konpultsiboak, garbitasunarekiko eta infekzioekiko kezkak eta deabru-posesioak Luteroren analitatearekin erlazionatuak zeuden (Erikson, 1958). Analitatea eta sadismoa elkaturik agertzen zituen: haurrak ipurdian joz zigortzea, garbitasuna eta analitatea erlazionatzea. Luteroren pentsamendu obsesibo-konpultsiboak haren malenkoniarekin erlazionatuak zeuden (Cole, 2000). Sadismo morala, bereizgarri obsesibo-konpultsiboak, garbitasunarekiko eta infekzioekiko kezkak eta deabru-posesioak analitatearekin erlazionatuak zeuden Luterorengan (Erikson, 1958).

Reiter-ek egindako Luteroren patografiaren arabera, Luterok barne-herstura, nahaste bipolarra eta nahaste psikotikoak izan zituen; psikosi maniako-depresiboa zuen, fase depresiboaren nagusigoarekin (Reiter, 1937). Bainton-ek ere bazekien Luterok depresioaldiak, barne-herstura eta obsesioak jasan zituela, baina zalantzan jartzen zuen gaixotasun mentala jasan ote zuen, haren produktibitate maila ikusita (Bainton, 1950); azkenean, Luterok deabruarekin borrokan, etsipenean eta depresioan, pasatu zituen ordu guztiak kontuan hartuta, Baintonek ondorioztatu zuen nahiko datu badaudela Luterok gaixotasun mentala jasan zuela esateko. Mania eta depresio moduan deskribatu zuen Baintonek Luteroren sentikortasun emozionala.

Eriksonen arabera Lutero bipolarra edo depresiboa zen. Pablo Moebius-en arabera ere, Luterok psikosi maniako-depresiboa zuen (Erikson, 1958). Frederiko Küchenmeisterrek zioenez, Luteroren izaera koleriko eta malenkoniatsuaren artekoa zen. Reiterrek esaten zuen Luterok bere bizitzan zehar barne-herstura, nahaste bipolarra eta nahaste psikotikoaren sintomak izan zituela (Reiter, 1937). Jaskoren (2014) arabera, Lutero aztertu duten akademiko eta psikologoek onartzen dute hark barne-herstura, obsesioa eta depresioa izan zituela bizitza osoan, neurri handiago edo txikiagoan; beraz, esan beharke gure Luterok espektro emozionaleko nahastea zuela.

Luteroren nahaste mentalak eragin handia izan zuen haren lanean. *Anfechtung*-ak eraman zuen Lutero monasteriora; atsekabe horrek eraman zuen justifikazioaren dotrinara, Erreforma

gauzatzera eta Eskrituren ikuspegitik bere teologia eraikitza. Bretch-en arabera, Lutero ulertu zuen *Anfechtung*-aren edo atsekabearen mende daudenek bakarrik uler ditzaketela Eskriturak (Bretch, 1985-93). Insight sakonak edukitzeko gaixotasun mentala jasan behar dela. *Anfechtung*-ak egin zuen Lutero zen bezalako gizakia.

Bibliografía

- Abellán, J. (1990). Estudio Preliminar. In Martin Lutero. *Escritos Políticos*. Madrid: Tecnos.
- Bainton, R. H. (1950). *Here I Stand: A Life of Martin Luther*. Nashville: Abingdon.
- Boyer, O. S. (1983). *Biografías de grandes cristianos*. Florida: Editorial Vida.
- Brecht, M. (1985). *Martin Luther: His Road to Reformation 1483-1521*. Philadelphia: Fortress Press.
- Brecht, M. (1985-1993). *Martin Luther*. Minneapolis: Fortress Press.
- Brown, N. (1959). *Life against Death: The Psychoanalytical Meaning of History*. Middletown, CT: Wesleyan University Press.
- Campos y Fernández de Sevilla, F. J. (2017). *Lutero, su obra y su época*. Madrid: **Editorial** Instituto Escorialense de Investigaciones históricas y artísticas.
- Capps, D. (1997). *Men, religion, and melancholia*. New Haven, CT: Yale University Press.
- Cefalu, P. (2010). The Doubting Disease: Religious Scrupulosity and Obsessive-Compulsive Disorder. *Bioethics Quarterly*, 31 (2):111-125.
- Cochlaeus, J. (2002). The Deeds and Writings of Dr Martin Luther from the Year of the Lord 1517 to the Year 1546 Related Chronologically to all Posterity. In *Luther's Lives: Two Contemporary Accounts of Martin Luther*. Manchester: Manchester University Press.
- Cole, A. H. (2000). A Spirit in Need of Rest: Luther's Melancholia, Obsessive-Compulsive Disorder, and Religiosity. *Pastoral Psychology*, 48 (3): 169-190.
- Currie, M. A. (2009). *The Letters of Martin Luther*. Limited MacMillan and Co., Limited. London: St. Martin's Street.
- Denifle, H. (1904). *Luther und Luthertum in der ersten Entwicklung*. Mainz: Kirchheim.
- Durant, W. (1957). *The Reformation*. New York: Simon & Schuster.
- de Cadenas y Vicent, V. (1990). *El concilio de Trento en la época de Carlos V*. Madrid: Ed. Hidalguín.
- Elton, G. R. (1964). *Reformation Europe 1517-1559*. Cleveland: World Publishing Co./Meridan Books.

Erikson, E. H. (1958). *Young Man Luther A Study in Psychoanalysis and History*. London: Faber and Faber.

Febvre, L. (1980). *Martin Lutero: Un destino*. México: Fondo de Cultura Económica.

Friedenthal, R. (1970). *Luther. His Life and Times*. New York: Harcourt Brace Jovanovich, Inc.

Fromm, E. (1941). *Escape from Freedom*. New York: Farrar & Rinehart.

Garcia Villoslada, R. (1973). *Martín Lutero*. Bi ale: I, *El fraile hambriento de Dios*; II, *En lucha contra Roma*. Madrid: Biblioteca de Autores Cristianos.

Greiner, A. (1956). *Luther. Essai biographique* . Genève: Labor et Fides.

Grisar, H. (1931). *Martin Luther. Sa vie et son oeuvre*. Paris: Lethielleux.

Hausrath, A. (1904). *Luthers Leben*. Berlin.

Jasko, A. (2014). *A Case For Mental Illness in Martin Luther and Preliminary Observations About Its Positive Role In The Development Of His Theology*
https://www.academia.edu/19509441/A_Case_For_Mental_Illness_in_Martin_Luther_And_Preliminary_Observations_About_Its_Positive_Role_In_The_Development_Of_His_Theology

Kiefl, F. X. (1917). Martin Luthers religious Psyche. *Hochland*, 15 (1), 7-28.

Lamers, F., van Oppen, P., Comijs, H. C., Smit, J.H., Spinhoven, P., van Balkom, A.J., Nolen, W.A., Zitman, F.G., Beekman, A.T. eta Penninx, B.W. (2011). Comorbidity Patterns of Anxiety and Depressive Disorders in a Large Cohort Study: the Netherlands Study of Depression and Anxiety (NESDA). *Journal of Clinical Psychiatry*, 72 (3), 341-8.

Lohse, B. (1986). *Martin Luther: An Introduction to his Life and Work*. Philadelphia: Fortress Press.

Luther, M. (1957). *The Bondage of the Will: A New Translation of De Servo Arbitrio (1525), Martin Luther's Reply to Erasmus of Rotterdam*. New Jersey: Fleming H. Revell Co.

Luther, M. (1962). That Jesus Christ was Born a Jew. In *Luther's Works*. Philadelphia: Fortress Press.

Luther, M. (1971). On the Jews and Their Lies. In *Luther's Works*. Philadelphia: Fortress Press.

Luther, M. (2004). *The Table Talk of Martin Luther*. Philadelphia: The Lutheran Publication Society. <http://www.ntslibrary.com/PDF%20Books/Luther%20Table%20Talk.pdf>

Oberman, H. A. (1992). *Luther: Man Between God and the Devil*. New York: Doubleday.

Olsen, D. O. (2012). *Luther and Hitler: A Linear Connection between Martin Luther and Adolf Hitler's Anti-Semitism with a Nationalistic Foundation*. Master of Liberal Studies Theses. Paper 20.

Osborn, I. (2008). *Can Christianity Cure Obsessive-Compulsive Disorder?*. Grand Rapids: Brazos Press.

Pangritz, A. (2001). Once More: Martin Luther and the Jews. In John K. Roth and Elisabeth Maxwell (arg.), *Ethics and Religion, Remembering for the Future: The Holocaust in an Age of Genocide*, 2: 618-34. New York: Palgrave.

Paras, E. (2008). The Darker Side of Martin Luther. *Constructing the Past*: Vol. 9: Iss. 1, Article 4. <https://digitalcommons.iwu.edu/constructing/vol9/iss1/4>

Reiter, P. J. (1937). *Martin Luthers Umwelt, Charakter und Psychose*. Copenhagen: Leven & Munksgaard.

Roper, L. (2010). Martin Luther's body: the "stout doctor" and his biographers. *The American Historical Review*, 115 (2): 351-384.

Shirer, W. L. (1960). *The Rise and Fall of the Third Reich*. New York: Simon and Schuster.

Smith, P. (1911). *The Life and Letters of Martin Luther*. Boston: Houghton Mifflin Company.

Spitz, L. (1973). Psychohistory and History: The Case of Young Man Luther. *Soundings: An Interdisciplinary Journal*, 56 (2), 182-209.

Steigmann-Gall, R. (2003). *The Holy Reich: Nazi Conceptions of Christianity, 1919-1945*. New York: Cambridge University Press.

Stork, Th. (1857). *The life of Martin Luther and the Reformation in Germany*. Philadelphia: Lindsay & Blakiston.

Strelau, J. eta Zawadzki, B. (2011). Fearfulness and Anxiety in Research on Temperament: Temperamental Traits are Related to Anxiety Disorders. *Personality and Individual Differences*, 50, 907-915

Strohl, H. (1962). *Luther jusqu'en 1520*. Paris: Presses Universitaires de France.

Waite, R. G. L. (1977). *The Psychopathic God: Adolf Hitler*. New York: Basic Books.

Walker, J. (1996). *Martin Luther's Dirty Little Book: On the Jews and their Lies. A Precursor to Nazism*. <http://nobeliefs.com/Lutero.htm>.

Watson, D. (2005). Rethinking the Mood and Anxiety Disorders: A Quantitative Hierarchical Model for DSM-V. *Journal of Abnormal Psychology*, 114 (4): 522-36.

Wiener, P. F. (1999). *Martin Luther: Hitler's Spiritual Ancestor*. Cranford, New Jersey: American Atheist Press.